

A portrait of Leslie Feinberg, a man with short hair, wearing a dark shirt and tie. The image is split vertically: the left side is in a dark blue monochrome, and the right side is in black and white. A pink banner is overlaid on the left side.

**LESLIE
FEINBERG**

Itzulpena:
Fermintxo Zabaltza

Hitzatzea:
Kattalín Miner

**BORROKA
LARI
TRANS
GENEROAK**

Historia eginez,
Joana Arc-ekotik
Dennis Rodman-engaino

Katakrak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturaren irribide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, maketa lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezzen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Leslie Feinberg

***BORROKALARI
TRANSGENEROAK***

*Historia eginez, Joana Arc-ekotik
Dennis Rodman-enganaino*

Leslie Feinberg

BORROKALARI TRANSGENEROAK

*Historia eginez, Joana Arc-ekotik
Dennis Rodman-enganaino*

Itzulpena: Fermintxo Zabaltza Aleman
Hitzatzea: Kattalin Miner

Jatorrizko izenburua: *Transgender Warriors. Making History from Joan of Arc to Dennis Rodman*

Egilea: **Leslie Feinberg**

Jatorrizko lizentzia: Copyright © 1996 by Leslie Feinberg

Itzulpena: **Fermintxo Zabaltza Aleman**

Hitzatzea: **Kattalin Miner**

Barruko argazkiaren egilea: **Ekinklik**

Diseinua: **Koldo Atxaga Arnedo**

Lehenengo edizioa: **2021eko urria**

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko betiere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-64-8

Lege gordailua: NA 2020-2021

Inprimaketa: **Alzate Grafikak**

AURKIBIDEA

HITZAURREA	13
ESKERRAK.....	21
LEHENBIZIKO ZATIA	
BAT	
Hasi da bidaia.....	29
BI	
Kontzientziarako nire bidea.....	39
HIRU	
Errebelazioa	53
LAU	
«Hommasse» deitzen zioten	69
BIGARREN ZATIA	
BOST	
Geure iragan sakratua.....	85
SEI	
Zergatik hasi zen intolerantzia.....	97
ZAZPI	
Baina bazituzten esklaboak!	105
ZORTZI	
Naturala «antinatural» bihurtzen da	113
HIRUGARREN ZATIA	
BEDERATZI	
«Gerra santua» trans jendearen kontra.....	121

HAMAR	
Erasoaren buru.....	131
HAMAIKA	
Passingaz haratago.....	143
LAUGARREN ZATIA	
HAMABI	
Alemaniatik Stonewallera.....	155
HAMAHIRU	
Izan ala ez izan	169
HAMALAU	
Ahizpatasuna: egizu egiazko!.....	181
HAMABOST	
Historia eginez	199
BOSGARREN ZATIA	
ERRETRATUEN GALERIA	215
EPILOGOA	245
ERANSKINA	
Genero Eskubideen Nazioarteko Deklarazioa	251
BIBLIOGRAFIA HAUTATUA	257
HIZTEGIA	261
IRUDIEN JABEAK	265
HITZATZEA (Kattalin Miner)	269

30

Saretuak, borro
frente a la intolerancia

BO
Ennes

LERA da **BIDE**
BAKARRA
Transfeminista 

kan eta harro 
encia transmarikabi bollo

Guduan hildako bi borrokalari transgenerori eskainia:
Brandon Teena
Marsha P. Johnson

HITZAURREA «MUTILA ALA NESKA ZARA?»

Bizi guztian entzun izan dut galdera hori. Erantzuna ez da hain sinplea, ez baitago ingelesez neure konplexutasuna adierazteko izenordainik, eta ez baitut neure burua sinplifikatu nahi batean ala bestean egokitzeko. Ni bezalako milioika daude Estatu Batuetan bakarrik.

Heroi militantez betetako historia dugu. Baina zaila da haien gудuez hitz egitea bera; izan ere, *emakume* eta *gizon*, *femenino* eta *maskulino* dira kasik hitz bakarrak ingelesez deskribatzeko gorputzen eta espresio-estiloen gorabehera guztiak.

Bizirik dauden borrokek hizkuntzaren aldaketak bizkortzen dituzte. Ikusi nuen nola aldatu zen hizkuntza 1960ko hamarkadan, armairutik atera nintzenean drag-tabernetan, New Yorkeko mendebaldean eta Ontarioko hegoaldean. Garai hartan, gu deskribatzeko zeuden hitz bakarrek erre eta ebaki egiten ziguten —esaterako, oihukatzen zizkiguten derrapatzen zuen auto baten leihotik, zanpatzaile potentziaz betetik zegoen batetik—. Ez geneukan geure hitzik, geure buruarekin ongi sentiaraziko zigunik.

«Gay» hitza [«alaia, ikusgarria»] lehenbizikoz entzun genuenean, lagun batzuek sutsu egin zioten kontra, esanez alai itxura ematen zigula. «Inork ez du sekula 'gay' hitza erabiliko», segurtatu zidaten, eta bakoitzak hitz alternatibo bat eskaini zuen, baina horietako bakarra ere ez zen errotu. Ikasi dut hizkuntza ezin dela banaka enkargatu, katalogo batetik bezala. Taldean forjatzen da, borrokaren su beroan.

Esaterako, 60ko eta 70eko hamarkadetan, Estatu Batuetan, askapen mugimenduek irabazitako errespetuzko hizkera jasa-

ten ari da «politikoki zuzena» izatearen kontrako eskuindarren erreazio bortitza. Ikasi dudanez, «politikoki zuzena» izateak esan nahi du hizkera bat erabiltzea zeinak errespetatzen dituen besteen zapalkuntzak eta zauriak. Aukeratutako hizkera hori defendatu egin behar da.

Hemen erabiltzen ditudan hitzak zaharkiturik geldi daitezke oso azkar; izan ere, gaztea da mugimendu transgeneroa, eta oraindik ere bere burua definitzen ari da. Baina pankartetako leloak bizkor aldatzen ahal badira ere, borroka segituko du. Liburu hau idazten ari naiz askapen transgeneroaren beharretarako ekarpen gisa, eta, beraz, erabiltzen dudana hizkeraren helburua ez da elkartzen ari diren komunitate dibertsoak *definitzea* baizik *defendatzea*.

Ezin dut jakin ea trans askapenerako mugimenduak ekarriko ote duen hirugarren izenordain bat, edo izenordain neutroak, ziberespazioan esperimendatzen ari diren horien gisakoak: ingelesez, *ze* (she/he) edo *hir* (her/his). Ez dira berez hitzak inporta zaizkidanak, baizik geure biziak. Trans jendeak mendeetan izandako borroka ez da gizon edo emakume banakoen historia (*his-story* edo *her-story*), baizik geure historia (*our-story*).

Deitu izan didate emazte-gizon (*he-she*) mari-mutil (*butch*), *bulldagger* (lesbiana oso «maskulinoa»), *cross-dresser* (ustez beste sexuarenak diren jantziak janzten dituenak), *passing woman* (*passing* egiten duen emakumea, hots, berak hala bilatuta, gizartean gizontako hartua dena), «andretik gizonerako» trabesti (*female-to-male transvestite*) eta *drag king*. Neuretako nahien dudana hitza *transgeneroa* da.

Erabilera ez-formalean, transgenero hitzak gutxienez bi esanahi ditu gaur egun. Aterki-termino gisa erabili izan da, barnean hartzeko sexuaren eta generoaren mugak desafiatzeko dituzten guztiak. Halaber, erabiltzen da honako bi hauek bereizteko: batetik, beren buruari beste sexu bat berresleitzen diotenak, jaiotzan esleitutakoa ez bezalakoa; eta, bestetik, geure sexurako desegokitzat jotzen den genero-espresioa dugunak. Egun, erakunde askok —adibidez San Frantziskoko Transgender Nation-ek eta Jersheyko kostako Monmouth Ocean Transgender-ek— inklusiboki erabiltzen dute *transgenero* hitza.

Beren buruari transgenero deituta liburu honetan izendatzen edo agertzen diren aktibista askori galdetu diet ea

haien ustez nor dagoen sartuta aterki-termino horren barnean. Erantzun zidaten hauek zeudela sartuta: transexualak, transgeneroak, trabestiak, transgeneristak, bigeneroak, *drag queenak*, *drag kingak*, *cross-dresserrak*, emakume maskulinoak, gizon femeninoak, intersexualak (garai batean «hermafrodita» deituta), androginoak, cross-generoak, itxuraldatzaileak, *passing* emakumeak, *passing* gizonak, genero tolestaileak, genero nahastaileak, emakume bizardunak, eta emakume kulturistak zeinek gurutzatu dituzten gizarteak emakumearen gorputzerako onargarritzat jotako mugak.

Baina, orobat, transgenero hitza gero eta gehiago erabiltzen ari da modu espezifikagoan. Virginia Prince borrokari transak sartu zuen *transgenerista* terminoa lehenbizikoz ingelesean. Virginiak hala esan zidan: «1987an edo 1988an sortu nuen *transgenerista* hitza. Izen bat behar zen ni bezalako jendearentzat: hots, generoaren muga gurutzatzen dugunontzat, alegia, denbora guztian geure anatomiaren kontrako generoan bizi garenontzat. Sexuaren muga ez dut gurutzatu nik».

Mugimendu transgenero orokorra garatu ahala, gero eta jende gehiago ari da esploratzen pertsona baten sexuaren eta haren genero-espresioaren arteko bereizketa —sexua: emea, intersexuala, arra; eta genero-espresioa: femeninoa, androginoa, maskulinoa eta beste aukera batzuk—. Genero-aldizkari eta komunitate talde nazional eta lokal asko hasi dira TS/TG erabiltzen: transexual eta transgenero.

Mendebaldeko legearen arabera, doktore batek niniaren genitalei begiratu, eta adierazten du neska edo mutikoa den, eta kito. Gizon eta emakume *transexualek* gurutzatzen dute jaiotakoan esleitu zitzaizen *sexuaren* muga.

Eta Mendebaldeko kultura nagusietan, jaiotakoan ezartzen da ninien genero-espresioa: arrosa neskentzat, urdina mutilentzat; espero da neskak femeninoak izatea, eta mutilak maskulinoak. *Transgeneroek* gurutzatzen dute jaiotakoan esleitu zitzaizen *generoaren* muga, edo lausotzen dute, edo bi aldeak lotzen.

Nolanahi ere, transexual guztiek ez dute aukeratzen ebakuntzak egitea edo hormonak hartzea; batzuek bai. Ni transgeneroa naiz eta neure burua kirurgia eta hormona bidez taxutu

dut bitan, eta niretzat gordetzen dut berriz ere hala egiteko eskubidea.

Baina nahiz eta gure mugimenduak terminologia berria sortu, oraindik ere geure komunitateei deitzeko hitz guztiek badituzte mugak. Esaterako, *cross-dresser*, *cross-genero*, «gizonetik andrerako» eta «andretik gizonerako» terminoek sendotzen dute ideia hori zeinaren arabera soilik bi izaera mota dauden —bata ala bestea aukeratu behar duzu—, eta hori ez da egia. *Bigenero* hitzak adierazten du pertsona bat zeinak bere baitan dituen bai alde femeninoa bai maskulinoa. Iraganean, bigenero gehienak sartzen zituzten *cross-dresserren* kategorian, elkarrekin. Ordea, batzuek bizi guztia ematen zuten *cross-dresser* gisa edo «gurutzatuki jantzirik»; beste batzuk, nonbait, tarteka ziren *cross-dresser*. Agian, genero zapalkuntzarik ez balitz, «tartetako» *cross-dresser* batzuk aske sentituko ziren denbora guztian bizitzeko *cross-dresser* gisa. Baina bigeneroek askatasuna nahi dute beren izaeraren bi alderdiak espresatzeko.

Beti ere, nahiz eta pertsona oren eskubidea defendatzen dudan *trabesti* hitza erabiltzeko beren burua definitzeko, nik guzti erabili dut liburu honetan. Oraindik ere trans argitalpen eta elkarte batzuek «*trabesti*» edo TV laburdura erabiltzen badute ere beren izenatarako, *trabesti* izena jaso duten askok uko egiten diote terminoari, burura ekartzen baitizkie patologia psikologikoko kontzeptuak, fetitxismo sexuala eta obsesioa, eta norbere burua adierazteko modu horrek ez du eritasunetik deus ere. Eta industria medikoak eta psikiatrikoak beti definitu dituzte *trabestiak* gisa, baina badira emakume *cross-dresser* asko ere.

Cross-dresser, *trabesti* eta *drag* hitzek nolabait transmititzen dute norberaren espresio konplexu horiek direla janzkeraren inguruak bakarrik. Baina *La Cage aux Folles* ikusi duen guztia oroituko da nola *drag queen* batek ez zuen *drag queen* itxura handiagorik ezen «gizonen» hiru piezako traje batean sartzen zutenean baino, eta ezen gurina ogian «egiazko gizon» baten gisan zabaltzen erakusten ziotenean baino. Geure espiritu osoa —gu geu garen esentzia— ez denez egokitzen genero-este-reotipo estuetara, iraganen *cross-dresser*, *trabesti*, *drag queen* edo *drag king* izendatutako jende askok orain *transgenero* gisa definitzen du bere burua.

Denek batera, gure komunitateek desafiatzan dituzte sexu eta genero muga eta murrizketa *guztiak*. Komunitate dibertsio horiek denak lotzen dituen itsasgarria da banako bakoitzak bere burua definitzeko duen eskubidearen defentsa.

Liburu hau idazten ari naizen bitartean, genero-komunitatea gero eta gehiago erabiltzen ari da *trans* hitza koalizio guztia izendatzeko. Jende askok jada termino hori ezagutuko balu, liburuari *Borrokalaria transak* izenburua jarriko nioke, baina oraindik ere munduan ulergarriagoa denez *transgenero* hitza, hori erabiltzen dut modurik inklusiboenean: aipamena egiteko sexu eta genero guztietako borrokalaria *trans* ausartei, historian gudu eta matxinaden buru izan direnei eta gaur egun beren identitate eta bizien alde borrokatzeko ausardia dutenei.

Borrokalaria transgeneroak ez da transen historia osoa eta zehatza, ezta *trans* mugimendu modernoaren jaiotzaren eta garapenaren historia ere. Aitzitik, da begirada berri bat sexuak eta generoak historian izan duten lekuaz, eta klasearekin, naziotasunarekin, arrazarekin eta sexualitatearekin dituzten erlazioez. Gizarte guztiek onartu al dituzte bi sexu bakarrik? Beti egon al dira hain gaitzetsiak sexuaren eta generoaren mugak gurutzatu dituztenak? Zergatik dira legeen gaia sexu-berresleipena eta *cross-dressinga*?

Baina nola topa ditzaket galdera horien erantzunak baldin horrek eskatzen badu barneratzea gizarte dibertsioetan non sexuaren eta generoaren kontzeptuak aldatzen diren, denboran, dunetako harea bezala? Eta ikertzaile *transgenero* zuria naizen aldetik, nola saihestu dezaket neronen interpretazioak eranstea zapalduetako nazioen kulturei?

Zenbait modutan heldu diot problema horri. Lehenik, arreta handia eman diot Mendebaldeko Europari, ez oharkabe-ko eurozentrismoarengatik, baizik uste dudalako Mendebaldeko kulturetan sortu direla mendeetan agindu duten indarrak, hain zuzen ere gorroto eta intolerantzia kanpainen erantzule direnak, kanpaina batzuk gero inposatu direnak mundu guztiko herri kolonizatuetan. Jarrera horien erantzukizuna zuzenean Europako agintari klasearen bizkarretan jartzea da mugimendu antiimperialistei egiten diedan ekarpen bat.

Orobat, mundu guztiko argazkiak agertu ditut, eta herri eta nazio horietako jendeei eskatu diet lagun diezadaten argazki oin

labur eta objektiboak jartzen. Asko saiatu naiz kultura-adierazpen desberdin horiek ez interpretatzen edo alderatzen. Argazki horiek ez dute esan nahi horietan agertzen direnek beren burua transgenerotzat daukatenik, munduaren gure ikuspegi Mendebaldeko eta moderno berarekin. Aitzitik, irudi horiek agertu ditut desafiatzeko egun Mendebaldean nagusi den ikuspegia, zeinetan emakumea eta gizona bakarrik existitzen diren, eta zeinetan modu bakarra dagoen emakumea edo gizona izateko.

Ez dut onartzen banako baten genero-espresioa denik soilik biologiaren ondorio ala soilik kulturaren ondorio. Generoa biologia bakarrik zehazten badu, zergatik izaten dira landako emakumeak, esaterako, hirietakoak baino «maskulinoagoak»? Bestaldetik, genero-espresioa baldin bada soilik erakutsi zaigun zerbait, transek, populazioko hain zati handiak, zergatik ez dute behar bezala ikasi? Bi sexuak baldin badira egitate biologiko aldaezina, zergatik daude hainbeste gizarte bi sexu baino gehiago onartzen dituztenak? Biologia patua ez bada ere, *badira* markatzaile biologiko batzuk giza anatomiaren espektroan. Hortaz, sexua konstruktua soziala da, ala sexua hain zurrun kategorizatzea ote da osagai kultural hori? Argi dago interakzio konplexua behar dela izan banakoen eta haien gizarteen artean.

Gai honetan dudak interesa ez da teorikoa bakarrik. Jadanik jakinen duzunez, sexuaren eta generoaren mugak gurutzatu ditugunok izugarri garesti ordaintzen ari gara. Bazterketa eta indarkeria fisikoa jasaten dugu. Ukatzen zaigu duintasunez eta errespetuz bizitzeko eta lan egiteko eskubidea. Hainbesteko ausardia eskatzen du geure bizitzak bizitzeak, non, batzuetan, goizetan etxetik atera eta munduari garen bezala aurre egitea bera den erresistentzia ekintza bat. Baina beharbada ez zenuen jakinen badugula injustizia horren kontrako historia bat, eta gaur egun askapen mugimendu bat eraikitzen ari garela. Ezin ditudanez agertu gure mugimenduaren buru diren aktibista nekaezin guztien argazkiak, argazki bilduma bat sartu dut pixka bat erakusteko sexu eta genero identitateen luze-zabala, orekaturik arraza, naziotasun eta eskualdeei dagokienez. Ez dago libururik identitate guzti-guztiak ager ditzakeenik, banakoenak eta elkarrekinak —hasi Tenesseko Short Mountain Fairies-ekin eta buka San Frantziskoko Sisters of Perpetual Indulgence-rekin—.

Garaia da geure historien aditu gisa idatz dezagun. Sobera denbora da geure argia beste batzuen prismatik errefraktatu dela. Liburu honetan dudan helburua da arma bihurtzea historia, politika eta teoria, oso zapaldurik dagoen populazioaren zati batentzat.

Handitu nintzen uste izanez giza izaeraren ondorio bat besterik ez zela nire genero-espresioarengatik jasaten nuen gorrotoa, eta nire falta behar zuela izan halako erasoen helburu izateak. Ez dut nahi inongo gaztek berriz ere halakorik uste izatea, eta horregatik idatzi dut liburu hau, agerian uzteko sexu eta genero zapalkuntzaren erroak eta zurtoinak.

Gaur egun, «genero-teoriaren» zati handi bat giza esperientziatik abstraitua dago. Baina teoria ez baldin bada esperientziaren erretxina kristalizatua, uzten dio ekintzaren gida izateari. Bizirik dauden eta arnasten ari diren historia, politika eta teoria eskaintzen ditut, erroturik daudelako askatasunaren alde sutsu borrokatzen diren egiazko pertsonen esperientzian. Eta lan honen xedea ez da bakarrik iraganaren kronika egitea; etorkizuna taxutzeko egiten dudan militantzia lanaren zati ere bada.

Neure biziko lanaren *muina* da hau. Humanitateaz gabetu nahi ninduten irainen aurrean ukabilak biltzen eta oihuka erantzuten nuenean, ziurtasun hau nuen amorruaren oinarri. Minduta farfuilatuz erantzuten nuenean, asmo oneko jendeak esaten zidanean «Ez dut ulertzen: zer zara zu?», hauxe da esan nahi nuena. Gaur, *Borrokalari transgeneroak* da nire erantzuna. Neure harrotasunaren muina.

ESKERRAK

Azken hogei urtean askotan behar izan dut azkar puskak bildu eta alde egin, alokairua pagatzerik ez izateagatik edo, mai-zegi, ezin izateagatik aurre egin nire biziaren kontrako mehatxu larriei. Hala ere, atzean gauza asko utzi behar izanik ere, beti hartu ditut aldean transgeneroei buruzko ikerketa-lanen kutzak. Eskerrik asko egiazko lagun horiei: gauaren erdian jaiki, begie-tatik logalea igurtzi eta gauzak eramaten lagundu zenidatenei. Neronen bizia eta lana salbatu zenuten.

Hamarkadetan, trans zapalkuntza, erresistentzia eta historiaren gaineko nire idazkiak artikulu moduan agertu dira *Workers World* egunkarian eta *Liberation and Marxism* aldizkarian. Gai horiez hitz egin dut ezin konta ahala mitin politikotan, el-karretarazetan eta aktibisten biltzarretan. Beraz, mila esker Munduko Langileen Alderdiko kideei —nazio, sexu, adin, gaita-sun, genero eta sexualitate guztietakoei— niri lekua egiteagatik, garatzen laguntzeagatik eta podium bat defendatzeagatik zei-netatik hitz egin ahal izan dudan trans askapenaz, berebiziko osagai den aldetik justizia ekonomiko eta sozialaren aldeko borrokan.

Hona hemen esker berezi batzuk. Gregory Dunkeli, duela hogeia bat urte ohartarazteagatik aurkitzen nituen irudiak ar-txibatu egin behar nituela, eta bideko pauso bakoitzean lagun izateagatik. Sara Floundersi, erakutsi duelako oso lagun eta alia-tu ona dela trans komunitateentzat eta neuretzat. Bihotzean daramat Dorothy Ballanenganako nire esker ona eta maitasuna. Bereziki eskertzen diet babes nekaezina nire kamarada transe-

xual, transgenero, drag eta intersexualei, batez ere Kristianna Tho'masi.

1992an idatzi nuen *Transgender Liberation: A Movement Whose Time Has Come* liburuxka, oinarri bihurtu zena nire diapositiba emanaldietarako. Herrialde guztian barna ibili nintzen diapositibak erakutsiz era guztietako tokietan, esaterako Brown unibertsitatean eta Little Rockeko (Arkansas) pizzeria/taberna bateko atzeko aldeko gelan. Zuetako askok eta askok egin zenizkidaten galderak ekitaldian bertan edo ondoren, eta horrek lagundu egin zidan lan honen azkeneko bertsio hau egiteko. Beharbada egunkari zati bat, argazki bat edo liburu baten erreferentzia bidali zenidaten. Denek ere zuen babesa eskaini zenidaten. Eskerturik nago goxotasun eta elkartasun horientatik.

Mila esker liburu honetan agertzen den borrokalari trans bakoitzari. Baina beste borrokalari transexual, transgenero, drag, intersexual eta bigenero askok eman zidaten laguntza eta sostengu pila, esaterako: Holly Boswell, Cheryl Chase, Loren Cameron, Dallas Denny eta Transgeneroen Liburutegi eta Artxibo Nazionalaren baliabide baliotsuak, Lissa Fried, Dana Friedman, Davina Anne Gabriel, James Green, David Harris, Mike Hernandez, Craig Hickman, Morgan Holmes, Nancy Nangeroni, Linda eta Cynthia Phillips, Bet Power, Sky Renfro, Martine eta Bina Rothblatt, Ruben, Gail Sondegaard, Susan Stryker, Virginia Prince, Lynn Walker, Riki Wilchins eta Jessy Xavier.

Chrystos, zinez editore lana egin duzu 3. kapituluan; zoragarria izan da zurekin lanean aritzea! Eskerrik asko beste lagun eta aliatu askori ere, lagundu baitidazue elkartasuna ahalik eta errespetu handienaz adierazten beste nazioetako jendeari, atseginez lagundu ere: Yamila Azize-Vargas, Nic Billey maitea, Ben Dantzaria, Arrano Pikart, Elias Farajaje-Jones, Curtis Harris, Larry Holmes, Leota Zakur Bakarti, Aurora Levins Morales, Pauline Park, Geeta Patel, Doyle Robertson, Barbara Smith, Sabrina Sojourner eta Wesley Thomas.

Eta ikerketa edo bilaketa ere hor da. Leslie Kahn, liburutegi transgeneroko nire jainkosa zara. Miriam Hammer, beti izanen dut gogoan nola etorri zinen etxera azken-azkeneko unean, nik idazkia galdu ondoan, ordenagailuko birus bat bilatzera. Eskerrik asko, Allan Berubé, Melanie Breen, Paddy Colligan, Randy P.

Conner, Bill Dragoin, Anne Fausto-Sterling, Jonathan Ned Katz eta Julie Wheelwright.

Eskerrik beroenak Morgan Gwenwaldi eta Mariette Pathy Alleni, proiektu honetan aritu baitziren lanean argazkigintza-ko aholkulari gisa. Amy Steiner, eskerrik asko! Eta eskerrak zor dizkiet liburu honetarako laguntza eman duten argazkilari dokumental eta artistiko bikainei, argazkilari amateurrei, artista grafikoei eta oso ezaguna den marrazkilari famatu bati. Esker berezia Marcus Alonsori, Alison Bechdeli, Loren Cameroni, Stephanie Duminari, Greg Dunkeli, Robert Giardi, Steve Gillisi, Andrew Holbrookeri, Jaennie Livingstoni, Viviane Moosi, John Nafpliotisi, Lyn Neelyri, V. Jon Nivensi, Cathy Opieri, M. P. Schildmeyerri, Bette Sperori, Pierre Vergeri eta Gary Wilsoni. Agurrak errebelatze-gelako kideei, bereziki Phototechnicako Ligia Botersi eta Brian Youngi eta Hong Color-eko jendeari.

Ikusi baitut zenbat artxibozain, liburuzain eta ikertzaile arduratu den mundu guztian geure iragan kolektiboaz zaintzeaz eta eskuragarri jartzeaz, bihoakie nire miresmena egindako lan gaitzarengatik. Esker berezia zuri, Janet Miller, eta zure Ezohiko Ikuspegiari, eta erakunde hauetako langileei: Schomburg Bilduma, Ameriketako Indiarren museoa, Smithsonian Institutua (bereziki Vertisi), Kongresuko Liburutegia, Errusiako Hermitage Estatu-Museoa, Mansell Bilduma, Erresuma Batuko Liburutegia, Galesko Liburutegi Nazionala, Errege Institutu Antropologikoa, Britainiar Museoa, Louvre, Amerikako Liburutegien Elkarte, Bettmann Artxiboa, New Yorkeko Liburutegi Publikoa, Rouen-go Arte Ederren Museoa, Staatliche Museen, Clarke Liburutegi Historikoa, Vergeri Institutua, Nationalmuseum Stockholm, Clevelandeko Artearen Museoa, Guildhall Liburutegia eta Art Resource.

Era askotan jasotako laguntzarengatik, eskerrik asko honako hauei: John Catalinotto, Kate Clinton, Hillel Cohen, Annette Dragon, Bob Diaz, Ferron, Nanette Gartrell, Diane McPherson, Dee Mosbacher, Joy Schaefer, Adrienne Rich, Beth Zemsky eta Carlos Zúñiga.

Nire agenteari, Charlotte Sheedyri —ohorea da lanean aritzea gutako askori bidea erakutsi digun aitzindari batekin—. Beacon argitaletxeko nire editore Deb Chasmani: frogatu duzu editatzearen artea dela zorroztasuna estiloan eta sentikortasun

pila izatea. Mila esker Ken Wongi, gramatikaren aldetik liburu hau orrazteagatik. Eta eskerrik asko Beacon argitaletxeko lantalde guztiari haien ekarpenengatik; horietatik, ez zen gutxienekoa izan erakutsitako interes bizia eta babesa.

Eskerrik asko nire zirriborroak begirada zorrotzez irakurri zituztenei; horiei esker asko garatu dut liburua —batez ere Elly Bulkini eta Deirdre Sinnotti—. Bi hamarkadetan kazetari izaten irakasteagatik, nire aitortza, Deirdre Griswold: urteetan nire editorea eta laguna.

Orain, intimoagoa izanen naiz. Eskerrik asko semeei —Ben eta Ransom—, zuen Drag Aitatxo maitatzeagatik eta laguntzeagatik. Askok maite zaituztet. Nire ahizpa Catherineri, eta «hautatutako nire familiari» —Star, Shelley, Robin, Brent eta ama Wyontmusqui—; nola eskertuko dizuet zuen maitasuna, zuek maitatuz ez bada.

Emazteari: nire inspirazioa, lagunik handiena, Minnie Bruce poeta-borrokalaria. Ez nuen lortuko zu gabe. Makurturik babarrunak biltzen ibili naiz, eta luzatuta sagarrak hartzen, baina liburu hau da sekula egin dudana lanik gogorrena. Zure argia, azkartasuna eta maitasun eskuzabala sostengu izan ditut egunero. Nola eskertuko nizuke merezi bezala? Begira: zoriontsu zahartzen garen bitartean —gauzak etorri ahala— moduak bilatzen saiatuko naiz.

Liburu honetarako denek egindako ekarpenen batura da elkartasun ekintza kolektibo bat trans askapenaren alde. Mundu hobia sortzeko mugimenduak eragin duenez ni neu garatzea, bai eta munduaren neure ikuspegia garatzea ere, liburu hau bueltan ematen diot zapalkuntza oro bukarazteko borrokari; bai liburu hau, bai eskubideen aurrerakinen eta egilearen soldataren azkeneko zentimoa arte.

LEHENBIZIKO ZATIA

Eta oraindik jaio ez direnek,
baina aurpegi onago batez
susmatzen ditugun horiek
gure garaiaren errekontu alaia
egiten dutenean,
bertan gehien sufritu
dugunok aterako gara
irabazle.

Balantzearen aurrean, bihar poemaren zatia.

Egilea: Otto René Castillo, Guatemalako iraultzailea, 1967an exekutatua.¹

1 Euskarazko bertsioa: itzultzaile ezezaguna, «Olerki guatemalarrak», *in Hots*, 18 (1984), 16.

BAT

HASI DA BIDAIA

Ni jaiotakoan, 1949an, medikuak segurtasunez esan zuen: «neska da». Hura izanen zen azkeneko aldia inor hain seguru egonen zena. Oso neska maskulinoa izan nintzen. Hori idaztea erraza da, baina bizitzeko errealtate ikaragarria.

1950eko hamarkadan hazi nintzen; garai haren ezaugarri ziren zorrotz betearazitako homogeneotasuna eta desberdintasunari zitzaion beldurra. Gure familia bizi zen Bell Aircraft konpainiaren babespeko etxeetan. Kaleak ez zeuden zolaturik; ikatz kamioia, izotz saltzailearen furgoneta eta zorrotzailearen gurdia legarrezko bideetan ibiltzen ziren karraska.

Txikitan, bi mundu paralelo elkarri egokitzen saiatzen nintzen: neronen begiekin ikusten nuena eta irakasten zidatena. Esaterako, ikusten nuen nola, langile klaseko gure babespeko etxeetan, emakume indartsuek aurre egiten zieten biziaren erronka guztiei, bitartean moldatzen zirela sobera hurrekin eta diru gutxirekin. Gorrotatzen nuen ikustea nola egurtzen zituen pobrezia, eta maite nituen haien irriak eta indarra. Aitzitik, telebistan irudikatzen zituzten emakumeak zozoak izaten ziren, ez oso argiak. Mezu kultural guzti-guztiek irakasten zidaten emakumeak bakarrik izan zitezkeela emazteak, amak, etxeokandreak: ikusiak, baina ez entzunak. Beraz, egia al zen emakumeak sexu «ahula» zirela?

Eskolan, geografiako testuliburuetakako orrietan, kolore askotako jendea ikusten nuen, niregandik oso-oso urrutiko herrialdeetakoak. Buffalora aldatu aurretik, gure familia Arizonako desertuko herri batean bizi izan zen. Han, populazioaren zati handi samarra zen azal ilunagokoa eta nireak ez bezalako



Egilea, bederatzi bat urterekin.

ohiturak zituena. Ordea, babespeko etxeen mundu txikian, eskolako ikaskide eta irakasle gehienak zuriak ziren. Hiria guztiz zegoen erdi-erditik segregaturik: ekialdea eta mendebaldea. Eskolan, irakasle batzuei aditzen nien aho txikiarekin «tolerantzia» defendatzen, baina, maiz, helduen ahoetatik irain arrazistak entzuten nituen, gorrotoak eraginda.

Maitasun asko ikusten nuen. Derrigorrezkoa zen gurasoak, bandera, herrialdea eta Jainkoa maitatzea. Baina bestelako maitasunen lekuko ere banintzen: nesken eta mutilen artekoa, bi mutilen artekoa eta bi nesken artekoa. Maitasuna, haurren eta zakurren artekoa auzoan, lubakietako soldaduen artekoa filmetan, eta ikasleen eta irakasleen artekoa eskolan. Irrikatsua, platonikoa, sentsuala, derrigorrezkoa, uzkurra, leiala, lotsatia, erreberentziazkoa. Hala eta guztiz ere, maitasunaren esanahi ofizial bakarra irakatsi zidaten: gizonen eta emakumeen artekoa, ezkontzara zeramana. Heldu bakar batek ere ez zuen nire aurrean aipatu gizonik maite zuen gizonik edo emakumerik maite zuen emakumerik. Ez nuen horretaz aditu inon ere. Garai hartan ez zegoen hitzik nire ingelesean adierazteko sexu bereko norbait maitatzearen gozamen erabatekoa.

Eta oso goiz ikasi nuen espero zela mutilek «gizonen» arropak janzteia eta ez zela halakorik espero neskengandik. Gizon batek emakume arropak janzteia txantxa baldartzat hartzen zen. Etxean telebista izan genuenean, uzkurto egin nintzen ikusita gurasoak nola lehertzen ziren irriz «Osaba Miltie» Berlek soineko bat janzten zuenean. Barneraino iritsi zitzaidan. Sears katalogoko mutilen arropak janzteia irrikatzen nuen nik.

Nire genero-espresioa oso naturala iruditzen zitzaidan. Gustatzen zitzaidan ilea motza izatea eta erosoena zitzaizkidan kirol-oinetakoak, blue-jeanak eta kamiseta. Baina neure itxurarekin gusturen sentitzen nintzenean, helduek bitan begiratzen zuten edo seko gelditzen ziren ni ikustean. «Mutikoa ala neska da?» galdera gainean izan nuen haurtzaro guztian. Erantzunak ez zuen asko inporta. Ezezagunek *galdetu* beharrak berak markatzen ninduen generoaren legez kanpoko gisa.

Nire janzkera aukeratua ez zen nire desberdintasuna adierazten zuen alarma bakarra. Nire ahizpa gazte eta femeni-noagoak «mutilen» arropak jantzi izan balitu, fin eta moñoño itxura izanen zukeen. Neskato eta mutiko guztiak «sexuaren arabera egoki» beztitzeak are gehiago azpimarratzen zituen gure genero desberdintasunak. Egokitzen ez ginenak arras nabarmen gelditzen ginen.

1950eko hamarkadan desberdina izatea ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula. McCarthyren komunisten aurkako sorgin ehiza eldarnio betean zegoen. Haur gehienek bezala, helduen elkarrizketen zatitxoak harrapatzen nituen. Hala, ikaraturik nengoan, komunistak nire ohatzpean ote zeuden eta gauez hanketatik helduko ote zidaten. Entzuna nuen «gorri» gisa etiketatutako jendeek beren izenak eta helbideak topatzen zituztela herriko egunkarietan, lanetik bidaltzen zituztela, eta familiarekin batera alde egitera behartzen. Zein zen haien delitua? Ezin nuen helduen xuxurletatik harrapatu. Baina ikasgaia ongi barneratua nuen: eduki ahoa itxita; ez nahasi bazterrak. Irrati eta telebistako salaketa sutu eta bortitzak aditu nituen heldu batzuen kontra, eta gero gizonen batzorde baten aurrean erantzun behar zuten. *Gorri*, *gorritxo*, *judu* hitzak entzuten nituen. Judua nintzen ni.

Babespeko etxeetako judu bakarrak ginen. Gure familiarik barneraturik zuen zer ikaragarrikeria jasan behar izan



Christine Jorgensen etxean.

zuten ahaideek eta lagunek Errusia tsaristan, 1917ko iraultzaren aurretik, eta Ekialdeko Europan, Bigarren Mundu Gerran. Faxismoaren beldur bizi zen gure familia, eta McCarthyren aroari nazismoaren kiratsa zerion. Ezezagun batek gu karrikan gelditu eta gurasoei galdetzen zien bakoitzean «Zer da hau, mutikoa edo neskatoa?», gurasoek hotzikara izaten zuten. Ez da harritzekoa. Uste zuten tximistorratz bat nintzela, eta ekaitz arriskugarria erakar nezakeela. Agintariei aurre egiteko indarge sentituta, familiaren problemen errua niri eta neure desberdintasunari botatzen ziguten. Ikasi nuen neure ardura zela nire biziraupena. Haurtzaindegitik instituturaino, txistu eta irain erauntsi artean ibili behar izan nuen korridoreetan. Kale izkinetan, bultzaka egin behar izaten nuen aurrera, bidea eragozten zidaten nerabe taldeen artetik. Helduen begirada tinkoei eta gorrotoz beteei aurre egin behar izaten nien. Hain zaila zen neska maskulinoa izatea 1950eko hamarkadan, uste bainuen hil eginen nindutela heldu-rorra iritsi aurretik. Genero-irudi guzti-guztiek —Dick eta Janen

testuliburuetatik hasi eta telebistako komedietaraino— sinetsarazten zidaten martetarra behar nuela izan.

Haurtzaroko urteetan denetan, ni bezala «desberdina» zen pertsona bakarraren berri izan nuen. Ez dut gogoan heldu batek haren izena niri esan izana. Oso gaztea nintzen egunkarietako izenburuak irakurtzeko. Helduek seko mozten zituzten beren txantxa zakarrak ni edo beste edozein haur gelan sartutakoan. Ez zidaten uzten gauzez nahikoa berandu esna gelditzera, ikusteko umorezko saio haiek non aurkezleek pertsona hura irrigarri uzten zuten errukirik gabe.

Baina banekien haren izena: Christine Jorgensen.

Hiru urte nituen albistegiek iragarri zutenean Christine Jorgensen Estatu Batuetatik Suediaraino joana zela sexua aldatzeko, arretik emera. Ustez, pasaporte-agente batek saldu zien istorioa hedabideei. Izugarrizko zalaparta izan zen. Hurrengo urteetan, haren izena aipatzeak bakarrik algara krudelak eragiten zituen. Krudelkeria barnaxko sartu zitzaidan, dudarik gabe, ulertu bainuen txantxen muina zela ea Christine Jorgensen emakumea edo gizona ote zen. Ustez, denok egokitu behar genuen aise kategoria batean ala bestean, eta hantxe gelditu. Baina ni ez nintzen egokitzen, eta, hala, Christine Jorgensen eta biek lotura



Zenbait atxilotu polizia-furgonetan. Laurogeita hemeretzi lagun atxilotu zituzten emakumeen arropak janzteagatik, 1939an, New York hiriko sarekada batean, «maskarada» batean.



Goian ezkerrean: pertsona hori epaitu egin behar dute, 1951n, Chicagon; salatu dute errekrutatze-batzordea ez informatzeaz, soldadutzara joateko garaian.

Goian eskuinean: Manhattango delitu larrien auzitegira daramatzate bi lagun horiek, 1952an. Haien krimena? Zinema aretora joan ziren elkarrekin. Arduradunak haiek ikusi, eta polizia deitu zion.

berezia genuen. Zortzi-bederatzi urte nituenerako, galdetua nion umezain bati:

—Zer da Christine Jorgensen, gizona edo emakumea?

—Ez da deus ere —irritxo batekin, umezainak—. Gauza estrainioa da.

«Hortaz», neure artean, «nik ere gauza estrainioa behar dut izan, irudi baitu inork ez dakiela seguru mutikoa edo neska-toa naizen». Zer gertatuko zitzaidan? Bizirik iraunen ote nuen? Christinek bizirik iraunen ote zuen?

Ba, azkenerako, iraun bakarrik ez, garaile atera zen. Banekien barnetik oso asaldaturik biziko zela, baina irainen artetik burua zutik ibiltzen zen. Haren duintasuna eta ausardia harrotasun eredu izan ziren bide bera ibiliko zuten milaka gizon eta emakume transexualentzat, eta, hala, niretzat ere adibide izan zen —eta nork daki beste zenbat haur transgenerorentzat ere—.

Orduan ez nuen arrastorik ere milioika haur eta heldu zeudela Estatu Batuetan eta munduan sentitzen zirenak desberdina den pertsona bakarra balira bezala. Helduen artean, ez nuen beste adibiderik norbaitek sexuaren edo generoaren mugak gurutzatu izanaz. Christine Jorgensenen borrokak ulertarazi

zidan ez nengoela bakarrik. Frogatu zuen ezen eskuin atzerakoi-ko garai batek ere ezin zuela banakoa sumisiora behartu.

Haur transgeneroa izanik iraun nuen bizirik 1950eko erre-
presio gogorreko sasoiari. Baina helduarora eta kontzientziara
iritsi nintzen 1960ko hamarkadako iraultzarako giroan: eskubide
zibilen aldeko mugimendua eta Pantera Beltza Alderdia, Young
Lords eta Amerikako Indiarren Mugimendua, Vietnamgo Gerra-
ren kontrako borroka eta emakumeen askapena. Lesbianen eta
gayen mugimendua ez zen hasia oraindik. Baina nerabe nintzela
topatu nituen gayen tabernak Niagara Fallsen, Buffalon eta To-
ronton. Kez betetako taberna haietan topatu nuen *drag queen*,
mari-mutil eta *femmeen* komunitate bat. Mundu hartan *egokitzen*
nintzen; ez nintzen gehiago bakarrik egonen.

Niretzat sekulakoa izan zen jende haiek aurkitzea, maiz
nire problema berberei aurre egin behar izaten zietenak. Eten-
gabeko bortizkeria nuen esperoan karriketan, eta nekaturik
nengoen; beraz, horixe nuela gogoia tabernetan egoteko lagu-
nekin eta maiteekin. Baina klubak ez ziren aterpe seguruak.
Laster ikasi nuen poliziek eta beste etsai batzuek han ehizatzen
gintuztela. Defendatzeko antolatu ginen arte, zanpatzeko talde
handiagoa besterik ez ginen.

Baina antolatu ginen. Geure eskubideen alde borrokatu
ginen: kontratatuak izatea, karrikan ibiltzea, jabetxe batean zer-
bitzatuak izatea, dendan esne kutxa bat erostea eta softballean
nahiz bolo-jokoan aritzea. Bizitzeko, maitatzeko eta lanerako
eskubideak defendatuta irabazi genituen lankide eta lagun he-
teroen errespetua eta maitasuna. Geure borroka sustatu zuen
geroko lesbiana eta gayen askapen-mugimenduaren leherketa.

Gogoan dut 60ko hamarkadan, Erie izeneko hirian
(Pennsylvanian), Urtzearen Piknika ospatzen zuela lesbianen
eta gayen komunitateak udaberriro. Ehunka emakume eta gizo-
nek betetzen zuten parke gaitz bat ongi pasatzeko: jana, dantza,
softballa eta basoan sexua izatea. Ni izan nintzen lehenbiziko
piknikoan, gizonen betetako auto bat derrapatzen agertu zen ba-
soaren bazterrean. Bat-batean, jaiaren zalaparta isildu egin zen,
ikusi genuenean nola heldu ziren taldean, beisboleko batez eta
metalezko barraz armaturik, muinoan barna guregana.

—Goazen! —oihukatu zuen mari-mutil ile urdindu batek,
segi genezan keinu eginez. Softballeko batea hartu, eta zuze-

nean jo zuen gizon haiengana. Denek hartu genituen bateak eta garagardo botilak, eta atzetik joan gintzaizkion, muinoan gora, mantso, gizonengana. Hasieran, gutaz irri egin zuten. Gero, elkarri beldurrez begiratu zioten, autora jauzi egin, eta gurpilak errez egin zuten alde. Haietako bat oraindik zangoak autoan sartzen eta atea ixten saiatzen ari zen motor-orro batean alde egiten zutela. Denak isilik gelditu ginen une batez, geure indar kolektiboa sentitzen. Gero, geure armadaren gidari zen mari-mutil zaharrak eskuarekin keinu egin, eta ospakizunak jarraitu egin zuen.

Nire beldurrik handiena beti zen poliziek tabernetan sarekadak egitea, legea beren alde baitzuten. Berak ziren legea. Ez zen nire gorbata bakarrik edo nire traje-jaka bakarrik atxilotzeko arriskuan jartzen ninduen. Galtza bragetadunak janzten nituen aldiro urratzen nuen legea, edo galtzontzilloak edo kamisetak janzten nituenean. Legeak ezartzen zuen gutxienez ere «emakumeen» hiru jantzi-pieza behar nituela soinean. Gure ahizpa *drag queenek* «gizonen» hiru jantzi-pieza behar zituzten. Nik dakidala, arau horrek Buffaloko lege-liburuetan segituko du egun.

Bistan da, legeak ez ziren janzteari buruzkoak bakarrik. Emakume maskulinoak eta gizon femeninoak ginen. Geure *genero-espresioak* bihurtzen gintuen jomuga. Lege haiek guri janzteko erabiltzen ziren. Maiz, salaketa formalik ere ez ziguten egiten gu atxilotutakoan. Gehiegitan, polizia auto baten atzeko eserlekuan exekutatzen zen epaia, edo polizien ziega bateko zementuzko zoru hotzean.

Baina mari-mutil zaharrek esana zidaten urtean gau batez poliziek ez gintuztela inoiz atxilotzen: Halloween gauean. Neure buruari galdetzen nion zergatik salbuesten ote ziren *cross-dressing* egiteagatiko zigorrak gau hartantxe. Eta beste galdera batzuek ere hartzen zidaten gogo. Zergatik izan nintekeen jazarpen legalaren eta atxiloketen xede? Zergatik zigor nintzaketen ibiltzeko edo janzteko moduagatik, edo maite nuenarengatik? Nork idatzi zituen gure kontra jotzeko legeak, eta zergatik? Nork eman zien argi berdea poliziei haiek betearazteko? Hasteko, nork erabakitzen zuen zer zen normala?

Hil ala biziko galderak ziren niretzat. Erantzunak lehenago aurkitu izatera, bizia arras aldatuko zitzaidan. Baina erantzunak bilatzeko bidaia da nire bizia. Eta ez nituzke nire bizitzako ikas-kuntza eta gozamenak aldatuko beste inorenekin.

Hala hasi zen nire bidaia. 1969. urtea zen, eta hogei urte nituen. Buffaloko gay taberna batean nengoela, lagun batek esan zidan *drag queen*ek polizien sarekada bati aurka egin ziotela New York hiriko taberna batean. Borroka lehertu, eta bihurtu zen Greenwich Villageko lau gaueko gatazka: Stonewalleko Altxamendua! Tabernako barra ukabidez jo, eta nire zortea mardarikatu nuen. Behingoagatik altxatu eta historia egin genuen, eta nik hura galdu!

Garagardo botilari begira gelditu, eta pentsatu nuen neurte artean: betidanik existitu gara? Betidanik gorrotatu gaituzte hainbeste? Beti defendatu gara?



Poliziaren sarekada, 1962an, Manhattango dantzaldi batean.

BI

KONTZIENTZIARAKO NIRE BIDEA

Ez zitzaidan inoiz bururatu historia ikertzea nire galderei erantzuteko. Eskolan, ez nintzen ongi moldatzen historiarekin. Egia esan, hori esatea gutxi da. Inoiz ez nuen tutik ere ulertu historiaz. Ez nintzen gauza gogoratzeko ea Grezia edo Erroma ote zen lehena. Erdi Aroa zen pikatu ezin nuen haitz monolitiko bat. Beti nahasten nintzen, nor ote ziren aliatuak zein gerratan.

Ezin nuen *neure burua* aurkitu historian. Irudi zuen ni bezalako inor ez zela inoiz existitu.

Baina jakin *beharra* nuen zergatik gorrotatzen ninduten hainbeste «desberdina» izateagatik. Zein zen intolerantzia horren iturria, eta zerk ematen zion indarra? Batzuek espero zuten ikaskuntza akademikorako esparru sakratuetan topatzea halako galderetarako erantzuna. Baina nik beste bide batetik topatu nuen bilatzen nuena: fabriketan arituz eta justiziaren aldeko mugimendu politikoaren bitartez.

Atzera begiratuz, ikus dezaket langile klasekoa izateak taxutu zuela *neure bizia* eta kontzientzia oro har, baina horrek ez ninduela automatikoki aurrerakoi bihurtu. Umetan, gurasoek irakatsi ziguten arrazista ez izaten, uste baitzuten gaizki zegoela haurrei gorrotatzen erakustea. Hasiera ona izan zen, baina nerabetan fabriketan hasi nintzenean ulertu nuen egiaz zein zen arrazismo instituzionalizatuaren eginkizuna. Berehala ulertu nuen «zatitu eta nagusitu» esaera. Greba arriskua zegoen aldiro, arduraduna bat-batean hasten zen langile zurietako batzuen lagun egiten, eta gaztigitzen zigun afro-amerikarrak, latinoak eta indiarrak ez zirela fidatzekoak. «Emakumeak ere ez» xuxurlatzen zien gizon zuriei. «Senarren soldata badute-eta. Ez zaituztete

babestuko». Eta nagusiak eta haien laguntzaileak fitxatzeko makinaren inguruan ibiltzen ziren guk fitxatu bitartean, eta ahotsa goratzen zuten «lesbiana» eta «marikoia» hitzak esatean.

Batzuetan lankide batzuek kontatzen zidaten arduradunak esan ziela judu guztiak zirela bankari eta industrialari aberatsak, eta haiek zirela langile klasearen sufrimenduaren erantzuleak. Baina, halakoetan, oroitarazten nien egunero aritzen zirela ni bezalako juduekin lanean muntaketa lerroan, eta, beraz, ea noiz inporta izan zitzaion arduradunari *geure* miseria! Oso argi gelditu zitzaidan ezen arrazismoa eta antisemitismoa —baita misoginia eta homofobia ere— asmatu zirela elkarren kontra borroka gintezen, eta ez gintezen elkarrekin borroka egiazko aldaketaren alde.

Nolanahi ere, klase-dinamiken nire ulermena fabriketara mugatzen zen. 1960ko hamarkada zen. Lan pila zegoen. Bizitzeko moduko soldatak irabazten genituen. Irudi zuen niretzat sistemak funtzionatzen zuela. Ez zitzaidan gogoratu pentsatzea aurrerapen ekonomiko haren oinarria zirela arma produkzioa eta gobernuak Pentagonoan gastatzen zuena Vietnamen kontrako gerrarako. Hala, ez nituen egiten behar ziren loturak auto-ilara batean geldirik nengoela, nire motoan zain, gerraren kontrako manifestariak Kale Nagusian zihoazela, oihuka: «Enpresak aberastu, soldaduak akabatu!»

Nire mundu ikuskera murrizta zen: fabrika, gay tabernak, lagunak eta maitalea. Esfera txiki hartatik kanpo, gizartea borroka zegoen. Buffalon ere lehertu zen borroka. Unibertsitateko ikasleek campusa okupatzen zuten. Ke poteen keak Buffaloko karrikak hartzen zituen. Afro-amerikarren komunitatea, arrazoi osoz, haserre altxatzen zen. Lantokiko elkarrizketetara ere iristen zen emakumeen mugimenduaren eragina. Nire leihotik kanpora, aldaketa mundua astintzen ari zen. Baina beste gertaera bat behar izan zen nire kontzientzia errotik kanbiatzeko: langabezia.

Gerra garaian, fabrikak lanez lepo zebiltzanean —eta mutil gazte asko Vietnamera bidaltzen zituztenean—, edonor zen ona lanerako. Baina, 1970eko hamarkadaren hasieran, goraldi ekonomikoa apaltzen hasi zenean, ilara luzeetan egon behar izaten genuen lana eskatzeko inprimakiak hartzeko bakarrik. Denbora laburrez ahaztu baldin bazitzaidan zein «desberdina» nintzen,

atzeraldi ekonomikoak oroitarazi zidan. Emakume sobera maskulinotzat hartzen ninduten denda batean aritzeko, edo jatetxe batean, edo bulego batean.

Lanik gabe ezin bizi nintzen. Beraz, egun batez, lagun *femme* baten ileordea eta belarritakoak jantzi, eta saiatu nintzen lanpostu bat eskatzen erdialdeko denda batean, saltzaile izateko. Elkarriketara nindoala, autobusean, jendeak nahiago zuen zutik egon nire ondoan eseri baino. Begira-begira nituen, seinatzen ninduten, eta elkarri xuxurlatzen zioten. «Gizona al da?» galdegin zion emakume batek bere lagunari, denok aditzeko aski ozen.

Ikasgai ederra eman zidan eskarmentuak. Zenbat eta gehiago saiatu emakumeentzat egoki jotako arropak edo orrazkerak izaten, orduan eta gehiago hartzen ninduen jendeak emakume itxura hartu nahi zuen gizontzat. Ulertzen hasi nintzen ezin nuela nire genero-espresioa ezkutatu.

Beraz, beste esperimentu bat egin nuen. Mari-mutil zaharretako bati deitu nion; banekien gizona balitz bezala aritu zela eraikuntzako talde batean. Gezurrezko belarrondoko bizarrak utzi zizkidan. Itsatsi ondoren, Albright-Knox museora joan nintzen. Han nenbilela, irudi zuen inor ez zitzaidala begira gelditzen. Ezohikoa zen hori, eta arindua ere bai. Ahotsa eroso zitzaidan mailara jaitsi, eta zaindari batekin hizketan aritu nintzen enpleguen egoeraz. Esan zidan zaindari izateko izena eman zitekeela, eta eskaera egiteko iradoki zidan. Ordubete geroago, elkarriketa egin zidan arduradunak esan zidan «gizon zintzoa» ematen nuela, eta hantxe berean kontratatu ninduen. Bat-batean onargarria nintzen gizaki gisa. Emakume gisa gorrotagarri egiten ninduen genero-espresio berak gizon zintzoaren itxura ematen zidan.

Neure bizia errotik aldatu zen gizon gisa lanean hasi nintzanean. Egunero-egunero jasan behar izaten nuen jazarpenetik aske nintzen. Baina, hala ere, generoko legez kanpokoa nintzenez, ikaraturik bizi nintzen. Nolako zigorri egin beharko nion aurre deskubritzen baninduten? Beldurrak bulkatu ninduen erabaki zaila hartzera: hormona maskulinoak hartzen hastea deliberatu nuen. Sexua berresleitzeko programa lokal baten bidez errezetatzen zizkidaten. Programa horren beraren bitartez, ziru-jau bat topatu nuen bularrak txikitzeko. Betitik nahi izan nuen neronen gorputza moldatu, eta inoiz ez naiz batere damutu.

Baina gizon gisa har nintzaten hasi nintzen hormonak hartzen. Hormona injekzioak hartzen hasi eta urte batera, bizar eder koloretsua atera zitzaidan, seguruago sentiarazi ninduen, lanean eta lanetik kanpo. Aldaketa horiekin, neure trans identitatearen beste alderdi bat gehiago esploratu nuen.

Museoan aritutako urteek nire kontzientzian eragin zuten. Egunean zortzi ordu ematen nituen ehunka urte zituzten artelanez inguraturik. Bisita gidariei entzunda, ulertzen hasi nintzen zer eragin izan zuten aurrerapen teknologikoek —esaterako, kamerak— artean. Luxuzko heziketa izan zen.

Baina laster ikasi nuen museoa ez zegoela bakarrik ni bezalako langileen klaseko jendea argitzeko. Ohartu nintzen Buffalon bazela nik inoiz ikusi gabeko jende klase bat, eta museoa zela haien denbora-pasarako leku dotoreetako bat. Limusinatan iristen ziren. Arratsalde erdian esmokina janzten zuten. Tintin egiten zuten xanpain kopekin, edari zerbitzariak ikusi ere egiten ez zituztela.

Goiz batez, fitxatu nuenean, tentsioa sumatzen zen museoan. Arduradunak agindu zidan gorbata zuzen jar nezala eta zapata beltzak garbitu nitzala distiratsu egon arte: Nelson Rockefeller bisita egitekoa zen. Manatu zidaten museoko atarian egotea hura iristen zenean.

Harat-honat ibili nintzen museoko atarian, zigarro bat bestearen atzetik erretzen. «Iritsi al da jada?» galdetzen zidan zaindarien buruak behin eta berriz. Halako batez limusina beltz ezin dotoreagoen distira ikusi nuen, museoaren pareko apar-kalekura sartu zirenean. Betaurreko ilunen artetik ikusi ahal izateko begiak erdi itxiz, ohartu nintzen dozenaka manifestari ari zirela kartelak goratzen, non irakur baitzitekeen: «Atticako odola Rockefellerren eskuetan!».² Buru zen limusinako gidaria atera, eta atzeko atea ireki zuen. Orduan Rockefeller ezagutu nuen, egunkarietan ikusitako argazkiei esker. Manifestariei mespretxu egin, eta hatza erakutsi zien.

2 *Itzultzailearen oharra [Itzle.oh.]*. Ludlowko sarraskia. 1914. urtean, greban ziren meatzarien kontra tiro egin, eta 20 bat lagun hil ziren, gizon, emakume eta haur. John D. Rockefeller zen meatzearen jabe nagusia, aipatutako beste Rockefeller horren aita.

Arduradunak agindu zidan: «Irekiotzu atea! Ireki atea!» Atea ireki, eutsi, eta Rockefeller sartu egin zen. «Eskerrik asko, mutikoa», murmurikatu zuen niri begiratu gabe.

Une hura epifania izan zen.

Ez zuen inporta zenbateraino aldatu zitzaidan bizia gizon gisa biziz; nire klasearen oinarria ez zitzaidan aldatu. Ordura arte, neure amorrazio guztia bideratu nuen langileburuen eta erdi mailako klaseko jendearen kontra —esaterako, enpresaburu txikien aurka—, nirekin harroak eta zakarrak baitziren. Uste izan nuen boterea haien eskuetan zegoela. Baina bat-batean, aukera izan nuen Rockefeller eta haren lagun aberatsak ikusteko museoko korridoreetan, kasurik egiten ez zietela haien atzetik presatzen ziren klase ertaineko kide adeitsu-nahiei. Erdi mailako klaseari buruzko argazki mental berri bat egin nuen; hitzez hitz, erdian zeuden harrapatuak: Rockefellerren eta nire artean.

Ohartu nintzen ezen esmokinako gizon haiek, museoan barna zebiltzanak munduaren jabeak balira bezala, egiaz zirela munduaren jabe! Hantxe zegoen Rockefeller, bere lagun Knoxtarrakin, Schoellkopftarrakin eta abarrekin: haien jabetza ziren ni lanean aritutako fabrika guzti-guztiak, haien jabetza ziren nire txekeak kobratzeko erabilitako banku guztiak. Familia gutxi batzuk ordezkatzan zituzten, eta, hala ere, haienak ziren industria, finantzak eta komunikazioak, hots, giza bizia sostengatzen zuten tresna handienak.

Buffaloko fabrika ikaragarrietan pentsatu nuen: Anaconda Copper, Chevrolet, Bethlehem Steel. Ni bezalako jendeak altxatu zituen lurretik. Geure giharrek abiarazi zituzten produkzioarako tresna haiek. Hortaz, zergatik ziren jabeak haietan lanean aritu gabeko familia horiek? Eta zergatik, lanean hainbeste bizi eman ondoren, ni bezalako langile klasekook jabetzan genuen bakarra zen txeke bat lortzeko gogor lan egiteko trebezia baino gutxi gehiago?

Pentsatu nuen nola manifestariek, Rockefeller iritsitakoan, haserre astintzen zituzten kartelak haren aurrean. Banekien Atticako presoak ere langileak zirela. Baina egunean zentimo batzuk besterik ez zitzaizkien pagatzen lanaren truke. Langile haiek —gehienbat beltzak— altxatu eta eskatu zutenean gizaki gisa trata zitzaizela, ez animaliak bezala, Rockefellerrek agindu zuen soldaduek tiro egin zezatela eta sarraski zitzaizela.

Liburutegian, zenbait liburu topatu nituen sindikatuen historiaz, non azaltzen zen nola meatzari batzuk antolatu eta justizia ekonomikoa eskatu zuten. Rockefeller izeneko beste batek menperatu zituen tiroz.³

Orain, borrokaren zurrumbilo horrekin loturik sentitzen nintzen.

Rockefellerren gertakaritik gutxira, museoko lana utzi eta beste lan bat topatu nuen: plater garbitzaile jatetxe batean, hirugarren txandan. Plateraz eta mahai-tresnez betetako erretilu pisuak sukaldera eramaten nituen bitartean, irratia aditzen nuen, harraskaren gaineko aldeko apal batetik zalapartaka. Gauero, berririk inportanteena zen Txileko estatu kolpe odoltsua. Esatariek azaltzen zuten nola hamarnaka mila txiletar ari ziren torturatzen edo nola erbesteratu behar izan zuten. Junta militarrek langileen erakundeak txikitu zituzten, eta zioten, harrokeriaz, judu bat urkatuko zutela kale-argi bakoitzetik.

Goiz batez, txanda bukatutakoan, merkataritza-ontzietako marinel izandako sukaldari bati esan nion zein atsekabeturik nengoen albisteek esan zutelako CIA zegoela Txileko estatu kolpearen atzean. Hark azaldu zidan nola, txiletarrek lehendakari sozialista bat aukeratu zutenean, Estatu Batuetako konpainia handiak, esaterako ITT eta Anaconda Copper, hasi ziren estatu kolpea prestatzen CIArekin batean. Esan zidan ezin duzula besterik gabe sozialismoaren alde bozkatu, hura lortzeko borroka egin behar duzula.

Haserre eta nazkatua nengoen Estatu Batuetako armadaren hainbeste genozidiorekin: hasi Wounded Kneeko sarraskiarekin eta buka Vietnamen kontrako gerrarekin. Latinoamerikara joan nahi nuen, eta erresistentzia mugimendurekin bat egin. Baina merkataritza-ontzietako marinel izateko paperak eskatu, eta bulegariari galdetu nionean zer baldintza zeuden, azterketa mediko bat behar zela erantzun zidan, eta hantxe bukatu ziren nire amets idealistak.

Aste batzuk geroago, eguneko txandako zerbitzari bati proposatu nion hitzordua egitea ostiral gauean. Esan zidan ezetz, mitinetara joaten zela ostiral arratsaldero. Ez nuen inor

3 [Itzle. oh.] Ludlowko sarraskia. 1914. urtean, greban ziren meatzarien kontra tiro egin, eta 20 bat lagun hil ziren, gizon, emakume eta haur. John D. Rockefeller zen meatzearen jabe nagusia, aipatutako beste Rockefeller horren aita.

ezagutzen deusi buruzko mitinetara joaten zenik. «Zer zara, ba?» nik, txantxetan, «komunista?» Jatetxeko elkarrizketa guztiak eten egin ziren. Zerbitzaria gorritu egin zen. Beste lankide batek sukaldera arrastatu ninduen. «Zertan ari zara?» egin zidan errieta. «Gu kaleratzea nahi?». Esan zidan biak zirela Langileen Munduko Alderdiko kide.⁴ Bi zerbitzari komunistekin ari nintzen lanean! Behin eta berriz eskatu nion barkamena. Ez nuen inor mintzeko asmorik. Niretzat, «komunista» beti izan zen esanahirik gabeko irain bat, ez egiazko pertsona bat. Hitzak zehazki zer esan nahi zuen ere ez nekien.

Gosarietan, txanda aldaketetan, berandutzen hasi nintzen, bi zerbitzariari galderak egiten. Asteetan galdezka ibili ondoren, elkarretaratze batera gonbidatu ninduten, Kleinhan's kontzertu aretoaren kanpoko aldean, Israelek Egiptoren eta Siriaren kontra zerabilen gerraren kontra. Interes berezia nuen protesta hartan. Ni jaio baino lehentxeago aldarrikatu zen Israelgo estatua. Eskola hebrearrearain irakatsi zidatenez, «Palestina zen jenderik gabeko lurra, lurrik gabeko jendearentzat». Esaldi hura ezin nuen burutik kendu umetan. Irudikatzen nituen autoak barnean inor gabe, eta filmak pantailetan zinema areto hutsetan. Eskolako geografiako testuliburuetan eskualde hura bilatzen nuenean mapetan, Palestina izena zuen, ez Israel. Baina amonari galdegin nionean nor ziren palestinarrak, esan zidan ez zegoela halako jenderik.

Nerabezaroan argitu zitzaidan misterioa. Adiskidetasun handia egin nuen nerabe libanoar batekin, eta hark azaldu zidan palestinarrak haien lurretatik bidali zituztela kolonizatzaile sionistek, Estatu Batuetan natiboak bezala. Esan zidanaz ikertu eta asko pentsatu nuen. Orduetik aurrera, guztiz egon nintzen Palestinaren okupazioaren eta Sionismoaren kontra.

4 Eskatu nionean Langileen Munduko Alderdia (WWP) deskriba zezala, alderdiko kide nabarmena eta aldizkariaren zuzendaria den Deirdre Griswoldek hauxe idatzi zuen: «Langileak dira tamaina, kolore, forma eta genero guztietakoak. Zoritxarrez, badira ikuspuntu estereotipatuak langile klasearen alderdi bat izan behar duenaz: ikuspuntu horietako gehienak sustatu ditu eskuindarren propaganda antikomunistak. Estereotipoei aurre eginez, WWP alderdiak erabiltzen ditu sozialismo zientifikoaren metodoak bide bat trazatzeko, mundu modernoan, gizarte baterantz non ez den izanen klase-, nazio-, sexu- eta genero-zapalkuntzarik. WWP alderdiak fermuki sinesten du historiaren ikuspuntu marxistako aktibismo militantean. Gizarteak konpon ditzake gaur egungo gatazka hilgarriak, dio WWPK, baina soilik munduko iraultza sozialistaren bidez eta eraikiz gizarte bat non langileek ekoiztutako aberastasuna denen artean partekatzen den». Informazio gehiagorako, telefonoa: 212-627-2994; faxa: 212-675-7869; edo telexa: 65003925801.

Beraz, elkarretaratzera joan nahi nuen. Bestalde, protesta guztiz justifikatua izanik ere, beldur nintzen antisemitismoak protesta kutsatuko ote zuen. Baina hain haserre nengoen Israelgo gobernuak eta soldaduek egindakoekin, ekitaldira joan nintzen, hori hala ote zen egiaztatzeko.

Arratsalde hartan Kleinhan'sera iritsi nintzen protesta hasi aurretik. Poliziek —uniformez eta kale jantziz— kontzertu aretoa inguratzen zuten. Inpazientziaz, manifestariak itxoin nituen. Halako batez, kazetari guztiak batera abiatu ziren. Haien atzetik presatu nintzen. Jende ilara luze bat heldu zen Kleinhan'serantz. Martxaren buru zen emakumeak, kazetariekin hitz egin zuenak, harro esan zien bera judua zela! Beste batzuek kartelak eta pankartak goratzen zituzten, ziotenak: «Lur arabiarra arabiarrentzat!» eta «Antisemitismoa akabatu!» Bi eslogan haien atzean jar nintekeen! Jakin nahi nuen nor zen jende hura, eta non egon ziren ordura arte!

Ordu batzuk geroago, haien kuartel nagusira jarraitu nien. Paretetan pankarta laranja zeuden jarriak, elkartasuna adierazten zutenak Atticako presoekin eta vietnamdarrekin. Pankarta batek bereziki deitu zidan arreta: «Stop Amerika Beltzaren kontrako gerrari». Ohartarazi zidan ez zela aski urrutiko gerrei kontra egitea bakarrik. Erakunde hartako bi kide lankide banituen ere, urduri nengoen gau hartan. Jende hura komunista zen, marxista! Hala ere, erraza izan zitzaidan haiekin eztabaidatzea. Ezagutu nituen zerbitzariak, fabriketako langileak, idazkariak eta kamioi gidariak. Eta pentsatu nuen inoiz ezagututako jenderik zuzenena zela. Esaterako, harriduraz ikusi nuen nola gizon askok azpimarratu zidaten gayen eta lesbianen zapalkuntzaren kontra borrokatu beharraz, baita emakume guztien zapalkuntzaren kontra ere. Eta banekien denek uste zutela gizon hetero batekin ari zirela.

Ordutik aurrera, nik ere gordetzen nituen ostiral gauak Langileen Munduko Alderdirako eta haren gazte talderako: Gazteak Gerraren eta Faxismoaren Kontra. Ohartu nintzen ez nuela ontziz munduan ibili behar justiziaren aldeko borrokarekin bat egiteko! Baina erakundean sartu nintzenean, denek uste zuten gizona nintzela. Bizar trinkoa nuen, eta lau urtez bizi izan nintzen gizon gisa etenik gabe. Beraz, ez nien egia argitu.

Denbora librea ematen nuen mitin edukatiboetan eta protesta elkarretaratzeetan, arrazismoaren eta gerraren kontra, sexismoaren eta homofobiaren kontra, eta natiboen subiranotasunaren eta justizia sozialaren alde. Justizia sozialaren aldeko mugimendu zabal batekin bat egin ondotik, jada ez nintzen ari bakarrik borrokatzen. Oso ongi sentitzen nintzen borroka inportanteak irabaztean. Munduko borrokekin loturik sentitzen nintzen.

Hala ere, beldurrez bizi nintzen, poliziek zer egingen ote zidaten atxilotuz gero. Eta kamaradak nirekin batean borrokatzen baziren ere, bat eginda, iruditzen zitzaidan ez nindutela egiaz ezagutzen. Irrikatzen nuen agerian eta harro bidezkoa pertsona transgenero gisa; ez gizon gisa. Baina zer gertatuko zen nitaz hitz egiten banien eta onartzen ez baninduten? Berriz itzuli beharko nuen egunero bakarka borrokatzeari? Galeraren beldurrez urratzen hasi nintzen.

1973ko martxoaren 8an, lehenbiziko aldiz joan nintzen Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizunera. Mitina hasi aurretik, Langileen Munduko Alderdiko emakume guztiak elkarren hitzaldiak errepasatzen ari ziren; gizon guztiak antolaketa lanak hartu zituzten, eta, beraz, ni segurtasun lanetan nenbilen. Ikusten nituen emakume guztiak elkarrekin, eta gizonak, eta ezin nuen nire lekua topatu haien artean. Geroago, gauean, amets izugarria izan nuen: gela txiki, aierik gabeko batean nengo; paretetako bat zen dike bat, uraren sekulako presioa zuena atzeko aldean; arrakala txikiak igeltsua urratzen hasi ziren. Izerditan blai iratzarri nintzen.

Jeanette Merrill deitu nuen —hark lagundu zidan Buffaloko Langileen Munduko Alderdiko adarra aurkitzen—. Oroitzen naiz senarrari, Eddyri, eskatu niola gelatik ateratzeko. Ezin gogoratu dut nola azaldu nion nire egoera, edo zer hitz aukeratu nituen azaltzeko «emazte-gizona» nintzela, eta halako gorrotoa eta indarkeria sufritu nuela neure genero-espresioagatik, non ezin izan nuen seguru bizi edo lanik topatu. Bukatu nuenean, Jeanettek esan zidan ez zuela guztiz ulertu, baina gai zela zapalkuntza ezagutzeko hartaz hitz egiten ziotenean.

Ondorengo asteetan, atek ireki zitzaizkidan WWPko (Langileen Munduko Alderdia) emakumeen bileretan eta emakumeentzako autodefentsa eskoletan parte hartzeko. Buru

ziren emakumeek kide bakoitzarekin hitz egin zuten, neure egoera azaltzeko eta nirekin kontuz erlazionatzen laguntzeko. Banan-banan, erakundeko kide bakoitzak bisita egin zidan etxera. Denek ekarri zuten zerbait, bizkotxo bat, tarta bat, zopa, garagardo kutxa oso bat, eta egokitu ziren niri beste modu batean entzuteko. Neure biziarekin hitz egin nien, eta haietako bakoitzak bereaz hitz egin zidan.

Eddy Merrillek —eskatu bainion gela uzteko, Jeanetteri hitz egiteko— egonarriz itxoin zuen nirekin hitz egiteko aukera izan arte. Gau batez, WWPre literaturaren gelan topatu ninduen, begiak malkotan. Biltegi txikia beterik zegoen panfletoz eta liburuz —fin eta lodi—, historiakoak, politikakoak eta zientziakoak. Irakurle aseezina izana nintzen gaztetan, baina fikzioa bakarrik irakurtzen nuen. Ikasgelatik kanpo, erabakia nuen ez-fikziozko libururik ez leitzea, beldur bainintzen ez nintzela aski azkarra izanen edukia ulertzeko.

Baina iritsi nintzen puntu batera non gogo bizia nuen neure burua janzteko, gure munduaren iraganaz eta orainaz. Baina literatura gelan nengoela, liburu bat bestearen atzetik begiratzen eta orriak pasatzen, ez nintzen gauza irakurtzen nuena ulertzeko. Eddyri esan nion tontoa sentitzen nintzela.

«Ez kezkatu», lasaitu ninduen. «Liburu hauek geroago irakurriko dituzu. Lehenik, ententitu behar dituzu hor agertzen diren gertakariak eta jendeak. Oinarri bat behar da. Pentsa adreiluzko paretan bat egiten ari zarela: une bakoitzean adreilu bat».

«Eddy», nik, hasperen eginez. «Egiaz nahi dut ikasi. Baina izugarri txarra naiz historian. Ez dakit nondik hasi ere».

Eddyk ikasteko laguntza eskaini zidan, eta onartu egin nuen. Baina ez zidan historiaren dieta bat ezarri. Literaturarako diru kutxan txanpon batzuk bota, eta panfleto bat eman zidan arrazismoaren kontrako borrokaz, oso ongi ezagutzen nuen fabrika batekoa. «Irakurri ondoan, zatoz afaltzera», eskaini zidan, «eta hitz eginen dugu». Keinu egin zuen liburuen alderantz. «Bilatzen dituzun erantzun batzuk hor daude. Baina norbaitek ausardia duen aldiro aurretik esplikatu gabeko zapalkuntza batez hitz egiteko, ekarpena egiten du. Iruditzen zait zuk ere ekarpena eginen duzula».

Ordu zirrargarri asko eman nituen Eddyrekin politikaz hizketan. Liburu bakoitza utzi aurretik, hari buruz hitz egiten zi-

dan. Irakurri ondoan, elkartu eta ideiak eztabaidatzen genituen. Zientzia politikoa kartsuki ikasten hasi nintzen. Uste izan nuen marxista guztiak gizon zuriak zirela. Eddyk ezagutarazi zizkidan Che Guevarak, Nkrumahek, Mao Zedongek, Ho Chi Minhek eta Rosa Luxemburgek egindako idazki inportanteenak. Etengabe irakurri nuen, eta laster nahikoa konfiantza hartu nuen WW-Pren asteroko eskoletara joateko; horietako asko emakumeek gidatzen zituzten. Laster ikasi nuen ezen ideia konplexu bat ongi ulertu izanaren froga zela hura ongi azaltzeko gaitasuna.

Nire aurreko langileen klaseko beste judu belaunaldi asko bezala, ohartu nintzen marxismoa zientzia zela, eta ez erlijioa. Egia esan, ikusten hasi nintzen ezen txikitatik sarrarazi zidaten antikomunismoa zela aztertu gabeko kultuzko ideologia bat.

Bat-batean, historiak ez zirudian aspergarria inola ere. Historiaren sasoiak —edo etapak— ikusten hasi nintzen. Ikasi nuen gizartea etengabe bilakatzen zela eta askotan eraldatu zela, mendeetan.

Egitate batek nire pentsamendua astindu zuen: Gure hasierako arbaso guztiak bizi izan ziren gizarte komunaletan, zeinak oinarritzen baitziren kooperazioan eta partekatzean. Banekien kontinente honetako natibo asko oraindik ere modu komunalean bizi zirela, nahiz eta kolonialismoak lur hauek mendeetan hartu. Baina ez nekien hori hala izan zela planeta guztian.

Talde kooperazioak eskatzen zuen pertsona bakoitzaren ekarpen eta ikuspuntuak errespetatzea. Gizarte komunalak ez zeuden zatiturik aberatsen eta pobreen artean. Ez zegoen talde txikirik besteen gaineko boterea zuenik, bizi-sostengurako tresnen jabetzaren bidez. Hala, lurra, zerua eta urak ez ziren jabetza pribatua, eros nahiz sal zitezkeenak. *Komunismoa* hitza komunaletik heldu da.

Bizi guztian entzuna nuen ikuspuntu ziniko hori, esaten duena intolerantzia eta diru-gosea direla giza izaera makur baten ondorioa. Baina gizarte batean non denek jaten zuten edo denak zeuden goseak, biziraupena talde lanean oinarritzen zelako, «Ez duzu lapurtuko» aginduak nahasgarria behar zuen. Ohartu nintzen giza izaera ere aldatu zela gizartearen antolakuntzarekin batera.

Nahiz ez nuen espero nire autodefinizio edo kontzientzia modernoak islatzea gure hasierako arbasoen sistema ekonomi-

koetan, neure buruari galdegin nion ea nolabaiteko transgenero motarik izan ote zen hasierako komunalismoan. Emakumeen zapalkuntzaren erroak aztertzen hasi nintzen. Friedrich Engelsen lan klasikoa irakurri nuen: *Familiaren, jabetza pribatuaren eta estatuaren jatorria*.⁵ Gero, Dorothy Ballanen panfleto batera jo nuen —Dorothy Ballan zen nire erakundea sortu zuen emakumeetako bat—: *Feminismoa eta marxismoa*.⁶ Irakurri nuen zer idatzi zuten, emakumeen mugimenduan, sexu zapalkuntzaren jatorri materiala ikertu zuten sozialista feministek, topatu nuen guztia irakurri ere.

Ikasitakoarekin harritu egin nintzen. Antzinako gizarte komunaletan, odol bidezko ondorengotza —gaur egungo aita-herentziaren oinarria— amen bidez markatzen zen. Emakumeek berdintasuna eta errespetua zituzten, produkzio kolektiboan eta ugalketan duten ezinbesteko rolaengatik. Emakumeak ziren *gensen* buru, zeinak baitziren ahaidetasun talde batzuk oso antza txikia zutenak egungo familia nuklear patriarkalarekin. Amen bidez markatzen zenez odol-ondorengotza, emakumeak ziren unitate ekonomiko zabaldu horien buru.

Gizona amaren familiarekin bizi zen. Emakume batekin ezkontzen bazen, amaren unitate ekonomikoa utzi, eta emaztearen *genseko* parte bihurtzen zen. Han, emaztearen ahaide guztiez inguraturik egoten zen, emaztearen etxean. Eta emakumeak dibortzioa nahi izanez gero, besterik gabe gizonari esaten zion puskak bildu eta alde egin zezala. Orduan, gizonak amaren etxera itzuli behar zuen, amaren ahaide guztiekin. Nola jo zezakeen gizonak emaztea, edo gaizki tratatu, halako gizarteetan? Non zegoen botere materiala gizonak nagusi izateko?

Baina hain justu ere agintarien klaseko «aitek» ez dute nahi azter dadila emakumearen zapalkuntzaren oinarri materiala. Haiek historia taxutu nahi dute beren irudiko eta antzeko. «Biblia aldarrikatzaileei» entzunez gero, usteko zenuke familia nuklearra, gizonak buru, betidanik existitu dela. Ordea, ikusi nuen kontinente guztietan asko dokumentatu zirela gizarte matrilinealak. XVgarren menderaino, munduko populazio gehien-gehiena gizarte komunal eta matrilinealetan bizi zen.

5 Friedrich Engels, *The Origin of the Family, Private Property and the State*, ed. Eleanor Burke Leacock (New York: International Publishers, 1972).

6 Dorothy Ballan, *Feminism and Marxism* (New York: World View Publishers, 1971).

Hala zen Afrika guztian barna, neurri handian Asian, Pazifikoko uharteetan, Australian eta Ameriketean. Giza historia guztia urtebeteko eskalara ekarriko balitz, 360 egunetik gora egokituko zitzaizkien gizarte kooperatibo eta matrilinealei.

Emakumeen zapalkuntzaren erroak hobeki ezagutzea oso inportantea izan zen niretzat, batez ere nik izandako esperientziarengatik, neska gisa hazi bainintzen emakumea gorrotatzen zuen gizarte batean. Baina nik jasandako zapalkuntza ez zen bakarrik oinarritzen «emakume» izaeran. Bai al zen oinarri materialik transgeneroen zapalkuntzarako? Emakume eta gizon transexualak, edo ni bezalako jendea, generoa modu desberdinean adierazten genuenak, seguru ez ginela soilik ahultzen ari zen sistema kapitalista oso teknologizatu baten ondorio. Zirku-lua osatuz, nire hasierako galderetara itzuli nintzen: Betidanik existitu ginen?

Erantzunetik inoiz baino urrutiago sentitzen nintzen. Zorionez, sentimenduak ez dira egitateak.

Bitartean, 1973ko krisi ekonomikoa ondorio latzak izaten ari zen nire bizian. Ez nuen lanik inon topatzen. Aldi baterako lanen agentziek ere ez zuten eskaintzarik, ez behintzat ni bezalako emazte-gizonentzat. Erabaki nuen New York hirira aldatzea. Han zegoenez Langileen Munduko Alderdiaren egoitza nazionala, banekien laguntza izanen nuela etxea eta lana topatzeko, eta gogotan nengoen Langileen Munduko aldizkariako kazetari izateko.⁷

Buffaloko adarreko lagunei agur esaten niela, haietako batzuei galdegin nien, «Zuk uste noizbait aurkituko ditudala bila ari naizen erantzunak?» Baietz esan zidaten, lasaituz. Agur opari gisa, Jeanettek eta Eddyk Leninen idazkien beren liburukietako bat eman zidaten. Hartan idatzi zuten: «Lesentzat, espektatiba handiekin». Opari baliotsu hori ondoan dut orain, hitz hauek idatzi bitartean.

Baina, garai hartan, beldur nintzen haien espektatibak irrealak ote ziren.

7 *Workers World* astekaria, 55 West 17 Street, New York, NY 10011; Internet: editor@wwpublish.com. Harremanetarako: ww-info@wwpublish.com.



Egilea, 1973. urte aldera.

HIRU

ERREBELAZIOA

1974. urtean aurkitu nuen lehenbiziko arrastoa adierazten zidana jende transa ez zela beti gorrotatua izan. Lanetik piper egin nuen, eta eguna pasatu nuen New York hiriko Ameriketako Indiarren museoa.

Erakusgaiak dedikaturik zeuden Ameriketako jatorrizko biztanleen historiari. Erakarri ninduen erpuruaren tamainako buztinezko irudi sorta zoragarri batek. Nire eskuinaldekoek bularrak zituzten, eta ontziak zeuzkaten. Nire ezkerraldekoek bular lau zuten, eta ehizarako tresnak zeuzkaten. Baina hurbilagoetik begiratu nuenean, ustekabea izan nuen. Ohartu nintzen ontziak zeuzkaten irudi batzuk bular lauokoak zirela, eta ehiztari batzuek bazituztela bularrak. Irudi sortaren ondoan ez zegoen azalpen-oharrik, ez horixe. Jakin-minez atera nintzen museotik.

Ikusitakoak barnetik jaten ninduen, harik eta zaintzaile bati telefonoz deitu nion arte. Galdegin zidan: «Zergatik jakin nahi duzu?» Ikaratu egin nintzen. Informazioa hain ezkutukoa ote zen, non behar-beharrezkoa zenean bakarrik eman zezaketen? Gezurretan, erantzun nion Columbia Unibertsitateko graduondoko ikaslea nintzela.

Arindua hartu zuela zirudien, eta berehala jakinarazi zidan oso ongi ulertu zidala deskribatu niona. Azaldu zidan bere irakurgaietan kasik egunero topatzen zituela *berdachee*⁸ buruz-

8 «*Berdache*» zen Europako kolonizatzaileek zerabilten mespretxuzko hitz bat, izendatzeko beren emakume eta gizonen nozio estuetan egokitzen ez ziren natibo oro. Hitzaren erabilera orokorrak ez zituen desberdintzen norberaren espresioa, interakzio soziala eta errealitate ekonomiko eta politiko konplexuak. Herri natiboek errespetuzko hitz asko zeuzkaten beren hizkuntzetan halako jendea deskribatzeko; Gay Indiar Amerikarrak elkarteak halako hitzen zerrenda baliotsua bildu du. Ordea,



Hopi marzakkia. Erreparatu: ezkerreko irudiak trans estiloko orrazkera du; erdia gorantz, beste erdia beherantz.

ko aipamenak. Hitzaren esanahia galdetu nion. Erantzun zidan bere ustez trabesti edo transexual esan nahi zuela ingeles modernoan. Azpimarratu zidan ezen natiboek, antza, ez zituztela arbuiazen «guk» bezala. Egia esan, erantsi zuen, itxuraz halako pertsonak oso estimatuak ziren jatorrizko herrietan.

Orduan, ahotsa apaldu zuen. «Aztoragarria, ezta?» xuxurlatu zuen. Telefonoa eskegi, eta liburutegira joan nintzen laster batean. Topatu nuen bizi guztian bila ibilitako informazioa zeukan kutxa gotor baten lehenbiziko giltza.

«Herri bitxia da hau», idatzi zuen gizon zuri batek 1850ean Ipar Amerikako Crow nazioaz, «non gizonek hartzen dituzten emakumeen arropak eta ardurak, eta emakumeak gizon bihurtzen diren eta beren sexu berekoekin elkartzen diren!»⁹

Halako ehunka aipamen aurkitu nituen, esaterako Jonathan Ned Katzen lan iraultzailean: *Amerikako gayen historia: lesbianak eta gizon gayak* AEBetan. Lan hori 1976an argitaratu zen, eta ikerketa lan baliotsu gehiago lortu nuen hari esker. Aipamenak ez dira inondik inora ere objektiboak. Batzuk dira jeneral kolonialen adierazpenak —etsai hilgarri amorratuena—, eta beste batzuk dira haien lorratz odoltsuari jarraitzen zioten antropologo eta misiolarienak.

genozidio kulturalak jatorrizko herrien hizkuntzak eta tradizioak suntsitu eta aldatu ditu. Hala, herri natiboek eskatzen dute «Bi Espiritu» terminoa erabil dadila hitz kolonialista iraingarri horren ordez. Nik errespetatzen dut eskaera hori.

Zapal dutako herrien kulturak ez analizatzeko saiakera gisa, kapitulu honetan ez ditut desberdintzen sexua eta genero-espresioa. Horren ordez, sexua/generoa erabiltzen dut.

9 Edwin Thompson Denig, *Five Indian Tribes of the Upper Missouri*, ed. John C. Ewers (Norman: University of Oklahoma Press, 1961) 199.

Batzuek aipatzen dituzte gaur egun «gizonetik andrerako» espresio esanen genituzkeenak. «Kontinenteko ia toki guztietan», ondorioztatu zuen Westermarckek 1917an, «izan dira, dirudienez, antzinatik, emakumeen arropak eta ardurak hartzen zituzten gizonak...».¹⁰

Baina «andretik gizonerako» espresioen aipamenak ere topatu nituen. Brasilgo hego-ekialdera 1576an egindako espedizioaz egindako idazkietan, Pero de Magalhãesek adierazi zuen Tupinambá herrian bazirela gizon gisa bizi ziren emakumeak, beste gizonek errespetatzen zituztela, eta ehizara eta gerrara joaten zirela. Haren esploratzaile taldeak, amazona greziarrak gogoan, eskualde hartatik igarotzen zen ibaiari izen berria jarri zion: Amazonen ibaia.¹¹

Orobat, Ipar Amerikako herri askotan ere aurkitu zen «andretik gizonerako» espresioa. 1930an ere, Leslie Spier etnografoak



Osh-Tisch («aurkitzen ditu eta hiltzen»), crow naziokoa. *Badé* nagusia omen zen. Gobernuaren agente batek, 1890eko hamarkadaren akaberan, *badé*ak kartzelaratu zituenean, ilea moztu zienean, eta gizonen arropak jantziarazi, Arrano Eder buruzagiak agenteari agindu zion beren lurretatik alde egiteko.

10 Edward Westermarck, «Homosexual love», *The Origin and Development of Moral Ideas*, 2nd ed., 2 vols. (London: Macmillan, 1917), 2: 456.

11 Edwin Thompson Denig, *Five Indian Tribes of the Upper Missouri*, ed. John C. Ewers (Norman: University of Oklahoma Press, 1961) 199.



PINE LEAF, THE INDIAN HEROINE.

Barcheeampe, Emakume Buruzagia, ehiztari eta gudari goretsia izan zen, crow herriaren kantuetan laudatua. Buruzagiak eta gudariak batzarrean biltzen zirenean, buruzagi gisa esertzen zen, hirugarren tokian, 160 dendatako talde batean.

oraindik halakorik topatu zuen Pazifikoko ipar-mendebaldeko nazio batean: «Trabestiak edo berdacheak... Klamath herrian aurkitu daitezke seguruenik ere Ipar Amerikako gainerako tri-buen artean bezala. Gizon eta emakumeak dira, argi ez dauden arrazoiengatik kontrako sexuaren jantziak eta ohiturak hartzen dituztenak».¹²

Mingarria izan zitzaidan halako aipamenak irakurtzea, gorrotoz kutsaturik baitzeuden. «Deabruzko gauza bat ikusi nuen», idatzi zuen Álvaro Núñez Cabeza de Vaca kolonialista espainiarrak XVIgarren mendean.¹³ «Bekatuzkoa, izugarria, perbertitua, zitala, higuingarria, antinaturala, nazkagarria, lizuna». Kolonizatzaileek erabilitako hizkerak sexu/genero dibertsitatearen onarpena deskribatzeko, eta sexu berekoen arteko maitasunaren onarpena deskribatzeko, zehatzago deskribatzen zituen behatzaileak, behatutakoak baino. Eta Bi Espiritu jendearen gaineko kronika sentsazionalista horiek erabili zituzten, geroago, «justifikatzeko»

12 Pedro de Magalhães, *The Histories of Brazil*, trans. John B Stetson, Jr. (New York: The Cortes Society, 1992) 89-90.

13 Leslie Spier, «Klamath Ethnography», *University of California Publications in American Archaeology and Ethnology* 30 (1930): 51-53.

genozidioa, natiboei lurrak eta baliabideak ebastea, eta kulturak eta erlijioak suntsitzea.

Baina, noizean behin, aipamen kolonial horiek irekitzen zuten, oharkabean bada ere, behatutako jendearen gizatasuna erakusten zuen leiho bat. XVIIgarren mendean Mississipin barna egindako lehenbiziko bidaian, Jacques Marquette jesuitak kontatu zuen zer jarrera zituzten Illinoistarrek eta Ndoouessitarrek Bi Espirituenganako. «Batzarretarako deitzen zaie, eta deus ez daiteke erabaki haien aholkurik gabe. Azkenik, aparteko bizia bizi izanaren lekukotza emanda, Manitouszat hartzen dituzte —hau da, Espiritutzat—, edo garrantzi handiko pertsonatzat».¹⁴

Joseph François Lafitau misiolari frantsesak gaitzetsi egin zuen Aintzira Handien mendebaldean, Louisianan eta Floridan aurkitu zuen Bi Espiritu jendea, baina agerian utzi zuen jatorrizko herriek ez zutela halako aurreiritzirik. «Uste dute ohorea dela halako izaera...» idatzi zuen 1724an, «erlijio-zeremonia guztietan hartzen dute parte, eta aparteko bizi horren lekukotzak ekartzen die maila handiko pertsonatzat hartuak izatea».¹⁵

Baina kolonizatzaileek Bi Espiritu jendearenganako zuten erreakzioa laburbiltzeko, Antonio de la Calancharen hitzak balia daitezke. Calancha kargudun espainiarra zen Liman. Calanchak idatzi zuen ezen Vasco Núñez de Balboak Panaman barna espedizioa egitean, ikusi zituela «gizonak emakume gisa jantzirik. Balboak ikasi zuen sodomitak zirela, eta erregea eta beste berrogei bota zituen bere zakurretara, jan zitzaten; oso ekintza zuzena, espainiar ohoragarri eta katoliko bati dagokiona».¹⁶

Ez zen eraso isolatua izan. Espainiarrek Antillak eta Louisiana inbaditu zituztenean, «aurkitu zituzten emakume gisa janzten ziren gizonak, gizarteek errespetatuak. Uste izanik zirela hermafroditak edo homosexualak, hil egin zituzten».¹⁷

14 Alvar Núñez Cabeza de Vaca, «Naufragios», *Historiadores primitivos de Indias*, ed. Enrique de Vedia, (Madrid: M Rivadeneira, 1852) 538, Vol. I of *Biblioteca de autores españoles*, apud. Jonathan Katz, *Gay American History: Lesbians and Gay Men in the U.S.A.* (New York: Harper & Row, 1976) 285.

15 Jacques Marquette, *Of the First Voyage Made by Father Marquette Toward New Mexico, and How the Idea Thereof Was Conceived*, ed. Reuben Gold Thwaites (Cleveland: Burrows, 1896-1901) 129, Vol 59 of *The Jesuit and Allied Documents*, apud. Katz, 287.

16 Joseph François Lafitau, *Moeurs des sauvages américains, comparées aux mœurs des premiers temps* (Paris: Saugrain, 1724) 1:52, 603-10, apud. Katz, 288-89.

17 Francisco Guerra, *The Pre-Columbian Mind* (London: Seminar Press, 1971) 190,

Aipamen haiek topatzeak astindu egin ninduen. Gogora ekarri zizkidaten txikitako «cowboyen eta indiarren» filmak. Film arrazista haiek ez zuten arrakastarik izan niri gorrotoa irakasten; natibo heldu eta haur duin eta harroz inguratua hazi nintzen. Baina orain hobeki jabetzen nintzen nola film haietan jatorrizko herriez ematen zen erretratua erabiltzen zen arreta desbideratzeko egiaz izandako genozidio kolonialetik. Eskolan ere historia odoltsu hari berari ezikusia egiten zitzaion, edo zuritu egiten zen. Geroago bakarrik ikasi nuen herri natiboen gaineko egia, neure burua birredukatuz, eta prozesu horretan segitzen dut oraindik ere.

Bi Espirituen tradizioa aurkitzea izugarri inportantea izan zen niretzat. Kontua ez zen aurretik uste nuela herri natiboen artean giza espresio sorta berbera zenik. Banekien ezen *badé* crowtarrak, *warhameh* cocopahtarrak, *joya* chumashtarrak eta *kwiraxame'* maricopatarrak beren burua oso desberdin deskribatuko zutela alderatuko bagenitu Stonewallen polizien kontra borrokatu ziren *drag queen* afro-amerikarrek, edo konparatuko bagenitu genero-teoriari buruzko unibertsitate-eskola batean emakume transexual zuri batek 1990an bere bizia azaltzeko moduarekin.

Harri eta zur utzi ninduen zen ikustea zenbat kultura antzinakok eta askotarikok ahalbidetzen zioten jendeari sexu/genero aukera gehiago hautatzea, eta giza espresio dibertsitate hura sakratu gisa ohoratzea. Sexuaren eta generoaren geografia konplexu bat marraztu behar nuen iparra ala hegoa bakarrik markatzen zituen iparrorratz batekin.

Usteko duzu pozarren egonen nintzela informazio berri horiekin. Baina amorraturik nengoen ezkutatu egin zitzaidalako, denoi ezkutatu zitzaigulako. Eta militarrek, misiolariak eta antropologoek harrokeriaz xehe-xehe aztertutako natibo horietako asko garbitu egin zituzten. Haien ahozko historia ere betiko galdua ote zen?

Nire haserrean, zin egin nuen indar handiagoz ariko nintzela nazio natiboen itunen, subiranotasunaren eta autode-terminazio eskubideen alde. Borroka horietan aktiboago aritu

apud. Walter Williams, *The Spirit and the Flesh: Sexual Diversity in American Indian Culture* (Boston: Beacon Press, 1986) 137.

We'Wha, *Ihamana* bat, soinean dituela Zuni emakumeen zeremonietako jantziak. We'Wha ehule eta buztिंगile aditua zen, eta sei hilabete eman zituen Washington hirian, 1886an; Grover Cleveland lehendakaria eta beste batzuk ezagutu zituen, eta haiek ez ziren inoiz ohartu metro eta laurogeiko Zuni hau *Ihamana* zela. 1896an hil zen We'Wha, eta lurperatu zuten emakumeen soinekoarekin, azpian gizonen galtzak zeramatzala.



ahala, argiago ikusi nuen nola jatorrizko nazioen artean ahots batzuek ez zuten beren ondare tradizionala bakarrik aldarrikatzen; erresistentzia orainera ekartzen zuten: Alcatraz hartzea, Wounded Kneeren okupazioa, Ibilaldirik Luzeena, Plymouth Rockeko Dolu Eguna, eta preso politikoak askatzeko borroka, esaterako Leonard Peltier eta Norma Jean Croy askatzekoa.

Bi gertaera historikok lagundu zidaten aditzen Bi Espirituen tradizio sakratua bizi zuten borrokalari indiar modernoek ahotsa: Randy Burnsek (iparraldeko paiutea) eta Barbara Cameronek (lakota siuxa) sortu zuten, 1975ean, Gay Indiar Amerikarrak elkarteak, eta 1988an argitaratu zen *Living the Spirit: A Gay American Indian Anthology* (Espiritua biziz: gay indiar amerikarren antologia bat). Randy Burnsek ohartarazi zuenez, Gay Indiar Amerikarren Historia Proiektuan, «genero rol alternatiboak dokumentatu dira Ipar Amerikako 135 tributan baino gehiagotan».¹⁸

Living the Spirit lanaren argitaratzaile Will Roscoe azaldu zuenez, sexu/genero sistema konplexu hori topatu zen «kontinenteko eskualde guzti-guztietan, kultura natibo mota guztietan,

18 Cora Dubois, apud. Richard Green, «Historical and Cross-Cultural Survey», *Sexual Identity Conflict in Children and Adults* (Basic Books: 1974 New York) 11.

hasi Alaskako ehiztari talde txikiekin, eta buka Floridako hiri-es-tatu populatu eta hierarkikoekin».¹⁹

Beste mugari inportante bat izan zen 1986an Walter Williamsek argitaratzea *The Spirit and the Flesh* (*Espiritua eta hara-gia*),²⁰ zeren liburu horrek jaso baitzituen Bi Espiritu moderno-ahotsak.

Banekien jatorrizko biztanleek tinko egin zietela aurre kolonizazioari eta genozidioari —bai fisikoari bai kulturalari—. Baina ikasi nuen ezen Bi Espirituak debekatzeko, zigortzeko eta hiltzeko ahaleginei ere gogor egin zietela aurre nazio natiboek. Nuño de Guzmán konkistatzailearen 1530eko lekukotzaren ara-bera, gudu baten ondoren preso hartu zuten azkeneko pertsona, «zeina borrokatu baitzen inor baino ausartago, izan zen emaku-me-z jantzitako gizon bat...»²¹.

Bizimodu tradizionalari eusten saiatzea bera erresis-tentzia ekintza zen. Williamsek idatzi zuenez, «tribu askotan berdacheak xamanak zirenez, gobernuak ohiko medikuntzaren kontra egindako erasoek haien biziak nahasi zituen. Klamath herrian, 1870eko eta 1880ko hamarkadetan, gobernuaren agen-teek debekatu zituzten sendatzeko errituak, eta horrek ekarri zuen xamanak ezkutuan aritu behar izatea. White Cindy xaman berdacheak medikuntza tradizionala egiten segitu zuen, eta jen-dea sendatu zuen hamarkadetan, atxilotua izateko arriskua izan arren».²²

Amerikako Estatu Batuetako gobernuaren agente arrazis-tak saiatu ziren Bi Espiritu jendea aldatzen, eta nazio natiboek buru egin zieten eginahal horiei. Erresistentzia hori oso ausarta zen, kontuan izanik agente horiek nolako boterea zuten kontro-latu nahi zituzten jatorrizko herrien biziraupen ekonomikoaren gainean. Borroka horietako bat zentratu zen Osh-Tisch («aur-kitzen ditu eta hiltzen») izeneko *badé* (*boté*) crowtar batean. Joe

19 Randy Burns, «Preface», and the Gay American Indian History Project, «North American Tribes with Berdache and Alternative Gender Roles», *Living the Spirit: A Gay American Indian Anthology*, Gay American Indians-en konpilazioa, argitalpenaren koordinatzailea Will Roscoe (St. Martin's Press: 1988 New York) 1, ikus hiztegia 217-222.

20 Will Roscoe, *The Zuni Man-Woman* (University of New Mexico Press: 1988 Albuquerque) 5.

21 Walter Williams, *The Spirit and the Flesh: Sexual Diversity in American Indian Culture* (Beacon Press: 1986 Boston).

22 *Ibid.*, 137.

Medicine izeneko crowtarrarengandik jaso zituzten gertakariak 1982an: «Agente bat, 1890eko hamarkadaren akaberan... saiatu zen Osh-Tischen kontra egiten, zeina baitzen *badé* errespetatuen. Agenteak *badé*ak kartzelarazten zituen, ilea mozten zien, eta gizonen arropak jantziarazten. Eskulanetara behartu zituen: Indiar Aferen Bulegoaren lurretan ikusten dituzun zuhaitz horiek landarazi zizkien. Jendea hain atsekabeturik zegoen, Arrano Eder buruzagia Crowtarren Agentziara etorri zen, eta [agenteari] esan zion erreserbatik alde egiteko. Tragedia izan zen haiek aldatzen saiatzea».²³

American Anthropologist argitalpenean, 1903an, S.C. Simms-ek egindako kronikan ikus daiteke nola ikusten zituzten *badé*ak beren nazioaren barnean: «Joan den urtean crowtarren naziora bisita egin nuenean, Field Columbian Museumentzat, esan zidaten hiru hermafrodita zeudela Crow tribuan: bat Pryorren bizi zena, beste bat Big Horn distrituan, eta bestea Black Lodge distrituan. Pertsona horiez femeninoan hitz egiten da, eta tipi handienak eta hobekien kokatuak dauzkate; orobat, jostun aditutzat jotzen dituzte, eta tribuko sukaldari hoberen, eta asko estimatzen dituzte haien karitate ekintza ugariengatik...

«Duela urte batzuk, indiarren agente bat saiatu zen jende horri gizonen arropak jarrarazten, zigorraren mehatxupean, baina ez zuen arrakastarik izan».²⁴

Zurien menpeko barnetegiek jokabide berbera izan zuten, saiatu ziren bahitutako hainbat haur belaunaldi behartzen haien ohiturak baztertzera. Baina haur Bi Espiritu askok ihes egin zuten obeditu ordeaz.

Lame Deer xaman lakotarrak elkarrizketatzaile bati azaldu zion zein zen *winkte* izeneko («gizonetik andrera») leku sakratua bere herriaren tradizioan eta nola *winkte*ak izen berezi bat ematen dion pertsona bakoitzari. «*Winkte*ak haurrari ematen dion izen sekretua bereziki indartsua eta eraginkorra dela uste da», esan zuen Lame Deerrek. «Zezen eserik, Altze Beltzek eta baita Zaldi Erok ere bazituzten *winkteen* izen sekretuak». Jasota dagoenez, Zaldi Ero buruzagi lakotak emazte *winkte* bat edo bi zituen.²⁵

23 *Ibid.*, 178.

24 *Ibid.*, 179.

25 S.C. Simms, «Crow Indian Hermaphrodites», *American Anthropologist* 5.zkia (1903): 580-81.



Goian ezkerrean: Nadleeh bat. Charlie deitu zion Adman Clark Vroman argazkilaria, zeinak argazki hau egin baitzuen navajoen etxola batean, 1895ean.

Goian eskuinean: Arrano Pikart, bilobari eusten.

Williamsek aipatzen du xaman lakota batek hitz egin ziola 1920ko eta 1930eko hamarkadetan *winkteek* jasandako presioez. «Misiolariek eta gobernuaren agenteek esaten zuten *winkteek* ez zirela gauza ona, eta haien ohiturak aldatzen saiatu ziren. Haietako batzuek hala egin zuten, eta gizonen arropak jantzi zituzten. Baina beste batzuek, aldatu aurretik, alde egin eta beren burua urkatu zuten».²⁶

1989a arte, nik entzundako Bi Espirituen ahotsak liburuen paperetan bakarrik bizi ziren. Baina urte hartan, ohorea izan nuen Minneapolisa gonbidatua izateko, jatorrizko herrietako Bi Espirituen, ahaideen eta aldekoen lehenbiziko bilkurara. Lehenbiziko bilkura hartan gozatu nituen adiskidetasun loturak gerora indartu ziren, Manitoban 1991n egindako hirugarren bilkuran. Bertan, neure burua topatu nuen su baten inguruan eserita, pinu garaien azpian, aurora borealaren kolore dantzariak zeruan genituela, te indartsua edaten metalezko katilu batetik. Aise egiten nuen irri, lasai, lagun zahar eta berriekin. Batzuk ziren gizon femeninoak edo emakume maskulinoak; denek zuten sexu berekoenganako desira. Nolanahi ere, jende horiek denak ez ziren transgeneroak, eta nire irakurgaietako Bi Espiritu guztiek ez

26 C. Daryll Forde, «Ethnography of the Yuma Indians», *University of California Publications in American Archaeology and Ethnology* 28:4 (1931): 157, apud. Williams, *Spirit and Flesh*, 38; Williamsek aipatutako Lakota kidearen hitzak, 112.

zuten sentitzen sexu berekoenganako desira. Beraz, zerk definitzen zuen talde hura?

Herri natiboengana jo nuen erantzunen bila. Oraindik ere, 1995ean, irakurtzen ditut jatorrizko nazioen sexu/genero sistemei buruzko agiriak eta ikerketak non aipatutako diren iturri guztiak diren zientzia sozialetako ikertzaile zuriak. Liburu hau idazten hasi nintzenean, Bi Espiritu jendeari eskatu nien beren kulturez hitz egiteko, beren hitzekin.

Chrystos, menominee nazioko Bi Espiritu poeta eta idazle argiak, interpretazio hau eskaini zidan: «Zaila da lehenbiziko nazioen bizia, lehenbiziko kontaktuaren aurrekoa, berreraikitzea. Eliza kristauaren eraso handia izan da bizimodu tradizionalaren kontra. Baina zenbait gauza iritsi dira guregana. Ezagutzen ditudan nazio gehienek, tradizioz, bi genero baino gehiago dituzte. Tributik tribura aldatu egiten da. «Bi Espiritu» kontzeptua da ideia horren ingeleserako itzulpen gordin samarra. Uste dut ingelesa hizkuntza zurruna dela, eta eratan dituen pentsamendu moldeak ere zurrinak dira, eta, hortaz, generoa ere zurruna bihurtzen dela.

«Generoaren kontzeptu orokorra fluidoagoa da bizimodu tradizionalan. Bide horiek ez daude nahitaez lerrokaturik zerrorren sexuarekin, baina egon daitezke. Jendeak bere generoa aukera zezakeen ametsen arabera, esaterako. Hala, zure generoa amestu dezakezun zerbait izan daitekeela ere pentsaezina da mendebaldeko kulturari, zeinak ezartzen baitu sexu biologiko zehatz batekin jaiotzen zarela, eta, horrenbestez, rol batean sartu beharra duzula, eta hari zurrunki jarraitu zure bizi guztian. Hala dugu guk «queer» kontzeptua [estrainioa / marikoia...]. Bere genero rolar segitzen ez dion oro da *queer*; era guztietako jendea taldekatzen da izen horren pean».²⁷

«Bi Espiritu izateak zure sexualitatea zehazten al du?» galdegin nion Chrystosi. «Bizimodu tradizionalan, Bi Espiritu bat izan daiteke heterosexuala edo guk homosexual esaten duguna», erantzun zidan. «Izan zintezkeen, orobat, inorekin sexurik ez duen pertsona, eta espirituekin bizi. Genero fluidotasuna da kontzeptu handiago baten zati, eta uste dut ingelesez horretarako dagoen hitzik zehatzena dela «tolerance» [tolerantzia].

27 Williams, *Spirit and Flesh*, 182.

Oso tara bestelako modu bat da pentsatzeko nola egon mundu honetan gainerako pertsonekin. Guk, munduaz pentsatzen dugunean, harremanak ditugu buruan, eta, hala, pertsona bakoitza beti dago matrize batean, banako gisa baino gehiago; gauzak ikusteko oso bestelako modua da».²⁸

Chrystosek hitz egin zidan bere lagun Wesley Thomas navajoaz, zeinak bere burua deskribatzen baitu *nadleeh* gisa. Ar *nadleeh* bat, esan zidan, «emakume gisa agertuko litzateke munduan, senarra hartuko luke, eta tribuko bizian emakume gisa hartuko luke parte». E-maila bidali nion Seattlen bizi zen Wesleyri, *nadleeh* tradizioaz gehiago jakiteko. Erantzun zidan esanez «*nadleeh* zela kategoria bat maskulinoak ziren/diren emakumeentzat eta, halaber, gizon femeninoentzat».²⁹

Azaldu zidanez, *nadleeh* kontzeptua agertzen da jada navajoen jatorriaren edo kreaioaren istorioetan. «Beraz, kontzeptu kulturala da», zioen, «eta navajo kultura normalaren elementu zen, navajoen ikuspuntutik, XIX. mendean. XXgarren mendearen lehenbiziko erdian hasi zen aldatzen, mendebaldeko kulturaren sarrerarekin, eta, batez ere, kristautasuna sartzearekin. Orduetik aurrera, *nadleeha* klandestino bihurtu zen».³⁰

Wesleyk, zeinak lehenbiziko hogeita hamar urteak eman baitzituen Navajoen Ekialdeko Erreserban, idatzi zuen ezen bere landa-laneko ikerketan, hasieran identifikatu zituela lau sexu kategoria: emea/emakumea, arra/gizona, emea/gizona eta arra/emakumea. «Orduan hasi nintzen generoa continuum batean identifikatzen —esan nahi baita, mutur batean emea jarriz eta bestean arra—. Tartean, berrogeita bederatziko genero identifikazio ezarri nituen. Eta lehenbiziko saiakeran ezarri nituen, ez zen izan landa-lan oso eta zehatz baten ondorio. Navajoen kosmologiaren barnean generoaz dudak ulermenaren ondorio izan zen kopuru hori».³¹

Neure genero-espresioaren ondorioz hainbesteko jazarpena jasan behar izan nuen, non jakin nahi bainuen zer esperientzia izan zituen jatorrizko bizimodu tradizionalan «neska maskulino» gisa hazitako batek. Arrano Pikartengan pentsatu nuen.

28 Chrystos, telefono bidezko elkarrizketa, 1995eko martxoaren 14ean.

29 Wesley Thomas, posta elektronikoko bidezko komunikazioa, 1995eko apirilaren 5ean.

30 *Ibid.*

31 *Ibid.*

Manitoban ezagutu nuen, eta Georgian bizi zen. Haren genero-espresioagatik eta naziotasunagatik, kalean ibiltzeak ekartzen ahal zizkion jazarpena eta erasoak. Baina White Mountain tribu apatxekoa da, eta banekien erreserban hazi zela, bere tradizioekin. Nola tratatu zuten?

«1945ean jaio nintzen», esan zidan Arrano Pikartek. «Guztiz onartzen ninduten. Jaiotzetik nekien, eta inguruko guztiek ere bazekiten, Bi Espiritu nintzela. Ohoratua nintzen. Sorkuntza berezia nintzen; hori zela-eta dohain bereziak jaso nituen, besteekin partekatu beharreko irakaspenak eta sendatzeko ahalmenak. Ordea, hori aldatu egin zen; ez nire belaunaldian, baina bai hurrengoetan».

Ez zegoen izenordain bereizirik haien hizkuntza zaharrean, esan zidanez. «Hiru aldaera zeuden: emakumeen hizkera, gizonen hizkera, eta zeremonietako hizkera». Zer modu erabiltzen zuen hark? «Hiruak egiten nituen nik. Eta hala egiten zuten erreserbako beste bi Bi Espirituk ere».³²

Arrano Pikartek azaldu zidan ezen White Mountain tribu apatxea nazio txiki eta isolatua zela, eta, hala, hasierako etapetan gutxi eragin ziola kultura kolonialak. Horren ondorioz, AEBko gobernuak ez zituen misiolarien eskolak ezarri White Mountainen erreserban 1930eko hamarkadaren bukaera arte edo 1940koaren hasiera arte. Arrano Pikartek esan zidanez, eskola horietan dastatu zuen intolerantzia lehenbizikoz Bi Espiritu izateagatik. «Familiaren laguntzarekin, misiolarien eskolatik atera ninduten, eta izeba batekin bizitzera bidali, erreserbatik kanpo. Beraz, kristautasunak ez zidan osotara jazarri. Badituzen baita oroitzen oso txar han izandako denbora laburraz».³³

«Baina familiari dagokionez», jarraitu zuen, «matriarkatua ginen, eta hala izan gara gure historian. Emakumeek toki desberdina dute matriarkatuan eta matriarkatutik kanpo. Kontua ez da gainerakoek baino botere handiagoa edo pribilegio handiagoak ditugula; izateko modu orekatuagoa da. Emakumea izatea plus bat zen, eta Bi Espiritu izatea are hobea zen. Egia esan, Bi Espiritu izateari buruzko pentsamendu txarrik ez nuen izan harik eta erreserba utzi nuen arte».³⁴

32 Arrano Pikart, telefono bidezko elkarrizketa, 1995eko martxoaren 16ean.

33 *Ibid.*

34 *Ibid.*

Arrano Pikartek esan zidan heldu gazte zenean ezkondu egin zela. «Senarra ere Bi Espiritu zen, eta haurrak izan genituen. Bertako estandarretarako oso modu berezian bizi ginen. Guretzat, jakina, oso normala zen. Indarkeria handia jasan genuen, baina aurre egiten ikasi, eta aurrera egin genuen».³⁵

Urte asko geroago, Arrano Pikarten senarra hil egin zen. Gaur egun, haren bikotekidea emakume bat da. Hiru seme-alaba heldu ditu. «Haietako bi ere Bi Espiritu dira», esan zidan harro. «Denak ere oso bat eginda gaude».³⁶

Galdegin nion ea non topatu zituen bere indarra eta harrotasuna. «Ingurukoek eman zizkidaten, gorde nitzan. Zeure bizi osoa espiritualki konektaturik badago, norberaren harrotasuna —norberaren irudia— konektaturik dago gainerako guztiarekin. Hala, zure zati bihurtzen da, eta noranahi daramazu zeurekin».³⁷

Ipar Amerikan gaur egungo sexu/genero sistema zurruna inposatu izanaren ardura nork du? Besterik gabe patriarkatuari errua botatzea ez da zuzena, Chrystosek azpimarratu zidanez. «Hitz egokia 'kolonizazioa' da, eta hark munduari egin diona. Patriarkatua da tresna bat kolonizatzeke eta jendea eta haien lurrrak esplotatzeko aberats zurien onerako».³⁸

«Bi Espirituen tradizioa ezabatu egin zuten», azaldu zidan. «Natiboen espiritualtasun guztiak bezala, zapalkuntza jasan du denbora luzez. Hortaz, badira hutsuneak. Baina geure tradizio espiritualekin jarraitzen dugu. Oraindik ere loturik gaude lur honi eta gure arbasoen lekuei, eta moldatu gara geure ohitura espiritualei eta hizkuntzei eusteko. Beti izan gara gerran. Hala eta guztiz ere, gaur egun ere irauten duten eraso ikaragarriak izanik ere, segitu dugu, eta bizirik iraun».³⁹

Modu tradizionallean emandako opari baten moduan, herri natiboek, pazientziaz, lagundu didate hobeki ulertzen kolonizazioaren aurretik mendebaldeko hemisferioan zeuden kultura askotarikoak.

Baina zergatik zuten jatorrizko kulturek sexu/genero dibertsitatea ohoratu, bitartean Europar kolonialistek setaturik

35 *Ibid.*

36 *Ibid.*

37 *Ibid.*

38 Chrystos, telefono bidezko elkarrizketa, 1995eko martxoaren 14ean.

39 *Ibid.*

zeudela hura suntsitzeko? Eta europarrek nolatan identifikatu zuten berehalakoan Bi Espiritutasuna? Bai al ziren antzeko espresioak Europako gizarteetan?

Nire institutuko ikaskuntza eskasaz oroitzuz, bakar-bakarrik pertsona bat etortzen zitzaidan gogora zeinaren genero-espresioak historia egin zuen.



Theodor de Bryren grabatu bat, 1594koa. Balboa agertzen du, zakurrak erabiltzen natibo Bi Espirituak akabatzeke.

LAU

«HOMMASSE» DEITEN ZIOTEN

«Joana Arc-ekoak ez al zituen gizonen arropak janzten?» galdetu nion lagun bati, kafea hartzen ari ginela, 1975ean. Historiako unibertsitate titulua zuen; nik justu-justu gaintu nuen institutua. Haren erantzuna irrikaz itxoin nuen, baina galdera esku-keinuaz baztertu zuen. «Armadura besterik ez zen». Oso seguru zirudien, baina hala ere ezin nuen galdera baztertu. Gaztetan, Joana Arc-ekoa zen historian *cross-dressing*arekin loturik aditza izan nuen pertsona bakarra.

Lagunak emandako erantzunaz asko pentsatu nuen. Joana Arc-ekoa gizon bezalako zela kondaira hutsa ote zen? Inportantea zen armadura janztea? Baldin gizarte batek zorrotz manatzen badu gizonak bakarrik izan daitezkeela gerrariak, ez al da emakume gudari buruzagi bat, armaduraz jantzia, *cross-genero* espresioaren adibidea?

Joana Arc-ekoaren garaiko feudalismoaz bakarrik nekien jaunek sekulako lurketak zeuzkatela, eta jaun horiek bizi zirela nekazarien lan behartuaren bizkar. Baina erabaki nuen Joana Arc-ekoaren biziak ikastea, eta haren istorioak beste leihorik handi bat ireki zidan trans historia ezagutzeko.

Eskolan, azkar eta gaitetik landu genuen Joana Arc-ekoaren biziak. Beraz, ez nekien ezen 1431n, Joana Arc-ekoak 19 urte zituela, Eliza Katolikoaren Inkisizioak erre egin zuela ez ziolako utzi janzteari gizonen ohi zituzten arropak. Eta inork ez zidan irakatsi Joana Arc-ekoaren jarraitzaile ziren nekazariak hura eta haren janzkera sakratutzat zituztela.

Ikasi nuen hamar mila liburu baino gehiago idatzi zirela Joana Arc-ekoaren aparteko biziak. Nekazarien klaseko



Goian ezkerrean: denek aldarrikatu dute ikur gisa Joana Arc-ekoa, hasi Elizako aitekin, kanonizatu baitzuten, eta buka Frantziako eskuineko nazionalistekin. Maiz, Joana Arc-ekoa irudikatzen da oso emakume feminino gisa. Ikusita transgenero izatearen salaketek eraman zutela heriotzara, segur aski antz handiagoa izanzen zuen XVII. mendeko margolan honekin. Jean de Caumonti egozten zaio.

Goian eskuinean: Klementi tribuko birjina (erdikoa), Albanian, 1910 aldera. Alabek ez zuten zeresanik erabakitzeke noiz eta norekin ezkondu. Baina birjina batek zin egiten bazuen hamabi lekukoren aurrean ez zela sekula ezkonduko, pertsona hori gizontzat aitortzen zen, estatus hori hartzen zuen, gizonen arropak janzten zituen, armak erabiltzen, gainerako gizonekin egiten zituen otorduak, eta artzain edo ahuntzain aritzen zen.

alaba letragabea zen, nerabetan armadarako lidergo bikaina erakutsi zuen, eta lagundu zuen Frantziako nazio-estatua sortzen. Gehien harritu ninduena, nolanihi ere, izan zen nolako ausardia izan zuen norberaren espresiorako eskubidea defendatzeko. Hala eta guztiz ere, zapuztu nintzen ikusita zenbat idazkik aztertzen zuten Joana Arc-ekoaren bizia banako gisa bakarrik, garai eta toki iskanbilatsu batzuen dinamikatik erauzirik. Bereziki ulertu nahi nuen zer lurretan errotu zen halako aparteko pertsona bat.

Domrémyn jaio zen Joana Arc-ekoa, Lorrena probintzian, 1412 inguruan. Hura jaio baino mende erdi lehenago, izurri bubonikoak feudalismoaren egitura urratu zuen. Europako po-

pulazioaren heren bat suntsitu egin zen, probintzia osoak jendez hustu ziren. Nekazarien matxinadak Europako feudalismoaren oinarria bera astintzen ari ziren.

Sasoi hartan, Frantzia Ehun Urteetako Gerran harrapatua zegoen. Frantziako nekazariak arpilatzeak eta indarkeria jasaten zituzten ingelesak okupazio armadaren aldetik. Nekazarien problema berehalakoena zen nola bidali armada ingelesa, eta Frantziako nobleak ez ziren gauza zeregin hori betetzeko.

Joana Arc-ekoa buruzagi gisa azaleratu zen lurrikara sozial sakoneko garai hartan. Hala, 1429an, gizonen arropak soinean, segurtasunez betetako hamazazpi urteko gazteak bere burua aurkeztu zuen, jarraitzaile talde batekin batera, tronurako oinordeko zen Karlos Printzearen gortean. Feudalismoa testuinguruan, non erlijioak dena hartzen baitzuen, Joanak segurtatu zuen Jainkoak gidatzen zituela bere misioa, motibazioa eta janzkera. Bere helburua adierazi zuen: nekazari armada bat eratzea ingelesak bidaltzeko. Karlos Printzeak hamar mila nekazarien armadako buru jarri zuen.

Historiaren gainerakoa hamaika aldiz kontatu da idazkietan eta filmetan. Irakurtzeko nahiz idazteko gauza ez zela, Joana Arc-ekoak gutun bat diktatu zuen Ingalaterrako erregearentzat eta Bedfordeko dukearentzat, zeina baitzen ingelesak okupazio armadaren burua Orléansen, eskatuz Frantziako lurra utz zezatela, zin eginez: «Hala egiten ez baduzue, gogoratuko duzue sufrimendu handien kariaz».⁴⁰

1429ko apirilaren 28an, Joanak Orléanserako martxa gidatu zuen. Biharamunean, hirian sartu zen nekazari armadaren buru. Maiatzaren 8an, ingelesak menperatu zituzten. Hurrengo hilabeteetan, are gehiago frogatu zituen estrategiarako jeinu militarra eta soldaduak adoretzeko trebetasuna, Frantziako beste herri eta hiri batzuk askatuz eta ingelesei atzera eginaraziz.

Joanak Karlos konbentzitu zuen Reimsa joan eta koroatua izateko. Bidaia neketsua zen, luzea eta arriskugarria, oraindik ere tropa ingelesak okupatutako lurretan barna. Joanaren armada ahiturik eta goseak jota egonik ere, ingelesak behartu zituzten atzerago egitera. Karlos Frantziako errege koroatu zutenean,

40 *The Trial of Joan of Arc: Being the verbatim report of the proceedings from the Orleans Manuscript*, itzulp. W. S. Scott (Westport, CT: Associated Booksellers, 1956) 31.

Joana ondoan izan zuen, gerrarako bere zutoihalaria eusten. Frantziako nazio-estatua, oraindik osorik askatua ez egonik ere, jaioa zen.

1430eko maiatzaren 23an, borgoinarrek, Ingalaterrako jaun feudalen aliatu frantsesek, Joana harrapatu zuten. Joanari *hommasse* deitzen zioten, irain bat, esan nahi zuena «emazte-gizon» edo emakume maskulinoa.⁴¹ Zalduna edo gizon noblea izan balitz, Karlos erregeak erreskatea eskainiko zuen Joanaren askapenaren truke, erreskatea baitzen ohiko modua borrokan harrapatutako zaldunak eta nobleak askatzeko. Zenbatekoak ere ezarriak zeuden: printze erreal bat 10.000 urrezko liberaren truke, hots, 61.125 frankoren truke.⁴² Behin erreskatea eskainita, onartu beharra zen. Baina Joanaren posizioak, nekazarien herri mugimendu baten buru militarra baitzen, mehatxatzen zuen boterera iristen lagundu zuen Frantziako klase agintaria. Frantziako nobleek ez zuten franko bakar bat ere eskaini hura askatzeko. Nolako traizio harroa. Nolako gogoia behar zuten izan hartaz libratzeko.

Ingelesek Eliza Katolikoa bultzatu zuten Joana kondetatzera gizon arropaz janzteagatik. Ingalaterrako erregeak, Henrike VI.ak, honako hau idatzi zion Pierre Cauchon inkisidore zitalari, Beauvaisko apezpikuari: «Aski gauza jakina eta ezaguna da baduela denbora bat non bere buruari Joana Dontzeila esaten dion emakume batek, sexu femeninoari dagozkion jantzi eta arropak beztitzeari utzirik, zeina baita gauza bat lege dibino guztien kontrakoa eta Jainkoen begietara gorrotagarria, eta lege guztiek debekatua, janzten dituela gizonen armadura eta arropak». Joanaren trans janzkeraren kontrako haserrearen azpian ezkutatzen zuena zen izugarritzko klasismoa. Nobleen aurkako afruntua zen nekazari batek armadura janztea eta zaldi eder baten gainean ibiltzea. Irain hori gehiago prestatu zuen Joanaren kontrako kargu batean, zeinak baitzioen Joanak janzten zituela «arropa aberats eta handiosak, gauza preziatuak eta urrezko eta larruzko oihalak».⁴³

41 Charles Wayland Lightbody, *The Judgements of Joan: A Study in Cultural History* (Cambridge: Harvard University Press, 1961) 60.

42 Mark Twain (Samuel Clemens), *Personal Recollection of Joan of Arc by the Sieur Louis De Conte* (Ignatius Press: 1989 San Francisco) 311.

43 Arthur Evans, *Witchcraft and the Gay Counterculture* (Fag Rag Books: 1978 Boston) 5–6; W. P. Barrett, trans., *The Trial of Jeanne d'Arc* (London: George Routledge &



Goian ezkerrean: Katalina Erauso euskaldun *cross-dressera* izan zen, edo «gurutzatuki janzen zena», eta Hego Amerikara joan zen XVII. mendearen hasieran, konkistatzaile.

Hark eta gainerako soldaduek natibo asko sarraskitu zituzten. Elizak eta Frantziako agintarien klaseak mehatxagarri zituzten Joana Arc-ekoa eta haren transgenero espresioa; Erausok, berriz, zeina borrokatu baitzen kolonialismoaren alde, Aita Santuaren oniritzia jaso zuen «gurutzatuki janzen» segitzeko.

Goian eskuinean: Liberté (Angélique Brulon) izan zen Napoleonen infanteriako ofizial kondekoratu bat, aritu zena 1792 eta 1799 arteko kanpainetan, Europako zati handi bat feudalismotik askatzen. Liberték bat egin zuen senarraren errejimentuarekin, hura gerran hil ondoan. Liberté gerran «atera zen armairutik», eta heroi bihurtu zen hainbat emakumerentzat, zeinek nahi zuten Joana Arc-ekoaren ordezko alternatiba bat, hura nobleekin hain leiala izateagatik.

Borgoinarrek ingelesei saldu zieten Joana Arc-ekoa, eta ingelesek Inkisizioari entregatu zioten 1430eko azaroan. Joana preso izan zuten Rouengo (Frantzia) kartzela zibil batean, Rouen ingelesen gotorlekua baitzen garai hartan. Jasota dagoenez, gizon soldadu ingelesek zaintzen zuten, eta Joanaren ziegan bertan egiten zuten lo, Elizaren beraren arauak hautsiz. Burdinazko kaiola txiki batean zuten hertsatua, «eta hartan zutik zuten, leptotik, eskuetatik eta hanketatik kateatua»,kaiola egin zuen sarrailagilearen arabera.⁴⁴

1431ko urtarrilaren 9an hasi zen, Rouenen, Joanaren aurkako epaiketa. Inkisidore nagusiek Joana kondenatu zuten gizonen jantziak jartzeagatik eta salatu zuten pagano gisa hazi izanaz. Elizako buruzagiek denbora luzez salatu izan zuten ezen

Sons, 1931) 154.

44 Sven Stolpe, *The Maid of Orleans*, trans. Eric Lewenhaupt (New York: Pantheon Books, 1956) 200.



Goian ezkerrean: Nzinga, Angolako Erregea, 1624tik 1653ra. Erretratu honetan oso itxura idealizatuarekin ageri da, baina, egiazki, errege gisa agindu zuen, «gurutzatuki jantzirik», eta portugaldarren armada garaitu zuen gudu askotan.

Goian eskuinean: Michoacango iraultzaile afrikar-mexikarra: emakume *cross-dresser* borrokalari eta iraultzailea, historia egiten lagundu duten emakume askotako bat. Beste adibide bat Qiu Jin dugu: iraultzaile txinatarra, feminista eta *cross-dresserra*. Torturatu eta burua moztu zioten 1907an, saiatzearagatik altxamendu bat antolatzen Qing dinastiaren kontra. Aldizkari militante bat sortu zuen Shanghain, *Txinako emakumeen kazeta* izenekoa, armada bat antolatu zuen, eta lagundu zuen matxinada bat prestatzen.

Joana jaiotako eskualdea, Lorrena, paganismo eta sorginkeria habia zela. Joanaren kontrako salaketa nagusietako bat zen «maitagarriekin»⁴⁵ aliaturik zegoela; Elizak paganismoaren kontrako gerran zerabilen salaketetako bat zen hori (kasualitatez, «paganismo» hitza latinezko *paganus* hitzetik heldu da, eta horrek esan nahi du landako biztanle edo nekazari). Eliza gerran ari zen, teologia patriarkalaren aurrean erresistentzia agertzen zuten nekazarien kontra, oraindik kristautasunaren aurreko erlijio sinismen batzuei eta ohitura matrilinealei eusten zieten kontra. Hori hala zen Lorrena aldean, baita Joana bizi zen garaian ere. Esaterako, haurrari amaren deitura eta ez aitarena ematearen ohitura oraindik bizirik zegoen han.⁴⁶

45 Margaret Murray, *The God of the Witches* (1931; London: Oxford University Press, 1970) 177; T. Douglas Murray, ed. *Jeanne d'Arc: Being the Story of her Life, her Achievements, and her Death, as attested on Oath and Set forth in the Original Documents* (New York: McClure, Phillips & Co. 1902) 87.

46 M. Murray, *God of Witches*, 177.

Joana Arc-ekoa eta haren jaioterria zen eskualdea turko-burutzat hartzeak indarra eman zion Elizaren kanpaina erreakzionarioari. Eta Joanaren jarraitzaileek zenbat eta hura gehiago gurtu, orduan eta gehiago bihurtzen zen mehatxu Elizaren aginte erlijiosorako. Salaketen Artikuluen III. artikulua argi ezartzen zuen: «Afera: delako Joana Arc-ekoak, bere asma-zioen bidez, jende katolikoa limurtu du; askok, haren aurrean, santu gisa adoratzeko dute... are gehiago, deklaratzeko dute santu guztietan handiena, Ama Birjin sakratuaren ondotik...».⁴⁷ Ez da harrizkoa Elizako aitak haren beldur izatea!

1431ko apirilaren 2an, Inkisizioak bertan behera utzi zituen Joanaren kontrako sorginkeria akusazioak, frogatzeko zailegiak izateagatik. Horren ordez, salatu zuten esateagatik gizon arropak jantztea erlijiozko betebeharra zuela, bisioetan aditutako ahotsek agindua, eta mantentzeagatik ahots horiek zirela Eliza baino autoritate altuagoak. Historialari eta akademiko askori iruditzen zaie Joana Arc-ekoak gizonen jantziak beztitzea ez zela inportantea. Ordea, Joanaren aurkako karguen muina izan zen gizonen arropak jantztea, eta, azkeneko, delitu horrengatik zuten exekutatu. Nolanahi ere, galdeketa prozedura judizialen hitzez hitzezko hurrengo aipamenak erakusten du ez zela bakarrik Joana Arc-ekoaren *cross-dressinga* [«janzkera gurutzatuak»] epaileak amorrarazten zituena, baizik baita *cross-genero* [«genero gurutzatua»] espresioak ere, oro har:

«Esana duzu ezen, Jainkoak agindurik, etengabe jantzi izan dituzula gizonen arropak, beztitu dituzula soineko motza, jipoia eta galtzak burdinazko euskarriekin; ilea ere motza ibili duzula, belarrien inguruan borobilean moztua, emakumea zarelara erakutsi zezakeen deusgabe; eta askotan jaso duzula Jaunaren Gorputza itxura horrekin, nahiz eta askotan ohartarazi zaizun halakorik ez egiteko, eta zuk uko egin diozula, esanez nahiago zenukeela hil, salbu Jainkoaren aginduz balitz. Eta, areago, esana duzu ezen hala jantzita egonen bazina erregearekin eta haren alderdikoeekin, hori izanen litzatekeela Frantziaren erresumarentzat bedeinkapenik handienetakoa; eta esana duzu deusengatik ez zenukeela eginen halako arropak ez jantzteko eta armarik ez

47 *Ibid.*, 178.

hartzeko zinik; eta horri denari dagokionez, esan duzu ongi jokatuz, eta Jainkoaren manatuari obedituz.

Horrenbestez, elizgizonek diote birao egin duzula Jainkoaren eta haren Sakramentuen kontra; urratu dituzula Jainkoaren Legea, Eskritura Santuak eta zuzenbide kanonikoa; fedeari zalantzati eta makurki atxikitzen zatzaizkiola; harro eta handiuste agertzen zarela; idolatra izatearen susmagarri zarela; eta zeure burua kondenatzen duzula zeure sexuaren ohiko jantziak beztitu nahi ez izateagatik, eta jentilen eta paganoen ohiturei jarraitzeagatik.⁴⁸

Jakinik ere erresistentziak kondena ekarriko ziola, Joanak bere defentsarako emandako lekukotzak erakutsi zuen zein erroturik zeukan bere identitatean gizonen arropekin jantzea. «Munduko deusengatik ere», deklaratu zuen, «ez nuke zinik eginen neure burua ez armatzeko eta gizonen arroparik ez jantzeko».⁴⁹

Baina 1431ko apirilaren 24an, Joanaren epaileek adierazi zuten atzera egin zuela, behin tortura ganberara bisita egin ondoren, eta behin hilerrira eramana izan ondoren, non urkamendi bat erakutsi baitzioten, torturatzaileen esanetan harentzat izanen zena baldin damutzen ez bazen. Ustez, Joanak bere burua akusatu zuen duintasun naturala urratzen zuen moduan jantzeaz, eta onartu zuen Elizaren autoritatearen menpe jartzea eta emakumearen arropak beztitzea. «Errukiz», biziarteko kartzela zigorra jarri zioten, ur eta ogi, emakumez jantzita betiere.

Nolanahi ere, Joana ez zenez gauza ez irakurtzeko ez idazteko, jakinen ote zuen zehazki zer ari zen sinatzen? Galdera inportantea da, zeren *cross-dressinga* [«janzkera gurutzatua»] ez baitzen heriotza zigorrerako delitua garai hartan. Eta Inkisizioak ez zuen botererik heretiko bat estatu sekularrari entregatzeko exekuta zezan. Baina Elizako epaileek bazuten boterea heretiko berrerorle bat kondenatzeko.⁵⁰

Pierre Cauchon inkisidoreak Joana engainatu ote zuen, agiri bat sinaraziz non hura ohartu baino gauza gehiago onartzen zituen? Beharbada Cauchonek gero agertu zizkion aitorten

48 *The Trial of Joan of Arc*, 156.

49 T. D. Murray, *Jeanne D'Arc*, 87.

50 *The Trial of Joan of Arc*, 173; Marina Warner, *Joan of Arc: The Image of Female Heroism* (New York: Knopf, 1981) 140-41.

Franklin Thompson (Sarah Emma Edmonds) Batasunaren Armadan borrokatu zen Sezesio Gerran. Ikusi zen ezen, Sezesio Gerran, parte hartu zutenetik 400 bat gizon emakume jaio zirela. Haietako asko esklabotzaren aldeko Konfederazioan borrokatu ziren. Transgenero izateak ez zaitu berez aurrerakoi bihurtzen. Sindikalisten kantu zaharrak galdetu bezala, kontua da: «Zein aldetan zaude?» (*Which side are you on?*).



faltsuaren eduki zehatzak, Joanak hura beteko ez zuelako esperantzan. Edo pergaminoak aldatu ote zituzten? Lekukoek esan zuten deklarazio motz batean egin zuela marka Joanak; epaiketako espedienteko aitortpena oso luzea da.⁵¹

Nolanahi dela ere, ustez hitzemandakoan atzera egin zuen egun gutxira, eta berriz ere gizonen arropak jantzen hasi zen. Epaileek galdegin zioten zergatik egin zuen hori, horrek heriotza segurua ekarri behar bazion. Epaiketako espedientearen arabera, Joanak esan zuen «bere borondatez egin zuela. Eta inork ez zuela horretara behartu. Eta nahiago zituela gizonen jantziak emakumeenak baino». Joanak epaileei esan zien «ez zuela inoiz zin egin nahi izan ez zuela berriz gizonen arroparik jantziko».⁵² Inkisizioak heriotzara kondenatu zuen berriz ere gizonen gisan jantzteagatik, esanez «behin eta berriz lehengoetara itzuli zara, zakur bat bere okara bezala...».⁵³

Joana Arc-ekoa bizirik erre zuten 1431ko maiatzaren 30ean, Rouenen. Hemeretzi urte zituen. Etsaiek haren transgenero espresioaren kontra zuten herraren sakontasuna frogatua gelditu zen exekuzioan, sua itzali baitzuten egiaztatzeko «egiazko» emakumea zela. Jantziak erre ondoan eta Joana ustez hilik zegoela, behatzaile batek idatzi zuen: «Orduan sua itzali, eta gorpu biluzia jende guztiaren aurrean agertu zen, eta erakutsi zituen

51 Warner, *Joan of Arc*, 140.

52 *The Trial of Joan of Arc*, 169.

53 *Ibid.*, 173.

emakume batek izan zitzakeen edo izan beharko zituen sekretu guztiak, jendearen buruetatik zalantza guztiak uxatzeko».⁵⁴

Bizirik errea izatearen sufrikario izugarria jasan zuen Joana Arc-ekoak, bere identitateari uko egin aurretik. Ezaguna zait gorroto itsu hura, haren hilketa eragin zuena: neronek aurre egin behar izan diot. Baina nahiago nukeen, trans gazte beldurtu eta nahasia nintzenean, jakin izana Joanaren biziaren eta ausardiaren egia. Nolako rol eredu inspiratzailea: nekazari transgenero nerabe jeniala, laborari armada bat gidatzen borrokara.

Baina bildu nuen informazioaren alderdi batek harri eta zur utzi ninduen. Zergatik zuten feudalismoko klase agintariak eta Elizak hain bortizki gorrotatu haren transgeneritatea, nekazariak hain sakratutzat zuten bitartean? Zalantzarik gabekoa da zenbat ohoratzen zuten nekazariak Joana Arc-ekoa. Elizak berak onartzen zuten nekazariak santu guztietan handien jotzen zutela, Ama Birjin sakratuaren ondotik.

Orobat, argi dago Joana Arc-ekoaren «janzkera gurutzatua» funtsezkoa zela gurtze horretan. Gayen historialaria den Arthur Evansek azpimarratu zuenez, Borgoinarrek Joana harri-patu aurretik, «Jendaurrean agertzen zen aldiro, dibinitate baten moduan gurtzen zuten nekazariak... Uste zuten sendatzeko ahal zuela, eta haren inguruan pilatzen ziren, gorputz zatiren bat edo arropak ukitzeko (gizonen arropak). Gero, Joanaren armadura erakusgarri izan zuten Saint Denisko elizan, eta han gurtzen zuten».⁵⁵

Margaret A. Murray unibertsitate irakaslearen esanetan, «Gizonen arropak janztearen garrantzi handia nabarmentzen da kontuan izanik ezen, Rouenen jakin bezain laster Joana berriz gizaseme gisa jantzi zela, herritarrak samaldan joan zirela gazteluko patiora hura ikustera. Soldadu ingelesak sutu egin ziren horren aurrean, eta berehalakoan bidali zituzten, hitz zakarrez eta kolpe handien mehatxupear».⁵⁶

Ez nezakeen esan, nolana ere, zergatik gurtzen zuten nekazariak Joana Arc-ekoaren «janzkera gurutzatua». Baina gogoratu nuen Joanaren kondenan ezkutuan zegoen aztarna bat.

54 *A Parisian Journal: 1405-1449 (Journal d'un Bourgeois de Paris)*, itzulp. Janet Shirley (Oxford: The Clarendon Press, 1968) 263.

55 Evans, *Witchcraft*, 7.

56 M. Murray, *God of Witches*, 187.

Zer esan nahi zuten epaileek salatu zutenean Joanaren *cross-dressinga* zela «jentilen eta paganoen ohiturei jarraitzea»? Zer ohitura? Bai al zeuden *cross-dressingaren* adibide gehiago laborarien artean? Nekazariak transgeneritatea bera sakratutzat ote zuten? Hala balitz, zergatik?

Ez nuen arrastorik non aurkitu galdera horietarako erantzunak.

BIGARREN ZATIA

Gauzen ordena eratzeko erabilgarri agertu diren kontzeptuek laster halako autoritatea lortzen dute gure gainean, ahazten baitugu haien jatorri mundutarra, eta datu aldaezintzat hartzen ditugu.

Albert Einstein


BOST

GEURE IRAGAN SAKRATUA

Gogoan dut autobus batean nindoala, gaez, elur erauntsi latza ari zuela, 1976ko hasierako hilabeteetan. Beste aktibista batzuekin batean, Chicagoko bilkura politiko batera nindoan. Loak hartu ezinik, Langileen Munduko Alderdiaren panfleto baten fotokopia irakurtzen ari nintzen, hain berria non oraindik behin betiko aleak ez baitziren inprimategitik atera.⁵⁷ Mugarri izan zen panfleto hura —lesbianen eta gayen erroen azterketa marxista— Bob McCubbinek idatzi zuen: gizon gaya; New Yorkeko gure adarrean nirekin batera aritzen zen lanean. Banekien Bob lan horretan ari zela, baina ez nekien nolako eragina izanen zuten neure bizian haren ikerketak eta azterketak.

Neronen burua topatu nuen orri horietan. Neure buruari nire sexu desira aitortu nionetik lehenbiziko aldiz, oharkabeko lotsa geruza batez askatua sentitu nintzen. Bobek giza historiaren halako ikuspuntu orokor bat aurkeztu zuen, non ikusten ahal bainuen sexu berekoen arteko maitasuna betidanik izan zela giza sexualitatearen espektroaren zati. Eman zituen adibide batzuetan, ikusten zen antzinako gizarte komunaletan ohoratzen zituztela giza maitasun eta afektu mota guztiak. Bobek aztertu zuen nola eta zergatik gizartea klaseetan zatitzeak ekarri zuen agintariak gero eta etsaitasun handiagoa izatea sexu bereko maitasunaren kontra. Eta, nire harridurarako, adibide batzuek erakusten zuten gizarte kooperatiboetan transgeneroak onartzen zirela.

57 Bob McCubbin, *The Roots of Lesbian and Gay Oppression: A Marxist View* (1976; New York: World View Publishers, 1993).



Mapa honetan agertzen da munduko zenbat lekutan dokumentatu zituen Hermann Baumann antropologoak «gizonetik andrerako» apaiz transexualak.

Autobuseko leiho izotzez estaliaren ondoan dardaraz nengoela, negar egin nuen arindurik. Ohartu nintzen zein inportantea zen niretzat historian toki bat nuela jakitea, giza arrazaren parte nintzela jakitea.

Hurrengo urteetan panfleto hura behin eta berriz irakurri ahala, ikusi nuen transen historiari heltzen ahal niola ikuspuntu materialista batetik. Beraz, berriz ere jo nuen, beste ikuspuntu batekin, inkisidoreek Joanaren kontra egindako salaketa hartara, zeinak baitzioen Joana Arc-ekoak segitzen zela «jentilen eta paganoen ohiturei». Gure familian, jentilak esan nahi zuen ez-judu. Baina oroitu nintzen Engelsek nola erabiltzen zuen *gens* hitza, eta bururatu zitzaidan elizgizon frantses haiek behar bada aipatzen ari zirela nekazari komunitate librean, oraindik ere *gens*etan antolatutako zeudenak, hots, gizarte matrilinealetako unitate kooperatiboetan.

Urrutiago jo nahi nuen, transgeneroen ebidentzia prehistorikoen bila induskatzeko Europako gizarte komunitateetan. Baina nola egin nezakeen? Nahiz hasierako komunitateak kooperatiboak izan oraingo aroaren aurreko (o.a.a.) 4.000. urtera arte gutxi gorabehera —kalkulatzen da Harri Aroaren bukaera aldean izan zela, Neolitikoa—, antzinako nekazari eta ehiztari haiek ez zuten idazkirik utzi.

Hortaz, arakatu nituen liburuak, aldizkariak eta egunkari ebakinak, jorratzen zutenak Europako, Afrikako, Latinoamerikako, Ekialde Ertaineko eta Asiako historia. Bilatzen nituen era



Goian ezkerrean: *Gallae* apaizeme bat, Zibele jainkosaren zerbitzuko, o.a. II. mendearen erdialdekoa.

Goian eskuinean: *enaree* apaizeme trans bat. Irudi hori urrezko plaka batekoa da, o.a. IV. mende bukaerako tiara batekoa, Kuban ibaiko Karagodeuaskh tumulukoa.

guztietako trans espresioen gaineko lehenbiziko idazkiak. Nire harridurarako, informazio asko topatu nuen.

Esaterako, ebidentzia asko topatu nituen «gizonetik andrerako» emakume transexual apaizenak; rol inportantea bete zuten Ama Jainkosaren gurtzan. Ikertzaileek egindako lan zabalak erakutsi du jainkosa hori —ez jainko arrak— adoratua izan zela Ekialde Ertainean, Afrikako iparraldean, Europan eta Asiako mendebaldean.

Klaseen aurreko komunalismoaren ikur zen Ama Jainkosa. Gaur egun, aditu askok deskribatzen dute jainkosa eme gisa. Baina, beharbada, dibinitate hori adoratzen zutenek konplexuago ikusten zuten. Ezinezkoa da gaur egun zehazki interpretatzea nola ikusten zuten jainkosa duela milaka urteko jendeek. Plutarko Erromako historialariak Ama Jainkosa deskribatu zuen dibinitate intersexual (hermafrodita) gisa, zeinean sexuak ez baitziren oraindik zatitu.⁵⁸

Ama Jainkosaren emakume transexual apaizek jarraitzen zioten antzinako errituen bide sakratu bati, zeinak barnean hartzen baitzuen kastrazioa. Emakume transexual apaizek Ama

58 Plutarch, *De Iside et Osiride*, IX. cited by Robert Kellog and Oliver Steele, eds., *The Faerie Queene: Books I and II*, by Edmund Spenser (New York: The Odyssey Press, 1965) 421, fn 5.5-9.

Jainkosaren zerbitzura segitu zuten klaseen banaketa hasi berri zen gizarteetan ere. Mesopotamiako tenpluetako idazkuntan aipatzen dira, o.a.a. hirugarren milurtekoaren erdialdean, eta aurkitu izan dira, orobat, Asiriako, Akadiako eta Babiloniako idazkuntan.⁵⁹

Emakume transexual apaizek zerbitzatzen zieten Medite-rraneoko, Ekialde Ertaineko eta Ekialde Hurbileko jainkosa askori, barnean direla Siriako Astarte, Siriako jainkosak (Hierapolisen), Artemisa, Atargatis, Ashtoreth edo Ishtar, Hekate (Laginan) eta Artemisa (Diana) Efeson. Maiz, Dianaren estatuak irudikatzen dira haren apaizen barrabidez egindako lepokoarekin.⁶⁰

Gallae izenez ezagututako emakume transexual apaizak hain ugari topatu ziren Anatolian, gaur egun Turkiako zati den eskualde batean, non testu klasiko batzuek baitiote bost mila ere bazirela hiri batzuetan.⁶¹ *Gallae* delakoek Ama Jainkosa zerbitzatzen zuten —Frigian, Zibele zen—, eta uste da Harri Arotik gurtzen zutela.⁶²

Emakume transexual apaizen zerbitzu sakratua ote zen gizarte matrilineal komunaletan errotutako praktika? Edo erakusten ote dute gizon batzuek, patriarkatuaren pean bizita, beren burua zikiratzen zutela, emakumeei haien posizioa ebas-teko? Ikertzaile eta historialari guztiak ez daude ados.

Esaterako, irudi du David F. Greenbergen aurkikuntzek lehenbiziko aukeraren alde egiten dutela. Haren ondorioen araber, xaman transen ebidentziak izateak «gero oso bizimodu dibertsoak izan dituzten pertsonen artean, iradokitzen du rol hori Paleolitokoa dela (ez bada lehenagokoa)».⁶³

Merlin Stone ikertzaile feminista da bigarren argudioaren aldeko bozeramaile nabarmenetako bat. Idazkietan, jorratu zuen

59 *Gallae* emakume transexual apaizak, esaterako, ongi dokumentaturik daude. *Gallae* deitutakoei buruzko autoritate eta sakontasun handieneko lanak emakume transexual batek egin ditu, Margaret O'Hartigan historialariak. (Ikus beheko 61. oharra) Tenpluko erregistroetarako, ikus Will Roscoe, *Queer Spirits: A Gay Men's Myth Book* (Boston: Beacon Press, 1995) 101-2, 104.

60 M. Esther Harding, *Woman's Mysteries: Ancient and Modern* (London: Longmans, Green and Co., 1955) 170.

61 Merlin Stone, *When God Was a Woman* (New York: Harcourt Brace Jovanovich, 1976) 149.

62 Margaret Deirdre O'Hartigan, «The *Gallae* of the Magna Mater», *Chrysalis Quarterly* 1:6 (1993): 11-13.

63 David Greenberg, *The Construction of Homosexuality* (Chicago: University of Chicago Press, 1988) 64.



Goian ezkerrean: Heviosso gurtzen, Abomeyn, Afrikan. Eskualde hori famatua da emakume amazona gudariengatik.

Goian eskuinean: Sakpota dantzari bat, Dahomeyn, Afrikan.

Mediterraneoko eta Ekialde Ertaineko kulturetan nola izan zen trantsizio bat komunalismotik klaseetan zatitutako hasierako gizarteetara. «Oso posible dirudi gizonak boterea irabazi ahala, baita jainkosen erlijioan ere, emakume apaizak ordeztea. Izan zitekeen hasieran eskubide hori irabaztea semearen/maitalearen egoera kastratuarekin identifikatuz eta hura imitatuz; edo izan zitekeen emakumeen kleroa imitatu nahian, zeinek jatorrian boterea baitzuen, beren gizontasuna erauzten saiatzea, horretarako kastrazioaren erritua berenganatuz eta emakumeen arropak jantziz».⁶⁴

Stoneren argudioaren oinarrian, apaiz emakume transexual haiek gizon gisa definitzen dira, determinismo biologikoz. Baina «beren gizontasuna erauzi» zuten apaiz emakume transek nola espero zezaketen beren alde jartzea aberats berri ziren gizon haiek, baldin gizonak hainbeste estimatzen bazituzten emakumeen gainetik? «Gizontasunaz» gabeturik egoteaz gain, apaiz emakume trans haiek jarraitu zuten jainkosa matrilinealak gurtzen, lehia eginez gizonen klase agintari berrien erlijio patriarkalari.

Eta zer esan daiteke emakumeen kleroa «jatorrian boterea zuela» dioen baieztapenaz? Nolatan eratorri ziren ema-

64 Stone, *When God*, 149-50.



Erritu joruba bat, Brasilen. Ohartu zaitezte Shangoren bi ahoko aizkoran; Shango irudikatzen da sexu guztietako jainkotasun gisa. Orobat, amazonez esan izan da bi ahoko aizkorak erabiltzen zituztela.

kumeen «boteretik» gizarte kooperatiboak? Boterearen oinarri ote zen espiritualtasunaren gidari izatea?

Antropologoek Harri Aroko Europako bizimoduaren sistema berreraiki dute paleontologoek dinosauroen modeloak berreraiki bezalatsu. Harri Haroa izan zen metalak erabiltzen hasi aurreko giza garapenaren sasoi bat, non lanabesak eta ehi-zarako tresnak harriz egiten ziren. Ehizatuz eta jakiak bilduz bizi ziren; elkarlanean aritzen ziren.

Hasierako gizarte haietan, gizon gehienak ehizan aritzen ziren, eta emakume gehienek lanaren zatiketa bat garatu zuten produkzio-toki handietan, eta haurren zaintzaren ardura konpartitzen zuten. Emakumeek ez zuten gizonen gainean agintzen, gizarte patriarkaletan gizonak emakumeak menpean dituzten gisan. Ez dago aztarnarik erakusten duenik faraoi eta enperadorerik zegoenik, erregina nahiz lehendakaririk, luxuekin bizi zirenak gainerakoak miserian biziraun bitartean. Lidergoa ezin zen bortxaz edo erosiz eskuratu; hortaz, taldearen errespetuaren bidez behar zen irabazi.

Gizarte horien familia egitura matrilineala eta matrilokala zen, esan nahi baita emakumeak zirela familia taldeetako eta etxe kolektiboetako buruak. Emakumeen bidez ezartzen ziren

odol bidezko ondorengotza eta herentzia. Harri Aroko gizarte haietan, emakumeak hain ziren errespetatuak non Jacquetta Hawkes antropologoak ondorioztatzen baitu: «Izan ere, pentsa liteke Neolitoko gizarteetan izan zutela emakumeek inoiz ezagutu duten estatusik handiena, orduan zuten maila eta tokiarengatik».⁶⁵

Baina gizarte kooperatibo haietan bi sexutarako lekua ote zegoen bakarrik, eta bi sexu horiek jaiotzan finkatzen ote ziren? Zientzialari sozialen artean gauza onartua da ondorioztatzea ezen gizarte komunaletan izandako hasierako lanaren banaketa hark, emakumeen eta gizonen artekoak, oinarritu zituela sexuaren eta generoaren gaurko mugak. Baina zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta sinetsiago nengoen gaurko mendebaldeko ondorioa zela esatea gizarte guztietan, munduko bazter guztietan, giza historiaren aro guztietan, gizonak eta emakumeak bakarrik aitortu direla bi kategoria sozial aldaezin gisa. Luzez uste izan dugu lanaren antzinako banaketa bi sexuren artekoa zela bakarrik, eta garaia da beste ikuspuntu bat izatekoa.

Irudi du gure antzinako arbasoak ez zirela determinista biologikoak. Mundu guztian, baziren gizarteak bi sexu baino gehiago ahalbidetzen zituztenak, eta, orobat, errespetatzen zutenak banakoek zuten eskubidea beren sexua berresleitzeko. Eta transexualitatea, transgeneritatea, intersexualitatea eta bigeneritatea gai gisa agertzen dira istorioetan, kondairetan, paraboletan eta ahozko historian.

Jada dokumentatu dudanez, Ipar Amerikako nazio natiibo askok tokia egiten zieten bi sexu baino gehiagori, eta irudi du bazela haien arteko fluidotasuna. Espedizio militarren, misiolarien, etnografoen, antropologoek, esploratzaileen eta kolonialismoaren beste aitzindari batzuen idazkiek aipatzen dituzte era askotako sexu-aldaketak, transgeneritateak eta intersexualitateak gizarte matrilinealetan (gizarteak non gizonak ez ziren nagusi). Idazki horietan —ez du inporta zein arrazistak ziren edo narratzailearen ahots kolonialistak nolako amorruez desitxuratzen zuen— argi dago antzinako kultura askotan izan

65 Jacquetta Hawkes and Sir Leonard Woolley, *Prehistory and the Beginnings of Civilization* (New York: Harper & Row, 1963) 264.

zirela emakume apaiz transexualak eta bestelako lider espiritual transak, edo xaman transak.

Ondorengo adibide askotan ezin da bereizketarik egin transexualen, transgeneroen, bigeneroen eta genero-espresio mistoen artean. Nolanahi ere, lider espiritual transek beren rola izan dute mundu guztiko kultura askotan.

Esaterako, Afrikan jainko intersexualetan sinetsi izan da, eta haien jarraitzaileen sexu/genero transformazioan, eta hala dokumentatu da herri hauetan: akan, bambara, bobo, chokwe, dogon, etik, fon (Beninen), handa, humbe, hunde, igbo, joruba, jukun, kinbumdu, konso, kunama, lamba, lango, luba, musho, nuba, olu'bo, ovambo-kwanyama, ovimbundu, rundi, shona-karonga, venda eta vili-kongo.⁶⁶

XXgarren mendean ere, Afrikako mendebaldean, jaso izan da transgeneritatea erlijio errituetan. Eta *cross-dressinga* edo «gurutzatuki janzte» Brasilgo eta Haitiko gaurko zeremonietako ezaugarria da, Afrikako mendebaldeko erlijioetatik eratorrita.⁶⁷

Gainera, «gizonetik andrerako» xamanen kasuak jaso izan dira maputxeen artean, Txileko hegoaldean eta Argentina-ko zati batzuetan.⁶⁸ Orobat, jaso izan dira wayuu herrian —herri abeltzaina da, Venezuelako ipar-mendebaldean eta Kolonbiako iparraldean bizi dena⁶⁹—, baita tehueltxeen artean ere —ehiztari-biltzaileak, Argentinan⁷⁰—.

Pauline Park historialari transgeneroak, zeina baita korear-amerikarra, idatzi zidan Asiako adierazpen trans espiritu- tualen berri emateko:⁷¹

66 Hermann Baumann, *Das Doppelte Geschlecht: Ethnologische Studien zur Bisexualität in Ritus und Mythos* (Berlin: Dietrich Reimer, 1955), apud. Randy P. Conner, *Blossom of Bone: Reclaiming the Connections Between Homoeroticism and the Sacred* (San Francisco: HarperCollins, 1993) 38-39. Bumannen mundu mapak «The Diffusion of Bisexual Mythic Beings and Powers» eta «The Ritualistic Permanent Sex Change» izenekin in Joseph Campbell, *The Way of the Animal Powers* (San Francisco: Harper & Row, 1983) 142, 174 vol. 1 of *Historical Atlas of World Mythology*.

67 Greenberg, *Construction of Homosexuality*, 61.

68 *Ibid.*, 56.

69 Maria-Barbara Watson-Franke, «A Woman's Profession in Guajire Culture: Weaving», *Anthropologica* 37 (1974): 24-40, as cited in Greenberg, *Construction of Homosexuality*, 57.

70 John M. Cooper, «The Patagonian and Pampean Hunters», (1994; New York: Cooper Square Publishers, 1963) 159, vol. 1, *The Marginal Tribes, of Handbook of South American Indians*, ed. Julian H. Steward.

71 Pauline Park, e-mail bidez, 1995eko ekainaren 13an.



Mutil gazte bat, jainkotasun hindu baten gjsa jantzia, Kumbh Mela jaialdian, Allahabaden, Indian.

Asiako gizarte tradizional guztietan dokumentatu izan dira identitate eta praktika transgeneroak. Asiako tradizio batzuetan, figura transgeneroek eginkizun erlijiozkoak edo erdi-erlijiozkoak bete dituzte. Horren adibide da *basaja* figura, Sulawesi (Celebes) uhartean, Indonèsian.⁷² Indiako *hijra* ere erlijioaren testuinguruan uler daiteke, Bahuchara Mata ama jainkosarekin loturik; nolana ere, *hijra* batzuek Shiva ere gurtzen dute haren erdi-gizon erdi-emakume agerpenean, zeina baita Ardhanarishvara.⁷³

Azkenik, *mudang* izenekoak aipatu behar dira. Koreako *mudanga* xamana edo sorgina zen, maiz «gizonetik anderako» transgeneroa zena, eta, beste tradizio xamaniko askotan bezala, irudi du praktika horri garrantzia ematen ziola uste izateak bi sexuen eta bi generoen ezaugarriak konbinatzeak norbera konekta zezakeela espiritualtasunaren erresuma transzendentearekin.⁷⁴

72 Justus M. Van der Kroef, «Transvestism and the Religious Hermaphrodite in Indonesia», *Asian Homosexuality*, ed. Wayne R. Dynes eta Stephen Donaldson (New York: Garland Publishing, 1992) 89-98, vol. 3 of *Studies in Homosexuality*, Parke-ek aipatua, 1995eko ekainaren 13an.

73 Serena Nanda, *Neither Man Nor Woman: The Hijras of India* (Belmont, California: Wadsworth Publishing, 1990), Parke-ek aipatua, 1995eko ekainaren 13an.

74 *A Handbook of Korea*, 5th ed. (Seoul: Korean Overseas Information Service, Ministry of Culture and Information, 1983) 306, Parke-ek aipatua, 1995eko ekainaren 13an.

Antzinako Txinan, *shih-niang* izenekoeak jantzen zituzten emakumeen eta gizonen arropen eta erlijiozko jantzien nahasketa bat.⁷⁵ Okinawan, xaman batzuek parte hartzen zuten «gizonetik andrerako» zeremonia zahar batean, zeina deitzen baitzen *winagu nati*: «emakume bihurtzea».⁷⁶ Eta dokumentatu denez, xaman transak baziren oraindik ere Vietnamgo landan 1970eko hamarkadako erdialdean.⁷⁷

«Andretik gizonerako» apaizak ere badira, eta, inportanteagoa dena, «gizonetik andrerako» xamanekin batera ere koexistitzen dira. Afrikako lugbara herrian, esaterako, *okule* esaten zaie «gizonetik andrerakoei», eta *agule* «Andretik gizonerakoei».⁷⁸ Zuluak *isangoma* deitzen zieten bai «gizonetik andrerakoei» bai «Andretik gizonerakoei» ere. «Gizonetik andrerako» xamanak izan dira honako herri hauen bizimodu tradizionalen: txuktxi, kamchadal, koriak eta inuit —hots, Artikoko arroko herri nati-bo guztiak—. Inuiten arteko «andretik gizonerako» xamanak dira Balea Zuria Emakumea zerbitzatzen dutenak, zeina uste baita bihurtu zela gizon edo emakume-gizon.⁷⁹ Eta sustrai matrilineal sakoneko erritu eta jaialdi herrikoien parte da «andretik gizonerako» genero-espresioa, munduko bazter guztietan, baita kontinente europarrean ere.

Lider espiritual emakumeek eta transek koexistitzen jarraitu dute mende honetan ere. Afrika hegoaldeko igarle zuluak emakumeak izaten dira, baina badira «gizonetik andrerako» igarleak ere.⁸⁰ Angola hegoaldeko ovambo herrian, mende honetan ere, emakumeek —baita emakume transek ere— Kalunga jainkotasuna zerbitzatzen dute.⁸¹

75 Wolfram Eberland, *Local Cultures of South and East China* (Leiden: E. J. Brill, 1968) 306, 46.

76 William P. Lebra, *Okinawan Religion: Belief, Ritual and Social Structure* (Honolulu: University of Hawaii Press, 1966) 69, 225.

77 Elliot M. Heiman eta Cao Van Lê, «Transsexualism in Vietnam», *Archives of Sexual Behaviour* 4.1 (1975): 89-95.

78 John Middleton, «Spirit Possession among the Lugbara», *Spirit Mediumship and Society in Africa*, ed. John Beattie eta John Middleton (London: Routledge and Kegan Paul, 1969) 224.

79 Franz Boas, *The Eskimo of Baffin Land and Hudson Bay* (New York: American Museum of Natural History, 1901) 199, 130, apud. Conner, *Blossom of Bone*, 28.

80 Harriet Ngunane, *Body and Mind in Zulu Medicine: An Ethnography of health and disease in Nyuswa-Zulu thought and practice* (London: Academic Press, 1977) 142.

81 Carlos Estermann, *The Ethnography of Southwestern Angola* (New York: Africana Publishing, 1976), 1:193, 196-97.



Goiko aldean: Nat dantzari bat Birmanian.
Eskuineko aldean: Xaman Bi Espiritu tolowa.



Eta munduko zenbait lekutan, transak ez diren emakume xamanek ordeztu dituzte trans xamanak presio patriarkalen ondorioz. Adibidez, Walter Williamsek hauxe idatzi zuen: Hego Ameriketara, «kontaktatu aurreko maputxeen artean, eta segur aski beste herri batzuetan ere, lider erlijioso ziren xaman guztiak berdacheak ziren. Espainiarrek erakunde erlijioso hori ezabatu zuenean, gizonen arteko sexuarekin lotzeagatik, indiarrek guztiz berria zen patroi batera jo zuten: emakumeak bihurtu ziren xaman».⁸²

Nahiz eta trans espresioaren adibide hauek mugatu espiritualtasunaren testuingurura, milaka liburuk, entseguk eta landa lanek aipatzen dituzte transgeneroak, bigeneroak, transexualitatea eta intersexualitatea kontinente guztietako gizarteetan, garapen etapa guztietan. Ez naiz argudiatzen ari kultura dibertsitateko adibide hauek direnik Mendebaldeko trans identitate modernoak bezal-bezalakoak. Ez naiz saiatzen ari, ezta ere, gizarte horietan trans espresioekin lotuta dauden jarra eta sinesmenen matrizea argitzen. Niretzat inportantea dena da zenbat eta zenbat ebidentzia dauden nabarmentzen dutenak genero eta sexu dibertsitatea globala dela, eta trans pertsonak ohoratuak izan zirela behin, irainduak izan ordez. Bestela, nola

82 Walter Williams, *The Spirit and the Flesh: Sexual Diversity in American Indian Culture* (Boston: Beacon Press, 1986), 141.



Ezkerrean: ezkerrean dagoen mutil gaztea emakume bat ari da irudikatzen.

Eskuinean: Haitiarren martxa bat Brooklynen, New Yorken, 1993an.

izan zitekeen xamana trans pertsona bat? Gizarte komunaletan, non ez zegoen errespetua erosterik, saltzerik nahiz ebasterik, xamana edo medizina-pertsona izatea ohore-posizioa izatea zen.

Horrenbestez, nola eta zergatik, galdetzen nion neure buruari, amildu ziren hain bortizki trans pertsonenganako jarrera horiek?

SEI

ZERGATIK HASI ZEN INTOLERANTZIA

Deuteronomioan topatu nituen «gurutzatuki janztearen» eta sexu-aldaketaren kontrako lehenbiziko arau idatziak. Horrek juduak bihurtzen ote gintuen gorroto honen sorreraren erantzule? Espero nuen ezetz, jada erruduntasunez nazka-nazka eginda bainengoen.

Hazi nintzen antisemitismoaren kontra ukabilez borrokatzen. Eskolan zeuden lau haur juduetako bat nintzen ni. Erliziozko jaiegunetan faltatzen ginenez, jazarleei oroitarazten genien judu ginela; hortaz, beti izaten nuen borrokaren bat zain eskolako sarreraren inguruan. Juduei ez ziguten uzten eskolako patioan egotera. Uste nuen gainerako haurrek asmatu zutela araua, baina urteak geroago jakin nuen guraso batek agindu ziela semeari eta gainerakoei araua betearazteko, «juduek hil baitzuten gure Jainkoa!»

Oroitzen naiz 1965eko gau batez, non aitak, Irvingek, zerbait iragarri baitzigun familia guztiari afarian: «Aita Santuak esan du juduak jada ez garela Kristoren gurutziltzaketaren erantzuleak!» Eta erantsi zuen: «Gaur ongi egingen dut lo, lehenbizikoz bi mila urtean!» Irrigarria izan bazen ere, ustezko absoluzio hark ez zuen arindu nik, nerabe judu gisa, aurre egin beharreko gorrotoa.

Baina judu izateak galderak ekartzen zizkidan. Ezagutzen nituen erlijio-gizonek zergatik eskertzen zuten goizeroko otoitzetan emakume jaio ez izana? Eta nola onar nezakeen Deuteronomioak eta Lebitarren liburuak —Moisesen legearen bost liburuetako bik— kondenatzea nire «janzkera gurutzatua» eta nire sexu desira? «Gurutzatuki janzteko» nire erabateko setak jada eragin zuen gure sinagogan erlijio-hezkuntza gehiago ez

jasotzea. Beraz, nora eta norengana jo nezakeen ulertzeko nola jaio ziren lege haiek? Sentitzen nintzen harrapatua ingudearen eta mailuaren artean, defendatu nahi ez nituen erlijio-legeen eta antisemitismoaren artean.

Neronen bizian, irudi zuen juduak zirela zati txiki bat, gorrotoz eta intolerantziatz blaitutako gizarte nagusi handi baten barnean. Ez nezakeen ikus nola izan zitekeen judaismoa horren erantzule.

Zenbat eta gehiago aztertu hasierako hebrearrak, orduan eta gehiago ulertzen nuen ezen judaismoari leporatzea gorrotoa hasi izana emakumeen, transexualen, *cross-dresser*ren, intersexualen, lesbianen eta gizon gayen kontra zela ez bakarrik antisemita, baizik baita ere desbideratze bat, ulertu nahi bada zergatik jaio zen zapalkuntza.

Hortaz, norena zen errua?

Tribu semitiko asko joan ziren Arabiatik Ilgora Emankor izeneko eskualdera denbora luzean; aditu askok diote izan zela o.a.a. 1500-1250 urteen inguruan. Bada, hebrearrak tribu horietako bat ziren. Abeltzain nomada haiek hiri bat bestearen atzetik hartu zizkieten Palestinako biztanleei, eta gero eta gehiago jarri zituzten beren menpe. Baina gudu-zelaian irabazitakoa defendatu beharra zen etengabeko gerraz. Beste nomada batzuek ere irrikatzen zituzten lur emankor haiek. Hebrearrek konkistatutako lurak zeuden merkataritza bideen gurutze batean, eta horrek ahalbidetu zien garatzea merkataritza indartsu bat.

Aberastasuna metatzeak —artaldeak, laboreak, merkataritza— ekarri zuen klaseen arteko zatiketa sakontzea hebrearren artean; hala, ez da harritzekoa erlijio-sinesmenek eta legeek islatzea aberats talde txikiaren interesak eta gehiengoarengan zeukaten kontrola indartzeko borroka.

Hebrearren erlijio-sinesmen komunalak ez ziren desberdinak, funtsean, eskualdeko beste tribuen erlijio politeisten aldean. Jainko-jainkosa asko gurtzen zituzten, besteak beste Jahve.

Hortaz, nondik atera ziren Deuteronomioko lege transfobikoak eta generofobikoak? Deuteronomioak erabat kondentatzen du «gurutzatuki janztea»: «Emakumeak ez du gizonezkoen jantzirik erabiliko, ezta gizonak ere emakumezkoen soinekorik jantziko, higuingarri baitzaio Jaunari zuen Jainkoari horrelakorik



Hatshepsut errege bizardunaren estatua (o.a.a. 1485), Dair al Bahrin dagoen Hatshepsuten Haraneko Tenpluan.

egiten duena».⁸³ Eta «gizonetik andrerako» kirurgia salatzen du: «Barrabilak zanpaturik dituenak nahiz irenduak ez du esku-hartuko Jaunaren batzarrean».⁸⁴

Patriarkek ez zuketean halako manurik emanen baldin ohikoak ez baziren. Baina zergatik hartuko zituzten halako mehatxutzat «janzkera gurutzatua» eta sexu-aldaketa? Nolakoak ziren gauzak hebrearren artean Deuteronomioa idatzi zenean?

Adituek suhar eztabaidatu dute noiz eta nork idatzi zituen lege horiek. Kalkulatzen da o.a.a. XIgarren eta VIIgarren mendeen artean eskribitu zirela. Baina argi dagoena da Deuteronomioak islatzen duela hebrearren artean sakontzen ari zen klase banaketa patriarkala; haiek oraindik bizi ziren gizarte komunalean, non oraindik gurtzen baitziren Astaroth, Ishtar, Isis, Zibele eta beste jainkotasun batzuk. Eta izan gogoan: errituzko sexu-aldaketa bide sakratua zen apaiz askorentzat erlijio-tradizio matrilineal haietan.⁸⁵

Bonnie eta Vernon Bullough historialarien arabera, «janzkera gurutzatuaren» kondena zen Atargatis jainkosa siriarren kontrako kanpaina baten parte; segur aski jainkosa hura

83 Deuteronomioa, 22:5.

84 *Ibid.*, 23:1

85 Winston Leyland, ed., *Gay Roots: An Antology of Gay History, Sex, Politics and Culture* (San Francisco: Gay Sunshine Press, 1993) 2:72.

izanen zen Ishtar jainkosa asiriarraren bertsio siriarra. Gurtze-zeremonia batzuetan, Atargatisen jarraitzaileek hartzen zituzten kontrako sexuaren janzkera eta rola, hala nola haien Greziako homologoek».⁸⁶

Horretaz gain, legeek galarazten zuten juduak «gurutzatu-ki janztea». Lege haiek debekatzen zuten gizon juduek erabiltzea makillajea, janztea arropa koloretsuak, bitxiak, emakumeekin lotutako apaingarriak, eta kentzea pubiseko ilea. Emakumeei agintzen zitzairen biloa luzea izatea, eta gizoni, berriz, motza.⁸⁷ Bestalde, arau horiek ikusita uler liteke «gurutzatuki janztea» eta cross-genero espresioa zirela osotasun bat, bere barnean gorde-zen zuena Ama Jainkosaren gurtzarekiko lotura.

Baina, orobat, inportantea da gogoratzea ezen gizon hebrear aberatsak saiatzen ari zirela beren aginte patriarkala finkatzen. Horrek esan nahi du interes handia zutela desberdintasunak egiten emakumeen eta gizonen artean, eta ezabaten bi kategoria horien arteko lausotasun eta zubi oro. Horrek esplikatuko luke zergatik zehazten ziren hainbeste juduen legeetan jabetzaren arauak eta jende intersexualaren eskubideak.⁸⁸

Ez dute hebrearrek eta judaismoak patriarkatuaren eta zapalkuntzaren errua. Klase banaketek ekarri zituzten lege berriak, zeinek ezarri baitzituzten muga eta zedarri berriak gorputzen artean, norberaren espresioan eta desiran, eta, horrekin batera, hesitu baitzituzten jabetza eta aberastasuna. Eta ez ziren hebrearrak izan lehenbiziko gizartea klaseka zatitzen, ezta ere gero eta patriarkalagoak ziren legeak garatzen. Mundu guztiko gizarteetan gertatu zen transformazioa.

Duela mende bat baino gehiago, Friedrich Engelsek azaldu zuen nolako inportantzia izan zuten erabateko aldaketa haiek gizarteetan. Engelsek konparatu zituen Lewis H. Morganen ikerketak,⁸⁹ hasierako ahaidetasun formen gainekoak, Darwinen

86 S.R. Driver, *A Critical and Exegetical Comment on Deuteronomy*, 3rd ed. (reprinted; Edinburgh: T. & T. Clark, 1951), 250-51, and L. R. Farnell, *The Cults of the Greek Stales* (Oxford: The Clarendon Press, 1896) 5:160-61, as cited in Vern L. Bullough and Bonnie Bullough, *Cross Dressing, Sex, and Gender* (Philadelphia: University of Pennsylvania Press, 1993) 40.

87 Bullough, *Cross Dressing*, 40.

88 Meyer Berlin eta Shlomo Josef Zeuin, ed. *Encyclopedia Talmudica* (Jerusalem, 1974) 1:386-99.

89 Lewis Henry Morgan, *Ancient Society*, ed. Eleanor Burke Leacock (1877; New York: World Publishing, 1963).

eboluzioaren teoriarekin. Morganek, zeinak ikertu baitzituen Ipar Amerikako Haudenosauneeak (Irokes Konfederazioa) eta beste tribu asko Asiakoak, Afrikakoak eta Australiakoak, dokumentatu zuen ezen, historikoki, ahaidetasun matrilinealak lehenagokoak zirela familia patriarkalak baino. Engelsen eta Karl Marxen ustez Morganen azterlanek frogatzen zuten emakumeen zapalkuntza hasi zela gizartea zatitzearekin batera gizonak buru zituzten klaseetan, oinarri harturik jabetza pribatua eta aberastasunaren pilaketa.

Sinetsita nago komunalismoaren eraispen historikoak berak sortu zuela transen zapalkuntza.

Gizarte guztietan, baldin giza-lana produktiboagoa bihurtu bazen lanabes eta teknika hobetuen ondorioz, jendeak pilatu zuen berehalako kontsumorako behar zuena baino gehiago. Soberakin hura izan zen aberastasunaren lehenbiziko metaketa. Oro har gizonek, funtsean ehiztari izandako gizonek, animalia handiak hezi eta taldetan bildu zituzten, eta hori izan zen lehenbiziko aberastasuna. Gizonek, hala, beren gain hartu zuten oparotasun hura biltegitartzeko ardura: azienda, ardiak, ahuntzak, behorrak, eta soberakinak: lehortutako eta keztatutako haragia eta larruak, esnea, gazta eta jogurta.

Soberakin horien aurretik, tresnak, lanabesak eta beste jabetza batzuk denenak ziren *gens* matrilinealen barnean. Aberastasuna gizonen lanen arloan metatzearekin bat, familiaren egitura aldatzen hasi zen, eta gizonak hasi ziren beren ondasunak herentzian ematen premuari. Familia handiak eta beste abantaila batzuk zituztenek soberakin gehiago biltzen eta biltegitratzen zituzten. Desparekotasun haiek, txikiak hasieran, bihurtu ziren tribuko gizon batzuk aberastearen oinarri, emakumeen eta tribuko gainontzekoen gainetik.

Desoreka material horrek eragin zuen gizartearen transformazio inkontziente eta planifikatu gabea. Gizarte komunalak, non lana baitzen borondatezkoa eta kolektiboa, aldatu ziren eta berdintasunik gabeko gizarteak iritsi, zeinean aberastasuna zutenek gainerakoak behartzen zituzten beretzat lan egitera: inposatu ziren nagusien eta esklaboen arteko harreman sozialak. Garai eta toki desberdinetan gertatu zen, mende askotan zehar.

Noiznahi eta nonahi gertatuta ere, kontua da ordura arte naturalizat hartutako guztia bihurtu zela jabeen klase berriaren



Asurbanipal erregea, emakume jantziekin, emazteekin batera iruten.

zerbitzurako. Esklaboen klasea sortzeak eskatzen zuen jende bat markatzea —literalki edo figuratuki— «diferente» gisa, eta, beraz, askeen estatusa merezi ez zuen jende gisa. Estigma horrek, berdin da izan arraza, naziotasuna, erlijioa, sexua nahiz generoa, zekarren pertsona deshumanizatzea eta haren esklabotza justifikatzea.

Nekazari klase handi bat esklabo bihurtzeak eskatu zuen eratzea armadak, polizia, auzitegiak eta presondegiak, errespetarazteko jabetza pribatua. Hala ere, zartailuek eta kateek bakarrik ez zezaketen segurtatu elite aberatsaren agintea. Klase txikitxo bizkarroi bat ezin da bizi luxuan, laborari klase handi baten aberastasunaren bizkar, baldin ez badauka gehiengoa zatiturik eta markaturik elkarren kontra. Orduan jaio zen intolerantziaren beharra.

Trans jendearen zapalkuntzaren jatorria aurkitu nuen hantxe, bi faktorek bat egin zuten tokian: amaren Zuzenbi-dearen eraispenak eta klasetan zatitutako gizarte patriarkalen hazkuntzak. Elkartune hartantxe sortu ziren Deuteronomioa be-

zalako ediktuak. Legeek, baita erlijio-legeek ere, kodetu zituzten klaseen arteko harremanak.

Matriarkatuaren lehenbiziko eraispena gertatu zen Eurasiako eta Afrika ipar-ekialdeko ibar emankorretan, o.a.a. 4500-1200 urteen inguruan. Egitura sozial berri hartan —desparrekotasuna ezaugarri zuena— gizon agintari klase berriak gero eta etsaitasun handiagoa zuen emakumeen eta trans pertsonen kontra, baita erregina eta errege transgeneroen kontra ere.

Esaterako, Hatshepsut izeneko emakumeak, zeinak Egipto gobernatu baitzuen o.a.a. XVgarren mendean, «arropa maskulinoak jartzen zituen, jainko eta errege gisa irudikatua izan zen, eta bizar faltsu sinbolikoa janzten zuen». Horma-irudietan, irudikatzen zuten ile motzarekin, soingainak agerian eta, maiz, bularrrik gabe. Bere buruarentzat izen maskulinoak erabiltzen zituen». Hatshepsutek gobernatu zuen tenpluko komunitatearen babesarekin, eta monumentu izugarriak eraikiarazi zituen Amon jainkoaren omenez. Hil eta urtebetera, Hatshepsuten eta Amonen aurkako kanpaina abiatu zuen haren bigarren senarrak, Hatshepsuten oroitzapena ezabatu nahirik.⁹⁰

Zortzi bat mende geroago, o.a.a. VII. mendean, Asurbanipal erregeaz (Sardanapalus), azken errege asiriarrak, mediku batek idazten zuen jauregian denbora luzea ematen zuela emakume jantzitan. Noble boteretsuek erabili zituzten Asurbanipalen «janzkera gurutzatuari» buruzko txostenak hura agintetik kentzeko. Asurbanipalek bi gerra-kanpaina defentsibo egin zituen arerioen kontra, baina bietan ere garaitu egin zuten. Hala, haren agintea hiriburura mugatu zen. Azkenik, porrotari aurre eginez, bere jauregiari su eman zion, eta denak hil, baita bere burua ere.⁹¹

Etsaigoa transgeneroen kontra, sexu-aldaketaren kontra, intersexualitatearen kontra, emakumeen kontra eta sexu berekoen maitasunaren kontra arau bihurtu zen klase antagonismoa sakondu zen guztietan. Judua, transgeneroa eta langile-klaseko iraultzailea naizen aldetik, ezin dut nahikoa azpimarratu judaismoa ez zela izan iturburua emakumeen aurkako zapalkuntzarena

90 Edward I. Margetts, «The Masculine Character of Hatshepsut, Queen of Egypt», *Bulletin of the History of Medicine* 25 (1951): 559.

91 Diodorus Siculus, *History*, itzulp. eta ed. trans. C. H. Oldfather (London: William Heinemann, 1933) 2:221, apud. Bullough, *Cross Dressing*, 23.

eta trans espresioa eta homosexualitatea debekatzearena. Errua da klase banaketa patriarkalaren hazkundearena.

Eta, ikusi nuenez, klase agintaria zenbat eta indartsuago, orduan eta errukigabeago eta krudelago betearazten ziren legeak.

ZAZPI

BAINA BAZITUZTEN ESKLABOAK!

Zer irakatsi zidaten eskolan antzinako Greziaz? Une bakarra dut gogoan. Udaberria zen, eta leihotik begira nengoen, eskolatik askatua izateko irrikatan. Irakaslearen doinu geldoa, tetsuko argi itsugarrien soinua, eta erloju handiaren tik-taka. Une hartantxe irakasleak nire mahaian kaxka jo, eta agindu zidan arreta jartzeko. Aulkian oso zuta jarri, eta saiatu nintzen kontzentratzen, eta horregatik bakarrik aditu nuen hain argi esan zuena: «Greziaiko demokrazia izan zen antzinako zibilizazioaren adierazpenik handiena».

Berriz ere aulkian hondoratu, eta gogo handirik gabe entzun nuen egintza eta daten uholdea. Halako batez aditu nuen «esklaboak» hitza. Berehalakoan eskua altxatu, eta galdetu nuen: «Baziren esklaboak Grezian?» Gainerako ikasleek irritxoak egiten zituztela, ohartu nintzen ikasgaiaren zati hori galdu bide nuela. Geroago, egun hartan, harat-honat nenbilen gure auzoaren bazterretan zegoen baso batean. Trenbidean zentaboak jartzen nituela, eta kokoriko jartzen nintzela zain, trena noiz pasatuko zalaparta batean, pentsatu nuen irakasleak esandako hartan: «Greziaiko demokrazia izan zen antzinako zibilizazioaren adierazpenik handiena». Hain zibilizatua bazen, nolatan zeuzkaten esklaboak?

Gizon gay eta lesbiana batzuei entzuna nien ezen, gizarteriaren historia guztian, antzinako Greziaiko gizartean onartu zirela gehien sexu bereko maitaleak. Baina, pentsatu nuen neure artean, zenbateraino ziren zoriontsuak gay esklaboak? «Demokrazia» hitzak doinu atsegina du, baina norentzako demokrazia? Errealitate politikoa da Greziaiko demokrazia zela estatu mota



Ezkerrean: Intersexual bat hegazti bati jaten ematen. Irudia o.a. II. mendekoa da, eta XVIII. mendean zaharberritu zen.

Goiko aldean: Atena, gizon gerlari gisa.

bat zeinak oinarri baitzuen patrizio esklabo-jabeen gobernu autoritarioa, gehiengo esklaboaren gainean.

Jakin nuenez, kasik antzinako gizarte guztietan bezala, Greziako hasierako tribuak ziren komunalak eta matrilinealak. Baina Greziako hiri-estatuen jaiotza, o.a.a. VIIIgarren mendetik VIgarren mendera, oinarritu zen esklaboen lanean, harrapaketa eta merkataritzan. Zenbat eta denbora luzeagoz gobernatu patrizioek, orduan eta gehiago apaltzen zen emakumeen estatusa eta orduan eta gehiago bihurtzen ziren maitasun adierazpenak legeen xede.

Egia da, transen erreferentzia pila topatu nituen Greziako kulturean, erlijioan, artean eta mitologian. Baina trans espresioek oraindik zeukaten nolabaiteko ohore hura zen iragan komunaleko aztarna. Nekazarien klasean oraindik ere gurtzen ziren transgeneritatea eta intersexualitatea, eta Greziako patriarkentzat zaila zen gurtze hori apaltzea. Apez patriarkalak estuturik zeuden bi indarren artean: batetik, antzinako erlijioen indarra —batzuk ziren matriarkatuaren garaikoak—, eta, bestetik, filosofo sekularren eskolak, zeinek berebiziko rola baitzuten politikan

eta hezkuntzan.⁹² Grezian, antzinako erritualek iraun zuten tokietan, trans espresioek ere iraun zuten. Baziren anitz jaialdi, erritu eta ohitura non gizonak janzten ziren emakumeen arropaz eta emakumeek janzten zituzten gizonen arropak eta bizarrak.⁹³

Greziako mitologian, orobat, aipamen pila daude sexu-aldaketaz, intersexualitateaz eta *cross-dressing*az edo «janzkera gurutzatuaz». Heroi eta jainko mitologiko asko «jantzi ziren gurutzatuki» noizbait, esaterako Akiles, Herakles, Dioniso eta Atena. Kultura klasikoan aditua den P.M.C. Forbes Irvingek nabarmentzen duenez, «Irudi du sexu-aldaketa literala eta metaforikoa interes handiko gaia izan dela antzinako munduko irudimenean, eta inportantzia handikoa, antzinako erlijioan».⁹⁴

Baina Greziako legendetan islatzen dira trans jendearen ganako jarrera aldaketa eta klase zatiketa patriarkal gero eta zorrotzagoa, hala nola jainko mitologikoen jainkosak garaitzeak islatzen zuen gizarte matrilinealen eraispena. Esaterako, Kaineus (Caeneus) —«andretik gizonerako» figura mitologiko bat— ikusten dute «handiusteko eta jainkoen etsai gisa».⁹⁵ Zentauroek lurrera bidali zuten; beren maskulinitatearen kontrako iraintzat zuten Kaineus.

Dioniso —Bako gisa ere ezaguna— izan zen klaseen aurreko jainkosak ordeztu zituen jainkoetako bat. Baina Dioniso irudikatzen zuten transgenero gisa, «gurutzatuki» janzten zen jainko gisa, sineste zahar eta berrien arteko hibridazio gisa. Dionisoren errituetan, emakumeak —*ithyphallos* deitzen zitzaizkien— gizonen arropekin janzten ziren eta zakil gaitzak jartzen zituzten, eta gizonak emakumez beztitzen ziren.⁹⁶

Dionisok jarraitzaile asko zituen zapalduenen artean, Forbes Irvingek ohartarazten duenez:

Beharbada Dionisoren alderdirik deigarriena, eta bereziki dirudiena lotua itxura aldatzeko zuen gaitasunarekin, da ezen, nahiz eta jainko

92 Bob McCubbin, *The Roots of Lesbian & Gay Oppression: A Marxist View* (1976; World View Publishers, 1993) 20.

93 Marie Delcourt, «Travestiment in Private and Public Rites», *Hermaphrodite: Myths and Rites of the Bisexual Figure in Classical Antiquity*, itzulp. Jennifer Nicholson (1956; London: Sudio Books, 1961) 1-16.

94 P. M. C. Forbes Irving, *Metamorphosis in Greek Myths* (Oxford: The Clarendon Press, 1990) 149.

95 Irving, *Metamorphosis*, 161.

96 Delcourt, *Hermaphrodite*, 11.

handienetako bat bihurtu, eutsi ziola, mitoetan eta kultu askotan, bere izaera marjinalari. Beste gauza guztien gainetik zen ahulen eta zapalduen jainkoa, bereziki emakumeena, eta ezarritako ordenaren aurkari.

Esklabo-jabeek ez zieten aise inposatu beren sistema kru-dela, edo sinesmenak, behin libre bizitako eta kooperatiboki aritutako jendeari. Patrizioek ezin izan zuten gobernatu gerrarik gabe eta matxinadak zapaldu gabe.

Hara non, ikasi nuen ezen esklabotza horren kontra borrokatu ziren gerlarietako batzuk transgenerotzat hartzen zituztela, greziarrek behintzat: amazonak ziren. Banuen amazonen berri, zeren askatasunaren eta erresistentziaren sinbolo baitziren feminista modernoentzat. Hala ere, beti uste izan nuen emakume gisa identifikatzen ziren emakumeak zirela gerlari haiek. Baina amazonak ote ziren, orobat, erresistentzia transgeneroaren adibide bat?

Antzinako amazonak borrokatu ziren askatasunaren eta esklabotzaren arteko tarte hartan, gizarte matrilineal komunaren eraispenaren eta agintari patriarkalen igoeraren artean. Artean eta kondairetan dokumentatu dira amazona borrokalarien eta armada greziarren arteko borroka ugari. Amazonek borrokan erabiltzen bide zuten bi ahoko aizkora bihurtu da feminista modernoaren harrotasunaren ikur.

Amazonak beti femenino gisa irudikatu zituzten arren, bada dira ebidentziak erakusten dutenak greziarrek transgenerotzat zituztela. Plinio Gaztea idazle klasikoak aipatu zuen «androginoen arraza bat, bi sexuak konbinatzen zituena... Aristotelesek gehitzen du ezen denek ere zutela eskuineko bularra gizonarena eta ezkerrekoa emakumearena».⁹⁷

Eskuineko bularra gizonarena, ezkerrekoa emakumearena: amazonen deskripzio bat dirudi. Elezaharretako amazonez aditua nuen bakarra zen eskuineko bularra kentzen zutela, ebakuntza bidez, arkulariak zirelako. Baina beti iruditu zitzaidan azalpen sinplista samarra.

Greziarrentzat, amazonak ziren emakume maskulinoak, gizonen jokabidea zutenak. Eta ez ziren eszitiar transgenero bakarrak. Greziarrek oso ongi zekiten bazirela emakume apaiz transexualak eszitiarren artean, zeinak baitziren beren kideak

97 Irving, *Metamorphosis*, 193.




Herakles, emakume
jantziz beztitua.

eta lehiatzaileak Itsaso Beltzeko merkataritzan. Eta elezaharretan ere amazonen buruzagiak borrokatu ziren gizonezko gerlariekin, esaterako Akilesekin, Teseorekin eta Heraklesekin —eta horiek denek ere «janzkera gurutzatua» erabili zuten noiz-bait, mitologiaren arabera—. Gainera, uste zen amazonek lotura espirituala zutela Dionisorekin, jainko transgeneroarekin.⁹⁸

Eta amazonen arma —bi ahoko aizkora— ote zen «gizonen» armamentua, gerrako arma izateagatik bakarrik, edo intersexualitatearen ikur ote zen?

Plutarko historialari greziarrak idatzi zuen ezen Heraklesek Omphale erreginari oparitu ziola bi ahoko aizkora, amazona garaitu bati kendua, gerrako harrapakin gisa. Bai Heraklesez bai Omphalez esaten da «janzkera gurutzatua» erabili zutela. Azkenerako, aizkora emana izan zen Zeus Labrandeusi gorazarre egiteko: hura irudikatzen zen brontzezko estatua baten bidez, zeina baitzen jainko bizargabe bat, bi ahoko aizkora eskuetan, lau ilara bularrekin. Hortaz, Delcourtek ondorioztatzen duenez,

98 Pliny the Younger, *Natural History*, 6: 15, 16, 35, 36, apud. Delcourt, *Hermaphrodite*, 44. Ikus ere Emanuel Kanter, *The Amazons: A Marxian Study* (Chicago: Charles H. Kerr & Company Cooperative, 1926).



Emakume bat zakil bat eramaten. Dionisoren emakume jarraitzaileek hala egiten omen zuten, eta, orobat, «gurutzatuki janzten» ziren.

aizkora igaro zen «emakume gerlari batengandik heroi eta erregina batzuingana zeinek arropak trukutzen zizkioten elkarri; eta, gero, jainko patriarka batengana, zeina irudikatzen baitzen bularrekin. Horrek denak erakusten du androginia oso ugaria zela han».⁹⁹

Amazonak ote ziren erresistentzia transgeneroaren adibide perfektua? Hala izan baziren, amazona eszitiarrak dira emakumeen eta trans jendearen historia partekatuko elementu bat. Eta banekien amazonak ez zirela transgeneroekin lotutako emakume gerlari bakarrak.

Gogoan nuen Tupinambá herriko «andretik gizonerako» gerlarien deskripzioa (Brasilgo hego-ekialdekoak), Pero de Magalhães Gândavok idatzia 1576an. Hark eta beste esploratzaile batzuek «Amazonen Ibaia» izendatu zuten eskualdea gurutzatzen zuen ibaia, gerrari eszitiarrak buruan. Eta gogoratzen nuen bai bi ahoko aizkora bai «genero gurutzatuko» espresioa elementu nagusi zirela Shango jainko edo jainkosa jorubaren jarraitzaile afrikar eta brasildarren kultuan. Shango, ustez, batzuetan gizon gisa eta beste batzuetan emakume gisa agertzen zen.

99 *Ibid.*, 23.

Kapitulu hau idazten hasi nintzenean, gogora etorri zitzaidan nola iragana interpretatu den emakumeen eta gizonen ikuspuntutik bakarrik, kontuan hartu gabe transgeneroak, bigeneroak, transexualitatea nahiz intersexualitatea. Gero, arratsaldean, Anne Fausto-Sterling doktorearen e-mail bat jaso nuen —izen handiko biogenetista eta feminista, Brown Unibertsitatekoa—. Nabarmendu zidan artikulu motz bat, agertu zena *British Daily Telegraph* egunkarian, 1995eko otsailaren 13an. Idazkiak, «She-man» izenburua baitzuen [«gizon emakume» gisa itzul liteke], agertzen zuenez, Timothy Taylor arkeologo britainiarak transgeneroen ebidentziak topatu zituen, baita emakumerak transgeneroen ebidentziak topatu zituen, baita emakumerak gerlariak ere, Errusiako hegoaldeko Burdin Aroko hilobietan. Taylorrek eskribitu zuen: «Uste dut identifikatu ditudala gizonen esparruan mugitzen ziren emakumeak eta 'gurutzatuki janzen' ziren gizonak».¹⁰⁰

Garaia da historiari beste ikuspuntu batekin begiratzeko. Eta, oraingoan, ez dut bazterrean gelditzeko asmorik!



Eskuinean: transen eszena homosexual bat, Peithinosen irudi gorrien estiloko kopa batean. O.a.a. V. mendea.

100 Anne Fausto-Sterling, e-posta bidezko komunikazioa, 1995eko martxoaren batean.

ZORTZI

NATURALA «ANTINATURAL» BIHURTZEN DA

Esaten dudanean «generoko legez kanpoko» naizela gizarzte modernoan, ez diot erretorikoki. Poliziak arrastaka atera izan nau tabernetatik, adieraziz legea urratu dudala gau horretan nuen janzkeragatik. Poliziaren borrak nire gelaxkako atea jo izan du emakumeen komuna erabili izan dudanean. Eta gero, hortxe dago neure identitate paperen kontua.

Gizona dio neure gidabaimenak. Eskabideak bi aukera bakarrik eskaintzen zizkidan: G edo E. Gizarte honetan, non emakumeak femenino izatea espero den eta gizonak maskulino, neure sexuak eta genero-espresioak estrainioak dirudite. Baina nik gizonaren gidabaimena lortu ahal izateak berak erakusten du ezagutzen ez nauten askok gizon gisa «irakurtzen» nautela, emakume maskulino baino gehiago.

Hogeita hamar urtez gidatu izan dut, eta hirutan bakarrik aditu izan dut nire atzeko aldean polizien sirenen ulua. Eta guztietan, polizia leiho ondora hurbildu, eta eskatu izan dit: «Gidabaimena eta matrikulazio agiriak, *jauna*». Pentsa nolako amesgaiztoa jasan beharko nukeen poliziarri eman izan banio emakumea naizela dioen gidabaimen bat. Usteko trafikoko arau-hausteak izan beharko luke kontua, ez neure genitalak. Ez nioke neure sexua frogatu beharko zirkulazioko arau-hauste batengatik geldiarazi nauen polizia agente bati, eta neure gorputzak ez luke izan beharko ikerketaren xedea. Baina arrisku horiek ebitatzeko, legea urratu dut gidabaimenerako eskabidea betetzean. Horren ondorioz, jasan nitzake isuna, gidabaimena bertan behe-
ra uztea, eta sei hilabete bitarteko kartzela zigorra, G idazteagatik sexua markatzeko laukian.

Eta hortxe dago pasaportearen problema. Ez naiz seguru sentitzen *Emakumea* dioen pasaporte batekin bidaiatzen. Ordea, Gizon baten pasaportea lortzeko eskabidea eginez gero, askoz ere larriagoak diren delituen salaketa jaso dezaket. Horrenbestez, ez dut pasaporterik, eta horrek bidaiatzeko askatasuna mugatzen dit. Jaiotza-ziurtagiria alda nezake, *Gizona* jar dezan, problema hauek saihesteko, baina ez dakit zergatik lerrokatu beharko nituzkeen neure sexua eta genero-espresioak, batez ere politika horri aurre egin behar zaionean.

Lehenik eta behin, zergatik nago behartua E edo G markatzaera agiri horietan? Identifikatua izateko? Bai gidabaimenean bai pasaportean argazkiak ageri dira! Pasaporteko agente eta polizia gehienak iraindurik sentituko lirатеke uste izanez gero G edo E bat behar dutela norbait gizona edo emakumea den zehazteko. Sexuaren eta generoaren mugak gurutzatzen ditugunek bakarrik, edo muga horien artean anbiguoki bizi garenek, jasaten dugu lege-eskakizun horren eraso.

Transexual ahizpa eta anaia askori eskatu diete jaiotza-ziurtagiria legez aldatzea gainerako identifikazio-agiriak aldatu aurretik. Baina estatuek politika desberdinak dituzte jaiotza-ziurtagiria aldatzeko: batzuek errazak, beste batzuek akigarriak. Zergatik jazarri behar zaie gizon eta emakume transexualei, edo zergatik ukatu behar zaie bidaiatzeko eskubidea, bakar-bakarrik estatu batean edo bestean jaiotzeko zorigaitza izan dutelako?

Esan izan didate G edo E markatu behar dudala behar legala delako. Baina haurra nintzenean eskatzen zidaten neure arraza markatzeko agiri legal guztietan. Beharrezkoak izan ziren sekulako borroka militanteak diskriminazio arrazista instituzionalizatuaren kontra, agirietatik kentzeko galdera nahitaezko hura. Emakumeen askapenerako mugimenduak ere garaipen legal inportanteak erdietsi zituzten sexu diskriminazioaren aurka, esaterako bukaera ematea lanpostuak «emakumeen» eta «gizonen» arabera zerrendatzeko politikei. Hortaz, zergatik jarraitu behar dugu oraindik ere *gizona* edo *emakumea* markatzen agiri guztietan?

Ibili eta buelta, zergatik da sexuaren kategorizazioa auzi legala? Eta zergatik zaintzen dira kategoria horiek? Hasteko, zergatik jaio ziren lege horiek? Txikitan, uste nuen legea zela gizartea zaintzen zuen jakituria. Baina iritzia aldatu nuen behin

ikertuta antzinako Erromako ediktuak, zeinek sexuak segregatzen baitzituen kategoria legal bereiz eta desberdinetan.

Antzinako Erromako gizartean, klase banaketa sakondu ahala, sexuei gero eta estatus desberdinagoa esleitu zitzairen. Behin ondasunen jabetza zuten gizonek gizartean gora eginda, kategoria horiek ezin ziren gurutzatu edo lausotu mehatxatu gabe aberastasun berria zeukaten eta kontrolatzen zuten gizonak. Jabetza eta haren herentzia, aitatasuna, legitimitatea eta tituluak bihurtu ziren auzi legal izugarri inportanteak agintarien elitearentzat. Familia heterosexuala, aita buru zuela, bihurtu zen estatu-agindu, zeren baitzen tresna ekonomiko bat ziurtatzen zuena aberastasuna semeen eskuetara igaroko zela.

Gizon eta oinordeko jaiotzen ez zen guztiak jasan zuen sistema sozial berriaren amorrazioa. Zenbat apaldu emakumearen estatusa, hainbat beherago «ez-gizon» zen guztia: transgeneroak, genero tolestekak, sexu-aldaketa eta intersexualitatea. Emakume bat ezin zen gizon bilakatu, esklabo bat agintari patrizio bihurtu ezin zen bezalaxe. «Femenino» ikusten ziren gizonak afruntua ziren boterean ziren gizontzentzat.

Azkenerako, Dioniso bezalako jainko batek ere ezin izan zion iskin egin, halako estrabagantzia femeninoarekin. Dionisoren errituek Erroman iraun zuten baita kristautasuna aberatsen estatu-erlijio bihurtu ondoren ere. Baina agintari kristauen klaseak jainko hori irriarri bihurtu ahala, Dionisoren estatusa gainbehera joan zen, gizon-emakume izatetik —izaera bikoitza, bi aldiz boteretsua— afeminatu izatera, hots, gero eta mespretxatuagoa zen genero-espresioa izatera.¹⁰¹

Emakumeenganako gorrotoak eta gutxiespenak partez esplikatzeko agintarien klaseak ustez sobera femeninoak ziren gizonei zieten etsaigo gero eta handiagoa. Orobat, greziarrek gizonen arteko sexua onartzea bera erabiltzen zuten erromatarrek arma ideologiko gisa, ordeztu berri zuten botere inperialaren kontra. Baina Erromako agintariek Dionisoren jarraitzaileen kontra zerabiltzaten kanpainak izan zitezkeen, halaber, Rambo gisako soldadua sortzeko dei militarista bat. Gerra probetxuzko negozioa bihurtzen ari zen Erroman, eta Dioniso zen «egin amo-

101 Marie Delcourt, «Travestism in Private and Public Rites», *Hermaphrodite: Myths and Rites of the Bisexual Figure in Classical Antiquity*, itzulp. Jennifer Nicholson (1956; London: Sudio Books, 1961) 26-27.

dioa, ez gerra» gisako jainko bat, soldaduak borroka postuetatik desertatzera gonbidatzen zituena.¹⁰²

O.a.a. 186. urtean, Erromako Senatuak debekatu egin ziotuen bakanalak, Dionisoren jarraitzaileen festak, plazerean zentratuak. Elite agintariak emakumeengana, sexu berekoen maitasunarengana eta transgeneroengana zeukan jarrera jaso zuen Livio historialari erromatarrak, laburbiltzeko kontsulak debekua alde azaldutako arrazoiak: «Jarraitzaile asko emakumeak dira, eta horixe da problema guztiaren jatorria. Baina badira, orobat, emakumeen gisako gizonak, bat egin dutenak desohorean... Uste al duzue, hiritarrak, halako zina egin duten mutil gazteak soldadu bilaka daitezkeela?»¹⁰³

Debekua dela-eta atxilotutako zazpi bat mila lagunetatik gehienak nekazarien klasekoak ziren. Ez da kasualitatea. «Zapalkuntza honen klase-izaera nabarmena da», ohartarazten du Arthur Evans historialari gayak, «konturatzen garenean ezen Bakoren antzinako kultuak klase apalenen artean zituela jarraitzaile gehien».¹⁰⁴

Denbora batez, espresio transgeneroa, bai eta sexu berekoen arteko maitasuna ere, onargarria izan zen Erromako klase aberats nagientzat, ez baitzen mehatxagarri ikusten patrizioentzat. Baina agintarien artean berean bandoen arteko borrokak piztu zirenean, transgenero izatearen salaketa politikoki komenigarri bihurtu zen batzuetan. Adibide ospetsuena da Elagabalorena. Elagabalo Erromako enperadore izan zen o.a. 218. urtean, eta maiz agertzen zen emakumeen arrokekin eta makillajearekin. Gainera, jendaurrean adierazi zuen bere maitaleetako bat senar zuela. Agintarien klasean haren kontra zegoen bandoak agindu zion guardia pretoriarrari Elagabalo hiltzeko, o.a. 222. urtean. Haren hilotz mutilatua Erromako karriketan arrastatu zuten, eta Tiber ibaira bota.¹⁰⁵

O.a. 342. urtean, Konstantino enperadoreak kristautasuna estatu-erlijio bihurtu zuen. Erlijioak eta estatu-botereak bat eginda, behar zen eszenatokia ezarri zen transen kontrako le-

102 Arthur Evans, *The God of Ecstasy: Sex-Roles and the Madness of Dionysos* (New York: St. Martin's Press, 1988) 110-111.

103 Livy, apud. Burgo Partridge, *A History of Orgies* (New York: Crown, 1960) 54.

104 Evans, *Witchcraft*, 38.

105 Edward Gibbon, *The Decline and Fall of the Roman Empire* (New York: Modern Library) 1:129, apud. Evans, *Witchcraft*, 39, 41.

geak indartzeko, esklabotza garaian, bai eta feudalismoko sorgin ehiza zabaltzeko ere, zeinak geroago jomuga hartuko baitzuen trans jendea.

Legeek estutzen segitu zuten, urka-bilur baten moduan. Konstantinoren egintzatik lau hamarkada igaro ez zirela, o.a. 390. urteko abuztuan, Valentiniano, Arkadio eta Teodosio agintariek ediktu bat zuzendu zioten Erroma hiriko bikarioari:

Ezin onartu dugu ezen Erroma hiria, baita bertute guztien ama, zikin-
dua izan dadila gehiago gizon afeminatuen kutsadurarekin... Esperientzia
laudagarri zaren horrek, hortaz, zigortuko ditu, mendekuzko sugar ar-
tean, herriaren aurrean, krimenaren larriak eskatzen duen moduan,
jende horiek zeinak eman baitira halako zitalkeriara: gizonen gorputza
kondenatzea, emakumeen gorputz bihurturik, beste sexuarenak diren
jardunak jasatera, desberdintasunik batere izan gabe emakumeekin.
Zitalkeria horiek gauzaten dira —lotsagarria zaigu esatea— gizonen
burdeletan. Horrenbestez, denek jakin dezaten ezen gizonaren arimaren
etxea sakrosantua dela denentzat eta ezen bere sexua doilorki abandona-
tzen duen gizonak ezin espero duela besterik baizik zigor gorena jasatea
[su bidez hiltzea].¹⁰⁶

Baina legea onetsi eta gutxira, dokumentatu zen legeria
antitrans hiltzaile horren aurkako erresistentzia-ekintza dra-
matiko bat behintzat. Tesalonikako armada-buruak (Greziako
iparraldean), Butheric izeneko godo batek, atxilotu zuen zirkuko
artista famatu bat, oso ezaguna zena bere feminitatearengatik.
Baina herriak artista maite zuen. Atxiloketaren berria zabaldu
zenean, herria matxinatu egin zen eta Butheric hil zuen. Aginta-
ri godoek, sumindurik, inguruetako populazioan sarekada egin,
eta hiru mila lagun sarraskitu zituzten zigor kolektibo gisa.¹⁰⁷

Agintariak trans espresio oro debekatzen saiatzeak be-
rak erakusten du oraindik ere irauten zutela komunalismoko
sinesmen sakonek. Baina transak eta gayen eta lesbianen mai-
tasuna are gehiago zapaltzeko lege errepresiboak sartu ziren
Corpus Iuris Civilis izenekoan: erromatarren legeen bilduma zen

106 *Romanarum et Mosaicarum Legum Collatio*, V, 3, itzulpena eta aipua in Eva Cantarella, *Bisexuality in Ancient World*, itzulp. Cormac Ó Guilleainín (New Haven: Yale University Press, 1992) 177.

107 Cantarella, *Bisexuality*, 180.



Maitasunaren jainkosa/jainkoa, erromatarrek Kupido deitzen zutena eta greziarrek Eros. «Hermafrodita» hitzak erroa du Kupidoren/Erosen kondairan, Hermesen eta Afroditaren haurra baitzen.

hura, gero oinarriztat hartuko zena lege erlijiosoak eta sekularrak eratzeko Europan, Ingalaterran eta Estatu Batuetan.¹⁰⁸

Ordea, Erromako inperioaren gainbeheran, hierarkia ahulegia zen erabateko gerra egiteko transgeneroei eta sexu berekoen maitasunari. Esklabotzak zeukan bere barnean Inperioaren suntsipenaren hazia: jende kateatuak, gosetuak eta zanpatuak ez du bere onena ematen lanean, eta sistema ekonomikoak etengabeko gerla behar zuen esklaboak ordezteko. Gastu militar gaitz horrek ekarri zuen Erromak erreka jotzea. Horregatik desegin zen Erromako inperioa eta esklabotzan oinarritutako produkzio sistema, ez degenrazio moralarengatik.

Neure artean galdegin nuen ea zergatik Erromako ediktuak eta terrorea ez ziren aski izan trans jendea molda zedin legearen araberrako kategoria zorrotzetara, alegia, legearen arabera emakumeentzat eta gizonentzat egokiak ziren jokabideetara eta janzkeretara. Orduan, ohartu nintzen ni ere, eta jende asko eta asko, lotsaraziak izan ginela, mehatxatuak, zanpatuak eta atxilotuak geure sexua definitzeko eragatik edo geure generoa adierazteko moduagatik. Eta gutako asko indartsuago eta harroago atera ginen.

108 Vern L. Bullough, *Homosexuality: A History from Ancient Greece to Gay Liberation* (New York: New American Library, 1979) 31-34.

HIRUGARREN ZATIA

BEDERATZI

«GERRA SANTUA» TRANS JENDEAREN KONTRA

Apaldu nazakezu historian
zure gezur kirats eta bihurriekin,
zapaldu nazakezu lohiaren kontra
Baina hala ere, hautsa bezala, goratu egingen naiz.

Maya Angelou
Still I Rise lanetik

Nahiz eta posible den Erdi Aroaren ikasgaian burua beste nonbait eduki izana, gogoan dut institutua utzitakoan banue-la feudalismoari buruzko iritzi bat. Iruditzen zitzaidan garai bat zela non Eliza Katolikoak atxilotzen zituen juduak, musulmanak, sexualitate mota guztietako emakumeak, gizon gayak, belar-biltzaileak, zientzialariak... —harrapa zezaketen guztia— torturatzeko eta exekutatzeko, eta non jopuek ez zuten deus egiten baizik lurra lantzea otzan-otzan.

Judua eta lesbiana transgeneroa naizen aldetik, ez nengoen irrikatan Mendebaldeko Europako historiaren garai hori berriz ere ikasteko, baina egiaz ulertu nahi nuen gehiago Joana Arc-ekoaren aurka egindako salaketa kriptikoa, alegia, haren cross-genero espresioa edo «genero gurutzatuaren» espresioa zela «jentilen eta paganoen ohiturei jarraitzea». Hala ere, pozik nago garai hari beste begirada bat eman izanaz, zeren ohartu bainintzen zergatik ziren transgeneroak halako mehatxua Elizarentzat eta agintari feudalen klasearentzat, oro har.

Jauntxo feudalak komunalismoaren kontra borrokatu ziren VIIIgarren mendearen erdialdetik XIIgarren mendea aski aurreratua izan arte. Buruzagi feudalak eta beren armadak saiatu ziren lur komunalak pribatizatzen. Baina bai nekazari komu-

nalek bai esklabo bihurtuek gogor egin zioten aurre esklabotza feudalari. Mende horietan laborarien matxinadak izan ziren.

Eliza Katolikoak —agintarien klasearen aliatu botere-tua— rol nagusia jokatu zuen erresistentzia hori itotzen. Eliza zen erakunde botereitsu bakarra gauza zena Mendebaldeko Euro-pa jartzeko sistema politiko bakar baten pean, ematen baitzion ezagutza-, antolakuntza- eta egitura-esparru bat. Hala, Eliza bi-lakatu zen bizimodu feudala ezaugarritzen duen erakundea.

Baina Elizaren interesak ekonomikoak ziren ezbairik gabe, zeren aldarrikatzen baitzuen bere jabetza zela mundu katoliko-ko lurraren heren bat: alde handiz, lur-jabe handiena zen.¹⁰⁹ Eta aski baliagarria zen agintari feudalen klasearentzat nekazariei sinetsaraztea ezen Jainkoarengandik heldu zirela lurraren jabe-tza pribatua eta desperekotasun lotsagarriak.

Baina laborari libreak jopu esklabo bihurtzeko, beharrez-koa zen lotura eta sinesmen komunalak haustea. Horregatik, nik uste, jarri ziren jopuntuan trans espresioako errituak eta festak.

Transgeneritateak kultu eta sinesmen komunalekin zuen loturak hainbestearaino amorrarazten zuen hierarkia kristaua non, o.a. 691. urtean, Konstantinoplako Kontzilioak haxe dekretatu baitzuen: «Debekatzen ditugu 'jainkoen' inimiziazio errituak eta dantzak —'jainko', hala deitzen baitzaie faltsuki greziarren artean—, zeren hala gizonen nola emakumeek egiten baitituz-te antzinako ohiturei jarraikiz, bizimodu kristauaren kontra, eta dekretatzen dugu gizonen ez dutela jantziko emakumeen arroparik, ez emakumeek gizonen jantzirik ere».¹¹⁰

Eliza saiatu zen transgeneritatea deabrutzen sorgin-keriarekin lotuz eta hura debekatu, eta nekazarien erritu eta ospakizun guztietatik ezabatuz. O.a. Vigarren mendean jada, Zesario Arlesko (gaur egun, Frantziako hegoaldeko herria da Arles) idazle kristauak salatu zituen transgeneritate erritualetako jardun paganoak. Vigarren eta VIIgarren mendeetako sinodoek

109 Friedrich Engels, *Socialism: Utopian and Scientific* (1892: Moscow: Progress Publishers, 1970) 18. Testuinguru horretan gutxiengoen kontrako jazarpenari buruz, ikus. Jeffrey Richards, *Sex, Dissidence and Damnation: Minority Groups in the Middle Ages* (New York: Routledge, 1991).

110 Albert Heinrichs, «Greek Maenadism from Olympias to Messalina», *Harvard Studies in Classical Philology* 82 (1978): 158, oh. 117, itzulp. Grezieratik eta apud. Arthur Evans, *The God of Ecstasy: Sex-Roles and the Madness of Dionysos* (New York: St. Martin's Press, 1988) 20.

behin eta berriz kondenuatu zuten «cross-dressinga» edo «janzkera gurutzatua» Urteberriko ospakizun zabalduetan. IXgarren mendean, gidaliburu kristau batek penitentzia ezarri zuen «janzkera gurutzatu» errituala eta «genero gurutzatuko» jokabideak gauzatzen zituzten gizonentzat. Eta XIIIgarren mendean, Frantziako hegoaldeko inkisidore batek salatu zituen trans espresio erlijiosoak.¹¹¹

1250. urtea aldera, emakumez jantzitako gizon talde bat dantzan sartu zen lur-jabe aberats baten etxean, kantatuz: «Bat hartzen dugu eta ehun itzultzen». Hori loturik dago sinesmen herrikoi batekin: hots, «jende ona» —*bonae*, latinez— gauza zela oparotasuna ekartzeko opariak eman zizkien etxera. Kronika baten arabera:

Nekazariaren emazte mesfidatiak ez zuen onartu emakume itxurakoen *bonae* izaera, eta saiatu zen festa hari bukaera ematen, baina haren protestak gorabehera, ondasun guztiak eraman zituzten etxetik. Beharbada horregatik eta antzeko arrazoiengatik apezpikuei eskatu zitzairen kontu izan zezatela emakume eiteko deabru saldoekin. Esan daiteke hori dela gizonen «janzkera gurutzatuaren» nolabaiteko debekua.¹¹²

Nahiz hasierako Elizako aitek salatu zituzten «genero gurutzatuko» jokabide guztiak, beren hipokrisia erakutsi zuten kanonizatuz hogeitahogeita bost bat emakume santu zeinak beztitu ziren «gurutzatuki», edo bizi izan ziren gizon gisa edo jantzi zituzten bizar ederrak. Erdi Aroko elezaharren arabera, «andretik gizonerako» *cross-dresser* santu haiek gizon gisa bizi eta gurtu izan ziren helduaro guztian. Behin hildakoan bakarrik deskubritu zen haien jaiotzako sexua. Santu horietako batzuk dira Pelagia, Margarita, Marinus (Marina), Atanasia (Alexandria), Eugenia, Appollinaria, Eufrosina, Matrona, Teodora, Anastasia, Papula eta Hildegund (Joseph). Gainera, Elizak kanonizatu zituen bizarra zeramaten Galla, Paula eta Wilgefortis (Uncumber) emakumeak.¹¹³ Kondairazko Joana aita santuak edo ama san-

111 Jeffrey Russell, *Witchcraft in the Middle Ages* (Ithaca, NY: Cornell University, 1972) 74, 156-57.

112 Vern L. Bullough, «Transvestites in the Middle Ages: A Sociological Analysis», *American Journal of Sociology* 79.6 (1974): 1384.

113 Marie Delcourt, «Female Saints in Masculine Clothing», *Hermaphrodite: Myths and Rites of the Bisexual Figure in Classical Antiquity*, trans. Jennifer Nicholson (1956; London: Studio Books, 1961) 84-102; Vern L. Bullough and Bonnie Bullough, *Cross*

tuak —XIIIgarren mendeko kroniketan jasoak— ustez Johannes Anglicus izenarekin agindu zuen. Haren estatua gainerako aita santuen estatuekin batera egon zen Sienako katedralean XIVgarren mendean, baina XVIgarren menderako historialariek erabaki zuten haren agintaldia elezaharra besterik ez zela.¹¹⁴

Elizako aitek ahaztu ote zituzten Deuteronomioko ediktuak? Sinesteko zaila da, zeren jarraitu baitzuten haren manuak inbokatzen Erdi Aro guztian. Uste dut ezen, sinesmen matrilinealek eta kultura patriarkalak bat eginda irauin zuten bezala klaseen gizartearen hasierako garaietan, hala santu cross-genero horien zergatia izan daitekeela transgeneroei buruzko antzinako sinesmen eta gurtzaren iraupena.

Duela mende bat baino gehiago, Herman Usener ikerlari alemanak argudiatu zuen ezen «andretik gizonerako» santuen kondairen antzekotasunak erakusten zuela oraindik ere irauten zutela Afrodita Ziprekoa jainkosaren gaineko sinesmenek. Usenerrek ohartarazi zuen ezi Afroditari Pelagia eta Marina ere deitu izan zitzaiola, hots, bi santu *cross-dresser* katolikoek izen berberak. Afroditaren jarraitzaile emakumeak gizonen arropez janzen omen ziren harentzako sakrifizio gisa, eta «gizonetik andrerako» apez transexualek zerbitzatzen zuten jainkosa.¹¹⁵

Vern eta Bonnie Bullough historialariek —sekulako ekarpena egin zuten feudalismoko «janzkera gurutzatuaren» edo «*cross-dressingaren*» ikerketan— uste dute Elizak onartu zituela «andretik gizonerako» santuak miretsiak zirelako gizonen estatus sozial altuagoa bilatzeagatik. Egia da gizonak gainetik zeudela uste zela, baina «andretik gizonerako» espresioa berriaz gaitzetsirik zegoen, baita elizkoientzat ere. San Jeronimok IVgarren mendean salatu zuen, eta IXgarren mendean, Verko Sinodoko kanon batek frogatu zuen Elizak emakume transgeneroak kondenatu zituela Joana Arc-ekoa jaio baino mendeak lehenago.

Dressing, Sex, and Gender (Philadelphia: University of Pennsylvania Press, 1993) 51-54.

114 Alexander Cooke, *Pope Joan: A Biography of Pope Joan, 853-855 A.D.* (London: Blunt and Barin, 1610), eta Clement Wood, *The Woman Who Was Pope* (New York: Faro, 1931), apud. Bullough, *Cross Dressing*, 55-56.

115 H. Usener, *Legends der Heiligen Pelagia* (Bonn: A. Marcus, 1879), apud. Bullough, *Cross Dressing*, 53.



Uste da Johannes Anglicus Aita Santua (Joana Ama Santua) kondaira bat besterik ez dela, baina egia da Elizak kanonizatu zituela «gizonetik andrerako» santu pila.

Kanonak ezartzen zuen: «Baldin erlijioarengatik kastitatea aukeratu duten emakumeek hartzen badituzte gizonaren arropak edo ilea mozten badute, besteen aurrean itxura faltsua agertzeko, erabakitzen dugu errieta eta kritika egin behar zaie-la, uste baitugu zela izan ordez okertu egin direla ezjakintasun handiz».¹¹⁶

Joana Arc-ekoaren kontra aurkeztutako «janzkera gurtzatuko» karguak politikoak ziren, bai, egin zitzaizkion salaketa guztiak bezala. Baina ez zituen soilik gizonak desafiatu haien jokalekuan. Eta ez zen, ezta ere, peoi hutsa izan Ingalaterraren eta Frantziaren arteko gerra odoltsuan. Joan Arc-ekoa izan zen, baita ere, klaseen arteko gerrako preso bat, Frantziako noble feudalek gerra egiten baitzieten beren nekazariei. Horixe dardarazi zituela Frantziako agintariak: emakume transgenero santu hori nekazarien armada bateko buru zen.

Lehenago argudiatu dudanez, uste dut ezi Frantziako nobleek eta Elizak beldurra zietela bai Joana Arc-ekoak esateari bere espresio transgeneroa betebeharrerlijiosoa zela bai haren transgenerotasuna nekazarietara hala gurtzeari, izan ere biek ala

116 Marina Warner, *Joan of Arc: The Image of Female Heroism* (New York: Knopf, 1981) 152.

biek ekartzen zituzten gogora antzinako erlijio bateko sinesmenak, aurkari zen erlijio batekoak, aurkari zen sistema ekonomiko batekoak. Pagaburu bihurtuta Joan Arc-ekoa eta haren jaiotze-eskualdea, bultzatu zen nekazari komunalen eta oro har laborarien aurkako terrore kontrairaultzailea.

Uste dut Elizako aitek kanonizatuko zituztela «gizonetik andrerako» santu trans sorta bat beharturik zeudelako erlijio zaharrarekin lehiatzera, oraindik ere errotua baitzegoen nekazarien artean. Elizako hierarkiak lanak izanen zituen saiatzen laborariak konbertitzen erritu erlijioso alai, sexuzale eta cross-generoetatik Erdi Aroko katolizismo ilun eta tristera. Uste dut elizgizonak saiatu zirela irudi transgenero herrikoiez jabetzen, baina pixka bat aldatuta: «andretik gizonerako» santu haiek ziren izugarri debotoak. Irudi haiek, nekazarien debozioa bideratu zutenak jauntxoan klasearen erlijiora, oso baliagarriak izanen ziren jendea erakartzeko.

Santu haietako batzuek garesti ordaindu zuten jaiotzako sexuari uko egitea, eta denek ere isilpean gorde behar izan zuten beren sexu-aldaketa. Gizarte kooperatiboetan, transgeneroak, transexualak eta intersexualak agerian bizi ziren, ohorez. Baina klaseka banatutako gizarte batean, esaterako Mendebaldeko Europako Erdi Arokoan, Elizako «andretik gizonerako» santuen kondairek sortu zuten «passing»aren kontzeptua: trans identitatea ezkutatzera beharturik egotea.

Ez da ezagutzen «gizonetik andrerako» santu kristaurik. Erdi Aroan, espresio hori soilik ofizialki baimentzen zen inauterietan eta festetan, legeak aldi baterako arintzen zirenean. Gainerakoetan, «gizonetik andrerako» transgeneritatea eta «janzkera gurutzatua» sorginkeriatzat jotzen zituen Elizak.¹¹⁷

Baina espresio cross-generoa, maskulinoa nahiz femeniinoa, egiazki, laborarien festa guztien parte zen, besteak beste Halloween jaiegunarena, zeinak erro zeltak baitzuten; eta zeltena gizarte matrilineala zen. Gizarte zelta matrilineala izatetik patriarkala izatera iraganda, agintarien klasea jainko patriarkalen aurrean makurtu zen, baina nekazarien klaseak lehengo sinesmenei eutsi zien, hots, naturan oinarritutako jainkosen

117 Bullough, *Cross Dressing*, 61.

erlijoko sinesmenei.¹¹⁸ Zelten jaiegunen artean zegoen *Samhain* izenekoa, azaroaren 1ean ospatzen zena, gero kristauak deitu zutena All Hallow's Eve (santu guztien bezpera): Halloween. Zelten Neguko Solztizioak kristautasunarekin ere iraun zuen, Eroen Festa gisa. Transgeneritateak rol nabarmena zuen bi jai horietan. Agian horrek zerikusia izanen zuen ni salbuetsita egotearekin Halloween egunean atxilotua izatetik «janzkera gurutzatuagatik»!

Elizak sorginkeriatzat jotzen zuen «gizonetik andrerako» trans espresioa, baina aldi berean bere antzerkietarako erabiltzen zuen. Munduko toki askotako trans antzezpena errotua zegoen erritu komunaletan, non trans espresioa sakratutzat baitzuten. Esaterako, trans antzezleak famatuak ziren Japoniako Nō teatroan. Antzerki hori heldu zen *dengaku* dantza herrikoietik, eta *dengaku* dantzatzen zen arroza ereitean eta biltzean. Opera txinatarra ere antzinako festa erlijiosoetako kantu eta dantzetatik heldu da. Grezian, Atenasko antzerkiaren hasierako garaietan, gizonak antzezten zituzten emakumeen rola. Antzerki horiek, jatorrian, Dioniso ohoratzeke egiten ziren, gaurai batean non emakumeak eta gizonak engaiatzen ziren gurtza cross-generoan.¹¹⁹

Mendebaldeko Europan, esklabotzaren eta feudalismoaren hasierako garaietan, antzerkia hain inportantea bilakatu zen herri-ideologiarako bitarteko gisa, non Xgarren menderako Eliza Katolikoa, bere erritu antzeztuetan, jabetu baitzen transgeneritateaz, zeina ez baitzuen lortu nekazarien jaialdi eta errituetatik erauztea. Elizaren ikuskizunetan eta antzerki liturgikoetan, gizonetzko antzezlariak baimentzen zitzairen Deuteronomioa desobeditzea emakumeen arropak jantziz.¹²⁰ Apezek salatzen zuten bitartean gizonen feminitatea eta *cross-dressinga*, ez zitzairen inporta transgeneritatearen populartasuna baliatzea beren interesetarako, antzerki elizkoietan.

Eta zer esan Elizako aiten beren estilo estrabaganteaz? Gaur arte, apezak jantzten dira lurrerainoko soinekoekin, kolo-

118 A. D. Hope, *A Midsummer Eve's Dream* (New York: Viking: Simon eta Schuster, 1979) 89.

119 Peter Ackroyd, *Dressing Up: Transvestism and Drag* (New York: Simon eta Schuster, 1979) 89.

120 *Ibid.*, 90.

re distiratsuz, harribitxiko eraztunekin eta gizon askok hilik ere jantziko ez lituzketen beste apaindura batzuekin. Izan ere, mutiko bat apaizgai bidaltzen zenean, esaten zen mutikoa «gonatan» jartzen zela.¹²¹ Jainkosen erlijioetako apez transexualetatik etorriko ote da Elizako moda trans hori?

Elizako aitek beharbada esperoko zuten nekazariak oraindik ohoratutako transgeneritateaz jabetzea, baina antzerki liturgikoaren hondamendia izan zen. «Egia esan, festa eta anarkia osagaiak etengabe iragazi ziren antzerki liturgikoan» ondorioztatu zuen Peter Ackroyd historialariak, «eta osagai horiek guztiz sartu ziren hizkuntza bernakularrek latina ordeztu zutenean, XIIIgarren mendean. Nola Eroen Festan *cross-dresse* rrek irri egiten zieten Elizako agintariei, halaxe trabestismoaren erabilera komikoak despiritualizatu zuen, pixkanaka, antzerki liturgikoa».¹²²

Nahiz eta Elizak bultzatzen zituen nekazariak belaunikatzera «andretik gizonerako» santuen edo santa bizardunen aurrean eta transgeneritateaz goatzera antzerki liturgikoetan, kontra egiten zien klaseen aurreko sinesmen matrilinealekin lotutako ohitura guztiei. XVgarren mendearen bukaerarako, Eliza katolikoko aitak Eroen Festa pixkanaka kentzen ari ziren katedraletatik.¹²³ Jauntxoan gerrako jopuntu askotariko bat zen transgeneritatea, erlijioaren banderapean.

1233. urtean hasi zen Inkisizio «santua», eta sorginkeria epaiketak izan ziren arma bat terrorea hedatzeko eta hilketa masiborako, izugarrizko giza-bizien bidesaria kobratu zuena Irlandatik Poloniaraino. Joana Arc-ekoa exekutatu eta hogeiturotera, 1451n, Inkisizioari baimen ofiziala eman zitzaion sorginkeria kontra borrokatzeko krimen larria balitz bezala. Emakume nekazari asko, sorgin izateaz salatuak, torturatu eta hil egin zituzten. Tartean ziren nekazaritzan oinarritutako erlijio zaharrei jarraitzen zieten emakumeak, independenteki bizi ziren emakumeak, lursail txikien jabe zirenak, nahiz sendagai herrikoien jakituria transmititzen zutenak, esaterako emaginak, zeinek irakasten

121 Harry Brierly, *Transvestism: A Handbook with Case Studies for Psychologists, Psychiatrists and Counselors* (Oxford: Pergamon Press, 1979) 2.

122 Ackroyd, *Dressing Up*, 90.

123 Natalie Zemon Davis, *Society and Culture in Early Modern France: Eight Essays* (Stanford, CA: Stanford University Press, 1975) 97-98.

baitzitzuten haurdun ez gelditzeko edo abortatzeko metodoak. Deigarria da sorginen kontrako salaketa bat zela sexua aldatzen ahal zutela.¹²⁴

Jauntxo feudalek interes ekonomikoa zutenez oinordetza eta aginte patriarkala indartzeko, sexuak gero eta gehiago bereizi zituzten Jainkoaren izenean. Gizona emakumearengandik bereizteko bultzada horrek sustatu zuen intersexualitatearen kontrako kanpaina ero bat. Esaterako, XVgarren mendean, oilar bat epaitu zuten Basilean. Arrautza egin izanaz salatu zuten. Oilarraren abokatuak argudiatu zuen egintza inboluntarioa izan zela, eta animaliak ez zirela gauza deabruarekin itunak egiteko. Epaimahaiak errugabe jo zuen oilarra, baina erabaki zuen oilarrez mozorrotutako azti batek errun zuela arrautza. Horrenbestez, hala oilarra nola arroltzea suan erre zituzten.¹²⁵

Eliza jauntxoekin eta errege-erreginekin lehiatzen bazen ere, bazekien non zeuzkaten klase-interes amankomunak. Transak, lesbiana izateaz salatutako emakumeak, gizon gayak, musulmanak, juduak, belar-biltzaileak, sendalariak... aginte feudala desafiatzen zuen oro hartzen zen mehatxutzat, eta haren esterminazioa bilatzen zen. Zientzialariak ere jomugan jartzen zituzten, haien ikerketek dogma erlijiosoa ukatzen zutelako. Inkisizioa Bibliaz armatua heldu zen, eta baita ezpata eta tortura tresnekin ere, nekazarien altxamenduak zapaltzeko. Baina jauntxo feudalen indar guztiek ere ez zuten zapaltzerik izan nekazarien erresistentzia behin betiko: behin eta berriz altxatu ziren jauntxo boteretsuen kontra eta haien teologia feudalaren kontra.

Maiz, feudalismoaren garaia esplikatzen da Elizaren hazkunderaren ikuspuntutik bakarrik, baina, azaldu dudanez, erlijioa bera bihurtu zen aberats agintarien propagandarako arma. Adibidez, feudalismoan, zeina oinarrizten baitzen lurren jabetza pribatuan, Aitagureak eskatzea: «Forgive us our trespasses» [hitzez hitz, «Barkatu besteren lurretan sartzea»]. Besteren lurretan sartzearen delitua soilik jaio zitekeen gizarte batean non indibiduo batek beretzat aldarrikatzen ahal zituen lur azalera handiak. Baina diruan oinarritutako sistema kapitalistak ordeztu zue-

124 Richard Green, *Sexual Identity Conflict in Children and Adults* (New York: Bantam, 1974) 6.

125 Brierly, *Transvestism*, 3.

nean feudalismoa, otoitza aldatu zen eta «Barkatu gure zorrak» bilakatu.

Nekazaritza feudala efizienteago bihurtu ahala, gero eta jopu gutxiago behar izan ziren, eta laborariak lekutu eta hirietara jo zuten, han diruketa egiteko ametsez. Hiri batzuk zentro administratiboak ziren, eta gehienak komertzialak ziren, jatorria zutenak merkatua zeukaten hirietan. Diruan, ez lurrean, oinarritutako ekonomia bat jaiotzen ari zen. XVgarren menderako, Mendebaldeko Europan, hiriak erabakigarriagoak ziren gizartearentzat erreinu feudalak baino. Hirietan eta landa eremuan, gero eta gehiago ziren bizitzeko eguneko soldata behar zuten langile jabetzarik gabeak. Ez zeuden askoz hobeki nekazari txikiak, beren lurrak lantzen zituztenak maizter edo apartzero.

Nahiz txinparta izan oihan komunalen pribatizazioa nahiz izan hirietako ogi falta, nekazari eta langile pobreak arrazoi osoz altxatzen ziren.

Gau batez, berandu arte nengoela irakurtzen «drag» historiari buruzko dibulgazio liburu bat, harrituta gelditu nintzen paragrafo bat leitzean laborarien altxamendu bati buruz, non buruzagiak «gurutzatuki jantzita» zeuden. Nire zapuzdurarako, ez zen informazio horren iturririk aipatzen. Nolanahi ere, paragrafo labor hori izan zen, gero ikusiko zenez, behar izan nuen guztia.

Farinelli (Carlo Broschi), XVIII. mendeko castrato ezaguna. Emakumeek debekaturik zuten ez elizan kantatzea XVII. mende arte, familia pobreetako mutiko gazteak zikiratu egiten zituzten ahots altuari eusteko.

The Castrati in Opera liburuan, Angus Heriot historialariak dio apaizeme transak kantariak ere izan zirela segur aski. Transen ahotsak loturik ote zeuden erlijio zaharrekin? Elizaren saiakera bat ote zen antzinako arte-forma transgenero batez jabetzeko? Nahiz eta Elizako aitek, modu hipokritan, hitzematen zuten eskumikatuko zutela haur bat zikiratzen zuen oro, Italiako eliza guztietan, barnean zela Aita Santuaren kapera pribatua, erabiltzen ziren castratoak koruetan.



HAMAR

ERASOAREN BURU

1839ko maiatzaren 13an, ilunabarrean, tronpen, danborren eta tiroen deia aditu zen Galesko landa eremuan. Bidesarizainak, ohitua baitzegoen nekazarien irainetara, errepideak erabiltzeko pagatu behar zutenean, beharbada ez zien arreta handirik emanen soinu haiei. Baina uste baldin bazuen mozkor batzuen zarata besterik ez zela, oker zegoen. Gizon armatuak, nekazariak, emakumez jantzirik, agertu ziren zalaparta batean, zaldi gainean, aldean zituztela sardeak, aizkorak, segak eta pistolak. Bidesari postua hartu zutenean, buruzagiak orro egin zuen: «Gora doan izateko legeak! Bidesaririk ez ikatz meatzeei eta gisu-labeei!» Eskariak eteten zituen musika, oihu eta tiroen kakofonia batek. Matxino saldoak bidesari-hesiak txikitu, eta aurrera egin zuen, garaile.

«Rebeka eta alabak» deitzen zioten beren buruari.¹²⁶

Hurrengo lau urteetan, Rebeka asko ibili ziren, milaka alaba *cross-dresserren* buru —Galesko bazter askotatik etorriak—, atzetik zituztela polizia lokalak eta tropa britainiarrak, pertsekuzio alaian, bidesariak txikitzen, pobreak diruz husten baitzituzten eta are pobreago bihurtzen. Nekazariak, askotan, ez zuten bidaiatzerik gauzez hornitzeko edo merkatuan saltzeko, izan ere errepideen labirintoa pribatua zen, eta jabeek gehiegizko bidesariak ezartzen zituzten tarte bakoitzean. «Rebekak eta

126 Pat Molloy, *And They Blessed Rebecca: An Account of the Welsh Toll-gate Riots, 1839-1844* (Llandysul, Wales: Gomer Press, 1983) 1-2. Molloyren lanaz gain, «Rebecca and her daughters»-i buruzko dokumentazio handia dauka: David J. V. Jones, *Rebecca's Children: A Study of Rural Society, Crime, and Protest* (Oxford: The Clarendon Press, 1989).

alabek» babes zabala jaso zuten, eta horrek islatzen zuen «handitzen ari zela deskontent zen herriaren elkartasuna, erabakimena eta iritziak agertzeko ausardia».¹²⁷

Horregatik uste dut hain inportantea dela denentzat, bereziki transentzat, jakitea borrokalari cross-generoek gudu garrantzitsuak gidatu zituztela, historia taxutzen lagundu zutenak. «Cross-genero» esan dut, aktibista horiek ez baitziren «cross-dresser» edo «gurutzatuki jantziak» bakarrik: beste sexuaren izenak, identitateak eta familia harremanak ere hartu zituzten. «Gizone-tik anderako» liderrek lanak hartzen zituzten beren zaldi-ileko ileordeak kizkurtzeko. Hori cross-genero jokabidea da.

Eta lider horietako asko ez ziren «gurutzatuki janzen» matxinadaren buru jartzeko bakarrik; are trans talde batzuen parte ere baziren, zeinek festak antolatzen baitzituzten agintariei irri egiteko; eta, zenbaitetan, horiek matxinada bihurtzen ziren. «Egia esan, gizonak altxamenduetarako emakumez beztitzea eta emakumeen tituluak hartzea harrigarriki maiz gertatzen zen Aro Modernoaren hasieran» idatzi zuen Natalie Zemon Davis historialariak, zeinak egin baitzuen matxinada horien gaineko ikerketa iraultzailea.¹²⁸

Europar, Erdi Aroaren bukaeratik XVIgarren mendea arte, beste sexukoak bezala mozorrotzea eta «gurutzatuki janzea» oraindik ere zen hirietako inauterien parte, antzinako erroak zituena.¹²⁹ Gizonen sozietateek antolatzen zituzten festa horiek; landa-garaietan hasi ziren, mutil gazte eta ezkongabeen elkarte gisa. Frantzia eta Italiako iparraldean, «desgobernuaren abadiak» deitzen zitzaien; Ingalaterran eta Eskozian, «desgobernuaren jaunak» eta «erokeriaren abadeak». Frantziako hirietan, talde horietako liderrek —gizonek— beren buruei eman ohi zieten «printzesa», «dama» eta, bereziki, «ama» tituluak: Mère Folle eta haurrak Dijonen (Langres) eta Chalon-sur-Saône, Mère Sotte eta haurrak Parisen eta Compiègne, eta Mère d'Enfance Bordelen.¹³⁰

127 Jones, *Rebecca's Children*, 197; ikus ere Molloy, *They Blessed Rebecca*, 37-39, 160-61.

128 Natalie Zemon Davis, «Women on Top: Symbolic Sexual Inversion and Political Disorder in Early Modern Europe», *The Reversible World: Symbolic Inversion in Art and Society*, ed. Barbara A. Babcock (Ithaca, NY: Cornell University Press, 1978) 178.

129 Natalie Zemon Davis, «The Reasons of Misrule», *Society and Culture in Early Modern France: Eight Essays* (Stanford, CA: Stanford University Press, 1975) 98-99.

130 Davis, *The Reversible World*, 176, 179.

Abadiak epaimahai gisa jokatzeko zuten, eta parodiako eskumena zuten ezkontzetarako. Epaimahaiek arau-hausteak zigortzen zituzten beren kideen artean, izan nagusi nahiz pareko. Abadeek beren txanponak egiten zituzten, eta, festetan, ikusleen ilaretarantz jaurtitzen. Inauterietan, elkarre horiek moralitatearen kontzeptu popularrak defendatzen zituzten mozerro-agerraldi zalapartatsuetan. *Charivaris*, *scampanate*, *kantzenmusik* nahiz *cencerrada* deitzen zitzaizkien halakoei. Galesen, tradizio horri *ceffyl pren* esaten zitzaion.¹³¹

Trans liderrak lehenbiziko lehen egon ziren baimendutako «desgobernu» festa lehertu zenean egiazko altxamendu gisa. Rouen hiriko agintariek, 1541ean, polizia buruei agindu zieten abade bat festako karrozatik atera zezatela berehalakoan, haren satira antiklerikalak gogorregi kritikatzeko zituelako. Dijonen, 1576an, Mère Follek eta hurrek umiliatu zuten Borgoinako Erreka eta Basoetako Erregearen Maisu Handia, batetik emaztea jotzeagatik, eta, bestetik, hark babestu beharreko basoak bere onerako suntsitzeagatik. Lyonen, 1580an, Errataren Jaunak eta jarraitzaileek festarako baimenaz baliatu ziren protestatzeko gerrarengatik, ogiaren prezio garestiarengatik eta azokako postu hutsengatik. 1630ean, Mère Follek eta haren infanteriak matxinada bat gidatu zuten erregearen zergen ofizialen kontra, Dijonen. Horren ondorioz, errege-ediktu amorratu batek Abadia debekatu zen.¹³²

Kasik gehienetan, historialariek «gizonetik andrerako» trans buruzagiak jaso dituzte hirietako matxinadetan eta lehenagoko landa-eremuko altxamenduetan. Baina esan nahi al du horrek ez zegoela lider emakume cross-generorik? Historia zientzia soziala den aldetik, antropologia bezala, oinarri duen gizartearen aurreiritzi guztien xede da; hortaz, historialarien sexismoak segur aski lerraraziko zituen haien oharrak, eta hala izanez gero, behar baino gutxiago jasoko zuten «andretik gizonerako» buruzagiaren garrantzia.

Nolanahi ere, kronika historiko batzuek nabarmentzen dituzte maskulino gisa deskribatutako emakume *cross-dresserren* matxinadak. Ingalaterrako kronika batek aipatzen du emakume

131 *Ibid.*

132 Davis, *Society and Culture*, 118-19.

eta gizon *cross-dresser* matxinoen jendeketa bat 1531n. Ingalaterrako 1629ko beste kronika batek dio: «Alice Clark 'kapitainak' —egiazko emakumea— ehuleen jendeketa bat gidatu zuen, emakumeak eta emakumez jantzitako gizonak, Maldon (Essex) hiritik hurbil». Eta, are, beste adibide batean: «Montpelliengo zergen kontrako errebolta, 1645ean, emakumeek hasi zuten, eta virago batek [emakume maskulinoak] gidatu zuen karrketan. La Branlaire zen haren izena, eta oihukatu zuen zerga biltzaileak hiltzearen alde, ogia kentzen ari baitziren haien haurren ahoetatik».¹³³

Eta emakume maskulinoak buru izan nahiz ez izan, emakumeek karririk hartu zituzten. Emakumeak agertu ziren apez eta artzainei errieta egiten, protagonista gariaren eta ogiaren matxinadetan, hirietan eta landa-eremuan, eta zergen erreboltetan parte hartzen, baita landa-eremuko beste istilu batzuetan ere. Davisek nabarmentzen duenez, «Ingalaterran, XVIIgarren mendearen hasieran (...) hesitzeen kontrako eta eskubide komunalen aldeko matxino asko emakumeak ziren, eta Davis Jonesek ikasi du emakumeak elementu inportantea izan zirela Galesko hesitzeen matxinadetan, XVIIIgarren mendean».¹³⁴

«Rebekek» erakutsi bezala, altxamenduetako buru *cross-generoak* ez ziren tradizio urbanoa bakarrik. 1631n, Whiltshireko (Ingalaterra)azienda larri eta xeheko eskualdeetan, errebelde taldeak altxatu egin ziren beren basoak erregearentzat hesitzearen aurka, lider zituztela gizon *cross-dresserrak*, beren buruei Lady Skimmington esaten zietenak. 1829an, Andereñoen Gerla piztu zen Pirinioetan, oihanen araubide gogor bat onetsi ondoan. Nekazariak, jantziak zituztela soineko zuri luzeak eta emakumeen kapelak, borrokatu ziren oihanetan egurra hartzeko eta abereak larratzeko eskubideen alde.¹³⁵

133 Davis, *The Reversible World*, 176, 179.

134 *Ibid.*, 176; ikus ere David J. V. Jones, *Before Rebecca: Popular Protests in Wales, 1793-1835* (London: Allen Lane, 1973) 33-34, 47, 66, 203-3.

135 *Itzle. oh.*: *Argiaren webgunean bada honekin lotutako artikulua bat, Xabier Itzainak idatzia: «Pirinioetako 'Andereñoen gerla', laborarien disidentzia XIX. mendean». Nora Arbelbidek ere, Louise Michel-en *Erbesteko gutunak Victor Hugori* (Katakarak, 2020) liburuko hitzatzean Altxürüküko pasadizoa jasotzen du, lur komunalen defentsako ekintza batean: «1849ko udaberrian, Atharratzeko bi oihanzainek bi pago markatu ondoren Maulera buruz sartzen ari direla, hemezortzi emazte agertuko zaizkie armak eskuetan. Guztiek begitartea ikatzez belztua dute, batek salbu. Honek mantal zuria du begitarte aitzinean. Bi oihanzainek kokoriko direla beharrak egiten ari harrapatu dituzte hemezortziek. Lurrera bota dituzte biak, beharren gainera, eta hauen armak kendu. Arballatoko oihaneko —ltheke basoa— arroka baten gainera eraman dituzte*

Historialari askorentzat, gizon nekazariak jantzitako emakume jantziak ziren mozorro komenigarri bat, besterik ez. Frustrantea zait ikustea ezen «gurutzatuki janztearen» adibide historikoak hain aise bazterten direla, aztertu gabe. Emakume buruzagi militarrek, Joana Arc-ekoa esaterako, «gurutzatuki janzten» zirenean, historialari batzuek diote gizonen arropak erosoagoak zirela gerrarako. Orduan, zergatik aukeratuko zituzten gizon nekazariak emakumeen jantziak borrokarako? Eta noiztik da soineko bat mozorro egoki bat? *Cross-dressinga* edo «gurutzatuki janztea» matxinadetan errepikatzen den zerbait da hainbat eta hainbat herrialdetan. Eta inportanteagoa dena, dirudenez iraganean erroturik dagoen tradizioa da.

Adibidez, maitagarrien aipamenak zenbaitetan agertzen dira nekazarien matxinaden kroniketan, kontinente desberdinetan. Eliza katolikoak sistematikoki egin zion gerra maitagarrietan sinesteari, lotzen baitzuen paganismoarekin: komunalismo matrilinealeko sinesmenen aztarnek. Eta gogoan izan, Elizako epaileek Joana Arc-ekoa salatu zuten maitagarriekin elkartzeaz.

Maitagarrietan sinesteak segitu zuen loturik lurren jabeen kontrako borrokarekin. Ingalaterran, esaterako, «Maitagarrien Erreginaren zerbitzariak» izan ziren buru Caderen Matxinadan, 1450-1451 urteetan, Kenten eta Essexen. Nekazari haiek sartu ziren Buckinghameko dukearen lurretan eta haren oreinak hartu zituzten.¹³⁶ Irlandako Mutil Zuriez —ezaugarri zutenak atorra zuri femeninoa— Tipperaryko berriemaile batek idatzi zuen, 1762an: «...500 bat mutil, maiz arropen gainetik atorra dutela, nahi dituzten bihurrikeriak egiten gaeuz, maitagarriak izatearen aitzakiapean, hala deitzen baitiote beren buruari (...) Clonmeldik Mitchelstownerako sasoiko mutil guztiek osatzen dute maitagarrien taldea». Erresistente horiek iragarri zuten beren helburua zela «pobreen aldeko justizia egitea (...) baldin nekazari batek kaleratu bazuen mirabe bat edo artzain bat, inor ez zen ausartzen haren lekua hartzera, baldin ez bazuen 'istilurik nahi

biak, eta hor belaunikarazi. Libre utziko dituzte, ez direla gehiago leku horietan agertuko zin eginarazi ondoren. Biharamunean, Atharratzeko epailea bertaratuko da jendarme batzuekin. Baina emazterik ez da gehiago. Baliteke ere emazte horiek emaztez mozorrotu gizonak izatea». 180-181.

136 F. R. H. de Boulay, ed. *Documents Illustrative of Medieval Kentish Society* (Ashford, 1964) 254-55.

maitagarriekin'».¹³⁷ Beaujolaisen, 1770eko hamarkadan, gizon nekazariak, emakumez beztiturik, eraso egin zieten beren lurra jabe berri batentzat baloratzen ari ziren tasatzaileei. «Biharamunean, polizia agenteak iritsita, haien emazteek esan zuten ez zekitela deus ere; esan zuten 'maitagarriak' izan zirela, mendietatik etortzen zirenak noizean behin».¹³⁸

XVIIIgarren mendean, Erresuma Batuko agintari-klasearen interes ekonomikoak desafiatu zituzten, etxean eta atzerrian, hirietako eta landa-eremuko langileek, eta horietako asko *cross-dresserrak* ziren. Ingalaterran: «Lau adibide aipatzearren, emakume arropak eta ileordeak zituzten gizon armatuen bandedek suntsitu zituzten bidesarietako hesiak Somerseten 1731n eta 1741ean, Gloucesterren 1728an, eta Herefordshiren 1735ean».¹³⁹

Hain justu ere Europako agintarien klaseak aurre egin behar zionean erresistentzia izugarriari, saiatzan zenean genozidio kultural eta fisikoa inposatzen Ameriketako nazio natiboei, elite britainiarrak altxamendu handiak topatu zituen bere baliokulturalak eta helburu kolonialak inposatu nahi zituenean bere «inperioan». 1736an, Edinburgon (Eskozia), «gertatu ziren Porteousen Matxinadak, piztu zirenak ofizial ingeles gorrotatu batengatik eta ohiturazko lege zapaltzaileengatik, eta adierazten zuten Eskozia Ingalaterrari batzearen aurkako erresistentzia. Bada, emakumez jantzitako gizonak gauzatu zituzten matxinadak, eta haien burua Madge Wildfire izenez zen ezaguna».¹⁴⁰

Transen lidergoen adibiderik handienetako batzuk jaso ziren Irlandako landa-eremuko borroka antikolonialetan. 1760tik 1770era, Mutil Zuriek nekazari tropak sortu zituzten Irlandan, «antzinako komunalak berreskuratzeko eta beste injustizia batzuei ere erantzuteko», eta «itxitura asko bota zituzten, mehatxu gutun asko bidali, berreskuratu zituzten zenbait jabetza lurjabeek beretu zituztenak errenta ez pagatzeagatik, ehuleak behartu zituzten beren ondasunen prezioak apaltzera», eta maisuak derrihortu beren borondatearen kontrako apendizak askatzera.¹⁴¹

137 William Edward Hartpope Lecky, *A History of Ireland in the Eighteenth Century*, 2 liburuki (1892; New York: AMS Press, 1969) 2: 22-23.

138 Davis, *The Reversible World*, 178.

139 Molloy, *They Blessed Rebecca*, 6.

140 Daniel Wilson, *Memorials of Edinburgh in the Olden Time*, 2nd ed. (Edinburgh, 1891), as cited in Davis, *The Reversible World*, 180.

141 Lecky, *History of Ireland*, 2:22-23. Leckyren adibide batek erakusten du Irlandako

Nahiz azkenerako Mutil Zurien mugimendua ito armen indar hutsetz, haien egintzek inspiratu zuten XIXgarren mendean sortzea Molly Maguires eta Ribbon sozietateak.¹⁴²

Beste gerrilla banda batzuk ere sortu ziren Irlandan. 1820ko hamarkadarako ohikoak ziren Lady Rocks izenekoak; kapela eta beloa zutela ebasten zuten. 1830eko hasieran, arras berria zen sozietate bat izugarri hedatu zen Claren eta inguruko konderrietan; Lady Clares izena hartu zuten; kasu honetan, emakumeen arropak ziren janzkera «ofiziala».¹⁴³ Ribbonistak eta Molly Maguires ziren nekazarien tradizio militante horren parte. Molly Maguires sozietateak herri-justizia banatu zuten 1843. urte inguruan, Irlandan. «Gehienetan mutil sendo sasoitsuak izaten ziren, emakume arrokekin jantziak» Trench historialariaren arabera.¹⁴⁴

lurjabe katoliko batek borroka molde hori erabili zuela ingeles protestanteen kolonialismoaren kontra, ikus Lecky, 1:360.

142 *Ibid.*, 2:1-45.

143 Wayne G. Broehl, Jr.; *The Molly Maguires* (New York: Vintage, 1964) 25. Ikus, halaber, Anthony Bimba, *The Molly Maguires* (New York: International Publishers, 1932) eta J. Walter Coleman, *The Molly Maguires Riots: Industrial Conflict in the Pennsylvania Coal Region* (New York: Richmond, Garret eta Massie, 1936).

144 Trench historialariaren *Realities of Irish Life*, aipatzen den bezala F. P. Dewees-en lan honetan: *The Molly Maguires: The Origin, Growth, and Character of the Organization* (1877; New York: Burt Franklin, 1969) 44; orobat, aipatzen den bezala S. B. Liljegren-en lan honetan: «The Irish Element in the Valley of Fear», *Irish Essays and Studies VII* (Uppsala: Irish Institute/Uppsala University, 1964) 13. Justizia soziala helburu, emakumeen jantzi eta izenak hartzen zituzten gizon haiek, nekazari militante irlandar haiek, eragin handia izan zuten Estatu Batuetako langileen mugimenduan. (Ikus Harold W. Aurand-en lan hau: *From the Molly Maguires to the United Mine Workers: The Social Ecology of an Industrial Union, 1869-1897* — Philadelphia: Temple University Press, 1971—). Bata bestearen atzetik heldu ziren Estatu Batuetara irlandar migratzaileen olatuak, eta, haiekien batera, agertu ziren Molly Maguires, Mutil Zuriak eta Ribbonistak. Colemanek aztertu zuen zer borroka industrial izan ziren Pennsylvaiako ikatz eskualdean XIXgarren mendean, eta honako hau nabarmendu zuen: «Gerra Zibila baino lehentxeago eta Gerra Zibilean berean agertu ziren 'Buckshots,' 'Sleepers' eta 'Ribbonistak' izenez ezagututako erakundeak, eta ospe handia hartu zuten, baita eragin nabarmena ere, hainbestearino non enpresaburuek ondorioztatu baitzuten erakunde horiek egon zirela hasiera-hasieratik 'Molly Maguires' izenez ezagututako multzo sekretuaren osaeran». (*Molly Maguire Riots*, 4). Klase guztietako irlandarrak ziren, garai hartan, Hiberniarren Antzinako Ordena erakundeko partaide. Erakunde horretako Estatu Batuetako lehendakari izandako Matthew Cummingsen hitzetan, honela sortu zen taldea: «Erakundea, gure lur zaharrea [Irlanda], zenbait izenez ezagutu zen —Konfederazionistak, Mutil Zuriak eta Ribbonistak—, eta, azkenik, Sozietate Hiberniarra izena finkatu zen, Ribbonistak izena legez kanpo utzi baitzuen Ingalaterrako gobernuak». (Bimba, *The Molly Maguires*, 47). Baina, Pennsylvanian, meatzeen jabeek meatzari irlandarrak salatu zituztenean Molly Maguires izateaz, eta urkamendiari aurre egin behar izan ziotenean, «...Hiberniarren Antzinako Ordenako buru nazionalak bat egin zuten borroeroekin antrazita-meatzarien kontra... Burges irlandarrek eta Eliza Katolikoak kontrolatzen zuten erakunde nazionala, zeinak New Yorken baitzuen egoitza nagusia,

Pozez zorutzen nengoen halako kontakizun xeheak aurkitu izanaz XIXgarren mendeko gerrilla-gerrez zeinak nekazari eta jornalero *cross-dresser*rek eraman zituzten aurrera Irlandan eta Galesen. Garai batean nire beldurra zen historia arakutzen hastea eta topatzea, izututa, trans jendea betidanik izan zela gorrotatua. Aitzitik, topatu nuen intolerantzia hori erlatiboki berria zela, gizakiei milaka urtetan bortxaz inposatua, errotu arte. Erdi Aroko historian ehortzia eta Industria Iraultzaren hasieran berreskuratua, transgeneroenganako antzinako errespetua ez zen erauzi, ezta mendeetan ilegala izanik ere eta esklabotza eta feudalismo garaian bortizki zigortuta ere.

Eta nahiz eta ediktu lokal eta erreal asko eman debekatzeko mozorroak eta antzeppen maskaratuak, festen ezaugarri izaten segitu zuen emakumeak gizonak bezala janztea eta mozorrotzea eta gizonak emakumeak bezala. Trans espresioa Europako kulturaren agertzen zen jaiegunetako ospakizunetan, errituetan, inauteetan, maskaradetan, antzerkian, literaturan eta operan. Horregatik da «janzkera gurutzatua» edo *cross-dressinga* jaiegun berezietako elementu gaur egungo Estatu Batuetan, esaterako hauetan: Mummer's parades [maskaratuen desfileak, Filadelfian], Mardi Gras [New Orleansgo inauteria] eta Halloween.

Halloween! Azkenik jakin nuen zergatik ez ninduten atxilotzen *cross-dresser* izateagatik urteko egun horretan. Tabernetako mari-mutil gaztea nintzela ez zitzaidan sekula burutik pasatuko urriaren 31n atxilotzetik salbu nengoela nekazariek tradizio transgeneroari eutsi ziotelako zapalkuntzako hainbat mendetan. Harrigarria zitzaidan nola mendeetako lege dakronianoek eta terrore latzak ez zuten lortu trans ohitura horiek ezabatzea.

Gizarteko klase guztien artean oraindik ere trans espresioak bizirik zirauen arren, nolako desberdintasuna zekarren pribilegio sozialak! Eliteko agintarien kasuan, trans espresioa gauza jakina izan zitekeen eta zigortua izateko aukera askoz ere txikiagoa zen nekazari batek espero zezakeena baino. Esaterako, Suediako Kristina erregina, 1654an abdikatu ondoren, gizonen arropeaz jantzi zen eta bere buruari Dohna Kondea izena eman

eta, horrenbestez, ez zuen zerikusirik langile irlandarren egiazko interesekin». (Bimba, *The Molly Maguires*, 11). 1993. eta 1994. urteetan, HAOKo New York hiriko adarrak ez zien utzi lesbiana eta gizon gay irlandarrei talde gisa parte hartzen San Patrizio eguneko desfilean.

zion.¹⁴⁵ Henrike III.a Frantziakoa, idazkietan jaso denez, amazona gisa janzten zen, eta gortesauak animatzen zituen gauza bera egitera.¹⁴⁶ Baina zapalduenentzat, trans espresioa ez zen bakarrik beren sinesmen sistemako eta festetako elementu bat: agintarien klasearen kontrako borroketan txertatu zuten.

Eta tradizio horrek jarraitu zuen garai industrialaren hasiera bereraino. XIXgarren mendearen hasieran, langile *cross-dresser*rek gidatu zituzten kapitalismoaren gorakadaren aurkako borroka goiztiar batzuk. Laborari askok landa-eremutik ekoizpen urbanoraino lekutu behar izan bazuten ere, kronika askok diotenez, matxinaden buru transgeneroak izatearen ohiturak segida izan zuen. Nekazariak beren tradizioak bildu zituzten, ondasun apurrekin batera, eta hirietara eraman. 1830eko hamarkadaren hasieran, adibidez, Galesko hegoaldean, greban ziren meatzariak eskirol lanpostu-ebasleak ikaratzten zituzten gauerdian bisitak eginez, jantzita zituztela ganaduaren larruak edo emakumeen arropak.¹⁴⁷

Ludditen matxinada goiztiarrak izan ziren langile mugimenduaren historiako kapitulu inportante bat. Hartan, ehuleak, nagusiek esplotatzen zituztelako amorraturik, beren laneko ehungailuak txikitu zituzten. Errebolta bat gertatu zen Stocktonen (Ingalaterra), 1812an, non «Ludd jeneralaren emazteek» —emakumez jantzitako bi gizon langile— ehunka lagun haseurretu gidatu zituzten ehungailuak suntsitzera eta fabrikari su ematera. Altxamenduaren kronika batek honela dio:

Igandean, apirilaren 14an, jende pila inguratu zen hirira, leihoak hautsi zituzten eta mendekuekin mehatxatu zituzten lurrunezko ehundegien jabeak. Emakumez jantzitako bi gizon buru zituztela —jarraitzaileek «Ludd Jeneralaren emazteak» izenez agurtzen zituzten—, Joseph Goodairren etxea harrikatu zuten, lurrunezko ehundegien jabeetako bat bera, Edgeleyen, eta gero errefortzuekin itzuli ziren etxea erretzera eta ehundegietako lana etetera, ehundegiak berak erre aurretik. Lau egun geroago militarrek altxamendua geldiarazi zutenean Stockporten, berriz lehertu zen Oldhamen.¹⁴⁸

145 O. P. Gilbert, *Women in Men's Guise*, itzulp. J. Lewis May (London: John Lane The Bodley Head Limited, 1932) 95.

146 Peter Ackroyd, *Dressing Up: Transvestism and Drag* (New York: Simon eta Schuster, 1979) 70.

147 Davis, *The Reversible World*, 180.

148 George Rudé, *The Crowd in History: A Study of Popular Disturbances in France and*

Langileentzat, European Industria Iraultza goratzeak ekarri zuen anonimatu handiagoa, eta, horrekin batera, alienazioa. Kapitalistak ahulagoak zirenean, borrokatu behar zutenean feudalismoaren kontra eta haren oinarri ideologikoaren kontra, harro zeuden munduaz eta gizarteaz zuten ikuspegi ireki eta zientifikoaz. Baina behin boterean egonik, beldur izan ziren nortaz eta feudalismoa eraisteko karriketara deitu zituzten langileez berez. Hala, kapitalistek gero eta gehiago erabili zituzten aurreiritzi zaharretako asko, batez ere komeni zitzaizkienak «zaitu eta agindu» politiketarako.

Ez dut uste «gurutzatuki janzen» ziren nekazari eta langileek beren buruak irudikatuko zituztenik gaur egungo *drag queen*ek, transexualek edo heterosexual *cross-dresser*rek bezala. Bestalde, ni fabriketako langilea izana naiz; beraz, ezin konparatu dut, ezta ere, neure kontzientzia feudalismoaren peko jopu batenarekin.

Baina «Rebeka» zen, eta ni neu ere hala naiz, langileen klase esplotatu izugarri handi baten parte. Kontuan hartzeko moduko lotura da nekazari *cross-dresser*ren eta nire artean. Transgeneroak legez kanpo jarri dituzte bi sistemetako agintariak: bai feudalismoko nobleek bai industrial modernoek. Greenwich Village auzoko Stonewalleko Altxamendua, *drag queen* beltz eta latinoak buru zituena, eta Galesko Rebeka eta alaben matxinadak: biak ala biak ziren zapalkuntzaren aurkako altxamenduak, *cross-dresser*rek gidatuak.

Lider transgeneroen adibide hauek oso inportanteak izan dira niretzat. Haurtzaroan eta gaztetan ez nintzen gauza izan neure burua topatzeko, inon ere, historian. Orain, baditut adibide batzuk azaltzen dizkizatenak lider transgeneroak aldaketa sozialetan. Han ziren nekazariak beren lider *cross-dresser*rei bibaka. Han ziren une historikoak non transgeneritatea zen armetarako deia, non *cross-dresser*rak borrokatzen ziren justiziaren alde, lehen leerroan.

Hori dena geure historiaren zati da, transak garen aldetik. Eta gaur egungo ume guzti-guztiek —edozein izanik ere beren sexuaren edo generoaren garapena— ezagutu behar dituzte borroka horiek eta buru izan zituztenen izenak: Joana Arc-ekoa,

England, 1730-1848 (New York: John Wiley & Sons, 1964) 85.

Rebeka, Mère Folle, Alice Clark kapitaina, Madge Wildfire, Molly Maguire, Ludd jeneralaren emazteak.

Borroka heroiko horien berri izan banu, agian, txikia nintzela, irudikatuko nuen langile *cross-dresser*rek gida zitzaketela beren sindikatuko anai-arrebak piketeetan, edo etxebizitza arloko trans aktibistek maizterrak akuilatzen ahal zituztela alokairu grebari tinko eusteko. Agian neronen burua irudikatuko nuen borrokako lerro horietan!



«Gizonetik andrerako»
trans espresio bat,
inauterietako parte-
hartzaile batengan.
Pieter Brueghelen
«Dulle Griet» (Margari
eroa) margolaneko zati
bat da.



Rebeka gerrillari galestarra, alabak borrokara gidatzen.



Prensa britainiarrean irrigarri marrazten zituzten Rebeka eta alaba matxinoak. Nolanahi ere, baziren marrazki batzuk irudikatzen zituztenak txiki-txiki egiten Elizaren zerga bidegabeak, pobreen kontrako legeak eta presondegiak, baita beste erakunde menperatzaile gorrotatu batzuk ere.



Luisa Capetillo, puertorricar sozialista «gurutzatuki jantzia», lider sindikalista, idazlea eta feminista, 1914. urte aldera, Habanan. Ez zen inoiz ezkondu, eta hiru ume izan zituen. Kuban atxilotu zuten «gurutzatuki jantzearen» salaketapean. Capetilloren jaioterria zen uhartean, kantu herriko batekin gogoratzen dute: «Doña Luisa Capetillo, con razón o sin razón, ha armado tremendo lío con su falda pantalón» («Luisa Capetillo andreak, bidez ala bidegabeki, istilu gaitza sortu du galtza-gonarekin»).

HAMAIKA

PASSINGAZ HARATAGO

Garai batean festetan «gurutzatuki janzen» ziren gizonetako batzuk, zeinak baitziren festetako transgeneroen elkarteetako kideak, beharbada izanen ziren gaur egungo *bigenero* heterosexualeen antzekoak, zeinak soilik jantzi daitezkeen «gurutzatuki» eremu seguruetan, etxean, laguntza taldeetan edo zenbait jaiegunetan. Baina nola iraun zuten bizirik *transgenero* zirenek?

Ez naiz lehenbiziko pertsona beste sexukoak bezala bizi dena. XVIIgarren eta XVIIIgarren mendeetan, kronika askotan ageri da salatu izan zutela jendea beste sexukoa balitz bezala bizitzeagatik. «Andretik gizonerako» *passinga* egitea oso zabaldua zegoen Europan mende horietan, batez ere Holandan, Ingalaterran eta Alemanian, eta gai hori jorratu zen nobeletan, fikzionatutako biografietan eta oroitzapenetan, antzezlanetan, operetan eta kantu herrikoietan.

Baina *passinga* egiten zutenak generoaren legez kanpoko bihurtzen ziren. Epaitegietako eta poliziaen artxiboetan aipatzen dira jende transgeneroei ezarritako zigorrak; zigor-zar-tadekin hasi eta heriotzarekin buka. Horren ondorioz, ez dugu inoiz jakinen zenbaterainokoa zen *passinga* egiten zuen populazioa, fenomeno klandestino batzen.

Guregana iritsi diren kronika gehienak dira harrapatuak eta agerian gelditutakoenak. Beren bizi-erabakiak azaltzeko eman zituzten arrazoiak presiopean eman zituzten, poliziaen eta epaileen aurrean. Gauza gutxi ateratzen ahal dut haien hitzetatik, salbu zein beldurturik behar zuten egon. Gaur egun, nahiz eta haien bizien egiazko historia galdurik dagoen, jende askok

espekulatu du pertsona horiez, eta *passinga* aukeratzeko arrazoiez. Neure bizia ere suposizio berberen xede da.

«Ez da harritzekoa zu gizon gisa bizi izana! Gizarte hau hain antiemakumea baita» esan zidan lagun lesbiana batek. Harentzat, gizonera *passinga* egiten dugun emakumeak besterik gabe saiatzen ari gara emakumeen zapalkuntza garaiari ihes egiten. Hark uste du ezen, behin gizartean berdintasuna erdie-tsita, gizateria generorik gabea izanen dela. Ez dut kristalezko bolarik; beraz, ezin iragarri dut nolakoa izanen den gizateriaren jokamoldea etorkizunean. Baina ulertzen dut haren pentsamol-dea: gizarte justuago bat eraikitzerik bagenu, ni bezalako jendea ez litzateke existituko. Harentzat, zapalkuntzaren produktu bat besterik ez naiz. Hara! Eskerrik asko.

Argudio bera aditu izan dut aplikaturik Billy Tipton jazz musikariaren biziari eta heriotzari. Musikaria, 1989an, herio-tzaraino odolustu zen ultzera batengatik, medikuarengana joan ordez. Auzitegi-medikuak ez zuen denborarik galdu munduari iragartzeko Billy Tipton emakume jaio zela. Bill Tiptonek ez zue-nez utzi lekukotza pertsonalik, dakigun bakarra da gizon gisa bizi izan zela. Hori izan zen haren bizi ia osoko identitatea, eta errespetatu egin beharko litzateke.

Baina sekulako eztabaida hedatu da zehazteko zer-gatik aukeratu ote zuen Tiptonek gizon gisa bizi zela. Talde batek arrazoitzen du hark eta beste batzuek *passinga* egin zutela emakumeen zapalkuntzarenengatik bakarrik —zehazki, despare-kotasun ekonomikoarenengatik—, garai batean non emakumeek ez zuten aise lortzen jazz musikari arrakastatsu bihurtzea he-rrialde honetan. Beste talde batek argudiatzen du Billy Tiptonek *passinga* egin zuela lesbianen zapalkuntzari ihes egiteko. Arrazoi batek nahiz besteak esplikatzen al dituzte osotara gizon gisa bi-zitako milaka emakumeren biziak?

Hasteko, hitz egin dezagun ea nork egin *dezakeen* beste sexurako *passinga*. Lehen aipatutako lagun berberak oroitaraz-ten dit noizbehinka hark ere beharbada gizonerako *passinga* eginen zukeela mende bat lehenago, emakumeen zapalkuntza saihesteko. Hori esaten duenean ez da nire genero espresioaz ohartzeko. Hitz egin bitartean begiratzen diot: 5'33" bat neurtzen du, bizkar estuak ditu eta aldaka zabalak, esku eta oin txiki-txi-

kiak, aurpegiera goxoa, eta genero espresioa, zalantzarik gabe, ez maskulinoa du. Nola lor zezakeen *passinga* egitea?

Ez dut haren burbuila zartatu nahi. Denek dugu esku-bidea amets egiteko. Baina esan nahi nioke sinets nezakeela ezen beharbada, negu minean, hotzaren kontra arropatan bildu-bildua, burua kaputxaz edo kapelez estalia, gizonen batek delicatessen batean *agian* esanen liokeela «jauna». Baina lortuko ote zuen gizontzat hartzea itsasontzi batean, gainerako marinelekin lo egiten eta zerbitzu amankomunak konpartitzen, hamarkadetan, deskubritua izan gabe?

Jakina, hamarnaka mila emakumek amestu du desperekotasun ekonomikoari eta sozialari ihes egitea, baina zenbat bizi litezke gizon gisa hamarkada batean edo bizi guztian? Emakume batek har litzake gizonen arropak eta gizon itxura hartu, segurtasuna bilatuz, errepide ilunetan, baina lortuko luke gizontzat hartua izatea ostatu batean, non gizonek elkarrekin egiten duten lo ohatze berean? Eutsiko ote lioke identitateari egunez? Lankideen azterketa gaudituko luke? Egiaz sentituko litzateke seguruago eta libreago?

Zenbat emakume bizi eta onartu izan dira gizon gisa hormonalari nahiz kirurgiarik gabe? Maskulinoak behar zuten izan; *transgenero* behar zuten izan. Bestela, nola lortuko zuten *passinga*? Mendeetan «andretik gizonerako» *passinga* egin duten milaka emakumeek ez dakigu nola definituko luketen beren burua gaur egun: *transgenero*, *transexual*, *drag*, edo beste edozein definizio moderno. Kontua da beren genero espresioak ahalbidetu ziela trantsizioa egitea.

Nik ezin sinetsi dut ezen «zergatik egiten duten emakumeek gizonerako *passinga*» eztabaida uler daitekeenik soilik emakumeen, edo lesbianen edo gayen zapalkuntzarengatik. Transen historiaren testuinguruan ikusi beharko litzateke zentzua izan dezan.

Emakumeen zapalkuntza ez zait arrotza. Badakit funtzionatzen duela suntsitze makineria batek bezala, zeinak xehatzen baititu baita emakume gisa jaiota beste sexuarekin identifikatzen direnak ere. Baina «andretik gizonerako» *passinga* baldin bada soilik desperekotasun ekonomikoari ihes egiteko saiakerara bat, orduan zergatik topatzen ditugu *transgenero*ak —berdin «andretik gizonera» edo «gizonetik andrera»— agintarien eli-

tean eta klase aberats nagian? Zer esan daiteke Asurbanipal Asiriakoaz eta Suediako Kristina erreginaz? Eta zer familia dirudunetako Parisko artisten zirkuluez, non biltzen baitziren egile eta margolari transgeneroak, esaterako John (Radcliffe) Hall eta Gertrude Stein?

Horra hor George Sand, XIXgarren mendeko nobelista. Egia da garai hartan ez zuela argitaratzerik izanen gizonetzko baten izen artistikorik gabe. Baina haren identitaterako beste inportantziarik ez bazuen, zergatik janzten zituen gizonen arropak? Zergatik egin zioten eraso jokabide maskulinoa izateagatik? Eta kontua lesbianen zapalkuntza baizik ez bazen, zertan ari zen ohatzean Chopinekin?

«Andretik gizonerako» *passingaren* arrazoia baldin bada soilik lesbianismoaren zapalkuntzatik ihes egin beharra, orduan «andretik gizonerako» *passinga* egin zuten batzuek zergatik aukeratu zituzten maitale gizonak? Liberté (Marie-Angélique Duchemin) Napoleonen infanteriako ofizial medailatua izan zen, eta zazpi kanpaina militarretan aritu zen, 1792tik 1799ra, zeinen bidez feudalismotik atera baitzen Europaren zati handi bat. Senarraren erregimentu berean jardun zuen, eta, azkenerako, sarjentu maiorraren mailara iritsi zen. Emakumeek debekaturik zutenez armadan borrokatzea, geroago, Frantziako emakume askok Liberté hartu zuten heroi antimonarkikotzat, esperoz Joana Arc-ekoa ordeztuko zuela, zeina, itxuraz, hain leiala izan baitzen Frantziako tronuarekiko.¹⁴⁹

Eta andre askok zekiten beren bizitzako erabakirik inportanteena hartzean, gizon gisa bizitzea erabakitzean, segur aski ez zutela maitalerik hartzerik izanen, ezin izanen zutelako arriskatu beren sekretua agerian uztera.

Bukatzeko, hainbeste emakumek egin badute «andretik gizonerako» *passinga* soilik emakumeen zapalkuntzari ihes egiteko, orduan zergatik egin dute hainbeste gizonak «gizonetik andrerako» *passinga*? Emakume batentzat biologikoki errazagoa izanik ere mutil gaztetzat hartua izatea gizon batentzat emakumetzat hartua izatea baino, aro modernoan badira etsenplu asko eta asko «gizonetik andrerako» *passinga* egin dutenena.

149 O. P. Gilbert, *Women in Men's Guise*, trans. J. Lewis May (London: John Lane The Bodley Head Limited, 1932) 87-91.

Mlle. Jenny Savalette de Lange, esaterako: 1858an hil ondoren bakarrik deskubritu zen arra jaio zela. Lortu zuen emakume izendatzen zuen jaiotza-ziurtagiria, jaso denez sei aldiz konprometitu zen gizonekin, eta Frantziako erregeak pentsio bat eta apartamentu bat doan eman zizkion. Egunkariak eta aldizkariak beste kasu asko agertu dituzte non deskubritu den emakumeak «gizon» jaio zirela, tartean emakume bat sei aldiz baino gehiagotan ezkondu zena agerian gelditu aurretik, 1937an; Josephine Montgomery, San Quentino emakumeen kartzelan zegoena agintariak deskubritu zutenean; eta Mrs. Adele Best, emakume gisa bizi izan zena berrogeita lau urtez eta gizonekin hirutan ezkondu zena.¹⁵⁰

XVIIgarren mendearen bukaeran, Ingalaterran, *cross-dressing*a zigortzeko, pertsona gurdi ireki batean eramaten zuten, jende erasokorrez betetako karriketan barna, azkenik jendaurrean urkatzeko.¹⁵¹ Eta halako zigor izugarriak izanik ere, gizon transgeneroak, «mollies» izenez ezagunak, jarraitu zuten elkartzen sozietate klandestinoetan. 1707 eta 1730 urteen artean, Ohiturak Erreformatzeko Sozietateak atakatu zituztenean «Londresko pobreen arteko sodomita afeminatuak», sarekadak egin ziren Londresko hogeitik gora «molly etxetan», eta bezeroetako batzuk urkatu edo pikotan jarri zituzten.¹⁵² Baina, antza harri-garriki handia izanik mende batzuk geroagoko Stonewalleko Altxamenduarekin, sarekada egin zutenean Covent Gardeneko molly etxe batean, 1725ean, bertako jende saldoak, «horietako asko 'gurutzatuki jantzirik', aurre egin zion sarekadari, erresistentzia tinko eta bortitzez».¹⁵³

1770eko hamarkadan, Johann Wilhem von Archenholz historialari alemanak deskribatu zuen Londresko pub bat The Bunch of Grapes izenekoa: «aretoan sartzean guardiak topatu zituen bi kide emakumez jantzirik, eskuzorroekin, xal zabalekin

150 Vern Bullough, «Transsexualism in History», *Archives of Sexual Behavior* 4.5 (1975) 566-67.

151 Alan Bray, *Homosexuality in Renaissance England* (1982; London: GMP Publishers, 1988) 91.

152 David F. Greenberg, *The Construction of Homosexuality* (Chicago: University of Chicago Press, 1988) 337; Randolph Trumbach, «Sex, Gender, and Sexual Identity in Modern Culture», *Forbidden History: The State, Society, and the Regulation of Sexuality in Modern Europe*, ed. John C. Fout (Chicago: University of Chicago Press, 1992) 92.

153 Bray, *Homosexuality*, 97.

eta moda-modako turbanteen moduko kapelekin (...) Ikusi zen klubeko kide guztiek zutela emakume izen bat (...)»¹⁵⁴

Nonbait, transgeneroen bilkurak oso zabalduak zeuden Europan XVIIgarren eta XVIIIgarren mendeetan. Kronikek diotenez, baziren *Drag Ballak* [cross-dresserren dantzak] Lisboan, XVIIgarren mendean. Frantzia, XVIIIgarren mendearen hasieran, baziren sozietateak gizon cross-dresserrenak, zeinek baitzituzten begiztak eta aurpegiko hautsak, eta elkarri deitzen baitzieten emakumeen izenez. Eta Zazpi Herbehere Batuen Errepublikan, XVIIIgarren mendean, gizon transgeneroek emakume goitizenez deitzen zioten elkarri.¹⁵⁵

Ingalaterra viktoriarrean 1813an egindako sarekada baten txostenak deskribatzen ditu pub bateko bezeroak: «Ohiko erabiltzaile askok izen eta jantzi femeninoak hartzen zituzten (...)». Bilkura horietako batean sarekada egin zuen polizietako bat, nonbait, guztiz engainatu zuen bezeroetako batek behintzat, eta ez zuten hura atxilotu.¹⁵⁶ Parisen 1864an egindako *trans ball* batean, «150 gizon zeuden behinik behin, eta haietako batzuk hain ongi mozorrotuak non jabea ez baitzen gauza haien sexuari antzemateko».¹⁵⁷

XIXgarren mendean, Ingalaterran, transgeneroen pertsekuzioaren kasu famatu bat izan zen «gizonetik andrerako» bi antzezleren atxiloketa: Stella (Ernst) Boulton eta Fanny (Frederick) Park atxilotu zituzten Strand antzokiko kanpoko aldean, 1890eko apirilaren 28an. «Delitu larria egiteko konspiratzea» egotzi, eta epaitu egin zituzten. Boultonen amak Stellaren aldeko lekukotza eman zuen, eta azaldu zuen sei urteetatik janzten zela neska gisa. Bai Stella bai Fanny absolbitu egin zituzten.¹⁵⁸

«Andretik gizonerako» trantsizioa egin zutenen biziak ezin ulertu dira kontuan hartu gabe «gizonetik andrerako» *passinga* egin zutenak. *Passinga*, edozein norabidetakoa, egin dutenen biziak entenditzeko, gogoan izan behar da jende transa

154 Peter Ackroyd, *Dressing Up: Transvestism and Drag* (New York: Simon eta Schuster, 1979) 58.

155 David Greenberg, *The Construction of Homosexuality* 334. See also Rictor Norton, *Mother Clap's Molly House: The Gay Subculture in England, 1700-1830* (London: GMP Publishers, 1992).

156 Ackroyd, *Dressing Up*, 60-61.

157 *Ibid.*, 64.

158 *Ibid.*, 84

beti existitu dela, baina noizbait errespetuz ikusi zituztela, gizar-teari berebiziko ekarpena egiten zioten kide gisa.

Ez gara beti behartuak izan *passinga* egitera, klandestinitatera igarotzera, lan egin eta bizi ahal izateko. Eskubidea izan dugu agerian eta harro bizitzeko. Eskubide horiek ukatu zaizkigunean, guk sufritu dugu zapalkuntza. Baina gure biziak ezeztatzen dituztenean, *denei* ukatzen zaie ulertzea gizartean existitzen den sexu eta genero espresioaren eta esperientziaren dibertsitate aberatsa.

Gizon gisa bizi izan naiz ezin nuelako bizirik iraun, agerian, pertsona transgenero gisa. Bai, gizarte honek zapaldu egiten nau, baina ez naiz soilik zapalkuntzaren *produktu* bat. Hori esateak zentzurik gabe uzten ditu geure trans identitate guztiak. *Passinga* egiteak esan nahi du zeure identitatea ezkutatu beharra, beldurrez, bizirik irauteko. *Passinga* egitera behartua izatea bilakaera historiko berria da.

Hain zuzen ere *passinga* da zapalkuntzaren ondoriozko produktua.



Charley Wilson, jaio zena Catherine Coombes, 1834an, Ingalaterran, gizon gisa bizi izan zen berrogei urteik gora. Hirurogeita hiru urterekin, txiro etxe batean itxi zuten, eta agintariiek behartu zuten soineko urdin bat eta xal gorri bat jantzera. Bisitari bati esan omen zion: «Dirurik banu, hemendik aterako nintzateke gizonen arropetan, eta inork ez ninduke deskubrituko».



Hannah Snell gizon gisa jantzi zen ustez senar galdua bilatzeko. Baina hura ez aurkitu, eta marinela egin zen. Emakumea zela agerian gelditu ondoan, biografia bat idatzi zuen, antzerkiera eraman zutena «Bill Bobstay marinela» izenburuean, eta gero pub bat ireki zuen Londresko portu-auzoan.



Jack Bee Garland, «Babe Bean» gisa ere ezaguna, Elvira Mugarietta izanik jaio zen 1869an. Mexikok San Frantziskon zeukan lehen kontsularen alaba zen. Garland —gizon gisara bizi izan zena berrogei urteik gora— idazle eta kazetari ezaguna izan zen. Kolapsoa izan eta hil baino bi egun lehenago, etxera iritsi zen ahiturik, zeukan azkeneko dolarra eman baitzion —garraioa pagatzeko behar zuena— ihes egindako mutiko beldurtu bati. Hil ondoan, San Francisco Chronicle egunkariak lehen orrialdean iragarri zuen Garland emakume jaio zela.



«Andretik gizonerako»
pertsonek trans bat,
senarrarekin. Zer ziren?
Bikote heterosexuala? Bi
gizon gay?



Violette Morris agerian bizi izan zen
cross-dresser bezala. Morrisek,
1920. urtean, auzitara eraman
zuen Frantziako Kirol Federazio
Femeninoa, eta 100.000 franko
eskatu zizkion, galtzak janzteko
baimena kentzeagatik.



Halako trans indartsu eta harroaren argazkiaren atzeko aldean, hau zegoen idatzita: Florence Alice Compson Brown. Jaio zen 1897ko irailaren 26an, eta 1918ko urriaren 20an hil. Seme bakar bat: Thomas Compson Brown.



Chevalier D'Eon, jaio zena Charles D'Eon, Frantzia, 1728an. «Gizonetik andrerako» pertsona trans famatua izan zen; haren jaiotzako sexua zein ote zen asko eztabaidatu zen XVIII. mendeko Frantzia.



Charles Edward Stuart, «Bonnie Prince Charlie» ezizenekoa, emakume arrokekin.



Goiko aldean, ezkerrean eta eskuinean: «Mollies» edo «Molliak», «gizonetik andrerako» transak, urkamendira zigortu zituzten, XVIII. mende hasieran, sarekadak egin ondoren «Molly etxeetan». Horieta elkartzen ziren, pilaka. Nonbait, beste batzuek beren burua hil zuten, jakinik zer patu zuten aurrean. Baina gutxienez ere molly etxe bateko sarekadak —Stonewalleko Altxamendua baino 300 urte lehenago— transek aurre egin, eta borrokatu ziren!



Stella Boulton (Ernst jaioa) eta Fanny Park (Frederick jaioa) atxilotu zituzten 1870ean, jende aurrean emakume jantziak beztitzegatik. Boultonen amak, epaiketan, azaldu zuen bere haurra sei urteetatik «jantzen zela gurutzatuki», eta, horren ondoan, biak askatu zituzten. Baina Boultonen eta Parken kontrako salaketak iragarri zuen gero etorriko zen gizon femeninoen aurkako sorgin-ehiza, Oscar Wilderen epaiketa ekarriko zuena.

XIX. mende aldean, drag gizon eta emakumeek toki inportantea hartu zuten ingelesezko antzerkigintzan, baina, bitartean, Europako hiri gehienetan gogortu egin zituzten jende aurreko cross-dressingaren kontrako legeak. «Andretik gizonerako» cross-dresserrak maiz atxilotzen zituzten Berlinen eta San Petersburgon.

LAUGARREN ZATIA

HAMABI

ALEMANIATIK STONEWALLERA

Filosofoak mugatu dira mundua hainbat eratarata interpretatzera; ordea, koska da mundua aldatzea.

Karl Marx, 1845

Nerabe nintzela, une latzak bizi nituela, neure buruari galdetzen nion ea norbait nirekin batera borrokatuko ote zen, haren borroka balitz bezala. Zerk bulkatuko ote zuen norbait, gorroto eta eraso berberak jasan gabe, nirekin batzera aliatu gisa?

Izugarri zor diot Frederick Douglassi —hizlari, idazle eta abolizionista handiari— galdera horri erantzuten laguntzeagatik. Gaztea nintzela, harrapatu egin ninduten Douglassen pentsamendu boteretsuak eta hizkuntzaren erabilerak. Irakurtzen ari nintzela, hark planteatutako galdera hauekin egin nuen topo: «Zergatik naiz esklaboa? Zergatik dira batzuk esklaboak, eta beste batzuk jabeak? Garairen batean izan al dira gauzak bestelakoak? Nola hasi zen harreman hori?»¹⁵⁹

Zirraraturik, islatua sentitu nintzen. Kontua ez da esklabo izandako pertsona hark jasandako arrazismoak, basakeriak eta esklabotzak islatzen zituztela neure esperientziak. Baina zapalkuntzak eragin zion galdera batzuekin amorratzea, hain zuzen ere neure galderen antz handia zutenekin. Horrek lotzen gintuen. Douglass esplikatzan ari zitzaidana zen etsai berbera genuela parean.

159 Philip S. Foner, *Frederick Douglas: Selections from His Writings* (1945; New York: International Publishers, 1964) 10.

Gehiago leitu ahala, jakin nuen Frederick Douglasssek tin-ko defendatu zuela emakumeen boto eskubidea. Douglass izan zen Emakumeen Eskubideen lehenbiziko batzarrean izandako hogeita hamaika gizonetako bat, Seneca Fallsen (New York). Gizon haiek denak, Douglass barne, arriskatzen ziren emakumeen sufragioaren etsaiek dei zitzaten «hermafrodita» eta «Nancy izeba» [gay].¹⁶⁰

Douglass izan zen batzarrean hitz egin zuen gizon bakarra. Adierazi zuen emakumeen sufragioa eskubidea zela, eta: «Gure doktrina da 'Eskubideak ez du sexurik'». ¹⁶¹ Hitz jakintsu haiek gaur egungo trans komunitateari aplikatzen ahal zaizkio.

Baina transek ezin dugu geure burua bakarrik askatu. Talde zapaldu bakar batek ere ezin du. Beraz, nola eta zergatik etorriko dira beste batzuk gu defendatzera? Eta noren kontra borrokatuko gara, jende trans gisa defendatzeko? Hil baino urte batzuk lehenago, Douglasssek esan zuen Emakumeen Nazioarteko Kontseiluan: «Esklabotzatik ihes egin nuenean, neuregatik egin nuen; emantzipazioaren alde egin nuenean, neure jendearengatik egin nuen; baina emakumeen eskubideak defendatu nituenean, ni neu auzi horretatik kanpo nengoan, eta hor topatu nuen prestutasun pixka bat». ¹⁶²

Uste dut hori dela bila dezakegun prestutasun bakarra: ahalik eta borrokalari hoberenak izatea bestearen zapalkuntzaren kontra, eta, hala, eraikitzea elkartasun eta konfiantza loturak, forjatuko dutenak mugimendu menderaezin bat injustizia eta desparekotasun ororen kontra.

Ez baldin bazara transexuala, transgeneroa nahiz intersexuala, ez baldin bazara *cross-dresserra*, bigeneroa edo *drag queena* edo *drag kinga*, orduan agian jadanik ulertuko duzu ezen garena izateko eskubidea defendatzea guztiz loturik dagoela zeu nor zaren esploratzeko eta definitzeko eskubidearekin. Indibiduo oro da trans askapenaren parte.

Baina zer harreman ditu trans askapenak aurretik dauden aldaketarako mugimenduekin? Esaterako, Estatu Batuetako hainbat lekutan jadanik dauden lesbiana, gay, bisexual eta transe-
sen arteko koalizioetan, zein dira oinarriak? Zer esan nahi du

160 *Ibid.*, 22.

161 *Ibid.*, 23.

162 *Ibid.*

trans askapenak emakumeen mugimenduarentzat? Eta, azke-nerako, zer-nolako mugimendu zabalagoa beharko da justizia sozial eta ekonomiko iraunkorra lortzeko?

Lesbianak, gayak, bisexualak eta transak zerk lotzen ote di-tuen planteatzen duen galderari dagokionez, uste dut erantzuna soilik aurki daitekeela aztertuz zer erlazio dauden gorputzaren, desiraren eta genero espresioaren artean. Nerabea nintzenetik hausnartu izan dut neure sexualitatearen eta genero espresioa-ren arteko loturaz. Neure espirituaren eta estiloaren alderdi oro, karrikan barna noanean, gorbata zuzen paratzen dudanean edo haur baten ilea laztantzen dudanean... Dena da neure genero espresio indibidual biziaren agerraldi bat; emazte dudan andrearenganako dudan desiraren ibai bizia da neure sexualitatea. Horiek denak direnez neure identitatearen alderdi bereizezinak, borrokatzen naiz ni neu osotasunean izateko eskubidearen alde.

Nolanahi ere, beharbada trans jendeaz gizarteak duen gaizki-ulerturik handiena da, oraindik ere, uste izatea transgene-ro edo transexual guztiak gayak direla. Hori ez da egia. Emakume lesbiana, gizon gay eta bisexual gehienak ez dira transgeneroak nahiz transexualak, eta trans jende gehiena ez dira lesbianak, gayak nahiz bisexualak. Pertsona trans batzuen sexualitatea, bestalde, ez daiteke aise sailkatu.

Nahiz inportantea den markatzea «lesbiana, gay eta bi-sexualen» multzo handiaren mugak, zapalkuntzaren kontra borrokatzeko eta komunitatea eraikitzeko, zer gertatzen zaie kategoría horien mugei trans komunitatearen kasuan, sexuaren eta generoaren dunak mugitzen direnean? «Andretik gizonera-ko» *cross-dresser* maskulino bat ezkondurik dagoenean *drag queen* bisexual batekin, harreman hori heterosexuala al da? Trans po-pulazioak gogorarazten digu ezen heterosexuala den oro ez dela zuzena! [ingelesez: «straight»: zuzena edo heteroa].

Batzuek diote nire maitasun harremana lesbikoa dela, uste dutelako emaztea eta biok emakume izatea dela gure se-xualitatearen determinante biologikoa. Beste batzuek, ordea, «gizon baten itxura» dudala uste baitute, uste dute bizi garela eremu heterosexual seguru batean. Ez ikuspuntu bat ez bestea ez datoz zehazki bat neure biziarekin.

Jendea begira gelditzen zait nonahi. Aho zabalik begira-tzen didaten batzuek zalantza dute: oso gizon femeninoa naizen

edo izugarri maskulinoa den emakumea. Nahasi egiten ditut, ez direlako gauza nire sexua zehazteko. Hortaz, nire maitea eta biok ote gara emakume lesbianak, ama eta semea, emakume lesbiana eta gizon lagun gaya, edo beste konbinazio bat? Gure harremana tefloia da; ez zaio atxikitzen inolako sexualitate sailkapenik.

Baina dibertsitatearen aurkako gorrotoaz elikatzen direnentzat, *cross-dresser* oro eta bere sexua aldatzen duen oro da «*queer*» [estrainioa, marikoia]. Intoleranteen ustez emakume maskulinoak eta gizon femeninoak lesbianak eta gayak direnez, zapalkuntzak gainezartzen dira. Eta hau hala izan da mendeetan.

Adibidez, gaur egungo «biblia-aldarrikatzaileek» kondenatzen dute gayen eta lesbianen maitasuna aipatuz 1 Korintoarrei 6:9, non multzokatzen diren, batera, homosexualitatea eta «immoralitate» mota guztiak. Baina Genevako Bibliatik (1560) Amerikako Biblia Estandarrera (1901), erabilitako hitza «afeminatua» zen. Phillipsek egindako itzulpenean ere, oso berriki, 1958an, «afeminatu» hitza erabiltzen da. Biblia Estandar Berrikusia izan zen lehena, 1946an, «afeminatu» ordez «perbertitu sexualak» jarri zuena, zeina gero bihurtuko baitzen «perbertsio homosexuala», 1961eko ingelesezko Biblia Berrian.¹⁶³⁻¹⁶⁴

Eta gizon femeninoak izatearen krimenerako heriotza zigorra ezarri duten lege basak —esaterako o.a. 390. urteko Teodosioren Kodeak— lege antigay gisa jaso dituzte historialariek. Baina lege haiek ziren, orobat, lege izugarri antitransak. Teodosio Handiak kondena hau ezarri zuen: «Jende horiek zeinak ohiturik baitaude beren gizon gorputza kondenatzera, emakumeen gorputz bihurturik, beste sexuarenak diren jardunak jasatera, desberdintasunik batere izan gabe emakumeekin, krimen horrengatik pagatu egingen dute mendekuzko sugarren artean, jendearen aurrean».¹⁶⁵ Genero-lege orokor horien pean,

163 Warren J. Blumenfeld eta Diane Raymond, *Looking at Gay and Lesbian Life* (Boston: Beacon Press, 1993) 196-98.

164 *Itzle. oh.*: hona hemen nola dagoen euskarazko Elizen Arteko Biblian: «Ez al dakizue bidegabeek ez dutela Jainkoaren erreinua iritsiko? Ez engaina zeuen buruak! Lizunek, sasijainkozaleek, adulterioegileek, emakeria-zaleek, sodomitek, lapurrek, diruzaleek, mozkorrek, izen onaren kentzaileek eta iruzurgileek ez dute Jainkoaren erreinua iritsiko».

165 *Codex Theodosius*, IX, 7, 6, trans. eta quoted in Eva Cantarella, *Bisexuality in the Ancient World*, trans. Cormac ÓCuilleán (New Haven: Yale University Press, 1992) 181.

homosexual *femeninoak* jopuntuan jartzen ziren; homosexual maskulino batzuk, aldiz, salbuetsizat jotzen ziren.

Joan den mendean oraindik, sarekada batean atxilotutako gizon *cross-dresser* femeninoak gaytzat hartzen zituzten fiskalek. XIXgarren mendean, Europako hiri gehienek lege zibilak indartu zituzten jendaurreko *cross-dressingaren* aurka, eta «andretik gizonerako» *cross-dresserrak* erregulariki atxilotzen zituzten Berlinen eta San Petersburgon.¹⁶⁶ *Drag* antzezpenak —gizonenak eta emakumeenak— nagusitu baziren ere ingelesezko antzokietan, jendaurrean emakumeen arropak janzen zituzten *drag* antzezle ezagunak atxilotu egiten zituzten. Boulton eta Park antzezle transgeneroak delitu larriagatik atxilotu zituzten horrexegatik, eta haien epaiketa aitzindaria izan zen gero etorriko zen gizonen feminitatearen kontrako sorgin ehizarako; sorgin ehiza horrek, ekarri zuen, geroago, Oscar Wilderen kontrako epaiketa, 1895ean.¹⁶⁷

Hortaz, epaiketa horiek zertan zentratzen ziren, atxilotutakoen sexualitatean edo genero espresioan? Bi «krimenak» bat eginda zeuden fiskalen buruetan. Hala ere, mende aldaketarekin batera, mediku aleman batek hamalau *drag* antzezle aztertu zituen —horietatik zortzi etxean ere emakumeen arropaz janzen ziren—, eta horietatik sei bakarrik ziren gayak.¹⁶⁸

Baina bagaude jende trans lesbianak eta gayak —izan transexual, transgenero nahiz *drag*—, eta lider gisa jokatu dugu, azkeneko mendean, lesbianen eta gayen askapenerako bi mugimendu handienen jaiotzan.

Lesbianen eta gayen askapenerako mugimenduaren jaiotza gisa burura datorkigu, gutako askori, 1969ko Stonewalleko Altxamendua. Baina, egia esan, gay askapenaren lehenbiziko olatu historikoa Alemanian jaio zen, 1869tik 1935era. Mugimendu dinamikoa eta gorakorra izan zen, handitu zena nazioartekoa izan arte, eta marka utzi zuena beste mugimendu sozial eta politikoko batzuetan, baita literaturan eta arteetan ere.

166 Laurence Senelick, «Boys and Girls Together: Subcultural Origins of Glamour Drag and Male Impersonation on the Nineteenth Century Stage», *Crossing the Stage: Controversies on Cross-Dressing*, ed. Lesley Ferris (New York: Routledge, 1993) 94.

167 Senelick, *Crossing the Stage*, 86. See also Alan Sinfield, *The Wilde Century: Effeminacy, Oscar Wilde and the Queer Moment* (New York: Columbia University Press, 1994).

168 Senelick, *Crossing the Stage*, 88.

Mugimendu horrek oinarrian zuen Alemaniako langileen borroka, funtsezko eskubide demokratikoen aldekoa, eta hartan lehenbiziko lerroan egon ziren aktibista transgeneroak. Lehenbiziko gay askapenerako elkarteak 1897an jaio zen, Alemanian: Batzorde Zientifiko Humanitarioa. Magnus Hirschfeld doktorea izan zen elkartearen sortzailea, bai eta buru nabarmengarria ere, elkartek iraun zuen hogeita hamabost urteetako zati handi batean. Zen gaya, judua eta sozialista, eta *cross-dresserra* ere ba omen zen.¹⁶⁹ Hirschfeldek sortu zuen *trabesti* hitza, 1910ean, eta gaiari buruzko hasierako lanak egin zituen.¹⁷⁰ Hirschfelden ekarpenetako bat izan zen haren ondorioa, oinarritzen zena hark egindako ikerketetan, zeinaren arabera sexua eta genero espresioak ez dauden automatikoki loturik, hots, emakume lesbiana guztiak eta gizon gay guztiak ez dira transgeneroak, eta transgenero guztiak ez dira lesbianak edo gayak.

Batzordeak urtekari bat argitaratzen zuen; hartan, jakitera ematen ziren mugimenduaren jarduerak, eta azaltzen ziren sexu berekoen arteko maitasunaren eta transgeneritatearen gaineko azterlan literarioak, historikoak, antropologikoak eta zientifikoak. Honako helburu hauek ezarri zituen Batzordeak: lortzea bertan behera gelditu zedila Alemaniako «175. paragrafoa», hau da, gayen kontrako lege bat; iritzi publikoari informazioa ematea; eta sexualki zapalduetako jendea adoretzea beren eskubideen alde borrokatzera. Helburu horiek lortzeko, Batzordeak prestatzen zituen aldian behingo eztabaida publikoak, hitzaldi birak antolatzen zituzten Alemanian eta nazioartean, eta ikerketak bidaltzen zizkieten gobernuei sexu berekoen maitasuna despenalizatu beharraz.¹⁷¹

Mugimendu horren baitan izandako eztabaida bat oraindik ere sutsuki errepikatzen da: jaiotzen ote gara geure sexualitatea betiko finkatua dugula? Geure sexualitatea garatzen

169 Vern Bullough, *Homosexuality: A History from Ancient Greece to Gay Liberation* (New York: New American Library, 1979) 13, 16, 66-67.

170 Magnus Hirschfeld, *Transvestites*, itzulp. Michael A. Lombardi-Nash (Buffalo, New York: Prometheus Books, 1991). See also Charlotte Wolff, *Magnus Hirschfeld: A Portrait of a Pioneer in Sexology* (London: Quartet Books, 1986).

171 John Lauritsen eta David Thorstad, *The Early Homosexual Rights Movement, 1864-1935* (New York: Times Change Press, 1974) 9, 11. See also James D. Steakley, *The Homosexual Emancipation Movement in Germany* (Salem, New Hampshire: Ayer Publishers, 1975).

ote dugu heltzen garen neurrian eta munduarekin interakzioa dugun heinean? Edo ba ote da bien arteko lotura bat, oraindik aurkitu gabea? Karl Heinrich Ulrichsek —gay askapenaren aitona— eta Hirschfeldek parte hartu zuten eztabaida horretan. Uste zuten homosexualak zirela hirugarren sexu batekoak. Esaterako, uste zen gizon gay bat zela emakume baten gogoia gizon baten gorputzean. Horren ondorioz, Alemaniako lesbiana eta gay batzuk borrokatzen ziren beren pertsekuzioaren kontra arrazoituz ezin alda zezaketela beren sexu orientazioa, jaiotzekoa zelako. Beste batzuek zioten argudio ahul eta defentsiboa zela, eta giza eskubideen alde borrokatu behar zela justizia hartuz oinarriztat, ez patologia.¹⁷²

Baina gauza bat da mugimenduaren barneko eztabaida, naturaren eta edukazioaren artekoa, eta beste bat, oso desberdina, nazien eugenesia mugimenduaren gorakada, zeinak erabiltzen baitzuen «jaiotzako akatsen» argudioa genozidio masiboak gauzatzeko. Alemaniako lesbianen eta gayen mugimenduak babes franko erdietsi zuen langile klasean eta mugimendu sozialistetan, baina faxismoaren gorakadak langileen erakunde guztiak txikitu zituen. Naziek, orobat, zapaldu zuten Alemaniako Homosexualen Emantzipaziorako Mugimendua, zeina baitzen neurri handian klase ertainekoa. Hala, bildutako historia baliotsuaren zati handi bat betiko galdu zen. Hirschfeldek herrialdetik ihes egin behar izan zuen, eta, erbestean, grabazio batean ikusi zuen nola guztiz erre zuten haren institutua. Institutuaren liburutegi espezializatuko hamar mila liburu baino gehiago suntsitu ziren sugar haietan.¹⁷³

Homosexualen Emantzipaziorako Mugimendua —hasia zena beste herrialde batzuetara hedatzen— adibide inportante bat da une historiko horiena non bat egin duten lesbianen, gayen eta transgeneroen borrokek.

Zorionekoa ni, lesbianen eta gayen askapeneko bigarren olatuaren parte izan naiz, hots, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako olatuarena. Mari-mutil gazte gisa armairutik atera nintzenezan, Stonewallen aurreko taberna haiek topatu nituen, asteburuetan beterik zeudenak legez kanpoko transgeneroekin.

172 Lauritsen eta Thorstad, *Homosexual Rights*, 46, 50.

173 *Ibid.*, 42.

Astegunez, fabriketan, nire gisako mari-mutilei «*he-she*» deitzen ziguten [«emazte-gizon»], eta gure ahizpa *drag queen*ei, «*she-male*» [«trabesti» edo «emakume transexual»]. Intoleranteetako batzuek «gauza hori» deitzen zidaten, gizatasun guztia erauziz. Izenordain marratxodun horiek («*he-she*» eta «*she-male*») agerian uzten dituzte ingelesezko izenordainen mugak. «*She*» eta «*he*» izenordainak [ingelesez emakumeari eta gizonari dagozkionak, hurrenez hurren] erabili ohi dira pertsonaren jaiotzako sexua eta genero espresioa, *biak*, deskribatzeko. Baina «*he-she*» eta «*she-male*» hitzek deskribatzen dute pertsonaren genero espresioa lehenbiziko izenordainarekin, eta jaiotzako sexua, bigarrenarekin. Marratxoak adierazten ditu lengoaiaren krisi bat eta ustezko kontraesan sozial bat, iaketa sexuak eta genero espresioak bat egin behar baitute, ustez. Hura zen geure krimena: gure genero espresioa ez zetorren bat jaiotzan sozialki esleitu zigutenarekin. Horrek egiten gintuen generoko legez kanpoko.

Jende batek esan ohi zuen «*gay itxura*» genuela, baina baldin ez baginen maitalearekin eskutik helduta ibiltzen, edo *gay* taberna batetik ateratzen, ez zen geure sexu desira ikusgarri egiten gintuena, baizik geure genero espresioa. *Drag king* eta *drag queen* ginen aldetik, iceberg gaitz baten punta ikusgarria ginen. Ginen *gay* «genero tolestaileak». (Lengoaia tresna zehaztugabea da. Soilik har zaitzakete «genero tolestukotzat» baldin gizartea bada «genero zurrunekoa»). Inork ez zuenez sekula ikusi lesbiana, *gay*en eta bisexualen populazioaren dibertsitatea, jende gehienak uste zuen *gay* izateak esan nahi zuela *transgenero* izatea. Baita gerok ere.

Geure eguneroko bizia hain zen gogorra, ez genuen borrokatzea beste aukerarik. Horregatik egon ginen borrokako lehenbiziko lerroetan, *gay* askapenerako mugimendua jaiotzen lagundu zuten guduetan. Eta horregatik ez da kasualitatea generoko legez kanpokoak buru izatea Stonewalleko Altxamenduan. Poliziaren indarkeriaren aurkako matxinada hura hasi zen goizeko ordu bata igaroxea, 1969ko ekainaren 28an, poliziek sarekada egin zutenean Stonewallen —New Yorkeko Greenwich Villageko *gay* taberna bat—. ¹⁷⁴

174 Altxamenduaren ahozko kronika bat ezagutzeko, ikus Martin B. Duberman egilearen *Stonewall* (New York: Dutton, 1993); ondorengo mugimenduaren historia laburra ezagutzeko, ikus Barry D. Adam egilearen *The Rise of a Gay and Lesbian Movement*

Uste zuten tabernako bezeroek, bereziki *drag queen*, *drag king* eta transexual afro-amerikarrek eta latinoek, isiltasunean jasanen zituztela umiliazioa, irainak eta basakeria. Baina udako gau sargori hartan, trans gayen haserrea lehertu egin zen. Tabernako bezeroek, eta bildu zen jendeketak, kontraeraso egin zieten poliziei, hain ausarki non poliziek atzera egin behar izan zuten. Matxinadak iraun zuen lau gauetz segidan, eta ezagutuko zen «Stonewalleko Altxamendua» izenez.

Hurrengo urteetan, lesbianen eta gayen askapena jaio zen. Milaka lesbianek eta gizon gayek hartu zituzten karririk herrialde guztian, eta geure dibertsitatea agerikoa zen: arraza, naziotasuna, klasea, gaitasunak, eskualdea eta beste desberdintasun asko. Orobat, agerian gelditu zen populazio handi hartan zegoen genero espresioaren sorta zabala. Lesbiana edo gaya izateak nahitaez transgeneroa izatea behar zuelako uste okerra begi-bistan gelditu zen.

Gaur egun, Stonewalleko Altxamenduak mundua astindu eta hogeita bost urtera, indartzen ari den mugimendu berri batek trans askapena eskatzen du. Mugimendu gazte honen sorrerak, zeina antolatzen ari baita eta aurre egiten baitio sexu eta genero zapalkuntzari, munduari ahalbidetzen dio ikustea trans komunitateetako dibertsitatea. Gaur egun gauza gara desafiatzeko transgeneritatearen sexualitatearen espresioa dela dioen ustea, zeren, historian lehenbiziko aldiz, argi dago trans komunitatean dagoen sexualitatearen aukera zabala: gara heterosexualak, bisexualak, lesbianak, gayak eta asexualak.

Hortaz, trans populazioa ikusten dut zirkulu zabal baten gisan, eta lesbianen, gayen eta bisexualen komunitatea beste zirkulu handi baten gisan. Bi zirkulu horiek zati batean gainezartzen dira. Nik neuk oin bat dut bi komunitateetako bakoitzean, eta, oin bat bi txalupa horietako bakoitzean dudanez, bihotz-bihotzez espero dut ez dezatela jo kontrako norabideetara.

Esperantza dut ezen bi zirkuluetan batera gaudenek zubi-lana egin dezakegula, uste baitut geure komunitateak aliatu naturalak direla eta geure indarrak elkartasunaren bidez handituko direla. Hala ere, geure bidean badira oztopoak, zeinak jarri dituzten batu ez gaitzen.

(Boston: Twayne Publishers, 1987).

Genero-arloko eraso iraunkor eta etengabearen xede izan dira Estatu Batuetako lesbianen, gayen eta bisexualen komunitateak. Esaterako, New Yorken, lesbianen eta gayen eskubide zibilen legearen aldeko kanpainan (bisexualak barnean hartu aurretik zen), egunkarietako editorialek geure mugimenduari eraso egin zioten, honako hau galdetuz: «Zer nahi du jende horrek, zapata takoiduneko gizonak suhiltzaile izatea?» Eman dakioken erantzun bakarra hau da: «Edozein *cros-dresser*rek jakinen luke zapata egokiak janzten ogibide horretarako! Hori da aldi berean generofobia eta laneko diskriminazioa. Ez dugu onartuko!» Horrela garaitu behar dira genero-arloko erasoak.

Herabeki «Denak ez gara horrelakoak» esateak soilik bali du kontraeraso mugimendu osoa ahultzeko. Itsasontzitik ez dugu inoiz behar adina jende botako etsaien onespena lortzeko. Saiatu ote beharko genuke argudiatzen ezen geure eskubide zibilen kontra antolatzen direnak bezain «normalak» garela? Ahaztu hori! *Queer* naiz, eta harro nago.

Denbora luzez aktibista mari-mutila eta lesbiana izan naitzen aldetik, dei egiten diet haurride lesbiana, gay eta bisexualeri inizatiba har dezaten koalizio iraunkor bat eratzeko trans zapalkuntzaren kontra borrokatzeko. Eta borrokalari transgenero naizen aldetik, dei egiten diet aktibista transexual, transgenero, bigenero eta intersexualei borroka daitezen lesbianek, gizon gayek eta bisexualak jasaten duten zapalkuntzaren kontra. Transfobia eta genero-arloko erasoak bezala, homofobia erabili izan da ziri arriskugarri bat sartzeko aliatu potentzialen artean.

Ulertzen dut transexual eta transgenero heterosexualak arrazoiz haserretu izan direla, bizi osoan aditu behar izan ondoren beren sexu-aldaketa edo genero espresioa dela soilik gayak direla onartu ezinaren ondorio. Inork ez du nahi bere identitatea, bizitzea irrikatzen duena —edo haren alde hiltzeko prest dagoena— baliogabetzea edo ez ulertzea. Baina lesbiana, gay eta bisexual guztiek trans zapalkuntza jasaten ez duten bezala, trans guztiek jasaten dute gayen kontrako gorrotoa. Intolerante eta zanpatzaile guztientzat, trans espresio guztiak dira «*queer*». Geure burua urrutiratzeak lesbiana, gay eta bisexualen mugimendutik ez digu segurtasun handiagorik ekarriko. Bai, ordea, lesbianen eta gayen zapalkuntzaren kontra aurrez aurre borrokatzeak.

Nahiz lesbiana, gay, eta bisexualen eta transen populazioak ez dituzten zapalkuntza berberak, edo ez dituzten adierazten kexa eta aldarrikapen berberak, gaur egungo Estatu Batuetan geure komunitateak indartu dira koalizioak eratuz unitateetan, lantokietan eta protesta politikoetan.

Aldi berean, trans komunitateak —zeinek hamarkadetako esperientzia duten beren elkarteak izaten, eta non gehienak heterosexualak diren— dira mugimendu independente eta autonomo bat. Lesbianak aktiboak diren bezala bai L/G/T/B koalizioetan bai emakumeen mugimenduan, edo zuriak ez diren lesbianak eta gayak oso lider inportanteak diren bezala beren askapen nazionalako mugimenduetan, bada, lesbiana, gay eta bisexual trans askok funtsezko rola betetzen dute trans mugimendu autonomoan ere.

Koalizioak eraikitzen egiazko konpromisoa dutenek jakin behar dute ezen entzuteak eta sentsibilitatea erakusteak besteen zapalkuntzen eta eskaeren aurrean sortuko duela elkarren ulermen eta batasun handiagoa. Trans jendeari buruzko mendeetako uste okerrak izan direnez, zapalkuntza mota desberdinak sufritzen dituzten jendeentzat elkar ulertzeko modurik eraginkorrena da elkarren ondoan borrokatzea.

Frederick Douglasssek eta Stonewalleko gudulari dibertsoek lagundu zidaten ohartzen zapalkuntza berbera sufritu ez duten jendeek *historia egin dezaketela* baldin elkartzen badira etsai berberari aurre egiteko.



Allyson Ann Queena eta Farrell Armstrong Kinga. Allysonek hamalau urte zituen polizaren kontra borrokatu zenean Stonewalleko Altxamenduan. Zauritu eta atxilotu egin zuten egun hartan. Gaur egun, lehendakaria da New York hiriko, Long Islandeko eta New Jerseyko QUEEN & KING Inperialak elkartean. Galdegin ziotenean ea Stonewalleko Altxamendua ote zen lesbiana eta gayen altxamendua edo transen altxamendua, erantzun zuen: «Biak dira, lehenbiziko aldiz elkartu zirelako zapaltzailearen aurka borrokatzeko, eta aurrekari ona izan zen, ordutik aurrera askotan jokatzeko horrela. Mugarri ederra izan zen bi komunitateentzat, biak batean borrokatu zirelako zapaltzaile amankomunaren kontra: garai hartan polizia eta mafia ziren; gayen klub asko kontrolatzen zituzten, gizonenak nahiz emakumeenak».



Assoto Saint (Yves Lubin), egile beltz, gay eta transa. IHESaz hil zen, eta haren heriotzak jende asko atsekabetu zuen. Haitin jaio zen 1957an, eta New York hirian hil, 1994an.



Ezkerretik eskuinera: Terry White, Cross Dressers International; Coco LaChine, Celestial Dragon Empress, Imperial Court of New York; Monica Pedone, lehendakaria Greater New York Gender Alliance elkartean; eta Lynn Walker, lehendakariordea Greater New York Gender Alliance elkartean.



Laurie Auffaultek, Puerto Ricoko aktibista lesbiana bizardun eta transak, John (Radcliffe) Hallen kartel bati eusten dio (John Radcliffe Hall lesbiana eta transa zen, eta The Well of Loneliness lanaren idazlea), Harrotasunaren Martxan, 1993an. Lesbian Herstory Archives.



«Esaten dudan bezala, biluzik jaiotzen zara, eta gainerakoa drag da. Baina nire lana zein den azaltzen dudanean, denek lotzen dute sexu-fetixismoa nire karrera hautuarekin. Inork ez dio arretarik ematen sotana daraman apezari edo toga janzten duen Auzitegi Goreneko epaileari. Eta polizia motordun bati galdetuko bazenio ea larruaren eta dominazioaren zalea den, segur aski atxilotu egingen zintuzke. (...) Jendeak oso erraz etiketatzen eta kategorizatzen ditu gainerakoak; hala, txiki egiten dituzte, hutsal, eta, azken finean, gizatasunez gabetzen dituzte. Baina ez dut utziko ni alde batera uztea. Gelditzeko etorri naiz. Eta hemen nago esateko denak, gutako bakoitza, garela jainkoak eta jainkosak».

Lettin It All Hang Out: An Autobiography by RuPaul. Hyperion: New York, 1995.



Stonewallen 25. urteurrenean, trans talde nazionalaren zati bat. Drag queenak martxaren hasieran jarri zituzten, behar zuen bezala, baina trans taldearen gainerakoak askoz ere atzerago zeuden. Pertsona honek daraman kartelak argi uzten du manifestazioan ditugun lekuek bakarrik bereizten dituztela geure komunitateak («Drag eta transgeneroak ez gaituzte zatituko. Queer batasuna = giza eskubideak»).

HAMAHIRU

IZAN ALA EZ IZAN

«Emakume jaio zinen, ezta?» Kazetariak hirugarrenez galdegin dit. Nik, buruaz, baiezkoa egin dut egonarriz. «Beraz, emakume gisa ala gizon gisa identifikatzen zara?»

Begiak gorantz biratu ditu erantzun diodan bitartean: «Transgeneroa naiz. Emakume jaio nintzen, baina gizona ez izan nintzen da nire genero espresio maskulinoa. Ez nau neure sexuak definitzen, ezta neure genero espresioak ere. Kontua da neure genero espresioak kontraesanean dirudiela neure sexuarekin. Ulertzen? Bien arteko kontraesan sozialak definitzen nau ni».

Kazetariari begirada lausotu zaio nik hitz egin bitartean. Bukatutakoan esan du: «Hortaz, *hirugarren* sexu batekoa zara? Argi dago, ohartu naiz, ez dugula nahikoa lengoia elkar ulertzeko.

Sexuaz eta generoaz hitz egiten saiatzen naizenean, jendeak soilik imajina ditzake emakumea ala gizona, femeninoa ala maskulinoa. Irakatsi digute ez dagoela besterik naturan. Eta hala ere, erakutsi dudanez, hori ez da egia izan kultura guztietan eta garai historiko guztietan. Egia esan, Mendebaldeko legeak mendeak behar izan ditu sexua zehazki bi kategoriatan banatzeko eta dagozkien bi genero espresioak esleitzeko.

«Bi genero, bi sexu biologikotan oinarrituak, daudela dioen paradigma hasi zen nagusi izaten, Mendebaldeko kulturaren, XVIIIgarren mendean bakarrik» dio Randolph Trumbach historialariak bere entsegu honetan: «Londresko safistak: hiru sexuetatik lau generoetara kultura modernoaren eraikuntzan».¹⁷⁵

175 Randolph Trumbach, «London's Sapphists: From Three Sexes to Four Genders in the Making of Modern Culture», *Bodyguards: The Cultural Politics of Gender Ambiguity*, ed. Julia Epstein eta Kristina Straub (New York: Routledge, 1991) 112-13.

Trumbachek azaltzen du ezen XVIIIgarren mendea bezain berandu arte, ipar-mendebaldeko Europan, gizon femeninoak eta emakume maskulinoak —molliak eta tommiak deitzen zitzaizen, hurrenez hurren— hartzen zituztela hirugarren sexutzat eta lauugarren generotzat.

Baina zenbat sexu eta genero existitzen dira? Maizegi, galdera hori kontu abstraktu gisa aurkezten da, esanez bezala: zenbat aingeru dantza daitezke orratz baten buruan? Baina galderaren erantzunaren bilaketa ulertu behar da zapalkuntzaren testuinguruaren barnean.

Sexuaren eta generoaren muga artifizialak gurutzatzen ditugunak legearekin etsaitzen gara, jasaten ditugu muturreko jazarpena eta basakeria eta ukatzen zaizkigu enpleguak, etxebizitza eta zainketa medikoa. Hazi gara geure burua ezin irudikatuz nagusi den kulturari.

Horrenbestez, nola eztabaida dezakegu zenbateko sexu eta genero dibertsitatea dagoen gaur egungo gizartean, baldin errepresio mekanismo legalek eta legez kanpokoek ikusezin bihurtzen baditu geure biziak? Generoaren teorialariak ezin dira izan bakarrik errolda egile hutsak, zenbatzen dutenak zenbateko sexu eta genero dibertsitatea existitzen den; existitzeko dugun eskubidearen aldeko borrokan parte hartu behar dute, edo gutako gehienak beharturik egonen gara klandestinitatean segitzera.

Zenbat eta inklusiboago bihurtu trans askapenerako mugimendua, eta zenbat eta ikusgarriagoa bihurtu gure mugimendua gizartean, orduan eta argiago ikusiko da sexu eta genero ugaritasuna. Nolanahi ere, trans mugimendua handitu eta garatu ahala, haren inpaktuaren zati bat izan da galdera hauek planteatzea: Zein da jaiotzako sexuaren, genero espresioaren eta desiraren arteko erlazioa? Jaiotzatik duzun gorputzak determinatzen al dizu sexua betiko? Zenbat sexu eta genero aldaera daude gaur egun?

Sexuaren gradazioa eta norberaren generoaren auto-definizioa mugagabeak dira. America Online-n kontu bat ireki nuenean, saiatu nintzen goitizen gisa «Mari-mutil handia» edo «Drag king» aukeratzen. Ohartu nintzen izen haiek harturik zuek dela jada. Gero, ibili nintzen American Onlineko eta UNIXeko iragarki-tauletan ikusmiran, eta topatu nuen sexu eta genero identitate infinituko mundu bat, zeina ziberespazioak jendeari

ahalbidetu zion askatasunez esploratzea, anonimotasun maila batekin.

Baina nahiz existitzen den fluidotasun eta ugaritasun hori, oraindik ere ez dago sexua eta generoa adierazteko hitz askorik, ez txikia nintzenean baino askoz gehiagorik. Nire genero espresioaren konplexutasun guztia mugatzen da «gizon itxura» izatera. Gizona ez naizenez, zer esan nahi dit jendeak gizon itxura dudala esatean? Umetan, beste haurrek esaten zidaten beisbolean jaurtitzen nuela eta puxtarriak botatzen nituela «mutikoek bezala». Gaztea nintzela, helduen kritika zaparrada sufritu nuen, errietan egiten baitzidaten zutik egoteagatik, ibiltzeagatik eta esertzeagatik «mutil bat bezala». Ezezagunak libre sentitzen ziren karrikan ni geldiarazteko eta halako ohartarazpenak egiteko. Nigan bazen zerbait desegokia, baina zer?

Eskolan, etxean, liburuetan eta filmetan ikasi nuen «generoaren teoria» oso sinplea zen. Gizona eta emakumeak zeuden. Gizonak maskulinoak ziren eta emakumeak femeninoak. Eta kito. Baina, bistan da, niretzat ez zegoen «eta kitorik».

Ez nuen honetaz inorekin hitz egiteko berbarik. Neure espresatzeko modua okerra zen. Ez zegoen lengoaiarik honetaz eztabaidatzeko, uste baitzen zuzena zen modua naturala zela. Jainkosari eskerrak, hamasei urte nituenean emakumeen askapenerako mugimendua hasi zen zalaparta batean salatzen neskatoen eta mutikoen doktrinamendu erabat bereizia eta desparekoa. Lehenbizikoz, gauza nintzen bereizteko batetik neure jaiotzako sexua eta, bestetik, neska gisa jasotako genero hezkuntza. Ordura arte sexua eta generoa sinonimotzat hartu zirenez beti, biak deskonektatzea oso aurrerapauso handia izan zen neure pentsamenduan.

Horretaz gain, emakumeen mugimenduak eman zidan beste oparietako bat izan zen hurbilagoko begirada bat egitea maskulinitateari eta feminitateari atxikitako balioei. Jaso nuen edukazio sozialean, maskulinitatea agertzen zen, oposizio okerran, feminitatea baino indartsuago, analitikoago, egonkorrago eta razionalago.

Baina transgeneroen askapen mugimendua sortu arte ez nintzen hasi ohartzen oso gauza desberdinak zirela batetik, maskulinoa edo femeninoa izateari atxikitako genero-balio negatiboak eta, bestetik, neure genero *espresioa* izateko nuen

eskubidea. Genero espresioari atxikitako balioek menpean nindukatzen. Baina nik ez dut beste inor zapaltzen gorbata bat jantziz neure generoa espresatzen dudan moduarekin. Eta beste batzuen arropak edo makillajeak ere ez dute neure askatasuna itotzen.

Bai emakumeen bai transen askapenek bi zeregin inportante aurkeztu zizkidaten. Bata zen maskulinitateari eta feminitateari atxikitako balio baztertzaille eta zapaltzaileak erazteko borrokarekin bat egitea. Bestea zen genero askatasuna defendatzea, hots, pertsona bakoitzaren eskubidea bere generoa espresatzeko berak nahi bezala, femeninoa izan, androginoa, maskulinoa nahiz tarteko espektroko edozein puntu. Eta horren barnean dago norberaren eskubidea genero anbiguetaterako eta genero kontraesanerako.

Halaber, inportantea da pertsona bakoitzak eskubidea izatea bere sexua definitzeko, determinatzeko nahiz aldatzeko nahi bezala: emakume, gizon, edo bien arteko espektroko edozein puntu. Eta horren barnean dago norberaren eskubidea fisikoki anbigua nahiz kontraesankorra izateko.

Borroka honek milioika laguni eragiten die, zeren, ikusten denez, sexua eta generoa askoz konplexuagoak dira emakumea eta gizona baino, arrosa eta urdina baino. Ipar Amerikako Intersexualen Sozietatearen liburuxkak dioen bezala, «Gure kulturak kontzebitzen du giza anatomia dikotomia balitz bezala: gizakia bi sexutan dator, kontzebiturik kasik bi espezie desberdin balira bezala. Ordea, enbrioi-garapenak eta intersexualen existentziak frogatzen dute eraikuntza kulturala dela hori. Sexu anatomikoaren diferentziazioa gertatzen da gizon/emakume continuum batean, eta zenbait dimentsiotan».¹⁷⁶ (*Ikus B apendizeara.*)

«Bost sexuak: zergatik gizona eta emakumea ez diren aski» izeneko artikuluan, Anne Fausto-Sterling doktore genetikariak honako hau azpimarratzen du: «Mendebaldeko kulturak oso barneraturik dauka bi sexu soilik daudela dioen ideia». Baina, eransten du: «Baldin estatuak eta sistema legalak interesik badute bi sexuko sistema mantentzeko, natura desafiatzen ari dira. Biologikoki, gradazio asko daude emakumetik gizonera; eta

176 *What Is Intersexuality?* (San Francisco: Intersex Society of North America, n. d.).

segun nola erabakitzen den, esan daiteke espektro horretan badi-
direla bost sexu bederen —agian gehiago—. ¹⁷⁷

Ambiguetate eta kontraesan fisikorako eskubidea ukatu egiten zaie jaioberri intersexualei, kirurgiaz eta hormonez, hots, ukatu egiten zaie emakume eta gizon «poloen» artean suertatzen direnei. Gizon edo emakume kategorian zalantzarik gabe egokitzen ez diren haurren kasuan, baldin doktoreek ez balituzte berehalakoan finkatuko batean edo bestean, galderarik ohikoen-
na gabe geldituko ginatke: «Bai ume ederra! Zer da, mutikoa edo neskatoa?»

Eta pentsa zer desberdintasuna baldin gurasoek erantzunen balute: «Ez dakigu, haurrak oraindik ez digu esan».

Zergatik sartu behar ditugu haurrak nola edo hala gizon edo emakume kategorian? Fausto-Sterlingek nabarmentzen duenez, «Herentzia, legitimitate, aitatasun, tituluaren oinordetza eta ogibide batzuetarako hautagarritasuna ezartzeko, sistema legal anglosaxoiak behar du jaioberriak gizon ala emakume gisa erregistra daitezela». Horren ondorioz, haurrak, jaiotakoan, kirurgiaz eta hormonez manipulatzeko dira sexu batean edo bestean egokitzeko, batzuetan baita gurasoek jakin gabe ere. Fausto-Sterlingek ondorioztatzen du ezen gizarteak, horrenbestez, exijitzen duela «gorputz intersexualen kontrola, zatiketa handia lausotzen dutelako eta bien arteko zubi direlako». ¹⁷⁸

Intersexualitatea ez da gauza berria; Antzinarotik jaso izan da. Kontinente guztietan bada, Kreaioaren elezaharretan, intersexualitatearen ikuspegi sakratu bat. Baina, Grezian eta Erroman adibidez, gizarte patriarkal eta sexuz bereizitakoak gailentzearekin, jaioberri intersexualak bizirik erretzen zituzten, edo beste era batzuetan hil. Azkeneko mendeetan, intersexualei agindu izan zitzaizen bizitzeko sexu bat aukeratzea, eta iritzia aldatuz gero hil egin zituzten«. ¹⁷⁹

177 Anne Fausto-Sterling, «The Five Sexes: Why Male and Female Are Not Enough», *The Sciences* March/April 1993: 20-21.

178 *Ibid.*, 23-24.

179 Mito intersexualen presentzia dokumentu ezberdinetan jaso da, esaterako: «Androgyne», *The Woman's Encyclopedia of Myths and Secrets*, ed. Barbara G. Walker (San Francisco: Harper & Row, 1983) 32-34; Platonen *androgyne* greziarra, *The Symposium*, itzulp. Walter Hamilton (London: Penguin Books, 1951) 58-65; Mircea Eliadetek deskribatutako *Izanagi/Izanami* japoniarra, *Myths, Dreams, and Mysteries: The Encounter between Contemporary Faiths and Archaic Realities*, itzulp. Philip Mairet (1957; New York: Harper & Row, 1975) 179-83; Audre Lorderen

Gauza berria dena da intersexual ausartak aditzea beren eskaerak adierazten. Egun bakarreko jaioberriek ezin zuten eman baimen informatua genitaletako ebakuntza egiteko. Ume intersexualek eskubidea dute handitzeko eta berek erabakitzeke zer gorputzekin nahi duten bizi. Gurasoek aholkularitza behar dute; gazte intersexualek aholkulari intersexualak behar dituzte. Giza eskubideak dira, nahiz egunero urratzen diren. Cheryl Chasek, zeina baita Ipar Amerikako Intersexualen Sozietatearen sortzailea, amesgaizto hau deskribatzen du:

Haur intersexual bat jaiotzen denean, gurasoek aurre egin behar diote mundua ulertzeko modua urratzen dien gertaera zurgarri bati. Medikuek haur horren jaiotza tratatzen dute larrialdi medikoa balitz bezala. Mediku talde bat, gehienetan barnean dituen zirujau bat eta endokrinologo bat, ohatzetik altxarazten da, behar izanez gero, eta biltzen da egoera maneiatzeko. Gorputz intersexualek oso gutxitan izaten dute eritasunen bat; hemen, larrialdia kulturalki eraiki da. Mediku taldeak aztertzen ditu umearen osaera genetikoa, anatomia eta egoera endokrinoa, gizon ala emakume izaera «esleitzen» dio, eta gurasoei esaten die zein den haurraren «egiazko» sexua. Orduan, sexu hori sendotzen dute kirurgiaren eta hormonen bidez.

Gurasoak hain traumatizaturik eta lotsaturik daude, ez diote inori kontatzen beren esperientzia izugarria, ezta haurari ere, handitutakoan. Haurra genitalki eta emozionalki mutilatua gelditzen da, isolatua, eta gertatu zaionaz informazioa eskuratzeko aukerarik gabe. Minaren eta lotsaren zama hain da handia, non, oro har, intersexual guztiak bizi diren guztiz armairuan sarturik beren bizi guztian.¹⁸⁰

Agian erreakzionarioak ere bat egingen lukete haurrak kirurgiaz aldatzearen kontrako borrokarekin, baina beste ikuspuntu bat erabiliz: «Jainkoak uztartu duena ez beza gizakiak

Mawulisa eta Seboullisa yorubar eta dahomearrak, *The Black Unicorn* (New York: W. W. Norton, 1978), William Bascom, *The Yoruba of Southwestern Nigeria* (New York: Holt, Rinehart & Winston, 1969), eta Melville Herskovits, *Dahomey*, 2 lib. (New York: J. J. Augustin, 1934); Kretako, Txipreko, Erromako eta Greziako jainko dualak, Marie Delcourt, *Hermaphrodite: Myth and Rites of the Bisexual Figure in Classical Antiquity*, itzulp. Jennifer Nicholson (1956; London: Studio Books, 1961) 17-43; Kamia of southwestern North America Ipar Amerika hego-mendebaldeko kamia herriaren *Warhamiak*, Walter Williams, *The Spirit and The Flesh: Sexual Diversity in American Indian Culture* (London: Beacon Press, 1986) 18. Hermafroditen jazarpenari buruzko argibideentzat ikus iturri klasikoak, P. M. C. Forbes Irving, *Metamorphosis in Greek Myths* (Oxford: The Clarendon Press, 1990) 149-50, eta Frantziako iturriak, Eugene de Savitsch, *Homosexuality, Transvestism and Change of Sex* (Springfield, IL: Charles C. Thomas, 1958) 30.

180 Cheryl Chase, e-mail bidez, 1995eko otsailaren 2an.

aska». Baina argudio hori ez da erabili behar transexualen eskubideen aurka, hain zuzen ere sexua berresleitzeko ebakuntza aukeratzen duten transexual helduen aurka. Transexual guztiek ez dute aukera hori nahi, edo ez dezakete pagatu. Baina nahi dutenen kasuan, ez dago kontraesanik transexualen eta intersexualen eskubideen artean. Bi komunitateen borrokan muinean dago norberaren eskubidea norberaren gorputza kontrolatzekoa.

Oroitzen naiz nola nengoen behin abortatzeko klinika baten aurrean, Buffalon, beste batzuekin besoz beso, egunsentia- ren argi ahulean, euri hotza aurpegian zurrustaka. Emakumeen osasun etxea defendatzen ari ginen, emakumeen abortatzeko eskubideari eraso nahi zioten eskuindarregandik. Oso ongi nekien zer politika ari nintzen babesten. Baina goiz hartan, beharbada hain trixteki bustia eta hotzak egoteagatik, neronen gorputzean sentitu nuen trans mugimenduaren eta emakumeen mugimenduaren eskaeren intersekzioa. Biek konpartitzen duten muina da denek dugula eskubidea geure gorputzen gainean erabakitzeko eta geure burua definitzeko.

Eskubide hori du emakume bakoitzak, pertsona intersexual bakoitzak, gizon edo emakume transexual bakoitzak; hots, giza- ki orok. Sinetsita nago transexual gisa identifikatzen ez direnek ere eskubidea dutela hormonak hartzeko eta kirurgia egiteko. Gutako askok nahi dugu geure gorputza taxutu geure sexua aldatu gabe. Sexua berresleitzeko programek ez dituztenez hormonak errezetatzen edo kirurgia antolatzen beren burua transexual gisa identifikatzen ez dutenentzat, gezurra esan behar izaten dugu, hormonak karriketan erosi, edo joan behar izaten dugu sasimedi- kuengana, errezetak diruketaren truke lortzera.

Gizarte honetan askok egiten dituzte era guztietako gau- zak beren gorputzetan hobeki sentitzeko: hamaika motatako kirurgia kosmetikoak, sudur moldaketak, piercingak, tatuajeak, handitzeak, liposukzioak, dietak, kulturismoa, zirkunzisia, de- kolorazioa, kolorazioa eta elektrolisia. Baina beren gorputzak murrizten, birmoldatzen nahiz apaintzen dituzten jendeeta- ko askok kritikatzeko dituzte *beren* bizirako kirurgia aukeratzen duten transexualak. Uste dut genitalen gaineko mendeetako beldurrek eta tabuek, zeinak sakon erroturik baitaude Mende- baldeko kultura nagusietan, bihurtzen dutela sexu-aldaketarako ebakuntzaren gaia hain zirrargarri. Gaur egun, sexu-berreslei-

penaren aurkari batzuek argudiatzen dute sexu-aldaketa dela goi-teknologiaren fenomeno bat bakarrik, jendea emakume nahiz gizon izatearen definizio kultural estuetan egokitzea behartzearen ondorio, gaur egun eskura ditugulako kirurgiaren eta hormonen aukerak. Egia da anesthesiaren garapenak eta hormonen sintesi komertzialak ireki zituztela aukera berriak sexua berresleitzeko. Hala eta guztiz ere, esaten bada transexualak ari direla soilik sexu-rol zurrunetatik ihes egiten, ez dira kontuan hartzen sexua aldatzeko teknika kirurgiko antzinakoak, garatu zirenak gizarte komunaletan, non eskaintzen ziren sexu eta genero aukera malguagoak.

Hori dena honako honetara mugatzen da, funtsean: Pertsona bakoitzak du eskubidea bere gorputza kontrolatzeko. Pertsona bakoitzak ez badu eskubide hori, orduan norik epaitu eta erabaki dezake? Elizaren edo estatuaren eskuetan utzi behar dugu botere hori? Eskubide horiek hauteskunde batzuen menpe utzi behar ditugu?

Eta hori bezain inportantea da niretzat pertsona orok duen eskubidea bere generoa nahi bezala espresatzeko. Egun, ezezagunek ez diete gurasoei galdetu beharrik haien haurra mutikoa edo neskatoa den baldin haurra arrosaz edo urdinez jantzita badago. Estatu Batuetan, genero-kodearen araberrako pixoihalak eta guzti saltzen dira.

Liburu honetarako ikerketa lanak egiten ari nintzela, harritu nintzen ikasteaz ezen «arrosa neskatoentzat, urdina mutikoentzat» esleipena berri samarra zela Estatu Batuetan.¹⁸¹ Joan den mendean, herrialde honetan, haur guztiei jartzen zitzaizkien soinekotxoak, sexua gorabehera, zeinek ez zieten genero espresioa alde batera edo bestera makurtzen umeen belaunaldi haiei. Are gehiago, arrosa-urdina genero balioek justu kontrako norabidea zuten.

«Generoan oinarritutako kolore-eskemak soilik erabiltzen hasi ziren XXgarren mendearen hasieran, eskuragarriago bihurtu zirenean txorrotak, pixoihal berrerabilgarriak eta tindugabetzen ez ziren ehunak» idatzi zuten Vern eta Bonnie Bullough historialariek. «Nolanahi ere, herrialde desberdinek kolore eskema desberdinak hartu zituzten. Egia esan, eztabaida sutsuak

181 Sandra Salmans, «Objects and Gender: when an It Evolves into a He or a She», *New York Times* 16 November 1989: B1.

izan ziren Amerikako prentsa herrikoian, non esan baitzen arrosa maskulinoagoa zela urdin argia baino».¹⁸²

Nola esleitu ziren azkenerako egungo arrosa eta urdina? Estatu Batuetan, arrosa bihurtu zen «neskatoen» kolorea eta urdina «mutikoena» XXgarren mende hasieran, behin zalaparta mediatikoa izan ondoren Henry Edwards Huntington artezaleak eskuratzegatik Thomas Gainsboroughen *Mutil urdina* eta Sir Thomas Lawrenceren *Pinkie* artelanak.¹⁸³

Baina arrosa eta urdina kategoria binarioen problema da ni ez naizela hain aise kolore-kodetzen, ezta ezagutzen ditudan asko ere. Irakatsi didate femeninoa eta maskulinoa direla elkarren kontrako poloak, baina nabilenean New York hiriko metroan edo karriketan, ikusten ditut emakumeak gama batean, femeninotik androgenora eta maskulinora, eta gizonak ere beste gama batean, maskulinotik androgenora eta femeninora. Horrek zirkulu bat eratzen du: askoz ere kontzeptu askatzaileagoa da, ezen ez bi polo, tartean hutsa besterik ez dutena. Zirkuluak badu bere baitan tokia pertsona bakoitzak esplora dezan, eta jendeei eskaintzen die zirkulu horretan mugitzeko askatasuna, bizian zehar, hala nahi badute.

Gaur egun ere, sexu eta genero aukerak hain estuak izanik, hainbeste zigor sozial umiliagarri eta hilgarri izanik sexuaren eta generoaren mugak gurutzatzeagatik, gutako asko ezin gara —eta ez dugu nahi— egokitu. Borrokatu behar dugu pertsona orok izan dezan eskubidea bere generoa nahi bezala espresatzeko. Nork dio geure buruaren espresioa ez datorrela bat geure genitalekin? Nork du eskubidea beste batzuei esateko nola definitu behar duten beren identitatea? Eta nork du eskubidea erabakitzeke zer egin geure gorputzekin? Ez dugu utzi behar askatasun oinarrizko horiek geuri ebastera.

Baina eskubide horiek ezin dira irabazi eta babestu borrokarik gabe. Emakumeen eta transen askapen mugimenduen arteko lotura sendoek are indar handiagoa emanen diote borroka horri.

182 Vern L. Bullough eta Bonnie Bullough, *Cross Dressing, Sex, and Gender* (Philadelphia: University of Pennsylvania Press, 1993) viii.

183 *Ibid.*



Ardhanarishvara, Rajastanen (India).



Uli figura bat, buruzagi baten hiletan erabilia, Lelet Plateaun (Irlanda Berria, Papua Ginea Berria).



Jainkotasun intersexual bat Nepalen.



XV. mendeko *Hermafroditen lurraldea* margolanetik hartua.

HAMALAU

AHIZPATASUNA: EGIZU EGIAZKO!

Konbinaturik sentitu dut neure bizian emakumeen eta transen zapalkuntzaren zama. Biei egin izan behar izan diet aurre, aldi berean. Horren ondorioz, neronen azalean sentitu dut emakumeen eta transen askapenen arteko erlazioa, bien eska-riak gainezarri direlako neure bizian.

Estatu Batu guztietan barna ibili naizenean trans zapalkuntzaren kontra hitz egiten —hasi Tuscaloosan (Alabama), jendez betetako afari autogestionatu batean, eta buka Northamptonen (Massachusetts), entzulez gainezka zegoen unibertsitateko auditorium sekulako batean— adin guztietako emakumeak agertu dira, eztabaidatzeko prest, ea trans mugimenduak nola eragiten dion emakumeen askapenerako mugimenduari.

Elkarrizketa zabaldu behar dugu, zeren emakumeek ez baitituzte soilik ulertu behar berek eta trans jendeak gizartean sufritzen dutenaren arteko loturak; areago, ohartu behar dute emakumeen eta transen askapen mugimenduek elkar behar dutela. Era guztietako sexu- eta genero-zapalkuntzen aurka borrokatu behar da batera, bi mugimenduen indar elkartuekin eta gizartean ditugun aliatu guztiekin.

Trans mugimenduaren garapenak funtsezko auziak ekarri ditu, eztabaidatu behar direnak herrialde guztiko emakumeen komunitateetan. Eztabaida da oinarritzko galdera baten gainekoa: Nola definitzen da *emakumea*? Ematen dugun erantzunak emakumeen askapenaren bidea markatu dezake hamarkadetarako.

Galdera ezin da kontuan hartu ulertu gabe ezen emakumeek aurre egiten dietela halako etengabeko arrisku eta jazarpenei —eguna joan eta eguna etorri—, non emakumea de-



XV. mendeko grabatua: Ipar Ameriketako timicua emakumeak eta Bi Espirituak, elkarrekin jana biltzen.



Acoma herriko mojarro bat, alde banatan dituela senidea eta iloba.

finitzeko saiakera sortzen den eremu seguruen beharrarengatik eta aliatu garbien premiarengatik. Guztiz zilegi den beharra da. Baina nola sor ditzakegu emakumeentzako eremu seguruak?

Nik uste ezen «emakumea» identitatea entitate finko gisa definitzen badugu mugak markatu beharko ditugula, zorrotz zaindu beharreko mugak. Berdin da zer definizio erabiltzen den, barnean behar luketen emakume asko kanpoan geldituko dira.

Ikus dezagun, lehenik, ea nola defini daitekeen edo ezin defini daitekeen emakumea. Emakume batzuek definizio «esentzial» edo biologiko bati eusten diote, emakumea emakume jaiotzen dela. Beste batzuek, beren burua definitzen dutenak konstrukzionista sozial gisa, argudiatzen dute emakumeek esperientzia amankomuna konpartitzen dutela. Ez dut uste emakumeen komunitateak eraiki ditzakegunik, ezta askapen mugimendurik ere, batean nahiz bestean oinarriturik.

Emakumearen definizio biologikoa hartzearen norabidea arriskugarria da emakumeen mugimenduarentzat. Onartzea

Mary Edwards Walker doktorea, AEBetako sufragista, paparrean duela Kongresuaren Ohorezko Domina. «Gurutzatuki janzen» hasi zen 1850eko hamarkadako hasieran, feministen jantzi-erreformaren eraginez. Bowen Unibertsitatetik kanporatu zuten, uko egiteagatik gizonentzat bakarrik zen eztabaida taldea uzteari. Eragozpenak jarri bazizkioten ere, 1863an mediku laguntzaile izendatu zuten Batasunaren armadan, eta soldadu kideen uniforme bera hartu zuten. Gerra ondoan, aukeratu zuten lehendakari Jantzi Erreformatarako Elkarte Nazionalan.



muga biologiko hori izanen litzateke erabateko haustura eragitea emakumeen askapenerako bigarren olatuaren funtsezko gakoarekin, Estatu Batuetan, hots: biologia ez dela patua. Simone de Beauvoirrek idatzi zuen: «Emakume ez da jaiotzen: egin egiten da».¹⁸⁴ Jakintza horren muina da jaiotzako biologiagatik inork ez duela mugaturik egon behar bere bizian. Egia horrek esanahia du trans jende eta emakume guztientzat.

Jakina, emakumeek zapalkuntzari aurre egin diotenez hain bortizki antiemakumea den ingurunean, emakume batzuek marra bat markatzen dute emakumeen eta gizonen artean, emakumeak aliatutzat hartuz eta gizonak etsaitzat. Nahiz ulergarria den pertsona batek horrela jokatzea beldurrez, ikuspuntu okerra da teoria gisa. Horrek talde berean sartzen ditu John Brown eta John D. Rockefeller etsai gisa eta Sojourner Truth eta Margaret Thatcher aliatu gisa. Nortaz fidatu eta nortaz izutu erabakitzeke ikuspuntu hori erabiltzeak ez ditu seguru mantenduko emakumeak, ezta mugimendua norabide zuzenean ere.

184 Simone de Beauvoir, Monique Wittigek aipatu bezala: «One Is Not Born A Woman», *The Straight Mind* (Boston: Beacon Press, 1992) 10. Euskaraz: «Emakume ez da jaiotzen», *Pentsamendu heterozuzena* (Zarautz: Susa, 2017). Ikus, orobat, Simone de Beauvoir, *Bigarren Sexua* (Donostia: Elkar, 2019).



Sexu-langileak ilara egiten kondoak doan hartzeko, sexu seguruaren kanpaina batean, Recifen, Brasilen.

70eko hamarkadan, emakumeen askapenerako mugimenduak egin zigun oparrietako bat izan zen ulertzea ezen emakumeen zapalkuntza instituzionalizaturik dagoela, edo, bestela esanda, sistema ekonomikoaren ganean eraikia. Baina sistema horrek berak tiranizatzen ditu nazio osoak, pertsonak zapaltzen ditu maite dituztenak maitatzeagatik, jendearen gaitasunak ukatzen ditu, pertsonak lanera behartzen ditu kasik heriotzaraino, eta beste asko etxerik gabe eta goseak uzten. Azkenik, baina hau ere munta handikoa, sistema horrek txikitzen ditu emakumearen eta gizonen definizio estuan egokitzen ez direnak.

Gizarteko zatiketa nagusia emakumeen eta gizonen artekoa dela dioen ikuspuntuak eraman ditu emakume batzuk beldur izatera ea emakume transexualak diren ardi-larruz jantzitako gizonak, beren mugak gurutzatu dituztenak, edo ea «andretik gizonerako» transexualak ari diren etsaien lerroetara igarotzen, edo beldur dira nik etsai horren itxura izateaz. Non dago muga intersexualentzat: beren gorputzen erdi-erdian bertan? Jende transa, sexua eta generoa edozein izanik ere, ez dira zapaltzai-leak; haiek, emakumeak bezala, zapalduen artean daude.

Urteak eman ondoren telebista ikusten eta Hollywoodeko filmak kontsumitzen eta aurreiritziz betetako hezkuntza jasotzen, denek gureganatu dugu «normala» izatearen eta ez

izatearen definizio biologikoa. Baina barne borrokaz betetako gizarte batean, biologia bezalako zientzia solidoa ere erabil daiteke desparekotasuna eta zapalkuntza zurrizko. Igelak disezionaltzen ari ginen bitartean, determinismo biologikoa isilka sartzen zen gure ikasgeletan.

Determinismo biologikoa ez da bakarrik onartzea batzuek bagina dutela eta beste batzuek zakila. Da arma teoriko bat, modu sasizientifikoan erabilia, razionalizatzeko arrazismoa eta sexismoa, sexuen banaketa, eta jokabideak aldaraztea genero-espresioa egokitu dadin gorputzetara.

Lehenago arrazoitu dudan bezala, kronika historikoez iradokitzen dutenez, nahiz eta gure arbasoek bazekiten nor jaiotzen zen baginarekin, nor zakilarekin eta noren genitalak ziren alderdi askotakoak, ez ziren determinista biologikoak. Eta nahiz emakumeek ugaltzeko duten gaitasunak lagundu zuen lanaren banaketa orokorra egitera, ez zen muga zurrin eta behin betiko bat, eta ez zen muga bakarra ere.

Egia da ezen emakumeek umeak ekartzeko eta bularra emateko duten gaitasunak askotan lagundu zuela lanaren banaketa orokor bat egitera. Gizakien umeak haurtzaro luzea dute, eta hartan zaindu eta elikatu behar izaten dira. Baina kronika guztiek diotenez, kultura komunaletan, umeen zainketa zeregin kolektiboa zen, ez ama bakoitzaren erantzukizuna, ezta emakume bakoitzarena ere, iaketa emakume guztiek ez zituzten haurrak ekartzen.¹⁸⁵

Iradokiko nuke ez dugula informazio guztia haurren zainketaren gaurko eraikuntza kulturala desafiatzeko. Esaterako, klaseen aurreko gizarte batzuetan, bi gurasoak igarotzen ziren haur bat ekartzearen minaren erritualetik, eta biak ziren umearen zaintzaren arduradunak.¹⁸⁶

Gizarte kooperatiboetako hasierako lanaren banaketari buruzko edozein ikuspegik kontuan hartu behar ditu ehun-

185 Ann Oakley, *Woman's Work: The Housewife, Past and Present* (New York: Vintage, 1974) 170. Papua Ginea Berriko Vanatinaiko egungo haurren zaintza komunalari buruz, *taubwaragha* («ancient»/«way of ancestors») egitura matrilinealaren egitura oinarri hartuta, Maria Lepowsky, «Gender and Power», *Fruit of the Motherland: Gender in an Egalitarian Society* (New York: Columbia University Press, 1993) 281-306. Laburpen gisa ikus John Noble Wilford, «Sexes Equal on Sout Sea Isle», *New York Times* 29 March 1994: C1, 11.

186 Ann Oakley, *Sex, Gender and Society* (New York: Harper & Row, 1972) 134-35.

ka zientzialari sozialen lanak, non jasotzen baita bazirela ehizan aritzen ziren «emakumeak» hasierako gizarte kooperatiboetan, eta gizon gisa onartuak zirenak, eta bazirela, orobat, emakumeen artean lanean aritzen ziren «gizonak», emakume gisa onartuak zirenak. Hortaz, zergatik jarraitzen dute antropologoek esaten emakume ehiztariak zirela eta gizon biltzaileak, batez ere baldin haien biologia «aldaeziaren» seta hori kontraesanean badago pertsona haiek gizartean onartuak izatearekin?

Horrenbestez, nahiz ugalketak markatzen zuen hasiera batean giza lanaren banaketaren muga, ez zen muga erabakigarri bat sexua/generoa determinatzeko. Gizarte komunal askok onartzen zituzten bi sexu/genero baino gehiago, eta pertsonen ahalbidetzen zien beren lekua topatzea espektro horretan.

Guk «gizonetik andrerako» transexual deituko genituen horiek, hasierako gizarteetan, hileko errituala zuten, eta erabiltzen zituzten emakumeen hilekorako agindutako hostoak». ¹⁸⁷ Horrek esan nahi du emakume guztiak zutela harremana ugalkortasunarekin eta jaiotzarekin, baita zakilarekin jaiotakoek ere. Ipar Amerikako mohaveen gaineko 1937ko kronika batean, Alfred L. Kroeberrek deskribatzen du «gizonetik andrerako» inimiziazio erritu bat, hamar-hamaika urteko haurrentzat, eta, antropologo zuri baten bidez jaso badugu ere, alde handia erakusten du Mendebaldeko ikuspuntu nagusiarekin, zeinaren arabera sexua/generoa jaiotzan finkatzen den.

Goizean, bi emakumek gaztea hartzen dute eta kanpora ateratzen. Kantarietako batek gona jartzen du eta dantzan doa ibaira, lau pausalditan, eta gaztea jarraikitzen zaio eta imitatzen du. Gero, bainatzen dira. Ondoren, bi emakumek gazteari ematen dizkiote soineko berriaren aurreko eta atzeko piezak, eta aurpegia zuriz pintatzen diote. Lau egun geroago berriz margotzen dute, eta jada *alyha* da. Halako pertsonen emakumek bezala egiten dute solas, irri, irribarre, emakumeak bezala esertzen dira eta haiek bezala jokatzeko dute. ¹⁸⁸

Zeremoniaren ondoko kronika batek erakusten du emakumeen izenak ere hartzen dituztela. Gainera:

187 J. H. Driberg, *The Lango: A Nilotic Tribe of Uganda* (London: T. Fisher Unwin, 1923) 210.

188 Alfred L. Kroeber, «Handbook of the Indians of California», *Bureau of American Ethnology Bulletin* 78 (1925) 748-49.

Eskatzen zuten beren genitalen hitz egin behar zela emakumeei dagokien terminologiarekin. Senarra topatu ondoren, hilekoa simulatzen zuten hanka tartean makil batekin igurtziz odola atera arte. «Haurdun» zeudenean, «menstruazioa» eteten zen. «Erditu» aurretik, babarrunez egindako prestakin bat irensten zuten, eragiten zizkienak urdaileko min bortitzak; «erditzeko minak» deitzen zieten. Ondoren, defekazio bat izaten zuen, zeinari «hilik jaioa» deitzen baitzitzaion, eta gero lurperatu egiten zuten zeremoniatsuki. Ondoren, dolu denbora bat etortzen zen senararentzat eta «emaztearentzat».¹⁸⁹

Espektroko beste muturrean, idazkietan jaso dago bazi-rela, gizarte komunalean, emakume jaiotako gizon ehiztariak, ustez hilekorik ez zutenak.¹⁹⁰ Hala, gizon guztiak —baita baginarekin jaiok ere— ikusten zituzten emakumeen ugalketa zirkulutik kanpo.

Kontra egin behar diogu ideia horri zeinaren arabera emakumeen eta gizonen arteko lanaren banaketak, gizarte komunalean, utzi baitigu gaur egungo sexu eta genero sistema estua. Ebidentzia askok erakusten digute ezi klaseen aurreko gizarteetan errespetatzen zirela askoz ere autoespresio bide gehiago. Komunalismoaren eraispenak eta ondorengo gizartea klaseetan zatitzeak ekarri zuten sexuaren bereizketa, eta legez kanpo utzi zituzten muga artifizial horien era guztietako lausotzeak. Eta, egun, murrizketa arbitrario eta inhumano horiekin gelditu gara.

Transen eta emakumeen geure historiak osoki elkarri lotuta daude. Iraganean, emakumeak eta transak ohoratzen ziren guztietan, aurki zenezakeen produkzio kooperatiboa, komunala. Eta emakumeak eta trans jendea apaltzen dituzten gizarteak jada klaseetan zatiturik daude, zeren bereizketa patriarkal horiek eskatzen baitute sexuaren eta generoaren kategorizazio zurruna.

Baina hori ulertzeak nola laguntzen digu gaur? Ukatzen badugu muga biologiko finko bat emakumea talde gisa definitzeko, zer esan daiteke emakumeek zapalkuntza amankomuna

189 George Devereux, «Institutionalized Homosexuality of the Mohave Indians», *Human Biology* 9 (1937) 498-527, apud. Richard Green, *Sexual Identity Conflicts in Children and Adults* (New York: Basic Books, 1974) 10.

190 C. Daryll Forde, «Ethnography of the Yuma Indians», *University of California Publications in American Archaeology and Ethnology* 28 (1931) 157; eta Edward Winslow Gifford, «The Cocopa», *University of California Publications in American Archaeology* 31 (1933) 294.

konpartitzen dutela dioen ikuspegiak? Uste dut hori ere ikuspegi arriskugarria dela, estal ditzakeena arrazismoa eta klase zapalkuntza.

Estatu Batuetan, bi korronte zabal agertu ziren emakumeen askapenaren bigarren olatuan. Bata ordezkatzzen zuten feminista horiek zeinek analizatzen zuten emakumeen zapalkuntza ikuspuntu sozialista-materialista batetik, eta, bestea, emakumeen eraikuntza psikologikoa aztertzen zutenek. Bi adarrek identifikatzen zituzten emakumeak zapalkuntzak definitutako talde gisa. Bi korronteek onartzen zuten ezen determinismo biologikoaren argudioak erabili izan zituztela agintari patriarkalen klaseek, mendeetan, arma gisa, emakumeen zapalkuntza justifikatzeko.

Nolanahi ere, feminismoaren gorakada izan zenetik, «emakumearen» definizioa gero eta gehiago lotu da gorputzaren esperientzia konpartituekin, esaterako bortxaketekin, intzes-tuarekin, haurdunaldi behartuarekin eta zanpatua izatearekin. Horrek berekin dakar onartzea ezen, maiz, zapalkuntza fisiko hori, zeina baita gorputz biologikoki femeninoa izatearen ondoriozkoa, dela «emakumetasunaren» elementu erabakigarria. Baina ez dute emakumeek soilik sentitu bortxaketen, intzes-tuaren, umiliazio sexualaren eta basakeriaren izugarrikeria. Eta planeta honetan emakume gehienek konpartitzen dituzten gorputz-esperientzia amankomunak dira ura eta egurra garraiatzea, edo muntaketa-lerroan lan egitea: klase esperientziak dira horiek.

Emakume guztiek konpartitzen al dituzte esperientzia berberak gizartean? Zer esan «gizonetik andrerako» emakume transexualak, zeinek lagundu baitute emakumeen mugimendua eraikitzen urteetan? Emakumeen zapalkuntza jasaten dute egunero, baita orduero ere. Beraz, emakumeen zapalkuntza jasateak definitzen badu emakume izatea, zenbat denboraz sufritu behar duzu «talde barnean» egoteko? Lesbiana askok heterosexuallitateko garai luzea igarotzen dute armairutik atera aurretik. Norbaitek argudiatuko ote luke lesbianen bilkuretatik kanpo egon behar dutela heterosexuallak izan zirelako prestakuntza-urteetan?

Esperientzia berberak konpartitzen al dituzte emakume zuriek eta zuri ez direnek? Esperientzia berbera al dute ema-

kume pobreek eta aberatsek? Eta zer esan desgaitasuna duten emakumeek, emakume ezkongabeek, lesbianek eta emakume gorrek dituzten esperientziez? Emakumeek pairatzen dituzte miseria eta esperientzia oso diferenteak. Geure esperientzia guztien batuketa eta ondoriozko indarren eta ikasgaien batuketa dira gizarte honetan «emakume» izateko dauden modu askotari-koen zati txiki bat baino ez.

Berriki, kafe bat hartu dut nerabetatik ezagutzen dudan batekin. «Ez zaitut emakumetzat hartzen» esan zidan franko alaiki, «baizik oso-oso gizon sentsibletzat: hain sentsible diren horietakoa non ez diren egiaz existitzen». Galdegin nion ea nola iritsi zen kategorizazio horretara.

«Bueno», esan zuen, «neska nintzen aldetik egiazko bo-tererik gabe handitu nintzen. Beraz, ikasi nuen nola erabili emakume izatea gizonen boterea saihesteko, eta ez zaitut zu ikusten gauza bera egiten».

Benetan esan nahi zuena zen ikasi zuela «femeninoa» iza-ten gizonen boterea saihesteko. Baina ni oso maskulinoa izanez handitu nintzen; hortaz, neska femeninoek, munduan ibiltzeko, garatutako trebetasun konplexu eta boteretsu sortak ez zuen baliorik niretzat. Oso bestelako trebetasun sorta ikasi nuen nik, horietako batzuk martzialak. Nahiz biak neska gisa hazi, geure esperientziak desberdinak ziren, geure genero espresioak oso desberdinak zirelako. Neska eta emakume maskulinoek aurre egin behar diete gaitzespen eta basakeria izugarriari —barnean dela bortizkeria sexuala— gurutzatzeagatik emakumeen es- presioan «onargarria» denaren muga. Baina uste da emakume maskulinoek ez dugula kontzientzia handirik emakumeen za- palkuntzaren kontra borrokatzeaz, uste baita gizonak imitatzen ditugula.

70eko hamarkadan emakumeen mugimenduak aztertu zituenetik gizarte honetan maskulinitateari eta feminitateari atxikitako balio negatiboak, batzuek uste izan zuten askapena oinarritu zitekeela autoespresio eta janzkera generorik gabekoak sortzean. Baina, bistan da, androginia ere zen genero espresio-ko espektroko beste puntu bat.

Eta, oroitzen nola dioen esaerak: ez juzga edaria ontzitik? Bada, ez juzga pertsonaren kontzientzia orokorra haren genero espresiotik.



- * 1. bineta:
 Arratsalde aspergarri bat zineman...
 -Aizue, kaka hutsa zen!
 -Dirua itzultzeko eskatzerik izanen dugu?
 -Ez, kaka zahar guztia irentsi ondoren. Zaudete, bai? Pixa egin behar dut.
 Liburuan: *Mendekatzaile lesbianak*.
 Atearen gainean: 3. Areta: Sukaldariaren, ebaslearen, haren andrearen eta haren amaren itzulera
2. bineta:
 -Lois, nik ere joan beharra dut, baina minutu bat itxoin nahi dut. Badakit Jillian legala dela, eta lan handia egiten ari dela mendekatzaileekin eta, baina ez dakit...
 Oraindik ere arraro samar sentitzen naiz komuna erabiltzen GIZONA izandako batekin.
 -Mo! Ez naiz hemen egonen gau guztia zuk TRANSFOBIA atake bat izateagatik!
 Gaititu ezazu, eta egin pixa, edo zu gabe alde eginen dugu!
 Atean. Emakumeak
3. bineta:
 -BARKATU! Ez al zaude okerreko komunean?
 -Horixe ezetz! Begiratu hobeki, maitea!
4. binetan:
 -O... Eskerrik asko, Jillian. Gauza bera eginen nuen zuregatik, badakizu.
 -Eskerrik asko, baina ez dut problema askorik emakumeen komunean, behintzat ez
 «Inork ez daki transexuala naizela» zioen kamiseta higatu zitzaidanetik.

Komiki hau, Borrokalarri transgeneroak libururako bereziki egina, Alison Bechdel komikilariarena da. Oso ezagunak diren Dykes to watch out for (Kontuz ibiltzeko moduko lesbianak) komikien egilea da.

Horrez gainera, generoa ez da heldu bi markatan, perfumea eta kolonia bezala. Har dezagun maskulinitatea esaterako, batez ere zeren maskulinitatea lotzen baita gizon batzuen jokabide basa eta zakarrarekin. Ordea, gizon guztiak ez dira era berean jantzen, mugitzen eta aritzen. Gizon afroamerikar zapalduen maskulinitatea ez da Ku Klux Klaneko kideen maskulinitatea bezalakoa. Generoa desberdin adierazten da nazio, kultura, eskualde eta klase desberdinetan.

Eta dena delako talde bereko gizon guztiek ere ez dute beren maskulinitatea modu berean adierazten. Berriki izandako hitzaldi batean, ohartu nintzen entzuleen artean zegoen gizon oso maskulino batean, baina haren genero espresioan bazen zerbait arreta erakarri zidana. Geroago elkartu ginenean, esan zidan bere maskulinitatea ikasi zuela emakumeengandik: mari-mutilak izan zituen gidari gazte gaya zela. Maskulinitate zapaldu baten aldaera bat ikasi zuen.

Femenino direnek —gizon nahiz emakume— ez dituzte gauzak samurragoak, beren genero espresioei buruzko aurreiritziak dagokienez. Neska eta emakume femeninoek jasan behar izaten dute sexu eta indarkeria jazarpen handia beren genero espresioagatik bakarrik. Emakumeen kontrako gorrotoaren zati handi bat oinarritzen da feminitatearenganako jarreretan. Eta *femme* espresioaz orokorkeria intolerante asko esaten da, esaterako: «Zenbat eta altuago takoiak, apalago adimena; zenbat eta altuago gona, apalago ohorea». Hala, uste da emakume *femmeek* ez dutela kontzientzia handirik emakumeen zapalkuntzaz.

Eta zer esan «afeminatutzat» hartutako gizonen? Feministek seinalatu izan dute etiketa hori berez dela antiemakumea. Baina da, orobat, antitrans, generofobikoa eta antifemeninoa.

Gizon femeninoen zapalkuntza inportantea da niretzat, zeren ahizpatzat hartzen baititut *drag queenak*. Emakumeak aditu izan ditut *drag queenak* kritikatzin «emakumeen zapalkuntzaz irri egiten dutelako», feminitate muturreko bat imitatzen dutelako, niri esan zaidan bezala gizonak imitatzen ari naizela. Feministak arrazoi guztiz daude haserre emakumeen zapalkuntzarekin —baita ni ere!—. Uste dut, hala ere, *drag queenak* salatzen dituztenek okerreko taldea hartu dutela jopuntuan.

Gaizki ulertze horrek ez du kontuan hartu genero zapalkuntza. Adibidez, «gizonetik emakumerako» *drag* artistak

kritikatuta, baina kontuan hartu gabe genero zapalkuntzaren gaineko eztabaida, talde berean sartzen dira RuPaul *drag queena* eta John Wayne bezalako antzezleak! Ru Paul genero zapalkuntzaren biktima da, baita arrazismoarena ere.

Desberdinak dira *drag* jendea eta emakumeen imitazio krudelak egiten dituzten gizonak. Bohemian Grove, esaterako, da Estatu Batuetako aberats eta boteretsuen klub bat, non komediazko *cross-dressing* antzezpenak egiten diren. Baina hori ez da *drag* antzezpen bat. Maiz, «gurutzatuki jantzitako» gizon maskulinoen komedia parodikoak dira aldi berean *antidrag* eta *antimakumeak*.

Egia esan, *drag* antzezpen bat izateko beharrezkoa da pertsona transgeneroak egotea fokuen aurrean. Askotan, *drag* antzezpenak eskatzen ditu pertsona ospetsu bat imitatzeko trebetasunak, esaterako Diana Ross edo Judy Garland, baina *drag* antzezpenaren funtsa ez da beste sexuaren imitazioa. Genero espresio zapaldu baten aurkezpen kulturala da.

Geure zapalkuntza eta identitateak —*drag queen* eta *drag king* garen aldetik— ez dira soilik oinarritzen gure janzkeran. «*Drag*» hitzak «*cross-dressing*» edo «janzkera gurutzatua» esan nahi du jende gehienarentzat. Definizio horren arabera, gu gara ustez beste sexuarenak diren arropez moztorra gisa beztitzen garen pertsonak. *Drag* hitzak [«arrastatu», ingelesez] jatorria omen du antzokietako hizkeran, hain zuzen ere gizonek erabiltzen zituzten soinekoen dindirri luzearen arrastatzean. Baina egiaz, geure genero espresioak, ez arropek, taxutzen dute nor garen.

Espero dut trans askapenerako mugimenduak ekarriko duela sexu eta genero zapalkuntzaren ulermen handiagoa. «Gizon» eta «emakume» kategoria sozialei atxikitako karga kulturala agerian uzteko borrokan, denak izanen gara onuradun.

Horrez gainera, emakumeen mugimenduak aukera du sekulako ekarpena egiteko, sexu eta genero zapalkuntza sufritzen duen ororengana iritsiz. *Drag queenek* eta *drag kingek*, eta emakumeen askapenerako mugimenduaren parte izan ez diren emakume askok, ez dute nahitaez izan behar hogeitaz aldaketarako mugimenduan aritu direnen kontzientzia bera. Baina horrek ez du esan nahi ez dutenik beren zapalkuntza sentitzen, edo ez dutenik beren askapenaren alde borrokatu nahi.

Nire kontzientzia taxutu zuen emakumeen askapenerako mugimenduak agerian utzi zuen emakumeen zapalkuntza instituzionalizatua. Agerian utzi zuen desperekotasuna adinean oso goiz hasten dela. Baina mutikoei eta neskatoei gauza desberdinak irakasten zaizkiela ikustearekin bakarrik argi gelditzen da sexu zapalkuntzaren analisi orokor bat. Neskek jasotzen dituzten bezala mezu desberdinak segun diren femeninoak, maskulinoak edo androginoak, mutilei ere gauza bera gertatzen zaie. Zentzugabea da uste izatea emakumeak gorrotatzeko eta gizona pribilegiatzeko mezuek kontzientzia bera eragiten dutela mutil gazte batengan zeinak baitaki izanen dela «matxo sanoen klubekoa» eta beste batengan zeinak beldurra dien beste gizonen umiliazio eta indarkeriari. Baldin «gizonetik andrerako» transexual emakumeen kontzientzia taxutuko balitz, txikitatik, «gizonaren pribilegioan», orduan zergatik egingen liokete uko?

Zein da haur baten kontzientzia, baldin sexu bat esleitu bazitzaion jaiotakoan, baina handitzen bada beste sexu batekin irmo identifikaturik? Aztertu behar dugu zenbat modu dauden emakumea edo gizona izateko, eta genero zapalkuntzak nola eragiten duen sexu-rolaren baldintzapenak konplexuagoak izatea.

Emakumea gorrotatzen duen gizarte honetan emakume gisa bizi den orok egunero egin behar dio aurre zapalkuntzari, eta merezi ditu bai beste emakume batzuekin egotearen babesa, bai emakumeen mugimenduaren botere kolektiboa.

Emakume guztiek egon behar dute borrokako lehen leerroan gizarte honetako sexu eta genero zapalkuntza guztien kontra, eta, orobat, generofobia- eta transfobia-espresio guztien aurkako borrokan. Modu sinplean esanda, elkarrekin doazen bi gaitz horiek dira txiki-txikitatik irakatsi zaizkigun aurreiritziak. Generofobiak jopuntuan ditu femeninoak ez diren emakumeak eta maskulinoak ez diren gizonak. Transfobiak eragiten du beldurra izatea sexua aldatzeari. Emakume guztiek borrokatu behar dute horien kontra, baita gizarteko gainerako kideek ere.

Bortxaketako superbibienteak naizen aldetik, ulertzen dut espazio seguru batean elkarrekin egoteko beharra, eraso sexistetatik eta indarkeria potentzialetik salbu. Baina ezin onartu da genero barietateari zaion beldurra mozorrotzea emakumeen

segurtasunerako afera gisa. Gogora etortzen zaidan adibiderik hoberena da nik neuk eta nire lagun mari-mutilek bizi izan ditugunak emakumeen komunetan. Horixe emakumeek seguru sentitu behar dutela komun publikoetan; oso gai serioa da. Hala, gizon bat haietara sartzen denean, emakumeek berehalakoan aztertzen dute egoera, ikusteko ea gizonak dirudien lotsatua eta nahasia ala mehatxagarria; erabiltzen dituzte gizarte honetan neskato zirenetik ikasi dituzten trebetasunak, gorputz-hizkera irakurtzeko eta segurtasuna edo arriskua identifikatzeko.

Ordea, zer gertatzen da mari-mutilak emakumeen komunetan sartzen direnean? Emakumeek elkarri ukondokada eman, edo begie z gora begiratzen dute, eta burlaz esaten: «Bai al dakizu zer komunetan sartu zaren?» Emakumeek ez dute horrela jokatzeko egiaz uste baldin badute gizon bat sartu dela komunetan. Egoera horrek ez du zerikusirik emakumeen segurtasunarekin: generofobiaren adibidea da.

Eta orain, galdegin zeure buruari: emakumeen komunetan baldin bazaude, eta bi nerabe *drag queen* baldin badaude ezpainak pintatzen ispiluaren aurrean, arriskuan egonen zinateke? Poliziak deituko bazenitu, edo *drag queen* horiek behartuko bazenitu gizonen komuna erabiltzera, seguru egonen ote lirerateke?

Baldin komunak segregazioak zerikusia badu genitalekin baino gauza gehiagorekin, orduan beharbada seinaleak honela irakurri beharko lirerateke: «Gizonak» eta «Sexu eta genero aldetik zapalduak»; zeren denek behar baititugu komun seguruak. Edo, are hobea, borroka gaitezen banakako komun garbien alde, non atean «komuna» besterik ez den irakurriko.

Eta ahizpa transexualak emakumeen eremuan sartu ahal izatea defendatzea ez da mehatxua inongo emakumeren segurtasunerako. HIESari buruzko mugimendua, adibidez, borrokatu zen eskuindarrek gizon gayak «arrisku handiko talde» izendatzearen kontra. Ulertu genuen ez dagoela arrisku handiko talderik, baizik arrisku handiko jokabideak. Horrenbestez, emakumeen eremuan segurtasuna sortzeak esan nahi du jokabide ez seguruak definitu behar ditugula; esaterako, emakume zuriek koloreko emakumeengana dituzten jokabide arrazistak, edo sentsibilitate falta arriskugarriak desgaitasunenganako.

Emakume transexualak ez dira Troiako zaldiak emakumeen eremuetan infiltratu nahian. Beti izan dira emakume



Tala Candra Brandels: «Biologia ez da patua». Loren Cameronen argazki erakusketa honetakoa: «Geure ikuspegia, geure ahotsak: transexualen erretratuak eta biluziak».

transexualak emakumeen mugimendua eraikitzen lagundu dutenak; oro har, emakumeen bilkura handi guztien parte dira. Emakumeen eremuan ongi etorriak izan nahi dute, emakume orok nahi duen arrazoi berberarengatik: seguru sentitu nahi dute.

Eta «andretik gizonerako» anaia transexualek eskubidea dute ongi etorriak sentitzeko emakumeen mugimenduaren ekitaldietan nahiz lesbianen tabernetan. Hala ere, ez genuke elikatu beharko okerreko uste hori zeinak baitio «andretik gizonerako» transexual guztiak direla mari-mutilak, ezin izan dutenak jasan lesbianen zapalkuntza. Hori hala balitz, zergatik daude hainbat gizon transexual trantsizioaren ondoren identifikatzen direnak gay edo bisexual gisa, aukera izan baldin bazuten heterosexualen edo bisexualen estatusa izatea trantsizioaren aurretik? Badira gizon transexualak lagundu zutenak emakumeen eta lesbianen komunitateak eraikitzen, eta oraindik ere horietan lagun asko dituztenak. Emakumeen sostengua izan beharko lukete beren bidaian. Ez al ditugu denek lagunak inguruan nahi aldaketa handiko garaietan? Eta emakumeek asko ikasi lezakete gizona

edo emakumea izatearen esanahiaz trantsizioaren ikasgaiak konpartituz.

«Emakumearen» inguruko mugak lubaki bihurtzen badira, zer gertatuko da jende intersexualekin? Egiaz finka dezakegu «emakume» jaiotzeari buruz guztiz argia den politika bat? Eta bada jende asko, esaterako ni neu, emakume jaio direnak baina gogaitu izan dituztenak aski emakume ez izateagatik. «Gizonen energiaz» gainezka egoteaz salatu gaituzte. Zaintzeko izugarri muga subjektiboa da hori. Emakume guztiek konpartitzen al dute —edo konpartitu beharko lukete— «energia» bera?

Erabaki behar baldin badugu nor den «egiazko» emakumea, nor boteretu beharko genuke erabakitzeko, eta nola ezarriko lirake kontrol postuak? Denek biluztu beharko genuke? Nola esanen zenuke bagina bat ez dela berriki egina? Geure jaiotza-agiriak erakutsi beharko genituzke? Nola segurtatuko zenuke ez direla gaurkotuak izan sexu-berresleipen baten ondoren? DNA testen bidez? Olinpiadetan saiatu ziren, baina hainbeste emaitza faltsu jaso zituzten, non itzuli behar izan zuten pertsona ikustera baso batean pixa egiten, bai drogen probarako bai «sexuaren» probarako.

Ulertzen dut beharrezkoak izan zirela 60ko eta 70eko hamarkadetako inarrote politiko izugarriak emakumeen zapalkuntzaren mugak zehazten hasteko soilik. Handitzen ari nintzela, inor ez zen ohartzen ere sistema emakumeen kontra antolatua zegoela. Baina emakumeen askapenerako mugimenduak biluzik utzi zuen gizartean azpiraturik gauzkan zapalkuntza makinaria. Ez nau zapaltzen zure ezpainetakoak, ezta zure gorbatak ere, ezta zure sexua aldatzeak, ezta zeure izaera espresatzeko duzun moduak ere. Sistema ekonomiko batek zapaltzen gaitu gizarte honetan, eta elkarren kontra borrokan mantentzen, begiratu ordez azpiratze horren egiazko iturriari.

Trans mugimendu modernoa ez da higitzen ari emakumeen zapalkuntzaren mugak. Historian zehar, lur eta ozeano berriak deskubritu diren bakoitzean, mapak beti birmarrastu dira, elkarren arteko erlazioak erakusteko. Trans askapenerako mugimendu modernoa mugak birmarrastzen ari da, erakusteko gizarte honetako sexu eta genero zapalkuntzaren luze-zabala. Etsai amankomun horrek egiten ditu emakumeen eta transen mugimenduak ahizpa-mugimendu, justizia sozialerako.

Zer esan nahi du emakume izateak gizarte honetan? Zenbat bide diferentek eramaten dute emakume izatera? Zenbateraino dira askotarikoak geure esperientziak, eta zer dugu amankomunean? Ez al da hau behar dugun eztabaida emakumeen mugimendu dinamiko bat eraikitzen segitzeko? Eta, are, ezin has gaitzek ere hori dena aztertzen harik eta emakume gisa identifikatzen diren guztiak mugimenduan egon arte. Definizio batek ez du espazio seguru bat sortuko. Definizioek eremu aski ez-seguruak sortu dituzte emakume jaio ginen askorentzat.

Ireki ditzagun ateak emakume gisa identifikatzen den ororentzat, eta emakumeen eremuan egon nahi dutenentzat. (Emakume guztiek ez dute nahi). Mantez dezagun atea giltzez itxi gabe. Elkarrekin, taktikak eta estrategiak marraz ditzakegu mugimendua eraikitzeko. Eta zentzuzko arau oinarritzko batzuk ezar ditzakegu erabakitzeke zein diren jokabide ez-seguruak.

Zein izan beharko luke emakumeen mugimenduaren atean irakurri beharko litzatekeen ikurra? Nire ustez, garaipenerako gakoa dira honako lau hitz sinple hauek: «Emakume guztiak ongi etorriak».

Baina emakumeen kontrako zapalkuntzari aurre egiteaz gain, identifikatu behar ditugu sexu eta genero zapalkuntzako beste agertoki batzuk, eta defendatu, eta borroka are zabalagoa antolatu. Emakumeen eta transen askapenerako mugimenduak eraturik daude populazio eta helburu gainezarriez. Agian, justiziarako geure bi mugimendu handien batasunak ekarriko du mugimendu berri baten sorrera, bere barnean hartuko dituen sexu eta genero zapalkuntza mota ororen kontrako borroka.

Emakumeen, trans jendearen eta gure aliatu guztien botere batuek ekar dezakete Sexu eta Genero Askapenerako mugimendu boteretsu baten jaiotza!

RESOLUTION

WHEREAS, gender discrimination is at the heart of Feminist politics;

WHEREAS, the Transgendered and Transsexual Communities confront the same gender system that oppresses women and therefore are the target of marginalization, loss of medical care and economic and civil rights;

WHEREAS, there is a lack of understanding and information on the issue;

THEREFORE LET IT BE RESOLVED that NOW-NJ adopt a policy that supports the lives and identities of Transgendered and Transsexual people;

LET IT FURTHER BE RECOMMENDED that NOW-NJ chapters examine current policies and practices that discriminate against the Transgendered and Transsexual Communities and engage in dialogue with organizations and groups fighting for the rights of Transgendered and Transsexual people.

LET IT ALSO BE RECOMMENDED that this resolution be submitted to the National NOW Conference in 1995.

*

* Ebazpena

Genero diskriminazioa dagoenez politika feministen muinean; Transgeneroen eta Transexualen Komunitateek aurre egiten dietenez emakumeak zapaltzen dituen genero-sistema berari, eta, horrenbestez, bihurtzen dituzenez bazterketaren, zaintza mediko faltaren eta eskubide ekonomiko eta sozial gabeziaren xede;

Gaiaren gaineko ulermen eta informazio falta dagoenez;

HORRENBESTEZ, EBATZ BEDI ezen NOW-NJ erakundeak bere egiten duela politika bat zeinak sostengua emanen baitie jende Transgeneroaren eta Transexualen bizitzei eta identitateei;

ARE, AGINDU BEDI ezen NOW-NJ erakundearen atalek azter ditzatela Komunitate Transgeneroak eta Transexualak baztertzeko dituzten politikak eta praktikak, eta konpromisoa har dezatela elkarriketa izateko jende Transgeneroen eta Transexualen eskubideen alde borrokatzen diren erakunde eta taldeekin.

OROBAT, AGINDU BEDI ebazpen hau igor dadila 1995eko NOWren Biltzar Nazionalera.

Trans bizien eta identitateen aldeko ebazpena, onetsi zena 1994ko urrian, Emakumeen aldeko Erakunde Nazionalaren New Jerseyko (NOW-NJ) estatu-biltzarrean.

HAMABOST

HISTORIA EGINEZ

Borrokarik gabe, ez dago aurrera egiterik. Aldarrikatzen dutenek askatasunaren alde daudela, baina agitazioa mespretxatzen dutela... uzta nahi dute goldatu gabe. Euria nahi dute ostotsik eta tximistarik gabe. Ozeanoa nahi dute bertako uren orro izugarririk gabe... Botereak deus ez du ematen aldarrikapenik gabe. Ez du sekula eman, eta ez du sekula emanen.

Frederick Douglass

Milurtekoetan isildua eta pertsegitua izan den jendea antolatzen eta aldarrikapenak adierazten hasi den aldiro, zapalkuntzak kolpatutako beste batzuek burua goratu dute eta airea usaindu, instintiboki sentituz aldaketaren haize freskoa dabilela.

Aldaketa da jende gehienak desiratzen duguna, batez ere sufritzen ari garenean, baina ez dugu espero behar nahitaez etorriko den zerbait denik. Denek aditu izan ditugu letania zinikoak: «Gobernuaren kontra ezin duzu», edo «Gauzak zenbat eta gehiago aldatu, orduan eta gehiago bere horretan». Eta irakatsi izan digute gaur egun gauzak daudela alde-aldera beti egon diren bezala: hezur batengatik zakurrak borrokan.

Baina gezur zikina da! Aldaketa eta eboluzioa dira existitzen diren pertsona eta gauza guztien ezaugarriak, baita gizartearenak ere.

Liburu honetan aurkeztu dudan historia da nik dudan granitozko oinarria sinesteko zapalketa ez dela gizateriaren etorkizuna. Munduaren historia egiazki gu denen eskura egon izan balitz, bizioan goizik irakatsiko ziguten ezen gure arbasoak bizi izan zirela gizarte batzuetan non harreman sozial askoz ere humanoagoak zeuden geureak baino. Horrek bakarrik, berez,

gutako askori eman izanen zigun konfiantza nahikoa gizartea aldatzeko daukagun gaitasunean.

Orobat, ni adoretuta nago oharturik ezen sexu eta genero bariazioaren kontrako gorrotoa ez dagoela errotua giza izaeran. Zenbat eta gehiago sakondu, orduan eta gehiago aurkitzen dut ezen —nahiz eta gaur egun generotzat duguna espresatu izan den diferenteki garai historiko, kultura, eskualde, nazio eta klase desberdinetan— antza, beti izan dela genero dibertsitatea giza populazioan. Halaber, ebidentziek agerian uzten dute sexuak ez direla beti indarrez eta arbitrarioki sartu «emakume» eta «gizon» kategoria zurrun eta behin betikoetan, eta sexuen arteko fluido-tasuna antzinatek heldu den gauza dela.

Informazio hau dena aurkeztu dut, bildu dudana milaka liburu, entsegu, ahozko kronika, artikulua eta beste iturri batzue-tatik, trans jendea ohoratu izan dituzten gizarteei buruz. Eta ikuspegi orokor bat eman dut trans jendeak jasandako zapal-kuntzaz esklabotza garaian, feudalismoan eta kapitalismoan. Informazio hau dena ikusirik, trans askapenerako geure mugi-menduak aztertu behar ditu zer egitura ekonomiko zeuden trans jendea ohoratzen zuten gizarteetan eta zer egitura ekonomiko zeuden gaitzetsi izan dituztenetan. Garaia da hitz egiteko klase zatiketaz, zeren daukatenen eta ez daukatenen gizartea oinarritzen baita horrexetan: zatiketean.

Urte bateko eskalan, giza historiaren 360 egun baino gehiago dagozkio bizimodu kooperatibo eta komunalari, eta hori jakiteak esperantza zehatza ematen dit lor daitekeenaz, gaur egun existitzen diren tresna eta teknologia boteretsuekin, baldin produkzioa planifikatzen badugu denen beharrak betetzeko, kontuan hartu gabe errentagarritasuna. Etekinak lortzeko lasterketa ezabatzen badugu fabrikaziotik eta truketik, suntsitzen dugu jendea elkarren kontra jartzeko *arrazoia*.

Jendeak kooperatiboki lan egitea, jabetza kolektibokoak diren tresnekin eta beste material batzuekin: horrexen ondorio da giza bariazioa onartzea eta errespetatzea, barnean dela sexu eta genero dibertsitatea. Baina gaur egun, gure inguruan, bizia sostengatzen duen guztia —fabrikak, nekazaritzarako makinak eta lurrak, ospitaleak, laborategi zientifikoak— eraiki zen giza-kien lan kolektiboaren bidez, eta, hala ere, gehiena da banako batzuen jabetza pribatua.



Atxilotu batzuk, 1962ko urrian. Barietateen Artisten Elkarte Nazionala egiten ari zen Inauteri eta Dantzaldi Exotikoa Manhattan Centerren, eta poliziak jendeketa atxilotu zuen sarekadan.

Berriki, *New York Times*eko azalean agertzen zen artikulua batek zioen ezen Estatu Batuetako familien ehuneko batek zeukala astero-astero denek produzitzen dugun aberastasunaren ehuneko berrogei. Izan ere, *Times*ek ohartarazten zuen ezi Estatu Batuetan aberatsen eta pobreen polarizazioa handiagoa zela beste inongo herrialde industrializatutan baino.¹⁹¹ *Times*ek idatzi ez zuena da aberatsak aberatsago bihurtzen direla pobreak pobregoa direlako. Kausa-efektu inportante baten omisioa da!

Wall Streeten mezulari ari mintzela, duela urteak, oroitzen naiz nola ikusi nuen gizon zahar bat, zarpa zikinez jantzirik, zaborrontzi batetik jaten, ondoan zuela limusina luze eta dotore bat. Bihotz oneko pertsona batek pentsa lezake ezen halako desperekotasun ekonomiko deigarrien konponbidea izanen litzatekeela aberastasuna birbanatzea aberatsengandik pobregana.

Monopoly jokoan aritu den edozeinek badaki ezen jokoaren bukaera aldera diru gutxi baldin baduzu galdu egiten duzula. Baita baita bankariak diru zerbait ematen badizu ere, galdu egi-

191 «Big Gap in U.S. Wealth», *New York Times* 17 April 1995, A1.



Venus Xtravaganza, *Paris is burning* dokumental ezaguneko izarretako bat, hil egin zuten filma estreinatu aurretik.

ten duzu. Hori hala da zeren Boardwalk, Park Place eta gainerako zerbitzuen jabe denak berriz ere kenduko baitizu dirua bere jabetzan erortzen zarenean.

Egiazko bizitzako Monopolya ez da joko egokia lanik topatu ezin duenarentzat nahiz arras dirurik gabe gelditzen denarentzat. Berriki, neska batek galdetu zidan jai batean: «Nola ateratzen duzu bizimodua?» Eta nik erantzun: «Ez dakit». Eta neure erantzunak kezkatu utzi ninduen. Ez dut jabegorik ez negoziarik, ez fabrikarik; hortaz, ez naiz bizi beste bazuen lanetik. Soldatapean aritu behar dut, bestela gosea pasatuko nuke. Baina genero anbiguokoa naizenez, kasik ezinezkoa zait lana topatzea. Hilabetero ahal bezala ibiltzen naiz errentaren nire erdia pagatzeko, eta are zailagoa zait kontuan izanik bizirik irautea lanaldi osoko borroka dudala, beti aurre egin behar baitiet mehatxuei karriketan, edo jazarpenari metroan. Azpian naukan sistema hau ez zait komeni!

Kapitalismoa da pentsa litekeen sistemarik zentzuga-beenetakoa: gehien egiten dutenek gutxien jasotzen dute, eta gutxien egiten dutenek gehien jasotzen dute. Nola irauten du halako sistema batek? Ezin izanen luke, baldin gehiengoaren diren langileak elkartuko balira borrokarako, ekonomia berri eta ekitate handiagoko baten alde.

Jendea zatiturik edukitzea: horixe du helburu jendea bel-durturik edukitzeak desberdin janzten direnen aurrean, sexua

aldatzen dutenen aurrean, edo sexu batekoak ala bestekoak ez direnen aurrean. Horretarako jartzen dituzte azal argikoak azal ilunekoan kontra, herriak herrien kontra, gizonak emakumeen kontra, heteroak lesbiana, gay eta bisexualen kontra, desgaitasunik ez dutenak desgaitasunen bat dutenen kontra, gazteak zaharren kontra. «Zatitu eta nagusitu» arma ez da oso fina, baina, historiak erakusten duenez, eraginkorra bai; hau da, harik eta jendea iratzarri eta ohartzen den arte batzeko zinezko beharra duela.

Beraz, zein da konponbidea? Sexu eta genero zapalkuntzak hain sarturik daude jendearengan, transen pertsekuzioa zuritzeko mendeetako kanpainen ondoren, non intolerantzia ezin baita jada erauzi? Merezi al du saiatzea ere? Nondik hasi beharko genuke?

Txikitan, 1950eko hamarkadako errepresio itogarrian, ezin imajina nezakeen ere etorriko zirenik borroka iraultzaileen olatu bat bestearen atzetik 1960ko eta 1970eko hamarkadetan. Stonewalleko Altxamendua izan zen aldaketaren aldeko gudu horietako bat. Gogoan dut nola ikusten nituen gay askapenerako mugimendu gaztearen kartelak Pantera Beltzen aldeko elkarretaratzeetan eta Vietnamgo gerraren kontrakoetan.

Baina 60ko hamarkadan lanpostua genuen askok bizi maila altuagoa gozatu izan genuen, partez agintariak erabaki zutelako eraginkorragoa izanzen zela «armak eta gurina» ikuspegi liberala (ezen ez «armak versus gurina» ikuspegia), etxe barnean hoztu zitezen Vietnamgo gerraren kontrako borroka. Horregatik sendotu zituen Johnsonen gobernuak gizarte zerbitzuak, hots, gaur guztiz murrizten ari diren ezinbesteko zerbitzu horiek berak. Saiakera bat zen bereizirik egon zitezen, alde batetik, gerraren aurka ari ziren gazteak eta beltzen, latinoen eta natiboen askapenerako mugimenduak, eta, bestetik, langile klasearen kontrante nagusia.

Baina, gaur egun, sistema ez da ari jendearen gehiengoaren mesedetan. Milioika lagun ari dira lanaldi partzialeko bi edo hiru enpleguri eusten, zaintza medikorik gabe, edo daude etxerik gabe gelditzeko soldata bateko tartean. Estatu Batuetan, boterearen aginte-gailurretan daudenak harroturik dabilta Sobietar Batasuna izandakoan eta Ekialdeko European langileek jasandako kolpearengatik, eta saiatzen ari dira sindikatuak txikitzen, bai-

ta azken zazpi hamarkadetan borroka militanteak irabazitako onurak ere, esaterako Gizarte Segurantza, langabezia saria eta gizarte laguntza.

Langile gehienek segurtasun sare ekonomikorik ez duten garaian, eta geure bizi maila erasopean dagoela, harritzekoa al da ikustea, estatuz estatu, ongi koordinatutako bozkatzeko kanpainak, zertarako eta lesbiana, gay, bisexual eta trans jendeari kentzeko diskriminazioaren kontrako baliabide oro, argudiatuz ezen esku-bide zibilen lege aurrerakoiak direla «eskubide bereziak»?

Eta inor ustekabeen harrapatzen al du ikusteak nola «balio familiarren» gorroto-gurutzadetako handiki diruz ongi hornituek askotan bidelagun dituzten bortizki atakutzen dutenak emakumeen ugalketa askerako eskubidea, eta immigranteak hartzen dituztenak turko-burutzat?

Horixe da «zaitu eta nagusitu». Baina horrek ez du esan nahi erreformen alde borrokatu behar ez dugunik! Jende trans guztiak behar ditu eskubide zibilak, eta oraintxe behar ditugu. Estatu Batuetan esaterako, oraintxe berean, diskriminazioaren kontrako oso baliabide gutxi dugu, eta borrokatu behar dugu baita Konstituzioan ezarritako giza eskubide orokorren baitan kontuan har gaitzaten ere.

Gaur egungo transen mugimenduan gero eta sexu eta genero komunitate gehiago bildu ahala, eskaera zabalagoak eginen ditugu geure borrokan. Exijitu behar dugu legez kanpo dauden sexu eta genero espresio guztiak despenalizatzea, eta hezkuntza egokitzea, sexu eta genero bariazioaren onarpen soziala irabazteko. Komun garbiak, «emakumea» eta «gizon» gisa markatu gabeak: badugu hori bezain gauza oinarritzako eskubidea.

Emakume eta gizon transexualek, eta bestelako trans pertsonak, eskubidea dute kirurgia eta hormonak eskuratu ahal izateko, prezio pagatu ezinek galarazi gabe. Eta trans jende guztiak eskura izan behar du zaintza medikoa, beldurrik izan gabe gorrotoagatik edo diru faltagatik baztertuta izateko. HIE-Sak, gainera, trans komunitatea sarraskitu du; HIESari buruzko hezkuntza behar dugu, eta zerbitzuak *trans-friendly* guneetan ematea (*trans-friendly*: transei harrera ona egitea).

Borrokatu behar dugu gure kontrako diskriminaziorik izan ez dadin etxebizitza eta enplegua eskuratu nahi ditugunean, armadan, eta haurren zaintzan eta bisitetan. Borrokatu behar

dugu ez daitezen urratu preso transen eskubideak, eta borrokatu behar dugu poliziaren basakeriaren biktima transen alde.

Instititutuek, fakultateek eta unibertsitateek trans pertsonak eta borrokek sartu behar dituzte curriculumetan. Horretaz gain, desafiatu egin behar da sexuaren eta generoaren egungo sistema estua eternala delako kontzeptua bera, esploratuz gizateriaren historian izandako dibertsitatea. Behar dugu beraztertu, aurreiritzirik gabe, historia, antropologia eta zientzia medikoa, eraz dadin sexu eta genero bariazioa «anormaltzat» duen kontzeptu oro.

Sexuaren kategoriak kendu egin behar dira identifikazio paper guztietatik —gidabaimenekin hasi, eta pasaporteekin buka—, eta norberaren sexua definitzeko eskubidea hain oinarrizkoa denez, jaiotza-agirietatik ere kendu egin beharko litzateke. Eta defendatu eta hedatu egin behar da ekintza afirmatiboa (diskriminazio positiboa) —lehenik irabazi zena, konpentsazio gisa, arrazagatiko eta sexuagatiko diskriminazio historikoengatik—, bere baitan har ditzan sexu eta genero zapalkuntzako biktima gehiago.

Pertsona bakoitzak izan beharko luke eskubidea bere sexua zein den ezartzeko eta aldatzeko, eta bere genero identitatea espresatzeko nahi bezala.

Baina eskubide horiek ez dira zerutik eroriko. Jendeak eskubidea du janaria eta ostatua izateko, eta libre izateko indarkeria sexualetik nahiz arrazistatik, baina horrek denak borroka eskatzen du.

Txikia nintzela, arrazen segregazioko ordenantzak estatuko legeria ziren. Beharrezkoak izan ziren eskubide zibilen eta beltzen askapenerako mugimenduen izugarritzko altxamenduak, ezaba zitezen lege erreakzionarioetako batzuk eta irabaz zitezen ekintza afirmatiborako legeria eta diskriminazioaren kontrako lege aurrerakoiak.

Sezesio Gerraren ondoko Berreraikuntza garaitik lehenbiziko aldiz, mugimenduak irabazi zituen hautetsi beltzak: alkateak, gobernadoreak eta kongresuko ordezkariak. Baina kapitalismoak krisian jarraitzen du oraindik, eta, barnealdeko hirietan, afroamerikarren baldintzak makurragoak dira orain, depresio ekonomiko sakoneko urteengatik.

Goi-teknologiaren garapenak zaharkituta utzi ditu gizonen eta emakumeen arteko laneko banaketa asko. Baina beharrezkoa izan da emakumeek ezabaraztea «emakumeen lanak» kategoria, ilegal bihurtzea sexuan oinarritutako diskriminazioa, eta exijitzea lan berarengatik soldata bera jasotzea. Eta hala eta guztiz ere, emakumeak oro har gero eta gehiago ari direnez pobrezian hondoratzen, erreforma horiek ez dira nahikoak!

Legeak kodifikatzen du klaseetan zatitutako gizarte batean eraikitako desparekotasun ekonomikoa. Nahiz lege bat aurkeztu denean jainko baten hitza balitz bezala, nahiz aurkeztu denean giza moralitatearen manuetatik jaino balitz bezala, beti agertzen zaigu finkoa eta aldaezina balitz bezala, baina ez da. Nolanahi ere, produkzioko eta giza kontzientzietako aldaketek ez dituzte berez legeak aldatzen. Lege aurrerakoiek erakusten dute nolako lorpenak irabazi diren militanteen martxan bidez, elkarretaratzeen bidez, piketeen bidez eta oinarriko jendearen antolaketa bidez: ekintzak eragiten du legeak aldatzea.

Baina lan hitzarmena bezalakoa da: lehenik borrokatu behar duzu hura lortzeko, eta gero borrokan segitu behar duzu irabazi duzun hori defendatzeko, ez diezazuten kendu.

Trans jendearentzat, lege aurrerakoiak irabaztea eta lege intoleranteak bertan behera uztea dira oso pauso inportanteak geure justiziarako borroka handian. Baina mende honetako esperientziak erakutsi digu ezen etekin-sistemaren osaera organikoak halabeharrez eramaten duela sistema bera krisi ekonomiko eta sozialeko hondamendi batera, eta horrek suntsitzen ahal dituela bizi oso bateko irabazi progresistak. Ikasgai hori ikasi nuen Alemaniako faxismoak lortutako garaipenarekin.

Haur judua nintzela, uste nuen faxismoa bildu zela ohar-kabea, ekaitzeko hodeien gisan. Hala, svastika bat topatu nuenean neure eskolako mahaian zizelkatua, beldur nintzen faxismoa iritsi ote zen, eta deusek ezin izanen zuela ekaitza geldiarazi. Ez da harritzekoa denbora asko eman izana ikasten ea zer arrazoiengatik iritsi ziren naziak boterera Alemaniako, 1930eko hamarkadan.

Alemaniko ekonomia oso hondoraturik zegoen, eta langileen mugimendu indartsua desafiatzen ari zen kapitalismoaren nagusitasuna bera, eta berdin ari ziren beste asko transen, lesbianen, gizon gayen, emakumeen eta sozialisten



Goian: Sharon (Bruno), beste gazte batzuekin bizi dena karriketako banda batean, Brasilen, HIESaren antigorputzak dituela jakin berritan.

Eskuinean: Negozio-gizonak Sharonen eta bere bandaren ondotik pasatzen, haietako batere egin gabe.



mugimenduetan. Faxismoari eskuak libre utzi zitzaizkion txikitu zitzan mugimendu hori, langileen klasea eta erakunde aliatu guztiak. Industrialari eta bankari batzuek sortu zuten nazismoa. Nork pagatu zituen kontzentrazio esparruak, trenbideak eta labeak? Nork atera zion etekina esklaboen lanari? Hitlerrek hitzeman zuen ekonomiari buelta emanen ziola eta oparotasuna ekarriko zuela, eta bete egin zuen. Hala, gerra izan zen abiarazte eraginkorra geldirik zegoen ekonomia kapitalistarako.

Orobat, gerra «ona zen negoziarako» Stonewalleko Altxamenduaren garaian. Baina, droga oro bezala, goizago edo beranduago jada konponbide azkar horrek ez du funtzionatzen. Pentagonoak Iraken kontrako gerra abiarazi zuenean, ekonomia ez zen berpiztu. Horrenbestez, zer eskainiko digu orain ultraeskuinak? Ez digute lanposturik emanen. Produkzioaren berregituraketan, ahalik eta egitura murriztenak bilatu dira, eta horri gehituta goi-teknologiaren iraultza, ondorioa izan da gero eta langile espezializatu gehiago ari direla hanburgesak egiten gutxieneko soldataren truke.

Bi aukera ditugu aurrean: uko egitea aurreko belaunaldiek irabazitako bizi eta lan baldintzei eta lorpen politikoei, edo kontraeraso zabalean antolatzea.

Iraganari bakarrik begiratzuz gero, irudi luke pentsaezina dela gu, Estatu Batuetan, gauza izatea agintariak desafiatzeko moduko indar bat biltzeko. Baina aurrera begira, gaur egungo errealitatetik, hiriak hondoratzen ari direla, industria siderurgikoko labeak hozten, zorrak pilatzen eta gerraren produkzioa ekonomiaren ezaugarri iraunkorra bihurtzen, jendeak aurre egin behar diola goseari eta etxe faltari, gobernuak aski dirurik erabiltzen ez duela kontroletik kanpo dauden HIESa eta bularreko minbizia bezalako izurrietarako, egin beharreko galdera da: badago halako borroka saihesteko aukerarik?

Aktibista gazte nintzela, galdera hori egiten ere hasi bezain laster, ni xaxatzen hasi ziren, «komunista» nintzela esanez. Bueno ba, egia da! Niretzat ez da aski bertan behera uztea jantzi ditzakedan arropak erabakitzen dituzten legeak; ez behintzat, gazte transak lo egiten dutenean auto abandonatuetan edo espaloietan. Bankari batek dirua xahutu dezake jatetxe dotoreetan, bitartean *drag queen* beltz eta latinoak beharturik daudela prostituzioan aritzera patata frijituak erosteko. Zuen ustez, zer behar da krisi sozial honi konponbidea emateko; sindikalisten kantu zaharrak dioen bezala, «Zein aldetan zaudete?» (*Which side are you on?*). Uste dut krisi sozial sakon hauek konponbide sozial erabatekoa behar dutela.

Uste dute «gorrien ehizak», bereziki, beldurtuko gaituela eta ez garela ausartuko desafiatzera gehiengoaren beharrak asetzen ez dituen sistema ekonomiko bat. Erdi Aroan, heretiko gisa etiketatuko gintuzten. Haurtzaroan, MacCarthysmoko antikomunismoaren boterea sentituz handitu nintzen. Baina «gorrien ehiza», herria zatitzeko beste arma batzuk bezala, garaitu egin daiteke. Allan Berubék —gaya, langileen klasekoa eta historialaria— afera horri heldu zion, 1995eko lesbiana eta gay idazleen biltzar batean. Berubék esplikatu zuen ezen, 1930eko eta 1940 hamarkadetan, marinel, sukaldari eta zerbitzarien sindikatua —zeinak antolatu baitzituen transatlantikoetako eta zamaontzietako zerbitzu-langileak Estatu Batuetako mendealdeko kostan— zela sindikatu multinazionala eta ezkerrekoa, eta bere baitan zituela ageriko gay langile transgeneroak: *drag queen*ak.

Sindikatu antolatzaileetako batek, gaur laurogeitaka urte dituen, Berubéri azaldu zion nola sindikalista komunis-

tak saiatu ziren prestatzen langileriaren osaera islatzen zuten esloganak. Berubék entzuleei esan zienez, «Ekarri zuten esloga-netako bat, 1936an, hau izan zen: uzten badiezu gorri-ehizan, arraza-ehiza eginen dute; uzten badiezu arraza-ehizan, erregi-na-ehiza eginen dute. Horregatik eutsi behar diogu baturik».¹⁹²

Horixe da iraganeko mugimenduetatik ikasi behar dugun ikasgai inportanteetako bat, eta, gisa berean, transen zapal-kuntzaren kontrako borrokan ikasitakoa ekarpen bat izanen da beste mugimendu batzuetarako eta etorkizuneko beste borroka batzuetarako.

Sistema kapitalistaren gainbeherak eragin du krisi sozial orokorra sakontzea, eta milioika lagunek gero eta gehiago sentitzen dute afera urgentea dela. Hala, guk, jende transak, inoiz baino konfiantza handiagoa izan behar genuke gure lankide, auzokide, lagun, familia eta maiteengana joateko eta esateko: saiatzen ari dira elkarren artean borroka gaitezen, batu ez gaitezen egiazko aldaketa irabazteko.

Aurrean ditugun borroketarako proiekturik ez dugun bitartean, ikas dezakegu bai etsai amankomunaren kontra borrokatzetik, bai iraganean gauzatutako esperientzietatik. Azkeneko 150 urtean, bereziki, langileen klasea handitu da harik eta gako-indar bihurtu den arte gizartean. Oinarrizko ondasun eta zerbitzu guztiak ekoiztearen ardura duen klasea da, eta gehiengoaren klasea bihurtu da munduko toki gehienetan.

Beren buruari «Ludd jeneralaren emazteak» deitu zioten ehule cross-generoen hasierako erresistentzia haietatik —erresistentzia oinarrizko eta espontaneo— gaur arte, klase honek garatu ditu esperientzia iraultzaile aberatsa eta antolakuntza politikorako modu asko eta asko.

Trans jendea garen aldetik, harro egoteko moduko erresistentzia historia dugu. Borrokalari transak altxatu ziren esklabo jabeen aurrean, jauntxo feudalen aurrean eta nagusi kapitalisten aurrean. Gaur egun, borrokalari transak garen aldetik, gero eta jende gehiago ari gara bat egiten gizarte justu baten aldeko mugimenduan. Aldaketaren aldeko borroka zabalagoaren barnean geure trans mugimenduaren eskaerak aurkeztuz, jendea

192 Alan Berubé, aurkezpena *Writing, Class, and Race session, Outwrite: Fifth National Lesbian and Gay Writers Conference*, Bostonen, 1995eko martxoaren 5ean.

hezten ari gara geure zapalkuntzaz, aliatuak irabazten ari gara, eta lortu nahi dugun gizartea taxutzen.

Gutako inor ez da aske izanen harik eta forjatzen dugun arte langile guztien beharrak asetzen dituen sistema ekonomiko bat. Trans jendea garen aldetik, ez gara libre izanen harik eta borrokatzen eta irabazten dugun arte gizarte bat non ez den izanen klaserik etekina aterako duenik gorrotoa eta aurreiritziak sustatzetik, gizarte bat non pentsaezinak izanen diren sexua, generoa eta maitasuna murrizteko legeak.

Bila gaitzazu —borrokalari transgeneroak— askapenaren egunsentia ekarriko duen borrokaren liderren artean.



Bradford College unibertsitateko ikasleak, liburu honen egilearekin eta Peggy Walsh irakaslearekin. Erabaki zuten «Dibertsitatearen alde ausartzen diren ikasleak» elkarteak sortzea, unibertsitateko zuzendariak ukatu ondoren liburu honen egileak hitzaldia eman zezan graduazio ekitaldian. Ikasleek administrazioko eraikin nagusiak okupatu zituzten, babesa lortu zuten familia, irakasle, bestelako langile, ikasle eta besteren aldetik, eta bultzatu zuten faxen eta telefono deien uholde bat, zuzendariaren bulegoa kolapsatu zuena. Horren ondorioz, liburu honen idazleak hitzaldia eman zuen 1995eko graduazioan.



Kubako *drag queen* bat, Gobernuak babestutako aire zabaleko emanaldi batean, non sexu-segururako heziketa ere egiten den. «*Drag show*ak oso zabaldurik daude gaur egun Kuban (...) antzoki eta gau-klubekin hasi eta auzoetako emankizunekin buka. Aire zabaleko *drag show* batera joan nintzen; hara bertaratu ziren auzokideak eta Habanako beste toki batzuetako gayak eta lesbianak. Adin guztietakoak zeuden, haur eta zahar (...). Sexu bereko bikoteak dantzan ari ziren, eta denak ari ziren ongi pasatzen. Emakume bati galdegin nion: 'Zergatik etorri zara?' Hark: 'Oso ederrak eta talentu handikoak dira, eta, gainera, auzokideak ditut'. Maiatzaren Lehenean, afrokubatar talde bat ikusi genuen, arropa tradizionalekin, esklabotzaren garaitik heldu ziren abestiak dantzatzen eta kantatzen. Multzo horren barnean, baten *drag queen*en talde animatu bat».

(Barbara Smith, idazle eta aktibista afro-amerikar eta lesbiana, 1995eko udaberrian Kubara egindako bidaiaz hizketan).



Egiazko familia baliok. Amak daukan kartelak, eskuz egindakoak, dio: «Alaba transexuala da, eta maite dut».

BOSGARREN ZATIA

ERRETRATUEN GALERIA

Gerran, denak borrokatzen gara heriotzaren indarren kontra, sotilki nahiz bestela, oharturik nahiz oharkabeen. Ez naiz biktima bakarrik, borrokalaria ere banaiz

Audre Lorde



Marsha «P.» Johnson polizien kontra borrokatu zen Stonewalleko Altxamenduan. «P» horrek esan nahi du: «ez egin kasurik!» (*pay it no mind!*). Warholek argazkiak egin izan zizkion, eta izan zen Hot Peaches dragen antzerki konpainiako kidea. Indar eta harrotasun iturri izan genuen neronek eta beste askok eta askok, *dragen*, transgeneroen, lesbianen eta gayen komunitateetan. Marsharen hilotza Hudson ibaian topatu zuten, ibaiertzeko pasealekutik hurbil, New York hirian, 1992ko Harrotasunaren Martxa izan eta handik gutxira. Poliziaren «ikerketa» izan omen zen bi telefono dei egitea, eta erabaki zuten bere burua hil zuela. Herritarren kanpaina batek, afixen bidez, azalera atera zuenez, lekuko batzuen arabera, Marshari eraso egin zioten iluntze hartan, pasealekutik hurbil, hil baino lehentxeago.



Brandon Teena, mutil gazte zuri bat, Nebraskako hiri txiki batera aldatu zen 1993. urtean. Legearekin arazo txikiren bat izan ondoren, polizia, nonbait, agerian utzi zuen Brandon emakume jaio zela. Handik gutxira, Brandon biluztera behartu zuten Eguberrietako festa batean, harekin hitzordua zuen emakumearen aurrean. Gero, bahitu, zanpatu eta taldean bortxatu zuten. Hala eta guztiz ere, poliziek uko egin zioten Brandonnek erasotzaile gisa identifikatutako bi gizonen kontra jotzeari. Urteberri egunean, Brandon eta beste bi lagun aurkitu zituzten hilik: hil arte tirokatu zituzten. Brandonen gorpuak labankada pila zituen. Bi gizonak kondenatu egin zituzten, herritarren presioarengatik, baina ez da inolako ikerketarik izan jakiteko zein izan zen poliziaren rola hasiera batetik bortizkeria bultzatzeko. Brandon ez ote zen orain bizirik egonen baldin poliziak utzi izan balio duin eta errespetuz bizitzen eta lan egiten?



Quentin Crisp (aurreko orrialdeko beheko argazkia) agertu izan da zortzi filmetan, eta idatzi zuen *The Naked Civil Servant* (*Funtzionario biluzia*): autobiografia bat, film bihurtu zutena 1975ean. 1908. urtean jaio zen.

—Femeninoa al zinen umetan?

—Horixe baietz! Ez nekien besterik egiten. Begira, hasi nintzenean hain nintzen gaztea, munduak ez ninduen oraindik ukitu. Etxean bueltaka ibiltzen nintzen esanez: «Gaur printzesa eder bat naiz!»

—Nolakoa zen Londresko karrketan ibiltzea 1920ko eta 1930eko hamarkadetan?

—Urte haietan oso zaila zen Ingalaterran. Aurpegia honela hurbiltzen zizuten [haren sudurretik eri batera], eta esaten: «Nor ostia uste duzu zarela?» Eta nik erantzuten: «O, maitea, esan nahi duzu norbait izan behar dudala Oxford Streeten ibiltzeko?» Filmak agertzen ez duena, garestia delako, jendeketak dira. Picadillyn barna ibiltzen nintzen, eta Picadilly Circus iristerako, hain handia zen jendeketa, non karrika guztia hartzen baitzuen. Poliziak bidea egiten zuen jendearen artean, nireganaino, eta esaten zuen: «O, berriz ere zu!». Eta jendea esaten zion: «Ez da deus ere. Zoazte etxera!». Eta jendeketa desegin egiten zen. Baina oso beldurgarria zen, zeren azkenerako ezin baitzenuen gehiago aurrera egin, eta buelta eman behar izaten zenuen.

Ingalaterran mehatxatua nengoen denbora guztian. Arriskupean zinen etengabe. Inoiz ez zinen pasatzen jende multzo baten artean; saihesten zenituen, eta beste bide bat hartzen. Bizi guztia bizi izan nintzen tunel batean banengo bezala, eta argi izpirik ikusten banuen bukaeran, harantz jotzen nuen. Bizi nintzen botatzen ez ninduten ostatueta, aritzen nintzen kanporatzen ez ninduten lanetan, ezagutzen nuen lotsa jasan zezakeen jendea.

Baina, harrigarriki, ez ninduten atxilotu hogeita hamalau urte izan arte. Aldi hartan, ez nintzen ohartu West Enden ikusi nituenak poliziak zirela gizakiz mozorroturik. [Epaiketan] esan nuen begi-bistakoa zela ez nintzela bezero bila ari egun argiz, zeren, nork hitz egin lezake nirekin, neukan itxurarekin? Ez zen posible, inola ere. Inork ez zidan hitz egiten. Inork ez zidan hitz egin, inoiz ere. Epailak ez zuen esan polizia gezurretan ari zela, baina libre utzi ninduen.

Mundu honetan ez nuen batere zorianik topatu harik eta hona iritsi arte. Jendeak galdegiten dit: «Zerbaitz damutzen zara?» Eta nik erantzuten dut ezin naizela deusez damutu, ez baitzegoen alternatibarik. Ez nuen gauzak bestela egiterik. Saiatu izan banintz gizon batek bezala jokatzeko, jendeak esanen zukeen: «Baina nor uste du ari dela engainatzen?»

Eta ez dakit zergatik ziren hain erasokorrak, ez bada ingelesei gustatzen zaielako sexua txukuna eta ordenatua izatea, eta ez zutelako asmatzen gizona edo emakumea nintzen. [Badira] hitzak, keinuak, arropak, ogibideak, hobbyak... egokiak direnak mutil gazteentzat. Eta badira beste hainbat gauza egokiak direnak neska gazteentzat. Eta horrek pentsarazten dizu baduzula patu bat loturik dagoena zeure sexuarekin, nahiz eta, jakina, gauzak ez diren hala.

Norbaiti esaten badiot: «Zeure jantziak modu bat dira munduari esateko nor uste duzun zarela».

Erantzuten dit: «Nor uste duzu zarela?»

Eta nik: «Adineko atzeritar bat, genero zalantziakoa».



Craig Hickman, poeta eta performance-artista, *Rituals* idazlanaren egilea.

«Performance-artista beltz eta gaya naiz; aski gizona neure emakumea distirutzen uzteko, eta aski emakumea neure gizona orro egiten uzteko.

Ohartu naiz ezen artista eta pertsona cross-genero gisa oso erantzukizun handia dudala neure buruarekin eta nire lana aditzen eta irakurtzen duen jendearekin, genero-rolak ito egiten baitute, eta, nire ustez, zapalkuntza guztien oinarria baitira. Iruditzen zait mundua askatu eginen litzatekeela jendeak genero-rolak baztertuko balitu.

Askotan jendeak begiratzen dit esanez bezala: 'Zer da?' Eta nik, maiz, erantzuten dut: 'Ez al da aski ederra?' Orduan, aurpegiak serio-serio jarri, bekainak goratu, eta jendea gelditzen da pentsatzen espero ez zuen zerbaitetan. Eta, beraz, uste dut mundura ateratzen naizenean hori dena neurekin daramadala, eta neure presentzia soila konfrontazioa dela gehienentzat».



Debbie, kulturista eta pisu-jasotzailea.

«Beti izan naiz indartsua, baita txikitan ere. 'Indartsuak bakarrik ateratzen dira aurrera' izan dut beti premisa. Emakume kulturista gisa hasi nintzen. Oso gogor aritu eta entrenatu nintzen. Sentitu nuen ezen, oso gogor saiatuta ere, inoiz ez nintzela nahikoa izanen, kulturista gisa, bilatzen zutenerako, eta izugarri zapuztu nintzen.

Lagun hoberenarekin entrenatzen hasi nintzenean, esan zidan: 'Indar harrigarria duzu, gainezka egiten duzu, eta ez zara ohartzen. Pisuak jasotzeko gaitasuna duzu'. Eta nik: 'Ongi da, probatuko dut'. Ikusi nuen pisu-jasotzaileak oso desberdinak zirela, asko laguntzen ziotela elkarri. Irudi zuen onartzen zutela ezen boterea eta indarra bazenituen horraino iritsi zinela ona zinelako. Berdin zen jasoaldia egiten lortzea edo ez.

Problema dut emakumeen komunera joatearekin. Oso etsigarria zait. Hori gertatzen da nire itxurako jendearekin ohituta ez dagoen jendearengatik. Jendeak zutaz gauzak uste izaten ditu itxura fisikoarengatik bakarrik, zu ezagutzen saiatu aurretik. Pena dela uste dut. Ikusten dutena epaitzen dute ezagutu aurretik. Batzuek nahikoa dute lehenbiziko ikustaldiarekin; ez dute arretarik jartzen. Gertatu izan zait belarritakoak-eta jantzita egotea, eta hala ere «jauna» esatea. Beste batzuek denbora gehixeago hartzen dute, arreta handixeagoa, edo, besterik gabe, aurrerakoixeagoak dira, hori baldin bada hitz egokia.

Nahiko nuke jendeak ulertzea emakumeak izan daitezkeela hainbat gauza, ortzadar bat, eta ez dela galdu behar emakume-izaera bakar bat ere. Begira lehoiei eta tigreei: emeak dira ehizatzen dutenak, hiltzen eta jana ekartzen dutenak: boterea darie. Begira haien hankel: gaitzak eta ederrak dira. Aparteko pausoa eman behar dut; beti nahi izan dut. Bestalde, pertsona txikia naiz: metro eta erdi. Gogor saiatu naiz naizena izateko eta lortu dudana tokira iristeko. Boteretsua naiz eta egin dezaket».



Pauline Park, historialari korear-amerikarra.

«Ohiko esperientziak izan ditut, amaren arropak jantzi ditut, ezkutuka, baina nerabezaroan aurkitu nuen liburu bat auzoko liburutegian, trabestiei eta transexualei buruz, eta orduan ohartu nintzen ez nengoela bakarrik. Trabestismoa neure biziko zati izan da, baina gordeka, oroitzen naizenetik. Baina denbora luzea behar izan dut neure trabestismoa onartzeko, eta faseka izan da».



Morgan Holmes, semeari eusten baitago, intersexuala da.

«Sistema binario edo bitarrean bizi gara, non bi modu bakarrik baitaude sexu anatomikoa sailkatzeko. Hortaz, ez da erraza jende gehienarentzat, ezta feministentzat ere, ulertzea intersexualitatea dela zerbait guztiz diferentea. Hain da diferentea, non anormaltasun mediko gisa sailkatzen baita. Baina pertsona intersexual askok, baita nik ere, emakumeekin amankomunean duguna da 'emakume gisa' bizi garela mundu honetan. Hazi gaituzte emakume izateko, bat etor gaitezen emakumeek soilik izan ditzaketen eskubide eta pribilegioekin, dagozkion arrazaren eta klasearen mugen barnean, patriarkatuaren baitan.

Intersexualitateak duen forma-gama dela eta, intersexual batzuentzat errazagoa da sexu identitate bakarrarekin bat egitea, eta beste batzuentzat zailagoa da, eta esku-hartze medikoaren laguntza behar izaten dute bizi guztian. Norbera 'emakume' komunitateko kide gisa identifikatzea baino are zailagoa da saiatzea norbera identifikatzen intersexual/emakume gisa. Zeregin horrek eskatzen du berreskuratzea identitate bat zeina kulturak ilegítimo bihurtu duen eta zeina kirurgia bidez ebatsi zaigun».



Petric Smith, *Long Time Coming* liburuaren egilea (Crane Hill, 1994).

«Andretik gizonerako» trantsizioa egin aurretik, Petric-ek (garai hartan Elizabeth H. Cobbs), ausardiarekin eman zuen lekukotza bere osaba Robert Chamblissen aurka eta Ku Klux Klaneko beste kide batzuen aurka. Haien denak salatu zituzten bonba bat jarri izanaz Birminghameko Hamaseigarren Karrikako Eliza Baptistan. Leherketa hartan hil ziren lau neska afrikar-amerikar. Chambliss kondenatu egin zuten. Zergatik arriskatu zuen Smithek bizia lekukotza emanez?

«Bizi guztia eman nuen Ku Klux Klanen beldurrez. Neure zati batek nahi izan zuen osaba nuen gizon hura geldiarazi, urte luzez. Baina babesgabe sentitzen nintzen —indargabe, nahi baduzu— haren kontra deus egiteko. Aldi hura aukera bat izan zen osaba geldiarazteko, ez zezan gehiago familia beldurtu, ez zezan bortizkeriarik erabili emaztearen kontra eta, orobat, hor zen zabalagoa zen indarkeria arrazistaren auzia.

Nik uste ikasten hasi nintzela arrazista ez izaten beltzen komunitateko jendea ezagutzen hasi nintzenean —baita arraza guztietako jendea ere—, lantokian eta beste egoera batzuetan. Ulertu nuen krudelkeriaren errealitatea, ezagutu nuen krudelkeria jasotzen zutenen nortasuna. Horrez gain, jada nazkatua nengoan osabak urteetan kontatu zizkigun istorio izugarriekin. Hain erreala bihurtu zen niretzat, non neure biziaren xedea kasik bihurtu baitzen geldiaraztea hura eta hura bezalakoak».



Max Wolf Valerio. Oinbeltzen Konfederazioa-Kainah / chicanoa. Liburu bat idazten ari da bere trantsizioaz, gizon transexuala den aldetik, 1996an argitaratuko duena William Morrow/Avon argitaletxeak.

«Uste dut jendeak ez duela ulertzen nola sentitzen dugun transexualek geure jatorrizko izaera biologikoa. Denek nolabait desberdin bizi dugu identitatearen eta gorputzaren arteko etena, baina bada zerbait amankomuna. Neure kasuan, ez zen hainbeste neure gorputza gorrotatzen nuela edo emakume izatea gorrotatzen nuela. Lehenik eta behin, emakumea nintzela esaten dudanean ere sentitzen dut nolabait ez dela egia. Uneren batean, ohartu nintzen ezen nire baitan, sakonean, iraunkorki, gizon gisa sentitzen nuela neure burua.

Gizon gisa, azalerratzen hasi zen neure buruaren ideia integratuago bat. Bistan da, ez dut sekula izanen gizon-gorputz oso eta guztiz funtzionalik, ezta kirurgiaren ondoren ere. Baina oso gustura nago, pozarren, orain dudanarekin.

Emakume gisa bitzako bitzak betiko markatuko ditu neure historia eta kontzientzia. Diferentzia iraunkor hori altxorra da, ez da baztertu behar. Transexualek izan dugu transformazio boteretsu bat, dena fisikoa, soziala, legala eta espirituala, nolabaiteko goi mailako teknologiko inimizazio-erritu bat. Geure bidaia dago paradoxaz eta arriskuz bete-betea. Generoaren probokatzaileak gara, bi agenda politikoki zuzen eta kontserbadoreetatik kanpo. Intuizioa eta borondatea haragi bihurtuak».



Jennifer Miller, emakume bizarduna, performance-artista eta malabarista.

Amok izeneko zirkuaren sortzailea eta zuzendaria da. Bertan batzen dira gai politikoak —hasi aurrekontu murrizketekin eta buka immigranteen kontrako 187 Proposamenarekin— eta New Yorkeko aire zabaleko komunitate-performanceak. Millerrek uko egiten dio bizarra kentzeari.

«Ezin badiot botereari kontra egin aurpegiko ile pixka bati bakarrik dagokionez, orduan zer egin dezaket? Bizarrari ez eustea izanen litzateke itxaropen faltaren deklarazio bat. Emakumeok badugu ilea aurpegian. Sekretuak gordetzeak energia eskatzen du, eta ahulgarria da, batez ere hori lotsak edo beldurrak eragiten badu.

Bizarra bizi guztiko performancea dut. Oso toki 'liminalean' bizi naiz. 'Liminal' hitzak esan nahi du 'tarteko tokian' egotea. Esan nahi du atalasea, egunsentia edo ilunabarra. Toki zoragarria da. Antzerkian, da argiak itzaltzen diren unea. Eta antzezpena hasi aurrekoa».



Louis Graydon Sullivan. Sheila Jean Sullivan gisa jaio zen Milwaukeeen (Wisconsin), 1951n. 1970eko hamarkadaren hasieran, idazkari aritu zen Hizkuntza Eslaviarren Departamentuan, Wisconsin Unibertsitatean, Milwaukeeen, eta orduan hasi zen militatzen Jende Gayaren Elkarteetan, eta idatzi zituen «andretik gizonerako» cross-dresserren laburpen biografiko asko, Jende Gayaren Elkartearen Aldizkarirako. Zenbait urtez, bere burua honela identifikatzen zuen: «emakume heterosexual trabestia, sexualki gustuko dituen gizon gayak».

Nolanahi ere, 1975ean San Frantziskora aldatu, eta handik urte gutxira sexua berresleitzeko prozesu bati ekin zion, eta hasi zen pentsatzen gizon gay transexuala zela. Sullivan izan zen lehenbiziko «Andretik gizonerako» pareko aholkularia (berdinen artekoa) Janus Informazio Zerbitzuan; hura zen transexualitateari buruzko nazioarteko informazio bulego bat. Hala, harremanetan zegoen mundu guztiko «andretik gizonerako» jendearekin eta generoa auzitan jartzen zutenekin, eta lagundu zuen oinarriak jartzen ordutik aurrera sortu ziren «andretik gizonerako» komunitateetarako. Sullivanek antolatua zuen, 1986. urtean, «andretik gizonerako» lehenbiziko laguntza elkarte Mendebaldeko Kostan (eta, munduan, hirugarrena). Bere azkeneko urteak eman zituen kanpainetan, zerbitzu medikoak ematen zituztenak konbentzitu nahian bazirela bera bezalako asko, gorputz transexuala desiratzen zutenak beren desira homosexuala gauzatzeko, eta halakoek askotan jasaten zutela bazterketa osasun arreta bilatzean.

1991n hil zen HIESarekin lotutako gaitz baten ondorioz, baina hil baino lehentxeago Jack B. Garlanden biografia bat argitaratu zuen; hura emakume gorputzarekin jaio, eta gizon gisa bizi izan zen berrogei urtetik gora, XX. mendearen hasieran, San Frantziskon. Transgeneroen komunitatean aktibista izateaz gain, lagundu zuen sortzen Kalifornia Iparraldeko Gayen eta Lesbianen Sozietate Historikoa, eta orain hor gordetzen dute haren dokumentazio handia.

(Susan Stryker ikerlari transexualak prestatu du Louis Sullivanen gaineko artikulu hau)



Lou Sullivan hil zenean, 1991. urteko martxoan, **James Green**-i utzi zion, zigilu pila batekin batera, 250 izeneko zerrenda bat, «andretik gizonerakoen» bidalketa zerrendarako. Gaur egun Jamesek, gizon transexuala bera, ematen dio segida Louk hasitako lanari. *FTM International* aldizkariaren editorea da —600 aleko tirada du—, eta liderra da gizon transexualen komunitatean. Hark egina da San Frantziskoko Giza Eskubideen Batzordeak jasotako txostena, berekin ekarri zuena San Frantzisko izatea laugarren hiria lortu zuena legeria bat transek izan zitzaten babes legala eta baliabideak bazterketaren kontra. Mugarri izan zen legeria hori.

«Uste dut maiz jendeak beldurra diola arrisku handiak hartzen dituen jendeari. Beraz, beren beldurrak proiektatzen dituzte arriskuak hartzen dituen jendearen gain. Nahiz eta batzuentzat izugarria den jendeak bere gorputza aldatzea nik egin dudan muturreraino, inportantea da, niretzat, jendeak ulertzea neure izateak jarraipena duela neure gorputzean eta ezen beldur izan banintz jendeak ni epaitzeaz inoiz ez nukeela honelako arriskurik hartuko. Eta honelako arriskurik hartu gabe ere, beharbada zimeldu eta hil eginen nintzatekeen. Askoz ere aberatsago sentitzen naiz transizio harrigarri hau bizita, behartu bainau hainbeste jenderi argi eta zintzo hitz egitera naizenaz.

Giza eskubideen auzia da hau, guztiz funtsezkoak diren giza eskubideen auzia. Berez kontu espirituala da: jendeari uztea direna izaten.

Gizon transexualen komunitatean, oraindik ere saiatu behar dute banako gisa bizirauten, modu oinarrizkoan. Gustatuko litzaieke lana galtzeko beldurrik ez izatea, harremanak galtzeko beldurrik ez izatea. Haurrak galtzeko beldurrik ez izatea. Oinarrizko gauzak dira. Haien kezka da kirurgia pagatu ahal izatea, medikuarengana joatea, arreta mediko egokia jasotzea. Eta, azkenik, hasiko dira pixka bat kezkatzen onartuak izatearekin: bereziki, aldatu badira lesbianen komunitatetik gizonen mundura. Kezkatzen dira gizon gisa onartuak izateaz. Askorentzat, horrek ekartzen du armairuan egotea».



Minneapolisiko trans komunitateko kide batzuk, entzule izan zirenak 1995eko neguan egindako Genero Desberdineko Bizien Asteko aurkezpen hitzaldian. Trans arloko ekitaldiak eta hezkuntza izan ziren aste hartan, eta elkarrekin antolatu zuten hainbat komunitatek —unibertsitatekoek eta unibertsitatek kanpokoek—: transexualak, *dragak*, transgeneroak, *cross-dresserrak*, feministak, lesbianak, gayak eta bisexualak. Trans aktibisten lan handiari esker zuzenketa bat egin zen Minnesotako Giza Eskubideen Legean (Minnesota Estatu, 22. kapitulua, H.F. N° 585, eraginkorra 1993ko abuztuaren 1ean), eta legez kanpoko bihurtu zen pertsonak baztertzea haien sexu orientazioarengatik. Zuzenketa horren arabera, sexu orientazioaren azalpenaren barnean sartzen da «hautematea norbaitek duen auto-irudia edo identitatea ez dela gizentasun edo emakumetasun biologikoarekin lotu ohi dena».



Martin Rothblatt, Bina emaztea, eta seme-alabak.

«Gure lau seme-alabek sentitzen dute bi emakume dituztela guraso, baina oraindik ere 'aita' deitzen didate, eta elkar maite dugu, berdin. Neure transformazioari ekin aurretik, haur bakoitzari galdegin nion ea eragozpenik bazuten. Bakar batek ere ez zuen izan, baina bakoitzak erreakzio desberdina izan zuen. Hemezortzi urteko semeak galdetu zidan ea zeren zain nengoen, bizi bakarra dugula, eta denbora beti doala aurrera. Hamazazpi urteko alabak esan zidan eskola publikoan ikasi zuela gay, lesbiana, bisexual eta transgeneroen bizimoduarenganako tolerantzia. Norbaitek galdetzen dionean nolakoa den bi ama izatea, erantzuten du: 'Jende pilak ditu bi ama edo bi aita'. Hamaika urteko semeak esan zidan ez ninduela aita gisa galdu nahi. Hitzeman nion beti izanen nintzela haren aita, eta pozik gelditu zen... Alaba gazteenak, bederatzi urtekoak, uste du transgeneroa izatea dela izateko beste aukera bat».

(Liburu honetatik hartua: *The Apartheid of Sex: A Manifesto on the Freedom of Gender*, Crown, 1995)



Bo Headlam, hogeita bederatzai urteko medizinar ikaslea.

«Ni naiz lesbiana mari-mutil beltza, gizonen arropak janzten dituenena. Askotan, zaila zait bizitzea niretzat naturala den moduan. Begira, munduan jende askori (edo, behintzat, Mendebaldean) ez zaio gustatzen pertsonak ezaugarri batzuk izatea. Hortaz, jende horrek ez nau gustuko naizelako (ordena edozein dela ere) 1) emakumea, 2) beltza, 3) lesbiana, eta 4) mari-mutila. Jende horren nazkarako bosgarren kontua da gizonen arropa janzten dudala, ustez emakumeek jantzi behar ez dutena. Baina gustatzen zait neure burua. Ez zitzaidan gustatzen iraganean... eta egiazko arrazoia zen ez nuela egunero borrokatu nahi munduaren kontra... [Egun] oso ongi sentitzen naiz ni neroni izanda. Orain energia izugarria sentitzen dut. Eta jada ez dut neure burua gorrotagarritzat. Aski auto-maitasun dut, baita besteen nahikoa maitasun ere, eta horrek erakusten dit ideia hura, besterik gabe, ez dela egia.

Aurre egiten diet setati diotenei ezen mari-mutil / *femme* fenomenoak ez dela inportantea eta ez dela inoiz izan, eta gaur egun ez dela existitzen. Aurre egiten diet ueste dutenei lesbiana beltz guztiak direla mari-mutil puskek. Aurre egiten diet bestelako iruzkin arrazistei. Aurre egiten diet esaten dutenei, kalean barna noala, 'Zer da hori?' Aurre egiten diet emakumeen komunetan gizona naizela tematzen diren emakumei. Aurre egiten diet iruzkin homofobikoei. Eta horrela, zerranda ez da bukatzen. Ustekoz duzu konfrontazio horrek hustu egiten nauela. Baina ez. Egia esan, indartsuago sentitzen naiz norbaiti aurre egiten didan aldiro.

Bukatzeko, prest nago biolentzia fisikorako. Zorionez, ez dut esperientzia handirik alor horretan. Baina borrokatzeko entrenatu naiz institutuak. Espero dut inoiz erabili behar ez izatea ikasitako trebetasun horietako bakar bat ere. Irri ematen dit gogoratzeak nolako beldurra nion neure buruari orain dela urte batzuk. Ez nuen inoiz pentsatuko iritsiko nintzela une batera non neu naizena onartuko nuen. Baina hala izan da, eta oso pozik nago».



Ezkerretik eskuinera: **Virginia Prince**, **Ariadne Kane**, eta **Maxine Miller**, 1981ean, mezan, Provincetown herrian (Massachusetts), Fantasia Fair jaialdian. Urteroko transen elkarretaratze bat da. **Virginia Princek** argitaratu zuen Estatu Batuetan ezagutzen den lehen trans aldizkaria, eta sortu zuen *cross-dresserak* elkarteko lehenbiziko taldea. Estatu Batuetako *cross-dresser* komunitate garaikidearen ama sortzailetzat jotzen da. Ariadne Kane da Genero Ikerketarako Dibulgazio Institutuko zuzendaria, eta Fantasia Fair jaialdiaren sortzailetako bat, 1975ean sortu ere. **Maxine Miller** artxibozaina da, eta sortu du urteroko Fantasia Fair jaialdiaren audio eta argazki dokumentazioa.




Sky Renfro, cree jatorrikoa, San Frantziskon bizi da.

«Neronen identitatea, neure biziko gainerako guztia bezala, bidaia bat da. Prozesu bat eta abentura da, zeinak nolabait neure izaerara itzularazten nauen, bueltan ekartzen nau bizitzaren ziklo handira. Uste dut hankabiko gisa dudan bizia dela dagoen gainerako bizia bezalakoa, hots, zirkularra. Neronen identitatea hautemateko dudan modua, une jakin batean, dago gurpil horretako punturen batean, eta bertan betetzen dudan lekua alda daiteke sasoiaren eta biziko gertaeren arabera, baita beste eragin askoren arabera ere.

Saiatzea irudikatzen maskulinitatea marra baten muturrean eta feminitatea bestean, gainerako guztiak tartean nonbait gaudela, ulertzeko kontzeptu zaila zait. Gizentasuna eta emakumetasuna, biak ere elkarrengandik hain daude hurbil, elkarren ondoan daude gurpil horretan. Esanen nuke ez direla elkarren kontrako muturrak. Egia esan, hain hurbil daude, batzuetan ez daitezke bereiz.

Gauza izan naiz alabari ulertarazteko ezen ikusten duena beharbada ez dela ageriko itxuraren azpian dagoena; opari horixe egin diot. Ez dakit gauza izanen nintzatekeen baldin neronek bide hau egin ez banu.

Uste dut denek ere ez bagenu halako beldurrik esateko 'Bai, gizona naiz eta trikotatzea gustatzen zait', ez bagenie halako beldurrik ondorioei, ohartuko ginatke denak garelako *genero bariante* txikiak».



Hau da **Loren Cameron** argazkilariaren autorretratu-triptiko baten hirugarren erretratua. Loren 1979an aldatu zen San Frantziskora. San Frantziskoko Badiako lesbianen komunitatean parte hartu zuen bederatzirte. «Andretik gizonerako» trantsizioari 1987an eman zion hasiera. Argazkilari autodidakta da neurri handi batean, eta haren «Geure ikuspegia, geure ahotsak: transexualen erretratuak eta biluziak» erakusketa —liburu honetako zenbait argazki bertakoak dira— izan zen Cameronen lehenbiziko argazkigintza bilduma. Orduetik, asko erakutsi da haren lana, eta oso kritika onak jaso ditu. Egun, jarraitzen du lantzen transexualitatearekin lotutako beste proiektu fotografiko batzuk.



Stormé Delaverié 1955an sartu zen Jewel Box Revue taldera, gizonen imitatzailerik gisa. Stormé eta emakumeen 25 imitatzailerik —beltzak, asiarrak, natiboak eta latinoak— antzezten aritu ziren Mexikotik hasi eta Kanadaraino, hiri handi eta txikiak, eta biran ibili ziren Estatu Batuetako hegoalde segregatuan, 50eko hamarkadan eta 60ko hamarkadako hasieran.

—Nola nahi duzu jendeak zutaz hitz egitea, maskulinoan edo femeninoan (*he* edo *she*)?

—Jendeari esaten diot: «erosoen zaizun bezala».

Kantu triste bati berdina zaio noren bihotza urratzen duen. Baina ez du zentzurik kantu triste bat kantatzeak. [Hamabost urterekin] gogor zanpatu ninduten bi bandek: bitan. Aitonak esan zidan laster egiteari uzten ez banion bizi guztia emanen nuela lasterka. Laster egiteari utzi nion, eta ez dut laster egin ordutik. Orbainak ditut gorputz guztian. Nire gorputza da 40 miliako errepide txar bat. Dena ez da lanaren ondorio; karraketan ere izan da: esaterako, adineko pertsona bati laguntzean, eraso egin ziotenean. Ezin duzu ezikusiarrena egin. Bayoun hazi nintzen, eta, badakizu, zingiretako borrokalariak oso desberdinak gara karrakako borrokalarien aldean. Kaimana bezalakoa naiz... bizkorragoa, azkarragoa, inprebisiblea.

Ez du inporta zer zaren: gizona, emakumea, gaya, heteroa —edozein dela ere zeuretzat duzun identitatea—, inork ez du eskubiderik horregatik bizia kentzeko edo jo eta zanpatzeko. EZ dute eskubiderik. Stonewall harekin hasi zen. Deitu zioten 'istilu', 'matxinada'... Desobedientzia zibila izan zen. Jo egin zituzten, ubelduraz bete, eta batzuk kartzelara sartu. Baina denak zeuden nazkaturik tratatu txarra jasateaz, sarekadak jasateaz. Poliziek beren biziko ustekabea hartu zuten: erregina haiek ez zuten gehiagorik onartuko. Horrekin denarekin topo egin nuen. Kaleko izkina pasatu, eta begian kolpea eman zidaten bete-betean. Polizien kontrako zenbait borrokaldi gogorretan hartu nuen parte.

Ez dut damurik. Damurik izan banu, ez nintzatekeen hain luze bizi izanen.



Kate Bornstein, performance-artista transexual eta lesbiana.

«Nire arbasoak antzezleak izan ziren. Bizitzan. Xamanen hasierako errituetan emakumeek eta gizonek generoak trukatzan zituzten. Erritu zahar-zaharrak. Antzezle bikainak. Biziaren eta heriotzaren kontuak. Auzi *cross-kulturalaz* ari gara hemen. Gizon eta emakume izatetik gora, gora eta gora joateaz ari gara. Horrela hitz eginen lukete nire arbasoek jainkosekin eta jainkoekin. Erritu zaharrak.

Antzezle izan naiz modu batera edo bestera hogeita bost urtetik gora, eta orain antezzelan idazten ditut, horiek antzezteaz gain. Begira, inoiz ez nuen ikusi neure istorioa oholtzan, eta aritu nintzen bila. Ezagun nituen idazleengana jotzen nuen. Desiratzen nuen haiek neure istorioa idaztea. Eta orain ohartzen naiz guztiz ezinezkoa zitzaiela...

Nolanahi ere, antzerkian aritzen naiz oso ongi pasatzen dudalako *jendearekin* lanean, eta antzerkia ez da pertsona bakarreko artea. Eta gaur egungo antzerki-formek islatzen dute zurrunki bipolarra den genero sistema bat. Ez dira aski fluidoak esan nahi dudanerako, eta iruditzen zait ezen antzerkian formak eta edukiak izan beharko luketela, bizian bezala, osagarriak, ez elkarren kontrako, eta, hortaz, nik lantzen dut neure genero-fluidotasuna, eta batzuetan asmatzen dut, eta beste batzuetan ez. Eta lantzen dut, orobat, neure antzerki-estiloaren fluidotasuna; eta batzuetan asmatzen dut, eta beste batzuetan ez. Neure biziak eta antzerkiak —neronen forma eta edukia— nolabait egiten dute esaten dudana eta egiten dute egiten dudana. Neure arbasoek bezala».

(Lan honetatik hartua: *Gender Outlaw*, Kate Bornstein, Routledge argitaletxea, 1994)



Ezkerretik eskuinera: **Jacob, Mikel-Jon Carter, Bet Power**, «Andretik Gizonerako» Ekialdeko Kostako Taldekoak.

Bet Power: 1992ko hasieran eman nion hasmenta «Andretik Gizonerako» Ekialdeko Kostako Taldeari, betetzeko Lou Sullivanen heriotzak ekarritako hutsune gaitza, laguntza handia ematen baitzuen. Orobat, talde bat sortu nuen «andretik gizonerakoen» isolamenduari bukaera ematen laguntzeko, ekialdeko estatuetan. 1986an izan nuen lehenbiziko kontaktua Lourekin, bere lan iraultzailea bidali zuenean, hots, «*Andretik gizonerako cross-dresser* eta transexualentzako informazioa», Alexandria Berria Lesbianen Liburutegira. 1977. urtetik, neuk gordetzen eta zuzentzen nuen bilduma nazional hori, hasi zena Chicagon, 1974an, eta Massachusettsera aldatu nuena 1979an. Louk pentsatu zuen ezen bilduma bisitatzen zuten batzuek beharbada liburuxka hori irakurri nahiko zutela. Ez zekien, ez, posta ireki eta haren ekarpena jaso zuen bildumaren zuzendaria bera zela «andretik gizonerako» pertsona bat. Berehalakoan egin nuen hegan mendealdera, hura ezagutzera, eta orduan jaio zen gure adiskidetasuna.

1992ko urtarrilaren 1ean, Alexandria Berria Lesbianen Liburutegiari izena aldatu, eta Gutxiengo Sexualen Artxiboak izena jarri nion; izaera aldatu nion, gutxiengo sexual guztien materialak sartzeko, salbuespenik gabe eta inolako zentsurarik gabe: politikarekin hasi eta pornografiaraino. Egun, gai hauei buruzkoak biltzen ari gara: transgeneroak, sadomasokistak, bisexualak eta gizon gayak. Hori dena gehituko zaio lesbianen arlo izugarri handiari. Nire ametsa da Gutxiengo Sexualen Artxiboak izatea batasunerako toki indartsu bat, non *queer* guztien hitzak eta biziak elkartuko diren, elkarren pareko, elkarren ondoan.



Sharon Ann Stuart, Missouriikoa, pertsona bigeneroa da. Transgeneroen gaineko Lege eta Enplegu Politikei buruzko Nazioarteko Biltzarraren zuzendari sortzailea da. Horretaz gain, espezialista da armadako langileen transgeneroen arloan, eta idazle nagusietako bat izan zen Genero Eskubideen Nazioarteko Deklarazioa egiteko (ikus A eranskina).

«Pertsona bigeneroa naizen aldetik, identitate maskulinoa eta femeninoa agertzen ditut, txandaka, biekini eroso. Bi genero rola baliioesten eta ohoratzen ditut, eta gutxi gorabehera denbora bera ematen dut bietan. Elebiduna izatearen antzekoa da. Niretzat, genero-espresioa hizkuntzaren oso antzekoa da. Esaterako, pentsamendu eta sentimendu batzuk hobekien adierazten dira hizkuntza batean beste baten kontrako gisa. Ingelesa (maskulinoa) ikasten baduzu lehen hizkuntza gisa eta frantsesa (femeninoa) bigarren hizkuntza gisa, segur aski frantsesa ingeles doinuarekin egiten duzu. Hala, transgenero direnek eutsi ohi diote jatorrizko genero identitatearen elementuei. Zorrotzak izanda, inor ezin da izan 'guztiz gizon' edo 'guztiz emakume'. Haurra nintzela, eskuratu nuen bai feminitatea bai maskulinitatea adierazteko gaitasuna. Jainkoaren oparizat dut».



Avis Pendavis, Pendavis Etxeko ama, eta lagunak, *drag ball* baten kanpoko aldean, Harlemen (*drag ball*: dragek modeloen antzera desfilatze/dantzatzeko ekitaldia). «Avis agertu zen Paris Is Burning» filmean: Jennie Livingstonen dokumentala da, eta haren bidez publiko handiari erakutsi zion Harlemgo dragen sare zabala, hamarkadetan oharkabean igaro zena.

*Drag ball*ak Harlemgo historiaren parte dira. Esaterako, urteroko *Hamilton Lodge Balla* —handiena eta ospetsuena—, 1869tik egiten da. Parte hartzen zuten *drag queen* eta *drag king* gehienak langileen klasekoak ziren. Arrakasta handitu, eta 1925eko *balleen* 800 lagun izan ziren dantzaldian, eta 1.500 lagun 1926an. Parte-hartzaile kopuruak goia jo zuen 1937an, 8.000 lagunekin. Baina New Yorkeko poliziaren sarekada eta jazarpn kanpaina antolatut batek, 1930eko hamarkadan, Harlemgo *drag* kultura klandestinitatera eraman zuen.



«**Laura**, senarra, **April** (Don izenez ere ezaguna), ama, **Emma**, eta semea, **Arthur**, etxean, Long Islanden (New York), 1994an. Aprilen familiak, lagunek, auzoek eta lankideek Don ezagutzen dute bai April bai Don gisa. Don gisara ere, beti darabiltzan azazkal luzeek eta belarritakoek agertzen diote jendeari transgeneroa dela».

(Mariette Pathy Allen, argazki hau hartu zuen argazkilaria)



Kris, besoetan **Debbie** duela.

Kris: Hemen, Hegoaldean, zaila zait emakume gisa har nazaten baita saiatzen naizenean ere. Aldiro esaten didate: «Laguntzarik behar duzu, jauna?», «Eskerrik asko, jauna». Hasieran, harrigarria zitzaidan. Zuzendu egiten nien: «andrea naiz». Hamaika lotsa eta umiliazio uneren ondoren, jada ez diet gehiago zuzentzen.

Norahasi noala ere «jauna» deitzeak gizon egiten al nau? Bularrak eta pottotta izateak emakume egiten al nau? Askok eta luze pentsatu behar izan dut generoaren alderdi anitzez: genero soziala, genero genitala, genero emozionala. Genitalen aldetik, emea naiz. Baina, orobat, bizkar zabalak ditut, esku handiak, gorputz sendoa eta aurpegi maskulinoa. Lan fisikoetan aritzen naiz, eta gizonek bezala hartzen dut espazioa neure mugimenduekin. Iraganean, batez ere arrokek definitzen zuten norberaren generoa. Horren arabera, gizona nauzu, zalantzarik gabe. Neska-lagunarekin gizona eta emakumea naiz. Uste dut harekin naizela egiazkoen. Hark maite nau esandako guztiarengatik eta gehiagorengatik.

Gizona, ambigua, emakumea, gizon eta emakumea. Horra hor aukeran dauden kategoriak, baina ez dira egokiak naizena deskribatzeko. Hortaz, erabaki dut neure generoa dagoela behatzailearen begian. Jendeari uzten diot behar duen genero-kaxan sar nazala. Badakit tartean nonbait nagoela, transgeneroen komunitateko parte naizela, bere burua definitzen hasi den komunitateko parte.



Ezkerretik eskuinera: **Fran, Hannah** eta **Davina**. Davina Anne Gabriel da *Transister* aldizkariaren argitaratzailea, eta aldizkaria feminismo transexualari buruzkoa da. Arrazoi honengatik eman zion hasiera aldizkariari: «Emakume transexualek feminismoa behar dute emakume ez-transexualek adina, segur aski gehiago. Emakume transexual askok uste dute ezen ebakuntza lortzearekin berez eskuratuko dutela eurak egiaz izateko askapen osoa. Baina ez da soilik 'gorputz okerreten harrapatu' egotearen sentipena kartzelatzen gaituena: orobat, kartzelatzen gaituena da jasotzen eta barneratzen dugun baldintzapean patriarkala, gizarte patriarkal batean jaio eta hazi izanaren ondorioz. Gorputzak bakarrik askatzen baditugu, geure burua erdizka baino ez dugu askatuko. Gogoak askatzea da hurrengo pausoa askapen prozesuan, eta hori lortutakoan erdiesten dugu askapen eta burujabetza osoa. *Transister* aldizkariari hasiera emateko arrazoietako bat izan zen geure buruari laguntzea hori lortzen».



Maitasun botoak berritzen.



Dan (Linda), «andretik gizonerako» *cross-dresser* bat, **Yvonne**rekin, «gizonetik andrerako» transgenerista batekin. Maitasuna genero askotako kontua da.




Nancy Nangeroni aktibista transexuala, Stonewallen 25. urteurrenean:

Garaia da geure bizietako alderdi guztietatik erauzteko generoen araberako jokabide-estereotipoen inposizioa. Genero zapalkuntzari bukaera emateak esan nahi du haurrak adoretzea genero-espresio alternatiboak esperimentatzeko; mutikoen eta neskatoen segregazioari amaiera ematea; haurrak adoretzea aukera ditzaten beren arropak, orrazkerak, interesak —hitz batez, beren generoa— eta haien hautuak babestea.

Sortu dezakegu kultura bat non dibertsitateak ez duen beldurrik eraginen, baizik gozamena; non gizonak eta emakumeak ez diren elkarrenganako ilun eta mehatxagarri izanen, baizik zentzuzko eta lagungarri; non bikote harremanak ez duen ekarriko desengainua, baizik gogobetetzea. Geure kulturak genero-espektatibarik jada inposatzen ez duenean, gizonak ireki eginen dira biziaren edertasun finaren aurrean, eta emakumeak konfiantza eta segurtasun handiagoz biziko dira.

Problema ez ditu generoak ekartzen, baizik batak besteari genero bat inposatzeak. Inposizioa azkentzen denean, maskulinitatearen eta feminitatearen polaritateak bere horretan iraun dezake, baina norberaren gustu bat bezala, aginduzko zerbait izan ordez. Zakilak, bularrak eta aluak berriz ere itzuliko dira gorputzaren zatiak izatera, eta ez jokabidearen eta identitatearen arautzaile.

Eta denok aiseago hartuko dugu amasa.



Dennis Rodman New Yorkeko liburu denda batean agertu zen 1996ko abuztuan, bere autobiografiaren aleak sinatzeko.

EPILOGOA

Dena existitzen da aldaketa eta garapen egoera etengabeen. Denbora da prozesu horren neurri bat. Orobat berrikuspenak ere hala dira.

Hasieran, liburu hau azpidatzi nuen *Historia eginez Joana Arc-ekotik RuPauleraino*, ezagutzeko moduko esanahia emateko *transgender* hitzari, eta nire laneko garai eta denboren zabalera transmititzeko. Baina hori izan zen Dennis Rodmanen aurretik, zeina baita saskibaloiaeren historiako errebotetzailerik handiena, harro atera zena armairutik *cross-dresser* gisa, eta hori izan zen, halaber, adin eta nazio guztietako milioika lagunek Dennis Rodman *cross-dresserra* txalotu aurretik maitasunez eta errespetuz.

Herrialde honetan, milaka lagun —agian milioika—, sexualitate guztietakoak, «janzten dira gurutzatuki» batzuetan edo denbora guztian. Ordea, indarkeriari, umiliazioari eta jazarpenei zaien beldurrez, sexu espresio hori ezkutuan gauzatzen da neurri handi batean. Transgeneroen askapenerako mugimenduaren jaiotzak tokia egin die Rodman bezalako jendeari, egiaz diren bezala ager daitezten. Era berean, Rodmanen aldarrikapen ausartak soilik ekar dezake beste batzuk ere ahalduntzea.

Kiroleko kazetari batzuek berehalakoan salatu zuten Rodman publizitaterako trikimailu bat erabili izanaz, Howard Stern intoleranteak egiten zuen bezala, jendaurrean «gurutzatuki janzten» baitzen liburuak sinatzeko ekitaldietan. Stern izan daiteke edo ez *cross-dresserra* eremu pribatuan. Baina bere jarrera publikoa —Bohemian Grove Clubeko gizon zuri handikien *dragen* parodia bezala— burlatia eta krudela da. Dennis Rodmanek

ordea, jada baita arrazismoaren, amorrazioaren eta intsinuazioen xede, ez du deus irabazterik *cross-dresser* gisa armairutik ateratzearekin. Argi esaten du bere genero espresioa haurtzarotik datorkiola. Bere *Bad as I wanna be* best-sellerrean idatzi zuen: «txikia nintzela, batzuetan neskaz beztitzzen nintzen. Familietara jostatzen zara, medikuetara jostatzen zara... Denek egiten dugu hori, baina batzuek gustukoagoa dute beste batzuek baino. Nik osorik egiten nuen: neska bat bezala jantzi, makillatu eta neska batek bezala jokatu».

Eskuindarren erantzuna ibili zen erdi-ezkutuko erasotik amorruzko lerdea botatzerainokoa. Prentsan, batzuek haserre esan zuten Rodmanen espresio transgeneroa «distrakzio» bat zela. Baina kazetariak Rodmanen kontra jo eta ke ari ziren bitartean, Dennis Rodman, pistan, zoragarri borrokatzen zen baloiarekin. Haren autoespresioak ez zuen galarazi Chicago Bullsek irabaztea 1996ko NBAko txapelketa.

Bullseko entrenatzaile Phil Jacksonek hedabideetan nabarmendu zuenez, «Rodman iritsi da beste jokalaririk batzuen bihotzaren espaziora, nik espero ez bezala. Dennis zinez izan da bedeinkapen guretzat, *heyoka* bat bezalakoa baita». Jacksonek azaldu zuen lakota herrian *heyoka* zela «*cross-dresser* bat, paregabeko pertsona (...), errespetatua, errealitatearen aldaketa bat zekarrelako ikusten zenuenean».

Jacksonek esandakoa aditu nuenean, liburu hau haren eskuetan jartzeko gogoia izan nuen. Eta nahi nuen Rodmanek ere kopia bat izatea. *Borrokalari transgeneroak* liburuak Dennis Rodman jartzen du testuinguru historikoan, gizateriaren ibilbidea aldatzen lagundu duten transgeneroen artean. Liburu honek erantzuten dio Dennis Rodmanen autoespresioa —eta neurea ere— «ez-naturala» izatearen gorrotozko salaketari. Eta liburu honek agerian uzten du zergatik Rodman, edo beste edozein transgenero, dagoen erreakzioaren jopuntuan.

Rodmanek bere biografian idazten duenez, «irudi du jendea mehatxaturik sentitzen dela baldin atleta batek egiten badu maskulinoa ez den zerbait. Irudi du lerro imaginario bat gurutzatu duela, jendearen ustez gurutzatu behar ez dena». Nahi nuen Dennis Rodmanek izatea zeuk *Borrokalari transgeneroak* irakurritak daukazu informazioa, zeren erakusten baitu nork marraztu zuen lerro hori, noiz eta zergatik.

Deliberatua nengoen liburu honen kopiak ematera Rodmani eta Jacksoni. Hedabideek broma gisa tratatzen zuten Rodmanek NBAko playoff-etan zuen rola, eta, hala, abiarazia zuten eraso gupidagabea haren generoa espresatzeko askatasunaren kontra, hots, giza eskubide baten kontra. Baina zaleak —zahar eta gazte— saiatu ziren Rodmanen autoespresioari sostengua adierazten, gizarte batean zeinek ez gaituen hornitu defentsa horretarako hizkera duinez.

Banekien ezen, liburu honen aleak igorritz gero, bukatuko zutela Bullsen zaleen gutun meta baten erdian. Hortaz, jokatu nuen nire liburuen biretan jokatzen nuen bezala: publikoari laguntza eskatu nion. Zorionez, Chicagon suertatu nintzen NBAren playoff-etan. Irratiko elkarrizketetan eta liburu-dendetako irakurraldietan, entzuleei esan nien zein inportantea zen Dennis Rodmanen ausardia defendatzea. Laguntza eskatu nien *Borrokalaria transgeneroak* liburua ale bat irits zedin Bullsen aldagelaraino. Eta, hala, eskaintza serio bat egin zidaten liburuak Rodman eta Jacksonengana iritsarazteko.

Ez dakit Rodmanek edo Jacksonek berek jaso ote zituzten nik elkartasuneko mezularitza sistemaz bidalitako liburuak. Baina entzuleen aurrean egin nuen Dennis Rodmanen defentsa sutsuak eta nire laguntza eskaerek jasotako erantzun indibidualak ongi erakusten dute zergatik maite ditudan liburu-sinatzeak eta hitzaldi-birak.

Maite dut birak egitea. Ez zait gustatzen tabako usain zahar mindua moteleko gelan, harreragileak segurtatu ondoren ez-erretzaileen gelak zirela, ezta taxiz joatea ere, heriosuharreen, aireporturantz, goizeko puntako orduetan. Bidaiatzeaz gustatzen zaidana da ezagutzen dudana jendea. Beren borroken gainean irakasten didate, eta nik neureak partekatzen ditut haiekin. Pertsona apartak ezagutu ditut, eta gutun eta e-mail zoragarriak jaso. Aberastu naiz Estatu Batuetako eta mundu guztiko milaka trans pertsona ezagutuz edo haiekin gutunak trukaturik. Beste batzuek nirekin konpartitu dituzte, begiak mal-kotan, beren istorio hunkigarriak: nola behin izandako haur edo nerabe konplexua konformitatera hertsatu zuten, eta nola falta sentitzen duten bihurtu nahi zuten pertsona harena.

Gutun mingarriak iritsi zaizkit, maitale izandako emakume maskulino baten suizidioaz, edo anaiaren femenoaren bere

burua hil izanaz: dolu idatziak, haiek maite bai baina haiek defendatzeko hitzik edo kontzepturik ez zituztenenak. Askok azaldu didate nola identifikatzen diren trans askapenerako borrokarekin, jasandako bazterketarengatik, zapalkuntzarengatik, gutxiespenarengatik, jazarpenarengatik eta umiliazioarengatik, «desberdin» izateagatik.

Ikasitako guztia ekarri dut idazkietara eta militantziara. Nire idazkiak dira neure aktibismoaren luzapen bat, eta laguntzen didate egiazko aldaketa lortzeko konpromisoa garatzen: askapenerako mugimendu historiko baten parte naiz. Zinezko konbikzio politikoak ditut, neure bizi esperientziatik jaiok. Oinarriko militantea naiz. Bidaietan —irakurraldi, ekitaldi, interakzio guztietan— ezagutzen ditudan guztien alde egiten dut, baldin prest badaude aldaketaren alde borrokatzeko. Elkarrekin, oraindik existitzen ez den gizarte bat taxutzen ari gara.

Urteak eman ondoren bidaiatzen eta eztabaidatzen pikeetean, elkarretaratzeean eta manifestazioetan, ohartu naiz sakoneko kausa amankomuna konpartitzen dudala neurea ez bezalako zapalkuntza jasaten dutenekin. Guztiz lotuta gaude, egiazko justizia eta berdintasuna irabazteko desiraren eta konpromisoaren bidez.

Espero dut egia horixe topatzea orrialde hauetan. Hasi Dennis Rodmanen kontrako gorrotoz betetako iruzkinekin eta buka ezezaguna zaizun Nebraskako gazte transgenero baten hilketarekin, zeure humanitatea mehatxatu eta gutxitu egiten da. Izan kaleratze bati aurre egiten ari zarela, edo etxegabea izatetik soldata bateko tartera zaudela, izan burokraziarekin borrokan ari zarela osasun arreta edo haurtzaindegia lortzeko, izan arrazismoari edo antisemitismoari kontra egiten ari zarela, izan emakume gisa dituzun eskubideen alde ari zarela, zeure sexualitatea erasoetatik defendatzen, edo desgaitasuna duen aktibista bazara irisgarritasunaren alde... Zeure borroka geurearekin estu loturik dago.

Beharbada liburu hau irekiko zenuen ustez eta zerbait ikasiko zenuela batere ezagutzen ez zenituen jende batzuek. Ordea, espero dut ohartuko zinela beti izan garela zeure bizian. Agian ezagutu duzu maitale ohi bat, edo lankide bat, edo izeba edo osaba bat, zeinari buruz xuxurlatzen zuen familiak ezteietan eta hileta-elizkizunetan.

Edo menturaz zerorren burua islaturik ikusi duzu orrialde hauetan. Eta identifikatu nahiz ez identifikatu transgenero, transexual edo intersexual gisa, zeuk ere baduzu interesa geure borrokan. Neure burua definitzeko eta espresatzeko eskubidea loturik dago, milaka harirekin, zeure burua definitzeko eta espresatzeko eskubidearekin.

Liburu hau idatzi dut zuretzat, eta idatzi dut niretzat. La-saitu handia dut liburu hau eskuetan duzulako. Gaur, nire 47. urtebetetzean, honetaz pentsatzen, ohartzan naiz helduaroko zatirik handienean sentitu naizela liburu hau idaztera bulkatua. Sentimendu zoragarria da bizitzako halako eginkizun liluragarria bete izana. Hainbat urtez amestu dut liburu inprimategitik atera, besapean ale pilak hartu eta hiriz hiri eramateko unearrekin. Baina aurten biziko ikasgai inportante bat ikasi dut, neronen biziaren eta indar fisikoaren hauskortasunaz. Idazlan hau bukatzen ari nintzela, gaixotu egin nintzen, infekzio biral eta bakteriano setati eta katastrofiko batzuen ondorioz. Idazten ari naizen bitartean, etxean nago, zorro intrabenoso bati lotua, zeinetik grabitateak eragiten duen antibiotikoak erortzea, tanta-ka, hodi batera eta nire odol-fluxura. Osasuna berreskuratzeko borrokak, goiz aski, bi traba izan ditu: intolerantzia eta pobrezia. Herrialde honetako berrogei bat milioi langile agiridunek bezala, eta paperik gabeko askoz ere milioika langile gehiagok bezala, ez dut osasun asegururik.

Temperatura arriskugarriki igo zitzaidanean, nire gauzak bildu, eta elurbusti eta elur-erauntsi artean joan behar izan nuen kliniketara eta ospitaleetako larrialdietara. Jasan nuen osasun arloko profesional batzuen gorroto gordina; uko egin zioten ni artatzeari, soilik emakume maskulinoa nintzelako. Medikuak eta erizainak aditu nituenean niri aipu egiten «martetarra» edo «gauza hori» esanez, gogora ekarri zizkidaten HIES izurritearen hasierako garaiak, non ospitale batzuetako langileek janari erretiluak uzten zituzten nire lagun erien geletako kanpoko aldean, lurrean. Sukarraren eldarnioak jota, beste behin ikasi nuen borroka egin behar nuela duintasunez eta errespetuz tratatua izateko giza eskubidearen alde, zaindua izateko giza eskubidearen alde. Borrokalaria transgeneroak borrokatzen dira osasun arreta irabaz dadin eskubide gisa, ez pribilegio gisa. Gudu horrek

bi fronte dauzka: denentzako osasun arreta lortzeko borroka, eta guztiz hedatua dagoen diskriminazioaren kontrako borroka.

Orri hau irakurtzen duzunean, segur aski oso eri egonen naiz oraindik. Beharbada ez naiz gauza izaneren zure herri txikira edo hiri handira bidaiatzeko, liburu honen irakurraldia egiteko eta batzen gaituenaz gehiago ikasteko. Nire kalte. Baina liburu hau bidaltzen dizut.

Ez dut aski indar fisikorik —ezta ongi nagoenean ere— *Borrokalaria transgeneroak* jartzeko irakurri nahi duen bakoitzaren eskuetan. Baina konfiantza dut *zuregan*, militantea zaren aldetik. Baldin, liburu hau irakurtzen duzunean, hemengo ideiak egia iruditzen bazaizkizu, orduan badakit pasatuko diozula lagun bati, familiako bati, lankide bati, edo auzo bati. Ni naiz mendeetako isiltasuna puskatzen ari diren ahots trans askotako bat. Gu gara bide-urratzaileak, funtsezko aldaketa eskatzen duen mugimendu masibo batena.

Borrokalaria transgeneroak neure ahotsa da, mugimenduari egiten diodan ekarpena. Hau da nik egin dezakedan lana nire indar indibidualarekin. Adoretzen nau uste izateak nire lana gailur berrietara goratuko duzula.

1996ko irailak 1

ERANSKINA

GENERO ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO DEKLARAZIOA

1995eko ekainaren 17an onetsi bezala

Genero Eskubideen Nazioarteko Deklarazioaren (GEND) lehenbiziko zirriborroa batzorde batek egin zuen, eta onetsi zuten Transgeneroen gaineko Lege eta Enplegu Politikei buruzko Nazioarteko Biltzarrean, urtero egiten den bigarren bilkuran, egin baitzen Houstonen (Texas), 1993ko abuztuaren 26tik 29ra bitarte.

GENDak oinarrian ditu bi agiri, bata Jo Ann Roberts-ena, (Pennsylvania) eta bestea Sharon Stuart-ena (New York), hurrenez hurren: biak elkartu eta zabaldu ditu.

GENDa saiatzen da adierazten giza eskubide zibil funtsezkoak generoaren ikuspegitik. Hala ere, behean enuntziatzen diren hamar eskubideak ez dira ikusi behar interes berezia duen talde bati aplikatu beharreko eskubide berezi gisa. Orobat, eskubide hauek ez zaizkie aplikatu behar soilik genero identitatea eta rola berebiziko kezka dituzten pertsoneri. GENDeko hamar zatiak eskubide unibertsalak dira, gizaki orok aldarrikatzen eta erabiltzen ahal dituenak.

GENDa adierazpen teorikoa da, lege-indarrik gabea, salbu legegintza-kidegoek bere egiten badute eta bertako printzipioak aitortzen badituzte justizia auzitegiek, agentzia administrati- boek eta nazioarteko kidegoek, esaterako Nazio Batuek.

Hala eta guztiz ere, banakoak libre dira GENDean adierazi- tako egiak eta printzipioak bere egiteko, eta beren biziak horien arabera gidatzeko. Hala izanez gero, GENDean adierazitako egiek gizateria askatuko eta ahaldunduko dute halako moduz non

geldituko baita legelarien, epaileen, funtzionarioen eta diplomazialarien irismenetik kanpo.

GENDean adierazitako egiak bere egiten dituenean gizeriak, eta gauzaten dituenean, nahitaez jarraituko diete legebiltzarren egintzek, auzitegien deklarazioek eta gobernuen beste egiturek. Hala, milioika gizakik urratutako espresio askearen bideek, helburu zutela beren burua definitzea eta espresatzea, eta beren biziei esanahia ematea, azkenerako finkatuko dute gobernuen norabidea.

GENDa da agiri eraldatzaile eta iraultzailea, baina funtsatzen da norberaren askatasunaren eta espresio librearen oin-harrian. Geure biziak loratu ahala, hona hemen egia-hazi hauek, aldarrikatu eta erabili nahi dituen ororentzat.

Agiri hau, egile-eskubideak dituen arren, erreproduzitu daiteke edozein bitartekoz, eta nahi bezala zabaldu, baldin hala egiten duenak sostengatzen baditu Genero Eskubideen Nazioarteko Deklarazioan jasotako printzipio eta aldarrikapenak.

GENDa dago Transgeneroen gaineko Lege eta Enplegu Politikei buruzko Nazioarteko Biltzarraren azterketen eta berrikuspenen menpe. GENDa berrikusteko proposamenak eta iruzkinak hona igorri behar dira: Sharon Stuart, International Bill of Gender Rights Project, P.O. Box 930, Cooperstown, NY 13326, U.S.A. Telefonoa: (607) 547-4118. E-maila: StuComOne@aol.com [Itzle. oh.: 1996ko datuak dira]

Eskubidea norberaren genero identitatea definitzeko

Gizaki orok dakar bere baitan ideia bat bere identitateaz eta lortzeko gai denaz, ideia bat etengabe garatzen ari dena. Norberak bere buruaz sentitzen duena ez du ezartzen ez sexu kromosomikoak, ez genitalek, ez jaiotakoan esleitutako sexuak ez hasiera bateko genero rola. Hala, pertsona baten identitatea eta gaitasunak ezin dira mugatu gizarteak maskulinoztat edo femeninoztat hartutako jokabideetara. Funtsezkoa da banakoek eskubidea izatea definitzeko, eta birdefinitzeko, beren biziak garatu ahala, beren genero identitateak, edozein izanik ere beren sexu kromosomikoa, genitalak, jaiotakoan esleitutako sexua edo hasiera bateko genero rola.

Horrenbestez, gizaki guztiek dute eskubidea beren genero identitatea definitzeko edozein izanik ere beren sexu kromosomikoa,

genitalak, jaiotakoan esleitutako sexua edo hasiera bateko genero rola; are gehiago, inori ez zaizkio ukatuko Giza Eskubideak edo Eskubide Zibilak norberak bere buruaz egindako genero identitatearen definizioagatik, bat ez datorrenean bere sexu kromosomikoarekin, genitalekin, jaiotakoan esleitutako sexuarekin edo hasiera bateko genero rolaarekin.

Eskubidea norberaren genero identitatea libreki espresatzeko

Kontuan harturik norberaren genero identitatea definitzeko eskubidea, gizaki orok du, horrekin bat, eskubidea libreki espresatzeko berak definitutako genero identitatea.

Horrenbestez, gizaki orok du eskubidea libreki espresatzeko berak definitutako genero identitatea; are gehiago, inori ez zaizkio ukatuko Giza Eskubideak edo Eskubide Zibilak berak definitutako genero identitatea espresatzeagatik.

Eskubidea enplegua eskuratzeko eta mantentzeko, eta ordain justua jasotzeko

Kontuan harturik gizarte modernoaren egitura ekonomikoa, gizaki orok du eskubidea lanbide edo profesio baterako prestatzeko eta hura bilatzeko, hori baita bitartekoa lortzeko ostatua, mantenua eta bizitzako premiak eta oparotasunak, berretzat eta bere bizkar bizi direnentzat; bada, hori dena kontuan harturik, gizaki orok du eskubidea enplegua eskuratzeko eta mantentzeko, eta ordain justua jasotzeko bere lanagatik, edozein izanik ere bere sexu kromosomikoa, genitalak, jaiotakoan esleitutako sexua edo hasiera bateko genero rola.

Horrenbestez, inori ez zaio ukatuko eskubidea lanbide edo profesio baterako prestatzeko eta hura bilatzeko, ez enplegua eskuratzeko eta mantentzeko, ez ordain justua jasotzeko bere lanagatik, argudio gisa erabiliz bere sexu kromosomikoa, genitalak, jaiotakoan esleitutako sexua edo hasiera bateko genero rola, edo arrazoi gisa erabiliz norberak definitutako genero identitatea edo genero identitate horren espresioa.

Eskubidea genero bati lotutako espazioetan sartzeko eta genero bati lotutako jardueretan parte hartzeko

Kontuan harturik norberaren genero identitatea definitzeko eskubidea eta, horrekin bat, norberak definitutako genero identitatea libreki espresatzeko eskubidea, inori ez zaio ukatuko espazio batean sartzea ez jarduera batean parte hartzea, nor-

berak definitutako genero identitateagatik, bat ez datorrelako haren sexu kromosomikoarekin, genitalekin, jaiotakoan esleitutako sexuarekin edo hasiera bateko genero rolaarekin.

Horrenbestez, inori ez zaio ukatuko espazio batean sartzea ez jarduera batean parte hartzea, norberak definitutako genero identitateagatik, bat ez datorrelako haren sexu kromosomikoarekin, genitalekin, jaiotakoan esleitutako sexuarekin edo hasiera bateko genero rolaarekin.

Eskubidea norberaren gorputza kontrolatzeko eta aldatzeko

Gizaki orok du eskubidea bere gorputza kontrolatzeko, barnean dela gorputzak kosmetikoki, kimikoki nahiz kirurgikoki aldatzeko eskubidea, norberak definitutako genero identitatea espresatzeko.

Horrenbestez, inori ez zaio ukatuko bere gorputza aldatzeko eskubidea, bitarteko bat denean norberak definitutako genero identitatea espresatzeko; are gehiago, inori ez zaizkio ukatuko Giza Eskubideak edo Eskubide Zibilak argudiatuz gorputza aldatu duela kosmetikoki, kimikoki nahiz kirurgikoki, edo argudiatuz hala egin nahi duela berak definitutako genero identitatea espresatzeko bitarteko gisa.

Eskubidea behar bezalako zaintza mediko eta profesionala jasotzeko

Kontuan harturik norberaren eskubidea norberaren genero identitatea definitzeko, eta norberaren gorputza aldatzeko, bitarteko bat denean norberak definitutako genero identitatea espresatzeko, inori ez zaio ukatuko eskubidea behar bezalako zaintza mediko eta profesionala jasotzeko, argudio gisa erabiliz haren sexu kromosomikoa, genitalak, jaiotakoan esleitutako sexua edo hasiera bateko genero rola.

Horrenbestez, inori ez zaio ukatuko eskubidea behar bezalako zaintza mediko eta profesionala jasotzeko, gorputza aldatzen duenean kosmetikoki, kimikoki nahiz kirurgikoki, argudio gisa erabiliz haren sexu kromosomikoa, genitalak, jaiotakoan esleitutako sexua edo hasiera bateko genero rola.

Eskubidea diagnostiko nahiz tratamendu psikiatrikorik ez jasotzeko

Kontuan harturik norberaren eskubidea norberaren genero identitatea definitzeko, inor ez da behartuko diagnostiko

nahiz tratamendu psikiatrikoa jasotzera soilik haren genero identitatearengatik edo rolarengatik.

Horrenbestez, inor ez da behartuko diagnostiko nahiz tratamendu psikiatrikoa jasotzera, nahasmendu nahiz eritasun mentala balu bezala, soilik norberaren genero identitatearen definizioarengatik nahiz genero identitate horren espresioarengatik.

Eskubidea sexu espresiorako

Kontuan harturik norberaren eskubidea norberaren genero identitatea definitzeko, hala nahi duen heldu orok du eskubidea, horrekin bat, sexu espresio librerako.

Horrenbestez, inoren Giza Eskubideak edo Eskubide Zibilak ez dira ukatuko haren orientazio sexualagatik; are gehiago, inori ez zaizkio ukatuko Giza Eskubideak edo Eskubide Zibilak norberak definitutako genero identitatea espresatzeagatik helduen arteko sexu-egintza adostuen bidez.

Eskubidea konpromisodun maitasun harremanak eratzeko eta ezkontza kontratuak egiteko

Kontuan harturik gizaki orok duela eskubidea norberak definitutako genero identitatea libreki espresatzeko, eta kontuan harturik, orobat, sexu espresiorako eskubidea, genero espresioaren modu bat denez, gizaki orok du eskubidea adostasunez eratzeko konpromisodun maitasun harremanak beste norbaitekin, eta ezkontza kontratuak egiteko, edozein izanik ere bere edo kidearen sexu kromosomikoa, genitalak, jaiotakoan esleitutako sexua edo hasiera bateko genero rola.

Horrenbestez, inori ez zaio ukatuko eskubidea eratzeko konpromisodun maitasun harremanak beste batekin, edo ezkontza kontratuak egiteko, argudio gisa erabiliz haren edo kidearen sexu kromosomikoa, genitalak, jaiotakoan esleitutako sexua edo hasiera bateko genero rola, edo argudio gisa erabiliz norberak definitutako genero identitatearen espresioa.

Eskubidea haurrak kontzebitzeko, sortzeko nahiz adoptatzeko Eskubidea haurrak hazteko eta haien zaintza izateko, eta guraso-ahala gauzatzeko

Kontuan harturik eskubidea konpromisodun maitasun harremanak eratzeko eta ezkontza kontratuak egiteko, eta,

horrekin batera, eskubidea norberak definitutako genero identitatea espresatzeko eta sexu espresiorako eskubidea, banakoek eskubidea dute, horrekin bat, eskubidea haurrak kontzebitzeko, sortzeko eta adoptatzeko, haurren zaintza izateko, eta haurren guraso-ahala gauzatzeko, izan haur naturalak nahiz adoptatuak, edozein izanik ere sexu kromosomikoa, genitalak, jaiotakoan esleitutako sexua edo hasiera bateko genero rola, edo edozein izanik ere norberak definitutako genero identitatea edo genero identitate horren espresioa.

Horrenbestez, inori ez zaio ukatuko eskubidea haurrak kontzebitzeko, sortzeko eta adoptatzeko, ez haurrak hazteko eta haien zaintza izateko, ez guraso-ahala gauzatzeko, izan haur naturalak nahiz adoptatuak, argudio gisa erabiliz haren, kidearen nahiz haurren sexu kromosomikoa, genitalak, jaiotakoan esleitutako sexua edo hasiera bateko genero rola, edo argudio gisa erabiliz norberak definitutako genero identitatea edo genero identitate horren espresioa.

BIBLIOGRAFIA HAUTATUA

- Ackroyd, Peter. *Dressing Up: Transvestism and Drag*. New York: Simon and Schuster, 1979.
- Bennet, Betty T. *May Diana Dods, A Gentleman and A Scholar*. New York: William Morrow, 1991.
- Bornstein, Kate. *Gender Outlaw: On Men, Women and the Rest of Us*. New York: Routledge, 1994.
- Brierly, Harry. *Transvestism: A Handbook with Case Studies for Psychologist, Psychiatrist and Counsellors*. Oxford: Pergamon Press, 1979.
- Bullough, Vern L. *Homosexuality: A History from Ancient Greece to Gay Liberation*. New York: New American Library, 1979.
- Bullough, Vern L. «Transsexualism in History», *Archives of Sexual Behavior* 4.5 (1975) 561-71.
- Bullough, Vern L. «Transvestites in the Middle Ages: A Sociological Analysis», *American Journal of Sociology* 79.6 (1974): 1384.
- Bullough, Vern L. and Bonnie Bullough. *Cross Dressing, Sex, and Gender*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press, 1993.
- Davis, Natalie Zemon. *Society and Culture in Early Modern France: Eight Essays*. Stanford, CA: Stanford University Press, 1975.
- Davis, Natalie Zemon. «Women on Top: Symbolic Sexual Inversion and Political Disorder in Early Modern Europe», *The Reversible World: Symbolic Inversion in Art and Society*, ed. Barbara A. Babcock. Ithaca, NY: Cornell University Press, 1978. 147-90.
- Dekker, Rudolf M. & Lotte C. Van de Pol. *The Tradition of Female*

- Transvestism in Early Modern Europe*. New York: St. Martin's Press, 1989.
- Denny, Dallas. *Current Concepts in Transgender Identity: Towards a New Synthesis*. New York: Garland Publishers, 1996.
- Denny, Dallas. *Gender Dysphoria: A Guide to Research*. New York: Garland Publishers, 1994.
- Denny, Dallas. *Identity Management in Transsexualism*. King of Prussia, PA: Creative Design Services, 1994.
- Denny, Dallas. «The Politics of Diagnosis and Diagnosis of Politics: The University-Affiliated Gender Clinics, and How They Failed to Meet the Needs of Transsexual People». *Chrysalis Quarterly* 1.3 (1994): 9-20.
- Ellman, Richard. *Oscar Wilde*. New York: Knopf, 1988.
- Epstein, Julia and Kristina Straub, eds. *Body Guards: The Cultural Politics of Gender Ambiguity*. New York: Routledge, 1991.
- Feinbloom, Deborah Heller. *Transvestites and Transsexuals: Mixed Views*. New York: Delta, 1976.
- Garber, Marjorie. *Vested Interests: Cross-Dressing and Cultural Anxiety*. New York: Routledge, 1992.
- Gilbert, O. P. *Men in Women's Guise: Some Historical Instances of Female Impersonation*. Trans. Robert B. Douglas. London: John Lane The Bodley Head Limited, 1932.
- Gilbert, O. P. *Women in Men's Guise*, trans. J. Lewis May. London: John Lane The Bodley Head Limited, 1932.
- Herd, Gilbert, ed. *Third Sex, Third Gender: Beyond Sexual Dimorphism in Culture and History*. New York: Zone Books, 1994.
- Hirschfeld, Magnus. *Transvestites*. Trans. Michael A. Lombardi-Nash. Buffalo, New York: Prometheus Books, 1991. A translation from German of *Die Transvestiten*. Leipzig: Max Spohr, 1910.
- Kessler, Suzanne J. & Wendy Mackenna. *Gender: An Ethnomethodological Approach*. Chicago: The University of Chicago Press, 1978.
- Living the Spirit: A Gay American Indian Anthology*. Compiled by Gay American Indians. Coordinating ed. Will Roscoe. New York: St. Martin's Press, 1988.
- Lucas, R. Valerie. «Hic Mulier: The Female Transvestite in Early Modern England». *Renaissance and Reformation/Renaissance et Réforme* 24.1 (1988): 65-84.

- Pahty-Allen, Mariette. *Transformations: Crossdressers and Those Who Love Them*. New York: E.P. Dutton, Inc., 1989. (Available through the International Foundation for Gender Education.)
- Minnie Bruce Pratt. *S/HE*. Ithaca, NY: Firebrands Books, 1995.
- Roscoe, Will, ed. «Bibliography of Berdache and Alternative Gender Roles Among North American Indians». *Journal of Homosexuality* 14.3-4 (1987).
- Roscoe, Will. *The Zuni Man-Woman*. Albuquerque: University of New Mexico Press. 1991.
- Rothblatt, Martine. *The Apartheid of Sex*. New York: Crown Publishers, 1995.
- Rubin, Gayle. «Thinking Sex: Notes for a Radical Theory of the Politics of Sexuality». *American Feminist Thought at Century's End: A Reader*. Ed. Linda S. Kauffman. Cambridge, MA: Blackwell, 1993.
- Stone, Sandy. «The Empire Strikes Back: A Posttranssexual Manifesto». *Body guards: The Cultural Politics of Gender Ambiguity*. Eds. Julia Epstein and Kristina Straub. New York: Routledge, 1991. 208-304
- Stryker, Susan. «My Words to Victor Frankenstein above the Village of Chamounix: Performing Transgender Rage». *GLQ: A Journal of Lesbian and Gay Studies* 1.3 (1994): 237-54.
- Stryker, Susan. «Transsexuality: The Postmodern Body and/as Technology». *Exposure: The Journal of the Society for Photographic Education* 30:1/2 (1995): 38-50.
- Sullivan, Louis. *From Female to Male: The Life of Jack Bee Garland*. Boston: Allyson Publication, 1990.
- Sullivan, Louis. *Information for the Female to Male Cross Dresser and Transsexual*. (Seattle: Ingersoll Gender Center, 1990).
- Thompson, C. J. S. *The Mysteries of Sex: Women Who Posed as Men and Men Who Impersonated Women*. New York: Causeway Books, 1974.
- Trumbach, Randolph. «London's Sapphists: From Three Sexes to Four Genders in the Making of Modern Culture». *Body-guards: The Cultural Politics of Gender Ambiguity*. Eds. Julia Epstein and Kristina Straub. New York: Routledge, 1991. 112-41.
- Trumbach, Randolph. «Sex, Gender, and Sexual Identity in Mo-

- der Culture», *Forbidden History: The State, Society, and the Regulation of Sexuality in Modern Europe*, ed. John C. Fout. Chicago: University of Chicago Press, 1992. 89-106.
- Wheelwright, Julie. *Amazons and Military Maids: Women Who Dressed as Men in the Pursuit of Life, Liberty and Happiness*. London: Pandora, 1989.
- Williams, Walter. *The Spirit and the Flesh*. Boston: Beacon Press, 1986.

HIZTEGIA

Hitz hauetako batzuk iraingarriak dira edo izan daitezke, bai ingelesez, bai euskaraz.

«**Andretik gizonerako**» **trabestia**: andrea izanik ustez gizonarenak diren jantziak janzten dituen. *Female-to-male transvestite* terminoaren ordain gisa erabili da.

Bigeneroa: bi generoekin identifikatzen den pertsona.

Bulldagger: lesbiana oso «maskulinoa».

Cross-dresser: ustez beste sexuarenak diren jantziak janzten dituen.

Cross-dressing: ustez beste sexuarenak diren jantziak janztea. «Gurutzatuki janztea» ere erabili izan da liburuan.

Cross-generoa: ustez beste sexuari dagokion generokoa dena, edo genero horren ezaugarriak hartzen dituen. Ingelesezko *cross-gender* hitzaren ordain gisa erabili da.

Drag king: askotan, hitz hau erabiltzen da gizonenak izan ohi diren itxura eta estereotipoak imitatzen dituen emakumea izendatzeko.

Drag queen: *Mari-mutil handi baten blues* liburuan ondoriozta daitekeenez, garai batean, hitz honen bidez izendatzen ziren bai gizonetik andrerako transformistak, bai emakume transexualak.

Drag-taberna: *drag queenen* eta mari-mutilen taberna.

Emakume transexuala: emakumea, jaio zenean gizon kategorizatu zutena, zakila eta barrabilak izateagatik.

Femme: garai eta giro batzuetan, rol eta itxura bereziki «femeninoak» zituen emakume lesbiana.

Genero nahastailea: genero femeninokotzat eta maskulinkotzat hartzen diren ezaugarriak nahasten dituen pertsona. *Gender-blender* hitzaren ordain gisa erabili da.

Genero tolestailea: espero diren genero rolak hausten edo tolesten dituen pertsona. *Gender-bender* hitzaren ordain gisa erabili da.

Gizon transexuala: gizona, jaio zenean emakume kategorizatu zutena, alua izateagatik.

«**Gizonetik andrerako**» **trabestia:** gizona izanik ustez andreakenak diren jantziak janzten dituena. *Male-to-female transvestite* terminoaren ordain gisa erabili da.

«**Gurutzatuki janztea**»: ikus *cross-dressing*.

Intersexuala: pertsona bat zeinak aldi berean dituen ezaugarri sexual femeninoak eta maskulinoak, edo halakotzat hartzen direnak.

Mari-mutila: gehienetan mutilek izan ohi dituzten itxura eta keinuak dituen neska. Ingelesezko *butch* hitzaren ordain gisa erabili da.

Mari-mutil handia: oso mari-mutila, emozionalki itxia izan ohi dena. Ingelesezko *stone butch* hitzaren ordain gisa erabili da.

Emazte-gizona: gizon femeninoa edo emakume maskulinoa (Orotariko Euskal Hiztegian bi esanahiak agertzen dira). Ingelesezko *he-she* hitzaren ordain gisa erabili da.

O.a.: Oraingo Aroa.

O.a.a.: Oraingo Aroaren Aurreko.

Oraingo Aroa: Kristo ondorengo esamoldearen alternatiba bat. Ingelesezko *Common Era* esamoldearen ordaina.

Oraingo Aroaren Aurreko: Kristo aurreko esamoldearen alternatiba bat. *Before Common Era* esamoldearen ordaina.

Passing egitea: emakume transexual batek lortzea jendea ez dadila ohartu transexuala dela, edo gizon transexual batek lortzea jendea ez dadila ohartu transexuala dela.

Passing emakumea: jendeak gizontzat har dezala lortzen duen emakumea.

Passing gizona: jendeak emakumetzat har dezala lortzen duen gizona.

Queer: estrainioa, marikoia. Aktibista batzuek beretzat harrotasunez hartu dute jatorrian irain gisa erabiltzen zen hitz hau.

Sexu-berresleipena, sexua berresleitzea: prozedura kirurgiko bat da zeinaren arabera pertsona transgenero baten sexu-ezaugarriak aldatzen diren, itxuraz eta/edo funtzionalki, bat egin dezaten genero batek gehienetan izan ohi dituen sexu-ezaugarriekin.

She-male: trabestia edo emakume transexuala.

Trabestia: egileak ohar hau egiten du liburuan hitz honetaz: «nahiz eta pertsona ororen eskubidea defendatzen dudan *trabestia* hitza erabiltzeko beren burua definitzeko, nik gutxi erabili dut liburu honetan. (...) *trabesti* izena jaso duten askok uko egiten diote terminoari, burura ekartzen baitizkie patologia psikologikoko kontzeptuak».

Transgenerista: transgeneroa. *Transgenderist* hitzaren ordain gisa erabili da.

Transgeneroa: aterki-termino gisa erabili izan da, barnean hartzeko sexuaren eta generoaren mugak desafiatzen dituzten guztiak. Hala erabiltzen da liburu honetan.

Transa: ikus «transgeneroa». Idazleak liburuan bertan dioenez, liburu idatzi zuenean oraindik «transgenero» hitza zen ezagunagoa.

IRUDIEN JABEAK

30. Egilearen bilduma.
32. Mariette Patty Allen.
33. UPI/ Bettmann.
34. Ezkerrean: UPI/ Bettmann; eskuinean: The Bettmann Archive.
37. The Bettmann Archive.
38. Lyn Neely.
52. Bette Spero.
54. National Anthropological Archives, Smithsonian Institution.
55. National Museum of the American Indian, Smithsonian Institution, 34256 zkia.
56. T. D. Bonner, ed., *The Life and Adventures of James P. Beckwourth*. (New York: Harper and Bros., 2856).
59. National Anthropological Archives, Smithsonian Institution, 85-8666 zkia.
62. Ezkerrean: Seaver Center for Western History Research, Natural History Museum of Los Angeles County.
Eskuinean: M. P. Schildmeyer.
67. Rare Books and Manuscripts Division, The New York Public Library, Astor, Lenox and Tilden Foundations.
70. Ezkerrean: Rouen, Musée de Beaux Arts; eskuinean: Mary Edith Durhamen argazkia. Royal Anthropological Institute of Great Britain and Ireland. RAI #2713.
73. Ezkerrean: British Museum; eskuinean: O. P. Gilbert, *Women in Men's Guises*, The Bodley Head, Limited, London, 1932.
74. Ezkerrean: Art and Artifacts Division, Schomburg Center for Research in Black Culture, the New York Public Library, Astor Le-

- nox and Tilde Foudnations; eskuinean: Fondo Casaola, Fototeca del Instituto Nacional de Antropología e Historia.
77. Clarke Historical Library.
86. Mapping Specialists, Inc., Gary Wilson-en mapa batean oinarritua.
87. Ezkerrean: Hermitage museo estatala, San Petersburg, Errusia; eskuinean: Scala/ Art Resource, New York.
- 89-90. Argazki guztiak Pierre Verger-enak.
93. Kevin Bubriski.
95. Ezkerrean: Andrew Holdbrooke; eskuinean: Nathional Anthropological Archives, Smithsonian Institution.
96. Ezkerrean: Royal Anthropological Institute of Great Britain and Ireland, RAI #3159; eskuinean: Gregory Dunkel.
99. The Metropolitan Museum of Art, Rogers Fund and Edward S. Harkness Gift, 1929. (29.3.1).
100. Hulton Deutsch Collection Limited.
106. Ezkerrean: British Museum; eskuinean: Cleveland Museum of Art, 1995, Andrew R. and Martha Holden Jennings Fund, 70. 16.
107. Nationalmuseum Stockholm.
110. Ezkerrean: British Museum; eskuinean: Staatliche Museen.
111. Staatliche Museen.
118. The Phoebe A. Hearst Museum of Anthropology, University of California at Berkeley.
125. *Pope Joan* liburutik, Emmanuel D. Rhoides. Itzulp.: Lawrence Durrell. New York: Overlook Press, 1984, © 1966.
130. British Museum.
- 141 A.c.L. Brussel, Museum Mayer van den Bergh.
142. Goian eta erdian: Llyfrgell Genedlaethol Cymru; behean: Yamila Azize-Vargas Puerto Ricoko idazle feministaren kortesiaz, argazkia bilduma pribatuko da.
149. Goian: The Morning Leader; erdian: British Museum; *Evening Maileko* Stocktoneko marrazkia, 1897ko urriaren 9an.
150. Goian: O.P. Gilbert, *Women in Men's Guises*, The Bodley Head Limited, London, 1932; behean: UPI/ Bettmann.
151. Goian: Schartz/ Miller bilduma; erdian eta behean: Mansell bilduma.
152. Goian: Tje Guildhall Library; behean: Mansell bilduma.
166. Goi-goian: New Yorkeko QUEENS &KINGS Imperial artxibategitik, Long Island eta New Jersey; goian: Robert Giard; behean: Mariette Paty Allen; behe-behean: Andrew Holbrooke.

167. Goian: Albert Sanchez; behean: Mariette Paty Allen.
178. Goian: Jhalawar Museum, Rajasthan, India/ Art Resource, New York; behean: Department of Library Services, American Museum of Natural History.
179. Goian: Kevin Bubriski; behean: Bibliotheque Nationale de France.
182. Goian: Rare Books and Manuscripts Division, the New York Public Library, Astor Lenox and Tilden Foundations; behean: National Anthropological Archives, Smithsonian Institution, 74.662 zkia.
183. Library of Congress.
184. Viviane Moos.
190. Alison Bechdel.
195. Loren Cameron.
199. Egilearen irudia.
201. The Bettmann Archive.
202. Jennie Livingston.
207. Ezkerrean: Viviane Moos; eskuinean Steven Gillis.
210. Goian: Steven Gillis; behean: Mick Hicks.
211. Mariette Pathy Allen.
215. Mick Hicks.
216. Goian: Mariette Pathy Allen; behean: Saskia Sheffer.
218. Marcus Alonso.
219. John Nafpliotis.
220. Pauline Park-en bilduma pribatutik.
221. Morgan Holmes-en bilduma pribatutik.
221. V. Jon Nivens.
222. Maria Elena Boyd.
224. Dona Ann McAdams.
225. Mariette Pathy Allen.
226. Mariette Pathy Allen.
227. Stephanie Dumaine.
228. Martine Rothblatt-en artxibategitik.
229. Bo Headlam-en bilduma pribatutik.
230. Mariette Pathy Allen, *Transformations: Crossdressers and Those Who Love Them* (E. P. Dutton, Inc., 1989).
231. Catherine Opie.
232. Loren Cameron.
233. Stormé DeLaverié-ren bilduma pribatutik.

234. Dona Ann McAdams.
235. Robin Slavin.
236. Sharon Ann Stuarthen bilduma pribatutik.
237. Jennie Livingston.
238. Mariette Pathy Allen.
239. Kris Knutson-en bilduma pribatutik.
240. Mariette Pathy Allen.
241. Mariette Pathy Allen.
242. Mariette Pathy Allen, *Transformations: Crossdressers and Those Who Love Them* (E. P. Dutton, Inc., 1989).
243. Mariette Pathy Allen.
244. © Corbis-Bettman.

HITZATZEA

Duela lau bat urte ezagutu nuen Leslie Feinberg. Hain zuzen, Katakrakek argitaratu eta Fermin Zabaltzak itzulitako *Mari-mutil handi baten bluesa* liburuaren bidez. Hitzak irakurri bezala, liluratu egin ninduen Feinbergekin, haren historiak eta haren idazkerak; nolabait, geure historia kontatzen zidala iruditu zitzaidan. Hala, are eta gehiago irakurri, are eta gehiago ezagutu, lilura gero eta urrunago joan zitzaidan. Liburua amaitu bezala, ordea, lilurarekiko proportzionala zen haserre batek ere hartu zidan barrena. Haserre nengoen, ni neu, hain militante transfeminista tematua izanik, lehenago ez Feinberg ezagutu izanagatik, halako pertsona erreferente eta politikoki gertukoarengana heltzeko biderik lehenago topatu ez izanagatik.

Ondoren, liburuaren itzulpenaren aurkezpena iritsi zen. Bertan, Ferminek, ez dakit nire Feinberg ezagutu berriarekiko lilura hura ikusita edo, opari eder bat egin zidan: esku artean duzun liburuaren ingelesezko bertsioa, *Transgender Warriors*. Nire ingeles maila erdipurdikoa ere ulertuko nuela iradoki zidan Ferminek, eta etxera iritsi orduko ekin nion. Beste maila batera eramanez ninduen.

Sarri hitz egin izan da orain LGTBI komunitatea deitzen diogun horren erreferente faltaz. Azken aldian, ordea, garaiak hobetu direla esateko edo, gero eta erreferente gehiago daudela esan ohi da. Edonon omen gaude, uler bedi, telebistan, telesailetan edota liburuetan. Ez dakit zenbaterainokoa den hori bera, baina argi dudana da, historia errepikakor batean bezala ikusten ari garela, garai bakoitzak bere erara birformulatzen dituela

LGTBI komunitateen aurkako eraso eta fobiak. Froga bila ez dugu inguru gertukoenera begiratu besterik.

Feinbergekin hori ongi baino hobeto ezagutzen zuelako akaso, errorago doan ariketa proposatu zigun irakurri berri duzunarekin, zehazki, egungo erreferentei baino, geure historia isilaraziari begira jartzekoa. Bizipenei tiraka, ederki adierazten du, nola, haurtzaro zein gaztaroan, denbora luzez uste izan zuen, bera zela munduan hala sentitu eta bizi zen bakarra, inork inoiz ez ziola kontatu lehenago ere izan zirela egungo genero arau zurrunei ihes egin ziotenik, eta are, izan zirela egungo genero arau zurrunik ez zuten gizarteak ere. Honek berebiziko garrantzia du ustez erreferenteez lepo hazten ari diren belaunaldi berrientzat ere, ezin baitugu ahaztu ez garelako ezerezetik atera, ez garelako berriak, ez garelako inoiz baino askeagoak.

Beraz, orain euskaraz irakurri berri duzun liburu honek, Feinbergekin berak xehetu dizkizun gauza askotarako balio lezake, baina niri, lehen orriak irakurtzeari ekin nion egun hartan, azken aldiaren nebilkien amorrua baretzeko ere balio izan zidan. Konturatu nintzen gure genealogien ahuldadeaz, baina konturatu nintzen, baita ere, kasualitatekin gutxi zuela nik Feinberg lehenago ezagutu ez izanak. Hain zuzen, historiari desagertzera kondenatuta egon garelako hainbat gorputz, hainbat espresio, hainbat borroka. Existitu izan garen arren, kondenatuta egon gara, ez existitzera, jazartuak izatera, ahotsa galtzera.

Feinberg ez zen inoiz borroka bakarren aldekoa izan, hori ere ezin dugu ahaztu. Bere burua amaitezina den zapalkuntza zerrenda luze batekin izendatzen zuen. Zapalkuntza horietako asko berak bere haragitan bizitakoak izanagatik aldarrikatzen zituen, beste asko, aliantza ezinbestekotzat zuelako. Hortik ere badu liburu honetan aurkitu duzunak, alegia, borroka desberdinek haien artean duten beharraz, batasunaren garrantziaz, aliantzez, eta are interesgarriagoa dena, Feinbergekin, behin eta berriro erakutsi digu, zapalduak edonoren askapenerako borroka, denon askapenerako borroka ere badela. Alegia, ez duzula zeure burua genero-adierazpen bazterrekoetan nozitu behar askapen horren alde egiteko, zeren nola edo hala, askatasun horrek, egon zaitez ziur, zeure askatasuna ere ekarriko baitu. Bizi ditugun garai hauetan, gure gorputzetan tatuatzeko moduko mantra izan daiteke. Feinbergekin, badu latzaren aurrean

optimismo erradikalerako joera ere, eta bertan, zapalkuntzek ez, askatasunerako borrokek batzen gaituztela aditzera ematen digu. Bigarren tatuaje baterako modukoa hau ere.

Hitz hauek 1996ean idatzi zituen Leslie izeneko transgenero honek eta, horrek berak ere perspektiba nahikoa ematen du irakurketak errebisatzeko. Sarri, bere esaldi borobil askoren aurrean neure burua ikusi dut duela hamarkada pare bat idatzitakoek gaur egun duten pertinentzia berresten. Transfobia ez da XXI. mende politikoki asaldatu honetako asmakizuna; borroken arteko mailakatzea ez da gure garaiko ezkerren arrisku eta mamu berria; feminismoen eta LGTBI borroken joan-etorriko harremanak ez dira gaurko gatazkak.

Liburu honek ez du hitzaurrerik autoreak hala idatzita utzi zuelako. Akaso, badu bere zentzua, izan ere, zertarako baldintzatu egungo begiradatik jada historian behin eta berriro errepikatu diren gatazkak? Zertarako ohartarazi irakurlea irakurtzera doanaz bakoitzari bere gatazketan eragiten utzi ordez? Zertarako esan liburu hau zertarako den, historiako eta munduko momentu eta leku bakoitzak bere erronkak dituenen?

Horregatik, ez hartu hitzoste hau ere serioegi, batek daki noiz eta nondik irakurtzen ari zaren, batek daki zer dagoen borrokatzeko eta gordetzeko, baina ekin, utzi Feinbergen hitzei zugar bide egiten eta topatuko gara bidean.

Kattalin Miner

Egian, 2021eko irailean

